

Galemys pyrenaicus
Pirinioetako muturluzearen
ekologia espazial eta trofikoa:
kontserbaziorako funtsezko giltzarriak



Amaiur Esnaola Illarretaren
doktore tesia

Leioa, 2020
Euskal Herriko Unibertsitatea

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Etxekoei

Saia gaitezen eskuzabaltasuna eta altruismoa irakasten,
berekoi jaio baikara
(Richard Dawkins, Gene berekoia)

Galemys pyrenaicus
**Pirinioetako muturluzearen
ekologia espazial eta trofikoa:
kontserbaziorako funtsezko
giltzarriak**

Amaiur Esnaola Illarretak
Euskal Herriko Unibertsitatean
aurkeztutako doktore tesia,
Joxerra Aihartza eta Arturo Elozegi
doktoreek gainbegiratua.

Leioa, Euskal Herria, 2020

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Aurkibidea

Argitalpenak	24
Biltzarrak	24
Dibulgazioa.....	25
Esker onak	28
Laburpena.....	32
1. Kapituluua. Sarrera orokorra.....	36
Mundu-mailako “biodibertsitatearen krisia” eta ur gezatako ekosistemak.....	38
Pirinioetako muturluzea	41
Tesi honen testuingurua.....	59
Tesiaren helburuak	60
2. Kapituluua. Zitzu-premia: galzorian dagoen Pirinioetako muturluze erdi-urtarraren (<i>Galemys pyrenaicus</i>) urlasterrekiko hautua bi erreka desberdinetan	64
Laburpena.....	66
Hitz gakoak	66
Sarrera	67
Metodoak.....	69
Emaitzak	74
Eztabaida.....	78
Eskerrak.....	82
3. Kapituluua. Gorotzetatik abiatutako dieta azterketa: <i>Galemys pyrenaicus</i> Pirinioetako muturluzearentzako metabarcoding-erako hasleen hautaketa	84
Laburpena.....	86
Hitz gakoak	86
Sarrera	87
Material eta metodoak.....	92
Emaitzak	94
Eztabaida.....	98
Eskerrak.....	102
Informazio gehigarria	104

4. Kapituluua. Giroa da, ez menua. Harrapakin eskuragarritasunak ez du galzorian dagoen Pirinioetako muturluzearen habitat hautespena eragiten 108

Laburpena.....	110
Hitz-gakoak.....	110
Sarrera	111
Material eta metodoak.....	112
Emaitzak	116
Eztabaida.....	126
Ondorioak	129
Eskerrak.....	129
Informazio gehigarria	132

5. Kapituluua. Pirinioetako muturluzearen (*Galemys pyrenaicus*, Insectivora, Talpidae) dietaren karakterizazioaharrapakinen ezaugarri bereizgarriak (*traitak*) erabiliz 148

Laburpena.....	150
Hitz-gakoak.....	150
Sarrera	151
Material eta metodoak.....	152
Results.....	157
Eztabaida.....	164
Ondorioak	169
Eskerrak.....	170
Informazio gehigarria	172

6. Kapituluua. Eztabaida orokorra..... 178

Pirinioetako muturluzea: fosil bizia	180
Ekologia espaziala eta habitata.....	180
Ekologia trofikoa.....	182
Urlasterren garrantzia muturluzearen kontserbazioan.....	184
Etorkizunerako galderak (ezjakintasunak).....	186

7. Kapituluua. Ondorioak.....	192
1. Eranskina. Pirinioetako muturluzea (<i>Galemys pyrenaicus</i>) detektatzeko laginketa-metodo berria.....	198
Laburpena.....	200
Hitz-gakak.....	200
Sarrera	201
Material eta metodoak.....	202
Emaitzak	208
Eztabaida	209
Eskerrak.....	211
Erreferentziak	214

Argitalpenak

1. Artikulua

Esnaola, A., González-Esteban, J., Elosegi, A., Arrizabalaga-Escudero, A., eta Aihartza, J. (2018). Need for speed: Preference for fast-flowing water by the endangered semi-aquatic Pyrenean desman (*Galemys pyrenaicus*) in two contrasting streams. *Aquatic Conservation: Marine and Freshwater Ecosystems*, 28(3), 600-609.

2. Artikulua

Esnaola, A., Arrizabalaga-Escudero, A., González-Esteban, J., Elosegi, A., eta Aihartza, J. (2018). Determining diet from faeces: Selection of metabarcoding primers for the insectivore Pyrenean desman (*Galemys pyrenaicus*). *PLoS ONE*, 13(12), e0208986.

3. Artikulua

González-Esteban, J., Esnaola, A., eta Aihartza, J. (2018). A new sampling method to detect the Pyrenean desman (*Galemys pyrenaicus*). *Hystrix, the Italian Journal of Mammalogy*, 29(2), 190-194.

Biltzarrak

Esnaola, A., González-Esteban, J., Elosegi, A., & Aihartza, J. (2017). *Piriniotako muturluzearen (Galemys pyrenaicus) ekologia espazial eta trofikoa: kontserbaziorako funtsezko faktoreak*. IkerGazte Ikertzaile Euskaldunen II. Kongresua, Iruñea (Zientziak eta Natur Zientziak arloan saritua). [ahozko komunikazioa]

Esnaola, A., Arrizabalaga-Escudero, A., González-Esteban, J., Elosegi, A., & Aihartza, J. (2017). *A pilot dietary study using multiple primers to overcome prey detection biases in the generalist insectivore Pyrenean desman*. Ecological Networks and Molecular Analysis of Trophic Interactions Symposium, Uppsala. [ahozko komunikazioa]

Esnaola, A., González-Esteban, J., Arrizabalaga-Escudero, A., Elosegi, A., & Aihartza, J. (2017). *Ecología espacial del desmán ibérico (Galemys pyrenaicus): selección de hábitat en dos ríos cantábricos*. SECEM XIII. Conference, Guadalajara. [ahozko komunikazioa]

Elosegi, A., Esnaola, A., Arrizabalaga-Escudero, A., González-Esteban, J., & Aihartza, J. (2018). *Un modo de vida frenético: selección de hábitat y de dieta por el desmán ibérico*. XIX Conference of the Iberian Association of Limnology, Coimbra.

Esnaola, A., González-Esteban, J., Elosegi, A., & Aihartza, J. (2019). *Piriniotako muturluzearen (Galemys pyrenaicus) ekologia eta emari ekologikoen berrikuspena*. IkerGazte Ikertzaile Euskaldunen Kongresua, Baiona (Zientziak eta Natur Zientziak arloan saritua). [ahozko komunikazioa]

Esnaola, A., Larrañaga, A., González-Esteban, J., Elosegi, A., & Aihartza, J. (2019). *Trait-based prey-selection by Pyrenean desman, based on fecal metabarcoding*. 4th Symposium on Ecological Networks, Paris. [ahozko komunikazioa]

Dibulgazioa

Artikuluak

Esnaola, A. (2017). Pirinioetako muturluzearen kontserbaziorako funtsezko faktoreak ikertzen. *Elhuyar Zientzia eta Teknologia*, 327, 46-49.

Esnaola, A. (2019). Pirinioetako muturluzearen ekologia eta emari ekologikoen berrikuspena. *Elhuyar Zientzia eta Teknologia*, 336, 72-77.

Komunikazioak

Esnaola, A. (2017). *El desmán ibérico (Galemys pyrenaicus): realidad ecológica en Euskal Herria*. Ekologistak Martxan, Bilbo. [ahozko komunikazioa]

Esnaola, A. (2018). *Piriniotako muturluzea (Galemys pyrenaicus): ekologia eta kontserbazioa*. Astigarragako Kultur Etxea, Astigarraga. [ahozko komunikazioa]

Esnaola, A. (2018). *Piriniotako muturluzearen ezkutuko bizimodu frenetikoa*. Natur Zientzien III.Topaketa, Gasteiz. [ahozko komunikazioa]

Esnaola, A. (2018). *Bizimodu frenetikoa bake bila: ur-satorraren ekologia*. Natur Zientzien III.Topaketa, Gasteiz. [posterra]

Esnaola, A. (2019). *Piriniotako muturluzea: ikusgaitz izan arren ikusgai IkerGazten*. UEUren 2019/2020 ikasturtearen hasiera-ekitaldia, Eibar. [ahozko komunikazioa]

Irratia

Amarauna (Euskadi Irratia), 2014/08/16.

Ekosfera (Euskadi Irratia), 2017/05/04.

Amarauna (Euskadi Irratia), 2017/05/19.

Landaberri (Euskadi Irratia), 2018/06/09.

Esker onak

Tesi honek nire izena daraman arren jende askoren artean eraikitako zerbait izan da eta horregatik eskerrak eman nahi dizkiet urte hauetan zehar nire alboan egon eta nigan sinistu duten guztiei. Mila esker bihotzez!

Lehenik eta behin eskerrak eman nahiko nizkieke nire zuzendari izan diren Joxerra, Arturo eta Jorgeri. Joxerra, mila esker zure lan-taldearen parte izaten uzteagatik, urte hauetan erakutsitako guztiarengatik, saguzarra izan ez arren muturluzearekin lan egiteko aukera emateagatik, emandako askatasunarengatik eta lan hau ezin hobeto zuzentzeagatik. Arturo, eskerrak zuri behar izan dudan guztietan alboan izateagatik, zuzendari fina izateagatik eta natura beste begi batzuekin ikusten erakusteagatik. Jorge, aunque no seas director “oficialmente”, así lo has sido para mí, por lo que muchas gracias a ti por presentarme al desmán, por darme la oportunidad de trabajar contigo, por todas las “gaupapas” y por supuesto, por todo lo que me has enseñado.

Horrez gain, eskerrak tesi guztian zehar alboan izan ditudan Aitor Larrañagari eta Aitor Arrizabalagari. Zer egingo nuke nik zuek gabe? Eskerrik asko gainerako taldekide guztiei ere, Ane, Unai, Aitor, Miren, Nerea,... Leioako bisitak atseginagoak egiteaz gain, nire penak arintzen laguntzeagatik. Eta nola ez, gaupasak alaitu zizkigun Egoitz Salsamendiri, hasierako azterketa estatistikoetan alboan izan nuen Inazio Garini eta oligoketoekin lagundu zidan Pilar Rodriguezi. Leioan bazkal-orduak entretenigarriak egin zenituzten guztiei eta bidaiak merkeago egiteaz gain atseginagoak egin zenituzten kotxetxungoko kideei ere, eskerrak!

Muito obrigado to Hugo Rebelo for giving me the opportunity to develop my research in CIBIO, to Vanessa Mata and Mafalda Galhardo for helping me analyzing my data, and many thanks also to Catarina, Alessio and Aspassia (and the rest of the guys) for your excellent company in Portugal.

Ahaztu gabe, eskerrik beroenak laginketetan alboan izan ditugun basozainei, primerako laguntza teknikoa eman digun SGIker-eko Iratiri, egunerokotasuna erraztu didaten Donostiako liburutegiko langileei eta kopia-dendako Xabiri, eta lan hau posible egin duten Iñigo Mendiola eta Aitor Lekuonari (Gipuzkoako Foru Aldundikoak), eta Asunción Yarzabal eta Iñaki Urangari (Donostiako Udaletxeak).

Eskerrik asko lagunei, lanetik deskonektatzeko parada eman eta indarrak berreskuratzen laguntzeagatik, Garaziri maketazioarekin laguntzeagatik, Eñauti

eta Crespori marrazki polit horiek egiteagatik, eta nola ez, etxeko guztiei, amari, aitari, Larraitzi, Ilargiri, aitona-amonei, osaba-izebei eta lehengusu-lehengusinei, beti nire alboan egon eta ametsak amesten utzi eta egi bihurtzen laguntzeagatik.

Azkenik, Urkori. Eskerrik asko egunerokotasuna arindu eta une zailenetan ere irribarrea ateratzeagatik, bizitako une guztiengatik, eta bizitzeke geratzen zaizkigunengatik.

I am grateful to the following organizations who have funded my thesis: the EU project LIFE IREKIBAI (LIFE14 NAT/ES/000186) and the Basque Government (156P/2016 and IT754-13). This thesis was supported by a predoctoral grant of the Basque Government (PRE_2015_1_0408).

Laburpena

Pirinioetako muturluzea *Galemys pyrenaicus* (É. Geoffroy Saint-Hilaire, 1811) iturburuko erreketan bizi den eta nagusiki jarduera gautarra duen ugaztun intsektiboro erdi-urtarra da, galzorian dagoena. Endemikoa da Iberiar Penintsularen iparraldean eta Pirinioetan. Nahiz eta bere populazioen oraingo egoera ez ondo ezagutu, azken hamarkadetan bere banaketa-eremua %50 baino gehiago murriztu dela estimatu da, eta beraz, espezie Zaurgarri gisa sailkatuta dago Naturaren Kontserbaziorako Nazioarteko Batasunaren (IUCN) zerrenda gorrian. Beherakada honen atzean dauden arrazoiak ez daude argi, Euskal Herrian bezala saneamendu eta ur-arazketa zerbitzuei esker kutsadura gutxitzea lortu den herrialdeetan ere ematen ari delako. Espeziearen beherakada beste faktore potentzial batzuek eragiten dutela iradokitzen du horrek, eta haien artean habitat fisikoaren andeaketa nagusitzen da. Muturluzearen ekologiaren inguruko zenbait alderdi ongi ez ezagutzeak, ordea, kontserbaziorako neurrien diseinua zailtzen du. Hortaz, ikerketa eta kudeaketa premiazko gaiak dira muturluzearen kontserbaziorako.

Tesi honetan Pirinioetako muturluzearen ekologia espaziala ikertu da bi erreka desberdinetan: bata kontserbazio-egoera bikainean (Elama), eta bestea jarduera hidroelektrikorako ur-erazketa sistemen eraginpean egonik (Leitzarán). Helburua muturluzeak bere bizi-eremuen baitan egiten duen bazka-habitaten hautespena zehaztea zen, beren habitataren egokitasuna baldintzatzen duten faktoreak identifikatu ahal izateko. Irrati-telemetriak, Pirinioetako muturluzeak ur-bare eta putzuen aldean urlasterrak positiboki hautatzen zituela erakutsi zuen, bereziki ur-erazketen eraginpean zegoen errekan. Irrati-telemetriak, ordea, ezin zuen bereizi muturluzearen habitat-hautespena urlasterretako bazka-eskuragarritasun hobearengatik edo bestelako arrazoiren batengatik gertatzen ote zen. Hortaz, aldi berean Pirinioetako muturluzearen ekologia trofikoa ikertu nuen. Horretarako, DNA metabarcoding bidez dieta aztertzeo hasle desberdinen eraginkortasuna aztertu nuen aurrena, hasle bakoitzarekin zein euren konbinazioz lortzen zen estaldura taxonomikoa aztertuz. Gillet eta Zealeren hasleen artekoa izan zen, harrapakinen gama taxonomiko ahalik eta zabalena identifikatzeaz gain, muturluzea bera ere identifikatzeko konbinazio eraginkorra. Orduan, muturluzearen dieta eta harrapakin hautespena ikertu nituen, aldez aurretik aipaturiko bi erreka desberdinetan kaka-lekuetan bildutako gorotz laginak aztertuz. Kontsumitutako harrapakinak identifikatzeko 94 gorotz aztertu nituen DNA metabarcoding bidez erreka bakoitzean. Aldi berean, harrapakin eskuragarritasuna ere deskribatu nuen, erreka bakoitzeko habitat mota bakoitzean bildutako 10 Surber laginetatik. Harrapakin eskuragarritasuna eta dieta ezberdinak izan ziren erreken artean, muturluzea selektiboagoak izanik egoera ekologiko hobereana zuen errekan. Orokorrean, Simuliidae

eta Psychodidae (Diptera), Baetidae eta Heptageniidae (Ephemeroptera), Odontoceridae (Trichoptera) eta Gammaridae (Crustacea) hautatu zituen positiboki muturluzeak; Planorbidae (Gastropoda), Goeridae (Trichoptera), Perlidae (Plecoptera) eta Athericidae (Diptera) negatiboki hautatu zituen. Bazka eskuragarritasuna ez zen desberdina izan habitaten artean, eta hortaz ez zuen muturluzearen urlasterrekiko zaletasuna azaldu. Hori dela eta, Pirinioetako muturluzearen dieta hautespena zerk bultzatzen duen identifikatzeko berriro analizatu nituen datuak, oraingoan harrapakin espezieetan baino, haien ezaugarri —*trait*— biologikoetan zentratuz. Horrez gainera, muturluzearen habitat hautespena harrapakin *traitek*iko zaletasunen bidez azaltzerik ote zegoen ikertu, eta hobetsitako *traitak* bi ibaien artean desberdinak ote ziren aztertu nuen. Harrapakin *traiten* hautespena aztertzeko, muturluzeen harrapakin hautespenean eragin zezaketen 9 *trait* erabili ziren; horietako 4 (sakonerarekiko zaletasuna, korrontearen abiadurarekiko zaletasuna, substratuarekiko zaletasuna eta ur-fluxuarekiko esposizioa) segur aski habitat motaren (urlasterra, ur-barea edo putzua) eraginpean daude, eta beste 5 (substratuarekiko mugikortasun/lotura mota, arintasuna, agregazio joera, gorputzaren tamaina potentzial maximoa eta gorputzaren malgutasuna) habitatarekiko independenteak dira. Muturluzeek positiboki hautatutako harrapakin kategoriak hauek izan ziren: ur-zutabeen eta gune epibentikoan bizi diren harrapakinak, substratu gisa blokeak dituzten ur bizkorretan bizi direnak, ur-fluxuarekiko esposizioa dutenak, 2-8 mm-ko tamaina potentzialekoak, arintasun handikoak, taldekatuta bizi direnak, eta igerilariak zein substratuari lotzeko mekanismoak dituztenak. Bestetik, negatiboki hautatutako harrapakin kategoriak hauek izan ziren: ur-abiadura moteletan bizi direnak, substratu finen barrukoak, ur-fluxuarekiko gordeta bizi direnak, 2 mm baino tamaina potentzial txikiagoa dutenak, agregazio joerarik ez dutenak, eta herrestariak. Hobetsitako harrapakin *trait*-kategoria guztiak (gorputz malgutasun handia izan ezik) pixka bat ugariagoak izan ziren urlasterretan, baina aldeak txikiak ziren eta erreken artean aldakorak, eta hortaz litekeena da beste arrazoi batzuek azaltzea animalia honen urlasterrekiko zaletasuna —muturluzeen flotagarritasun naturalak, esaterako—.

Tesi honek, oro har, Pirinioetako muturluzearen habitat-erabileraren eta dietaren espezializazio handia berresten du. Hortaz gain, muturluzearentzako ur garbiak nahikoa ez direla ere azpimarratzen du, muturluzearen kontserbaziorako urlasterrak eta erreken konektagarritasuna funtsezko faktoreak izanik.

1. Kapitulua




Sarrera orokorra

Mundu-mailako “biodibertsitatearen krisia” eta ur gezatako ekosistemak

Gaur egungo giza jardueraren ondorioz Lurra gure planetak pairatzen duen biodibertsitatearen galera handia “biodibertsitatearen krisi” global gisa definitu da (ikus Abell, 2002), eta zenbait autoreren arabera seigarren iraungitze masiboaren aurrean gaude (Barnosky eta kideak, 2011; Leakey eta Lewin, 1997; Myers, 1990). Lurraren erabilera, kudeaketa-praktikak, kutsadura eta giza demografiaren aldaketak dira, besteak beste, galera horren eragileak (Root eta kideak, 2003; Rosenzweig eta kideak, 2008). Giza-eraginezko klima aldaketak are gehiago okertzen du joera hori (Walther eta kideak, 2002).

Euren azalera kontutan hartuz, ur gezatako ekosistemek biodibertsitatearen zati oso handia gordetzen dute (Dudgeon eta kideak, 2006). Ekosistema horiek, eta bereziki iturburuko errekek, biodibertsitatearen galera handiagoa jasaten ari dira mundu osoan zehar erasotuen dauden ekosistema lurtarrak baino (Richardson, 2019). Reid eta kideek (2019) barnealdeko uren mehatxu nagusien artean hidroelektrikaren hedapena, klima aldaketa, gaixotasun infekziosoak eta estresatzaile metagarriak sartu zituzten; mehatxu ertainen artean, aldiz, e-salerosketa, inbasioak, algen loraketa kaltegarriak, argia eta soinua, ur-gezen gazitzea eta kaltzioaren beherakada aipatu zituzten, eta eragin ez horren garbiko mehatxuen artean, kutsatzaileak.

Bide askeko ibaietan bizidunen sakabanaketa ibilguan gora zein behera eman daitekeelako mantentzeko daiteke biodibertsitatea. Baina zatitutako eta erregulatutako ibaietan sakabanaketa hori mugatuta egon daiteke. Ibilguko egitura fisikoek, ibaiko emariaren aldaketek, edota oztopo efektua eragiten duten uraren kalitatearen aldaketek arriskuan jar dezakete ibaien konektagarritasuna (Grill eta kideak, 2019). Nilsson eta kideek (2005) ikertutako ibai-sistema handien erdia baino gehiago presen eraginpean daude, eta Europa da aldaketarik gabeko ibai-sistema handien proportzio baxuena duen kontinentea. Vörösmarty eta kideek (2010), gizakien eta biodibertsitatearen ikuspuntuak batera kontutan harturik, estresatzaile desberdinek ur-gezatako baliabideetan inpaktu larriak dituztela erakutsi zuten (1. Irudia). Autore hauen arabera, 2000. urtean munduko populazioaren ia %80 gizakiontzako ur-ziurgabetasunaren mehatxua zuten edo biodibertsitate-mehatxuak 75-eko pertzentila gainditzen zuten guneeetan bizi zen, eta munduko ibaien emarien eta ur horrek eskainitako uretako habitaten %65-ak mehatxu ertaina edo altua zuen. Munduko ibaien zati txiki bat besterik ez zen mantentzen aldaketarik gabe. Herrialde aberatsek uraren teknologian egindako inbertsio masiboek estresatzaile maila altuak konpentsatzea



1. Irudia. Gizakiontzako ur-ziurgabetasunaren mehatxuen (“*Incident human water security threat*”) eta biodibertsitatearen mehatxuen (“*Incident biodiversity threat*”) mundu-mailako geografia. Mapak erakusten dituen gizakiontzako ur-ziurgabetasunaren eta biodibertsitatearen inpaktu pandemikoak, haien artean oso koherenteak izan arren, ez dira erabat berdinak. Vörösmarty eta kideen (2010) lanetik moldatutako irudia.

ahalbidetzen dute, baina horien atzean dauden kausak konpondu gabe; aberastasun gutxiago duten herrialdeek, aldiz, zaugarri izaten jarraitzen dute.

Iragarritako ingurumenaren aldaketa globalak eragindako biodibertsitate galerak, ekosistemen funtzionamendua eta hauek gizartea ondasun eta zerbitzuez hornitzeko zuten gaitasuna aldatuko ditu (Cardinale eta kideak, 2012), gizakiontzan zuzenean eraginez. Ur-gezatako biodibertsitateak ondasun (adb. janaria, arrainak) eta zerbitzu (adb. ur gabia eta hondakinen asimilazioa) baliotsu ugariz hornitzen ditu gizarteak, horietako batzuk ordezkaezinak izanik (Covich eta kideak, 2004). Barnealdeko urek, hain zuzen ere, baliabide natural baliotsua eraten dute ekonomiari, kulturari, estetikari, zientziari eta hezkuntzari dagokienean, eta horien kontserbazioa eta kudeaketa erabakigarriak dira

herrialde eta gobernu guztien interesentzako (Dudgeon eta kideak, 2006). Adibidez, Mekong ibaiaren bailaran, biztanleak arrantzaren eta arrozaren nekazaritzaren menpe daude, eta bi jarduera hauek ibaiko uraren kalitatearen eta kantitatearen menpekoak dira. Akuikultura komertzialerako arrain esplotazio handiek eta presa hidroelektriko handien eraikuntzak, ordea, arrainen stockak murriztu, migrazioa eragotzi, eta nekazaritzan eragiten dute, lehorte eta uholde artifizialak eraginez (Coates eta kideak, 2005; Hortle, 2009). Aldakuntza horiek bertako biztanlegoaren sostengua mehatxatzen dute, bizimodua aurrera ateratzeko baliabide naturalen beharra dutelako. Ur-gezatako perlek ere gainbehera izan dute. Historikoki, ur-gezatako muskuiluak oso ugariak izan dira mundu osoan zehar, baina gaur egun galtzeko arrisku handiena duten organismo taldeen artean daude (Moorkens eta kideak, 2017). Giza-jarduerak espezie askoren banaketaren gainbehera eragin du, besteak beste arrainena (adb. ibai-aingira *Anguilla anguilla*; Jacoby eta Gollock, 2014), anfibioena (adb. baso-igel pirinioarra *Rana pyrenaica*; Bosch eta kideak, 2009), eta dortoka, kokodrilo zein izurde batzuen gisako bestelako megafaunarena (He eta kideak, 2019). Gai kezkarri bat zera da: espezie bat galdu orduko, bertako gizarteak berataz ahanzteko joera duela eta, hortaz, ez direla kontziente ibaiak euren egoera naturaletik zenbat desbideratu diren (Soga eta Gaston, 2018). Joera horri “*shifting baseline*” edo “abiapuntu aldakor” izena eman izan zaio (McHarg, 1969). Gaizkata arrunta (*Acipenser sturio*) eta Europar kastorea (*Castor fiber*), esaterako, ahaztutako espezieen adibide onak dira. Arduragabekeria horren parte bat zerbitzuen arteko trukeak eskala espazial eta tenporal desberdinean ematen direlako gertatzen da: ekosistemak sinplifikatzearen irabaziak tokikoak izaten dira, baina kostuak aldiz beste kokaleku batetan dauden pertsoneri edo etorkizuneko belaunaldiei transmititzen zaizkie (Cardinale eta kideak, 2012).

Iturburuko errekek ur-gezatako ekosistema sentikorrenen artean egonik, ekosistema paregabeak dira, euren ingurura oso konektatuta daudenak: urte-sasoika moderatutako tenperaturak izaten dituzte; areriorik gabeko espazioak izaten dira (ez delako harrapari handirik izaten bertan, edo oso gutxi egoten direlako); eta erlatiboki espezie askori babeslekua eskaintzen dioten ingurune fisiko egokiak izaten dira (Richardson, 2019). Ibai-ekosistemen egitura dendritikoak ondorio interesgarriak ditu biotan, guztiz urtarrak diren izakien mugimenduan eragiten duelako, eta gutxiago anfibioetan. Ur-gezatako animalien banaketa ibaien sarera mugatuta dago (Hughes, 2007) eta iturburuko errekek isolatuta egoten dira, batetik bestera mugitzeko ibaian behera jaitsi eta berriro igo egin behar izaten baita (Fagan, 2002). Populazioen tamaina txikia eta gene-fluxu mugatuari lotutako isolamenduak, populazioen arteko bereizpen genetiko altua eta endemismoak ugariak izatea dakar (Sterling eta kideak, 2012). Populazio oso ezberdinez osatutako izakien adibide ditugu Ipar Ameriketako ibai-karramarroak (Taylor eta kideak, 2007) eta ur-gezatako muskuiluak (Inoue eta kideak, 2014). Gaur egun asko dira mehatxatuta dauden

ur-gezatako espezieak, eta adierazleek populazioen gainbehera azkarra eta iraungipen arrisku handia iradokitzen dute (Reid eta kideak, 2019).

Dudgeon eta kideek (2006) gogorarazi zutenez, gizakiok urarekiko ditugun eskakizunen joerak aldaketarik gabe mantentzen badira, eta espezieen galerak gaur egungo erritmoan jarraitzen badu, ur-gezatan geratzen den biodibertsitate gehiena kontserbatzeko aukerak galdu egingo dira. Beraz, ur-gezatako biodibertsitatearekiko eta ekosistemen kudeaketarekiko jarrera aldaketa handia behar da. Reid eta kideek (2019) zenbait erraminta eta teknika aurkeztu zituzten ur-gezaren kontserbaziorako. Ur-gezatako komunitateetan, ordea, espezie gehienak paregabeak dira (Sheldon, 1988), eta ez dira ongi ezagutzen, ez beren historia naturalak (ekologia, biologia, eta abar.), ez eta euren gainbeheraren arrazoiak. Ur-gezatako espezieak kontserbatzeko lehenengo pausoa degradazioa eragiten duten kausak geldiaraztea da, besteak beste kutsadura, habitaten aldaketa eta gain-ustiaketa. Nahiz eta espezie askoren mehatxuen inguruko ezagutza eskasa izan, naturaren kontserbaziorako lehenengo pausoa ikerketa gehiago egitea dela esateak espezie horiek iraungitzea dakar, denbora nahikorik ez dagoelako galtzeko arrisku handiena duten espezieak iraungi aurretik garrantzitsua den informazio gutzia lortzeko (ikus Croxall eta kideak, 2012).

Pirinioetako muturluzea

Ezaugarri morfologikoak

Pirinioetako muturluzea *Galemys pyrenaicus* (É. Geoffroy Saint-Hilaire, 1811) (2. Irudia) satorren familiako (Talpidae) intsektiboro erdi-urtarra da. Bere gorputza 11.5-13.5 cm luze da, isatsa 10-16 cm luze, eta heldu baten masa 44-76 g da (Nores, 2012). Bere ahaideak diren satorrak — *Talpa* sp. — ez bezala, muturluzea igeriketarako moldatua dago, atze-hankak aurre-hankak baino handiagoak izanik (Palmerim eta Hoffmann, 1983). Hondoari ongi eustea ahalbidetzen dioten atzapar sendoak ditu, eta igeriketa errazteko mintz interdigitala du hatzen artean, oinarrian. Aurre-hankak txikiak dira eta ez daude zulaketarako moldatuta. Atze-hankak aldiz handiagoak dira, ezkataz estaliak, eta kanpoaldean luzeak, sendoak eta konpaktuak diren ileen ilara bat dute. Isatsa, ia biluzia, ezkataz eta ile gogor gutxi batzuek estalirik dago, ebaketa zilindrikoa du punta zapalduan izan ezik, eta igeriketean lema gisa erabilia izan daiteke. Isatsaren oinarrian musketa-likidua jariatzen duen guruin bat izaten du, segur aski euren lurraldeak markatzeko erabiltzen duena (Palmerim eta Hoffmann, 1983; Richard eta Viillard, 1969). Muturra da Pirinioetako muturluzearen




2. Irudia. Pirinioetako muturluzea. Argazkia: Amaieur Esnaola.

ezaugarri bereizgarriena: ilerik gabeko tronpa bat da, eta bere amaieraren alde dortsalean sudur-zuloak irekitzen dira. Beren aurpegi luzatuak eusten ditu goiko intzisibo nabarmenak (4. Irudia), eta beren hortz-formula 3.1.4.3/3.1.4.3 da (Palmerim eta Hoffmann, 1983). Satorraren antzera, Pirinioetako muturluzeak oso begi txikiak eta kanpotik ikusezinak diren belarriak ditu, barrunbe zilindriko batetara murriztuak izan direnak.


Muturluzearen bibrisak, satorrarenak baino luze eta lodiagoak, muturraren bi aldeetan daude kokatuta eta txikitu egiten dira tamainaz alde distalerantz jo ahala (Richard, 1981). Ilazkia eta babes-ileak gorputzean zehar banatuta daude. Muturluzeek bi babes-ile mota dituzte, *leithaar* izenez ezagun diren babes-ile zuzenak eta *grannen* deritzaien zorrotz-okerrak (Poduschka eta Richard, 1985). Azken horiek errazak dira identifikatzen, muinik ez dutelako, euren erdi-alde distala barnealderantz tolesturik dutelako eta lantza-mutur baten formako gune zapal apikala aurkezten dutelako. Ezaugarri horiei esker, ileek muturluzearen gorotzen identifikaziorako garrantzi berezia dute, orrazketaren ondorioz ustekabean irensten dituztelako (Stone, 1987b).

Muturluzearen gorputzak, marroixka izan arren, urpean brontze eta zilarrezko distira metalikoak islatzen ditu, bere ile-mota bereziei esker: *grannen*-en espatula formako guneak animalia biziaren zein hilaren ilajeen distira eta



3. Irudia. Pirinioetako muturluzearen kanpoko sexu-organoen alboko ikuspegia: (a) ar gaztea (urte 1 baino gutxiagokoa), (b) ar heldua (2 urte baino gehiagokoa), (c) eme gaztea (urte 1 baino gutxiagokoa), eta (d) eme heldua (2 urte baino gehiagokoa). Uzki-papila (ap), zakila (p) eta gernu-papila (up) ageri dira irudian. Arretan guriak agerian uzteko, prepuzioa kendu zen. Eskala-barra: 1 mm. González-Esteban eta kideen (2003) lanetik berreskuratutako irudia.

iridiszentzia ikuskorrak eragiten ditu (Puissegur, 1935). Tronparen eta gorputz-adarren azala belzkara da eta zilar koloreko ileak ditu. Alde dortsala bentrala baino argiagoa da. Haragi-kolore argia du isatsak, eta ile zuriska edo horixkak ditu. Kolorea, tamaina eta masarekiko dimorfismo sexuala, dagoenean, ez da nabaria. Hare gehiago, ugal-sisteman hautematea ere zaila da, bi sexuek zakil-itsurako organoa baitute. Muturluzeen sexuaren identifikazioan arku pelbiko oso fina da lagungarri (Peyre, 1957): eme helduetan 5 mm inguruko hutsune biguna hauteman daiteke, eta ar helduetan berriz arkua beti itxita egoten da. Ernalketa



4. Irudia. Hartz-higatzea Pirinioetako muturluzean. (a) Goiko letaginaren forma (ezpain-aldea) ezarritako bost higatze klaseetarako; goiko 1. aurreko hagina (P¹), goiko letagina (C¹) eta goiko 3. intzisiboa (I³) irudikatu dira. (b) Muturluze baten garezurraren aurpegi-aldea (alboz); koadroak (a)-n azaldutako goiko barailaren zatia erakusten du. (c) Indizean erabilitako goiko letaginaren koroaren altuera (HCC). González-Esteban eta kideen (2002) lanetik berreskuratutako irudia.

garaian, baginaren irekidura irekita eta pigmenturik gabe izateari esker bereiz daitezke emeak (Richard, 1986). Dena den, González-Esteban eta kideek (2003b) urte-sasoirekiko independentea den sexuak identifikatzeko metodo berria aurkeztu zuten: kanpoko sexu-organoak presio arin batez zapalduz hauek kanpora aterarazten dira, eta arretan kono itxurako guruina ikusten den artean, emeek gernu-papila luze eta fina soilik erakusten dute (3. Irudia).

Muturluzearen adina ezin da masatik ondorioztatu eta inork ez du inoiz muturluze jaioberririk ikusi. Richardek (1976) eta González-Esteban eta kideek (2002) adinaren zehaztapenerako kriterio batzuk ezarri zituzten. Alde batetik, kriterio kuantitatibo bat proposatu zuten, luzera kondilobasalarekiko (LCB) eta goiko letaginaren koroaren altueraren (HCC) arteko balio erlatiboan oinarritutako indizea (D) erabiliz, non $D = (CCH/LCB) \times 100$. Hala eta guztiz ere, kriterio semikuantitatiboa da gehien erabiltzen dena, non goiko letaginaren higatzean oinarriturik ondorengo klaseak zehazten dituzten (4. Irudia): 0) 1. urtean, osorik edo pixka bat kamustuta soilik dagoen letagina ageri da; 1) 2. urtean, kamustutako gailurra duen letaginetan, higadurak koroaren laurdena hartzen du; 2) 2.-3. urteetan, higadurak koroaren erdia hartzen du; 3) 3.-5. urteetan, higadura maximora heltzen da eta gutxi gorabehera koroaren hiru laurdenak hartzen ditu; 4) 3.-6. urteetan, letaginen koroaren erabateko higadura gertatzen da, hortzen bi erroak bereizita ikus daitezke, eta 2. eta 3. intzisiboen oso antzekoak dira tamainari eta formari dagokionean.

Zentzumenen mundua

Muturluzeak itsuak dira ia, baina bazka ikusmenaz kokatzeko gai ez diruditen arren, argiaren intentsitatearen aldaketak hautemateko gai direla uste da (Richard, 1973). Muturluzeek soinu bitxi batzuk igor ditzakete (garrasi ozen gisa deskribatuak) manipulatuak direnean edo espezie bereko beste kideekin topo egiten dutenean, nahiz eta normalean isilik gelditzen diren (Richard, 1973). “Danbor-jotze” arraro bat ere egiten dutela esan izan da, uraren azalera aurre-hankekin joz (Richard, 1973). Nahiz eta Niethammerrek (1970) hori “bazkal ostean eskuak garbitzeko” jokabide gisa interpretatu, Richardek (1981) bibrazioen bidez uraren azaleko oztopoak detektatzeko egiten zutela proposatu zuen. Badirudi muturluzeek oso mekanohartzaille garatuak dituztela, bibrisa luze eta konplexuekin eta Eimerren organoekin (Bauchot eta kideak, 1973), zeinak muturluzeen muturra oso sentikorra izatea eragiten duten. Ugaztun urtar gehienetan bezala, bibrisak ugariak, luzeak eta sendoak dira, euren erroetan mugiezinak, eta inerbazioetan aberatsak (Richard, 1985b). Muturraren hiru laurdena baina gehiago bibrisen nerbio eferenteez estalirik dago, eta hauek gertu dauden objektuekiko kontaktua zein igarotzen den uraren mugimendua hautematen dute. Bai bibrisak eta baita Eimerren organoak ere arrainen albo-

lerroarekin konparatu izan dira (Richard, 1973; Sarko eta kideak, 2007). Eimerren organoak epidermisetik irtendako nerbio ehunaren inguruan pilatutako zelulen egitura dute (Richard, 1981, 1985b), talpidoen mekanohartzaile eksklusiboak dira, eta animaliairen muturraren amaieran mm² gutxitan 100.000 baina gehiago izan daitezke. Kontaktuairekiko eta animaliairen mugimenduaren ondoriozko uraren presioaren aldaketekiko oso sentikorak dira, eta uretan oztopoen detekzioa ahalbidetzen dute. Tronpak urpeko oztopoekin talka egitea oztopatzeko edota bazka topatzeko balio duela ikusi izan da (Richard, 1973, 1985b).

Kimiohartzaileei dagokienean, mingaineko dastamen organoen eskasiak (Richard, 1986) muturluzeek murgildutako beren harrapakinak usaimenaz detektatzen dituztela iradokitzen du (Richard eta Micheau, 1975; Richard, 1986). Jacobsonen organoa ere muturluzearen material likidoekiko kimiohartzaile garrantzitsua dela iradoki izan da (Richard, 1985b). Jacobsonen organoa barnealdetik zimurtuta dagoen hobiska sinple bat da, ahoaren inguruko uretan disolbatuta dauden molekula usaintsuak modu pasiboan jasotzen dituen usaimen-mukosa bat duena (Richard, 1986). Organo bikoitz honen ahoko irekidurak zailak dira topatzen, bi balbulaz ezkutaturik daudelako. Horiek goiko intzisiboen atzean daude kokatuta, ahosabai bigunean, ahotik sudur-barrunbera edukiak itzultzea ekidinez, eta usaimenaz aztertze hartu den urari pasatzen utziz. Badirudi beheko intzisiboek balbula horiek irekitzen laguntzen dutela, ahosabai biguna estutuz (Richard, 1986). Usaimen-organo paregabe hau normalean ez da ugaztun helduetan agertzen, baina intsektiboroetan mantendu egiten da, eta bereziki garatua dago Talpidoetan. Muturluzeak burbuilak botatzen ditu urpean sudur-zuloetatik (Richard, 1986), beraz, baliteke muturluzeek ere beren harrapakinak urpean usainduko dituztela, aire-burbuilak botaz eta arnastuz, Errusiako muturluzean (*Desmana mochata*, Ivlev eta kideak, 2013) eta antzeko ekologia duten *Sorex palustris* (Catania eta kideak, 2008) eta *Condylura cristata* (Catania, 2006) bezalako beste ugaztun batzuetan deskribatu izan den bezala.

Ugalketaren biologia

Frantziako Pirinioetako 500 banako baina gehiagoren azterketa histologikoa egin ostean, Peyrek (1962) azaldu zuen muturluzeen araldia eta erditze-garaia urtearen lehen erdian kontzentratzen dela, eta emeek erditu osteko araldia dutela, urteko gehienez hiru kumaldi izanik. Kumaldiak 1-5 kumekoak ziatez dira, 4-ko modarekin (Peyre, 1956). Zoritzarrez, naturan ez da inoiz muturluzeen kumerik edo kumedun habiarik ikusi. Berriki egindako ikerketa batek (Escoda eta kideak, 2019) iradokitakoaren arabera, muturluzeak ez dira urte bat izan arte ugaltzen, ez dira monogamoak —emeak ar desberdinekin ernaltzen baitira ugalketa desberdinetan—, eta kumeez emeak soilik arduratzen dira.

Bizi-eremuak eta mugimenduak

Markatze-berratzemate tekniketan oinarrituz, Richard eta Viallardek (1969) muturluzeen bizi-eremua definitzeko lehenengo saiakera egin zuten. Bizi-eremua funtsean errekan zeharreko zati linear baten gisan definitu zuten, eta bere luzera hamarnaka metrotatik gehienez 200 metrotarainokoa izan zitekeela ikusi. Arrek eta emeek bizi-eremua konpartitu dezaketela esan zuten. Gatibutasunean mantendutako animaliak ere ikertu zituzten eta, nagusiki gautarrak izan arren, eguerdian bazkatzeko jarduera-une bat zutela azpimarratu zuten. Palmerim eta Hoffmannen (1983) ustez, muturluzeek “buruz ikasitako” ezagumendua dute beren bizi-eremuaren inguruan, izan ere edozein objekturen lekualdaketak animalia nahasten zuela behatu baitzuten, eta muturluzeek euren lurraldeak babesten zituztela ere esan zuten, sexu berekoen artean ere oldarkorrek izanik.

Nahiz eta Richardek (1985a) gatibutasunean mantendutako muturluzeak udazken eta neguan udaberrian eta udaran baino aktiboagoak zirela esan (segur aski ugalketa garaiarekin lotuta), irrati-telemetria lanak hasi arte ezin izan zen landako muturluzeen jarduera ikertu. Era horretako lehenengo ikerketan, Stone eta Gormanek (1985) banako batzuk bakartiak izan arren helduek normalean neurri handi batean eskusiboak izaten diren bizi-eremuak kontrako sexuak banakoekin konpartitzen zituztela esan zuten. Emeen bizi-eremuak (301 ± 6.8 m; $n = 7$) beren bikotekide arren eremu handiagoen (429 ± 10.0 m; $n = 7$) baitakoak izaten ziren eta bizilagunak ziren arren arteko eremuak neurri handi batean eskusiboak izanik ere, gainjartze maila bat erakusten zuten. Elkarren segidan bizi ziren emeen, zein eme eta arren artean, ez zen gainjartzerik ikusi. Bestalde, gazteak 249-300 m-ko luzerako eremu erlatiboki txikitik bizi ziren. Elkarren segidan bizi zirenen jarduera sinkronizatuta zegoela zirudien, izan ere bikote bakoitzeko kideak habiatik errekan gora mugitzen baitziren jarduera-aldi batean, eta errekan behera hurrengoan, 24 orduetan euren eremu guztia estaliz. Honela, bizilagunen arteko liskarrak denborazko isolamenduaz saihesten zirela iradoki zuten.

Stonek (1985) muturluzeek euren bizi-eremuekiko zuten leialtasun sendoa berretsi zuen, eta beren populazioak gune berean bizi diren muturluze ar eta eme heldu banaz osatutako talde sedentarioez eta gazteak zein heldu nomadak izan daitezkeen banako iragankorrez osatuta zeudela esan zuen. Muturluze iragankorren (bakartien) deskribapena nahasgarria izan daiteke, izan ere baliteke beren bizi-eremuan harrapatu ez diren beste banako batzuk egotea. Stonek eme eta gazteek, ar helduek ez bezala, habien inguruan euren eremuen amaieretan baino denboraren proportzio handiagoa pasatzen zutela gehitu zuen. Arren mugimenduen erregulartasuna lurraldearen mugapenerako metodo garrantzitsua zela gehitu zuen —usain seinaleak etengabe berrituz,

gorotzez zein isats-azpiko sebo-guruinaz—, era berean, bizilagunen zein animalia iragankorren etorreraren kontrako uxatzaile gisa jarduten zuelarik. Stoneren arabera, muturluze guztiek (ar batek izan ezik) habia nagusi bakarra erabiltzen zuten, banako bakoitzarentzako eskusiboa zena. Stonek (1987b) gazteek bizilagunak ziren muturluzeekin edo beste gazte batzuekin neurri handi batean eskusiboak ziren zein guztiz gainjarriak ziren eremuak erabiltzen zituztela esan zuen. Muturluzeen antolaketa espaziala lurraldetasun forma bat dela iradoki zuen, izan ere espezie bereko banakoek oso jarrera oldarkorra baitute eta euren eremuko gunek bakoitzarekin ezagutza altua lortzen baitute, egunero ohiturazko mugimenduen patroia bat jarraituz. Habietako grabagailu automatikoak erabiliz ikerketa batek (Stone, 1987a) muturluzeei bi babesleku mantentzen zituztela plazaratu zuen, bata atsedenerako aldi laburretarako (10-15 min) era irregularrean aldi baterako erabiltzen dena, eta bestea, aldi luzeagotarako erabiltzen den habia nagusia. Lehenago deskribatu den bezala, banakoek bi jarduera-aldi desberdin erakusten dituzte 24 orduko aldi bakoitzean, egunean zeharreko aldi labur batekin eta gauean zeharreko aldi luzeago batekin. Patroia hori harrapakinen jarduera altuena den momentuan aktibo egotearekin lotuta egon zitekeela iradoki zuen.

Chora eta Quaresmak (2001) Portugalen eginiko lehenengo irratitelemetria lana argitaratu zuten, zeinak muturluzearen mugimenduetan jarduera hidroelektrikorako sistema txikiak zuten eragina ebaluatu zuen. Muturluzeei presa baxuak gaituztela esan zuten. Melero eta kideek (2012) Katalunian muturluzeen bizi-eremua batazbeste 523 ± 50.85 m-koa zela, sexuen arteko desberdintasunak esangarriak ez zirela, eta espeziea guztiz lurraldekoa ez dela esan zuten. Bestalde, espezie bereko banakoen artean erasorik ematen ez zela behatu zuten, elkarrekintza sozialak ohizkoak izanik, eta sexua edo adina edozein zelarik ere banakoek euren artean habiak konpartitzen zituztela esan zuten. Atsedenerako lekuen sarrera urperatuta edo erdi-urperatuta egoten zen normalean. Melero eta kideek (2014) muturluzea nagusiki gautarra zela eta bere jarduera-patroia udaberrian bimodala eta udazkenean trimodal-tetramodala izan zitekeela erakutsi zuten. Egunean zeharreko mugimenduak zuzenak ziren beti, aurrerako eta atzerako mugimendurik gabeak. Aurrerako behaketen aldean, autorek jarrera oldarkorren seinalerik gabeko banakoen arteko topaketak ikusi zituzten. Hortaz, Melero eta kideek muturluzeei euren jarduera edo jokabide espaziala espezie bereko banakoak saihesteko aldatzen ez dutela iradoki zuten.

Oztopoak eta isolamendua

Escoda eta kideek (2017), Errioxako DNA laginak erabiliz, bizilagunak ziren populazioen arteko harreman genetiko txikia aurkeztu zuten, muturluzeei ibaien artean gutxitan mugitzen direla adieraziz. Bestalde, emaitzek artoen arteko

banalerroak lehorreko mugimenduen bidez zeharkatu zitzaketela iradoki zuten. Escoda eta kideek (2019) pedigrietan oinarrituriko ikerketa bat erabili zuten Zamorako DNA laginekin oztopo desberdinen (hots, arro arteko banalerroen eta presen) eragina ebaluatzeko. Belaunaldiko sakabanatze-distantzia 4 km-koa zela eta emeen arteko filopatria handiagoa zela ohartu ziren. Eskualdeko oztoporik garrantzitsuena ibaien arroen arteko banalerroa zela ondorioztatu zuten, presa handi batez eta sakabanatzean eragin txikiagoa zuten presa txikiagoez jarraituz. Zatiketak eta konektagarritasun mugatuak endogamiaren beheraldia eta, azkenik, muturluze populazioen tokiko iraungitzeak eragin ditzaketela ondorioztatu zuten autoreek.

Habitata

Muturluzearen habitataren lehenengo deskribapen ezagunak (Trutat, 1891) ibai txikiak, erroten kanalak eta zelai zingiratsuak nahiago zituela eman zuen aditzera. Cabrerak (1914) muturluzeak erreka eta ibai handien ondoan bizi direla eta ibai-ertzeko arrakala eta barrunbeetan edo ur-arratoiek irekitako zuloetan babesten direla azaldu zuen. Peyrek (1956), espezie honen habitataren lehen deskribapen osoan, Pirinioetako muturluzea edozein ibilgu motatan bizi dela azaldu zuen, mendiko erreka txikietatik ibai handietara, baita erroten kanaletan ere, baldin eta bi baldintza betetzen badituzte: lehena, ur erregularra, hotza eta oxigenatua, faunan oso aberatsa, funtsean intsektuen larbez eta krustazeoz osatua, eta bigarrena, babesleku natural edo artifizialen presentzia. Peyrek muturluzearen jokabidea ere deskribatu zuen, bere jarduera handia eta ohitura gautarrak nabarmenduz, nahiz eta egunean zehar bazka bilatzeko txango azkarrak egin ditzakeen, bereziki ugalketa-garaian. Hark azaldu zuen muturluzeek oso igeri gutxi egiten dutela ur azalean, eta horren ordeztu murgilaldi luzeak egiten dituztela, non hondoon zehar tronparekin harri txikiak altxatzen edo harean aztarrika egiten ibiltzen direla dirudien.

Azken hamarkadetan modelo desberdinak egin izan dira muturluzearen presentzia baldintzatzen duten faktoreak argitze aldera. Barbosa eta kideek (2009) Espainia, Portugal eta Iberiar Penintsulako muturluzearen banaketarentzako lehenengo modelo aurkeztu zuten. Ondoren, Morueta-Holme eta kideek (2010) muturluzearen Espainiako banaketa modelizatu zuten klima aldaketak horren gainean nola eragiten duen ikusteko. Morueta-Holme eta kideek esan zuten gaur egungo klima, eta bereziki uraren balantzea eta udarako tenperatura direla espeziearen banaketaren mugatzaile nagusiak, nahiz eta ziur aski eskala handiagoan sakabanatzeak ere banaketa izugarri mugatuko duen. Horren ostean Frantzia egindako modeloetan oinarrituriko ikerketa berri batean, ordea, Williams-Tripp eta kideek (2012) prezipitazioari eta ez tenperaturari loturiko faktoreen garrantzia nabarmendu zuten. Hiru

urte beranduago, Frantziar Pirinioetako datuak aztertuz, Charbonnel eta kideek (2015) emariaren aldaketek, substratuaren heterogeneotasunak eta babeslekuen presentziak muturluzeen gorotzen detektagarritasunean eragina izan zezaketela iradoki zuten, muturluzeen habitaten okupazioa eragiten zuen faktore nagusia emaria zen bitartean. Haiek emari altua ornogabeen ugaritasunarekin lotuta dagoela, zeinak Pirinioetako muturluzearen harrapakin nagusiak diren, eta emariaren garrantziak urlasterrekiko zaletasuna iradokitzen duela eztabaidatu zuten.

Tesi hau hasi baina lehenago argitaratutako modeloetan oinarrituriko ikerketa guztiek bereizmen espazial eskasa zuten eta muturluzeen gorotzak detektatzea posible zen erreka-tarteetako datuetan soilik oinarritzen ziren. Ikerketa horien emaitzek erreka-tarte bakoitzeko substratuen heterogeneotasunaren eragina izan dezakete eta ez dute mikrohabitat mailako muturluzeen zaletasun espaziala ez eta espazioaren erabileraren intentsitatea bereizten uzten. Aurretiaz egindako irati-telemetry lanei dagokienean, haiek alderdi sozialetan jartzen zuten arreta habitataren erabileran jarri beharrean, eta beraz ez zuten muturluzeen tokiko baldintzen deskribapena egitea ahalbidetzen. Tesi hau hasi zenetik modeloetan oinarrituriko lan gehiago argitaratu dira: lehenengo, Biffi eta kideek (2016) Frantziar Pirinioetako hiru eskualde hidrologikoetan muturluzeez okupatutako ibai-tarteetan tokiko eskalan neurtutako habitat faktoreen inguruko informazioa eskaini zuten, Charbonnel eta kideek (2016) Frantziar Pirinioetako muturluzeen banaketa historikoa eta gaur egungoa konparatu zituzten bitartean; ondoren Quaglietta eta kideek (2018) bi garaien arteko iraungitze tasa neurtu zuten Portugalen; eta duela gutxi Biffi eta kideek (2019) habitata ezaugarritu dute tokiko eskalan Frantziar Pirinioetan. Hala ere, ikerketa horietako bakarrak ere ez du muturluzeen bizi-eremuen baitako mikrohabitat desberdinen erabileraren intentsitatea aztertu. Ikerketa hauek 2. eta 6. Kapituluetan eztabaidatu dira.

Bazka-ekologia

Zuzeneko behaketetan oinarrituriko lehenengo ikerketek (Cabrera, 1914) muturluzea nagusiki intsektuez bazkatzen zela esan zuten, nahiz eta arrainak eta krustazeoak ere lortu nahi izaten zituzten. Urdailaren edukien lehenengo analisisiek (Puissegur, 1935) intsektuen larbak (segur aski Plecoptera eta Trichoptera), intsektu txikiak (bereziki lurtarrak) eta krustazeoak identifikatu zituzten, baina ez arrainen hondarrak. Peyrek (1956) antzeko emaitzak lortu zituen eta Gammaridoak dietaren oinarria zirela ondorioztatu zuen, urte osoan zehar eskuragarri zeudelako. Gatibutasunean zeuden muturluzeez bareak eta irin-zomorroak (*Tenebrio molitor*), eta baita amuarrainak ere jaten zituztela esan zuen, zeinak guztiz jaten dituzten, hondarrik utzi gabe. Richard eta Viallardek (1969) gatibutasunean muturluzeez fauna urtar txikia —gastropodoak barne—

nahiago zutela esan zuten, baina harrapakin lurtarrak ere onartzen zituztela, zizareetatik artropodoetara. Ikertzaile haiek muturluzeek akuario guztiaren hondoa nola miatzen zuten deskribatu zuten, ahal izanez gero harrapakin txikiak baino handiak (5 vs. 15 cm) eta ez-mugikorrek baino mugikorrek hobetsiz, eta horiek uretatik kanpo janez. Muturluzeek jandako bazka-kantitatea oso handia zen, horrelako intsektiboro txiki batean esperoko litzatekeen bezala.

Santamarina eta Guitianek (1988) Galiziako zortzi muturluzeren hesteetako edukiak aztertu zituzten eta maizen jandako harrapakinak Ephemeroptera (aleen %35,8), Trichoptera (%32), Diptera (%24) eta Plecoptera (%4,3) zirela ikusi zuten. Kontsumitutako bolumenak neurtzerakoan, ordea, Trichoptera (%67,4) eta Ephemeroptera (%20,7) izan ziren talderik garrantzitsuenak. Baetidae, Leptophlebiidae, Simuliidae eta Limnephilidae ziren familiarik ohikoenak, azken familiarik izanik bolumenean ehuneko balio altuenak zituztenak. Jandakoa eskuragarri zutenarekin konparatuz, Santamarina eta Guitianek muturluzeek moluskuak eta kakalardo urtarrak (Dryopidae eta Elmidae) negatiboki hautatzen zituztela adierazi zuten. Bertrandek (1992) urtebetez Frantziar Pirinioetan bildutako 521 heste laginen emaitzak argitaratu zituen. Jandako taldeak Amphipoda, Ephemeroptera, Plecoptera, Trichoptera, Coleoptera eta Diptera izan ziren, eta euren maiztasunak urtaroen artean aldatu ziren. Muturluzeek harrapakin bentikoak, berezko energia balio altua zuten harrapakinak (estalkirik gabeko Triopteroak, vs. Limnephilidae) eta esklerifikazio maila baxuko harrapakinak hautatu zituzten positiboki. Santamarinak (1992) Galizian 2 heste aztertu zituen udan, 2 udazkenean eta 2 neguan. Trichoptera izan zen nagusi dietan, eta segidan Ephemeroptera, Amphipoda, Annelidae, Diptera eta Odonata. Santamarinak (1993) muturluzeek udaran nagusiki Sericostomatidae eta *Ephemerella* jaten zutela azpimarratu zuten, udazkenean Gammaridae, Lumbricidae, Philopotamidae eta Tipulidaera aldatuz, eta neguan Sericostomatidae, Limnephilidae, Lepidostomatidae eta Hydropsychidaera. Bestalde, ikertutako urtaro guztietan muturluzeek Hydrobiidae, Elmidae eta Chironomidaerekiko hautespen negatiboa erakutsi zutela, eta horiez gain udazkenean Ephemerellidae eta neguan Leptoceridae ere sailhesten zituztela behatu zuen. Castián eta Gosálbezek (1995) Nafarroako 46 heste lagin aztertu zituzten eta harrapakin garrantzitsuenak Ephemeroptera (Heptageniidae), Trichoptera (biomasan garrantzitsuenak), Diptera (Simuliidae, Chironomidae, Limoniidae eta Athericidae) eta Plecoptera zirela topatu zuten. Ephemeroptera eta Trichopteraren kontsumoa gutxi aldatu zen urtaroen artean, Plecoptera udazkenean eta udaberrian, eta Diptera neguan harrapakin ohikoagoak ziren bitartean. Espezie lurtarrak oso urriak izan ziren muturluzeen dietan (< %4). Castián eta Gosálbezek (1995) muturluzea nagusiki oso mugikorrek ez diren (Trichoptera) ornogabe handiez, eta txikiak izan arren ugariak diren beste taxon batzuek (Ephemeroptera larbak) bazkatzen den espezie estenofago gisa deskribatu zuten. Euren laginetan ez zuten arrairik identifikatu.

Pasadizo gisa, Quaglietta eta Bejak (2019), Portugalen, erdi-gatibutasunean, muturluzeek amuarrainak eta igelak harrapatzen zituztela azaldu zuten.

Metabarcoding bidezko dieta azterketak

Berriki, DNAREN Errendimendu Altuko Sekuentziazioa (EAS —*HTS, High Throughput Sequencing*—) bezalako metodo molekularrak iraultzaileak izan dira dieta azterketetan, gorotzetako DNAtik jandako aleak espezie mailan identifikatzea ahalbidetzen duelako, baita ikusmenaz bereizi ezin diren hondarretatik ere (Clare eta kideak, 2009; Valentini eta kideak, 2009; Bohmann eta kideak, 2014; Pompanon eta Samadi, 2015). Gillet eta kideak (2015) lehenak izan ziren DNA metabarcoding-a muturluzearen dieta aztertzeko erabiltzen. Frantziar Pirinioetako 16 gorotz laginen azterketak 11 familia eta 4 ordenetako (Diptera, Ephemeroptera, Plecoptera eta Trichoptera) 19 harrapakin espezie identifikatzea ahalbidetu zuen. DNA metabarcoding-aren abantaila nagusi bat Pirinioetako muturluzea gorotzen egile gisa identifikatzea ere ahalbidetzen zuela izan zen.

Metodo molekular horiek, ordea, zenbait muga dituzte. Alde batetik, DNA hesteetan zeharreko trantsizioaren bidez, zein gorotzak ingurumeneko egoeretara esposizioan egotearen ondorioz, degradatu egiten da (Deagle eta kideak, 2010; McInnes eta kideak, 2017; Oehm eta kideak, 2011; Symondson, 2002). Horrez gain, metodo molekularren sentikortasun altuak positibo faltsu ugari sortu ditzake bigarren mailako harraparitzaren, sarraski-janaren edo bestelako jatorrizko kutsaduraren ondorioz (Sheppard eta kideak, 2005). Hare gehiago, DNA metabarcoding-aren emaitzak erabilitako hasleen, PCR estrategien, sekuentziazio prozesuaren, erabaki bioinformatikoen edo datu-baseetan eskuragarri dagoen informazioa bezalako xehetasun metodologikoen arabera aldakorrak dira (Alberdi eta kideak, 2018; Brandon-Mong eta kideak, 2015; Divoll eta kideak, 2018; Piñol eta kideak, 2019). Dieta azterketetako positibo faltsuek eta negatibo faltsuek ondorio sendoak izan ditzakete harrapariaren ekologiaren interpretazioan zein ekosistemen kudeaketan (Hines eta Gessner, 2012). Hortaz, harrapakin taxon garrantzitsuen identifikazio arrakastatsua gako da harrapariaren paper ekologikoaren eta espezializazio trofikoaren inguruko zentzuzko ondorioak lortzeko (Schwarz eta kideak, 2018; Waraniak eta kideak, 2018).

Tesi hau hasi zenean metodo horiek ez ziren muturluzearekin erabiliak izan oraindik, eta beraz, ezagutza gutxi zegoen eskala fineko bere ekologia trofikoaren inguruan, zeina espeziearen kontserbaziorako gako izan zitekeen. Tesia egin bitartean, ordea, zenbait ikerketa argitaratu ziren: lehenengo, Biffi eta kideak (2017a) muturluzeen dieta deskribatu zuten Frantziar Pirinioetan, 383 gorotz

aztertzeke Gillet eta kideek (2015) probatutako hasleak erabiliz; ondoren, Biffi eta kideek (2017b) Frantziar Pirinioetako beste 184 gorotz lagin aztertu zituzten muturluzearen eta ur-satitsuaren (*Neomys fodiens*) dietak konparatzeko; eta berriki, Hawlitsch eta kideek (2018) muturluzearen Zamorako (Espainia) 41 gorotz aztertu dituzte, hasle desberdin batekin. Ikerketa hauek 4., 5. eta 6. Kapituluetan eztabaidatu dira.

Interakzioak beste espezie batzuekin

Muturluzeek habitata ur-satitsuarekin (*Neomys fodiens*), ur-zozoarekin (*Cinclus cinclus*) eta amuarrain arruntarekin (*Salmo trutta*) partekatu arren, euren dietak ez direla asko gainjarriko aurreikusi da (Santamarina, 1993). Ur-satitsuarentzako berriki egindako lanek egiaztatu egin dute aurrikuspina (Biffi eta kideak, 2017b). Bestalde, muturluzearen harrapariak dira igaraba arrunta (*Lutra lutra*, Adrian eta kideak, 1988; Callejo eta Delibes, 1987), lertxun hausgara (*Ardea cinerea*; González eta Román, 1988), amiamoko zuria (*Ciconia ciconia*; Hernández, 1988), zapelatz arrunta (*Buteo buteo*; Bustamante, 1985), urubi arrunta (*Strix aluco*; Nores, 2012) eta hontza zuria (*Tyto alba*; González eta Román, 1988; Purroy eta kideak, 1988). Amerikar bisoiak (*Neovison vison*) muturluzeen populazioetan sarraskia eragin duela uste da (Nores eta kideak, 2007), nahiz eta ez dagoen horren frogaririk. Azkenik, muturluzearen bizkarroien artean akaroak (*Eadidea desmanae*; Luckoschus, 1969), trematodoak (*Omphalometra flexuosa* var. *peyrei*, Vaucher, 1975; *Maritrema pyrenaica*, Jourdan, 1979; *Matovius galemydis*, Mas-Coma eta kideak, 1985) eta nematodoak (*Aonchotheca galemydis*, Álvarez-Mascato, 1991; *Paraucaria hispanica*, Álvarez eta kideak, 1994) daude.

Filogenia eta taxonomia

Geoffroy Saint-Hilairek (1811) Pirinioetako muturluzea *Mygale pyrenaica* gisa izendatu zuen. Horren ostean, Kaupek (1829) *Galemys* generoaren baitan ber-sailkatu zuen. Azkenik, Millerek (1912) finkatu zuen gaur egungo nomenklatura. Orain, muturluzeak Eulipothyphla ordenan, Talpidae familian eta Desmaninae subfamilian bilduta daude.

Datu molekularren arabera, muturluzearen eta sator arruntaren erroak duela 37 Mu bereizi ziren (Douady eta Douzery, 2003), Zenoziokoaren ekuatorean, izotz aro txiki batean, Eozenoaren amaierako garai hotz handienaren atarian. Banaketa horrek, muturluzeek espezializazio urtarrean aurrera eta bizimodu industrialean atzera egin zutela adierazten du. Fosilen erregistroak erakusten duenez, Miozenotik —duela 9,0 eta 5,3 Mu artean— Europa eta Asian muturluze

espezie pila egon ziren (Rümke, 1985).

Gaur egun, bi muturluze espeziek soilik diraute bizirik: Pirinioetako muturluzeak eta Errusiar muturluzeak (*Desmana mochata*, Linnaeus (1758)). Espezie horiek Desmaninae subfamilia osatzen dute (Cabria eta kideak, 2006) eta duela 10,05 Mu banatu zirela dirudi (Colangelo eta kideak, 2010). Beraien banaketak disjuntuak dira, eta erraza da espezieak euren artean bereiztea (Palmerim eta Hoffmann, 1983). Errusiar muturluzea handiagoa da, isatsa luzera guztian zehar du zanpatua, eta proportzionalki mutur laburragoa du.

Banaketa

Galemys fosilak Pliozenoaren amaieratik —duela 5,33 eta 2,58 Mu artean— Europa ia osoan dira ezagunak, Poloniatik Portugalera eta Hungariatik Ingalaterrara (Harrison eta kideak, 1988; Rümke, 1985). Genero honen banaketa, ordea, hego-mendebaldera murriztua izan zen Pleistozenoaren hasieran —duela 2,58 eta 0,78 Mu artean— (Arribas, 2004), eta gaur egun *Galemys pyrenaicus* eskualde Iberiar-Piriniarrera dago mugatuta. Kontrazio hori muturluze txikiek mendiko erreketan bizitzeko emandako espezializazioaren hazkuntzarekin azaldu liteke (Nores, 2012), segur aski Europako beste mendiek bezainbesteko glaziazio prozesua jasan ez zuen Iberiar Mendietan babeslekua topatu zutelako.

Azken hamarkadetan muturluzearen banaketa %50 baino gehiago murriztu da Iberiar Penintsulan eta Pirinioen iparraldean (MAGRAMA, 2013; Charbonnel eta kideak, 2015). Gaur egun Iberiar Penintsularen iparraldeko eremu menditarretara mugatzen da bere banaketa, Sistema Zentraletik eta Serra da Estrelatik Iberiar Sistemara eta Pirinioetara (Nores eta kideak, 2007). Euskal Herrian, Iberiar Penintsularen iparraldean, tesi hau egin den eremuan, Leitzarán, Urumea, Bidasoa, Larraun, Basaburua, Ultzama, Arga, Irati, Salazar eta Ezka erreketan ageri dira muturluzeen populazioak (Castién eta Gosálbez, 1992). Espeziearen egoera kaskarra da, kutsadura gutxitzeari esker kontserbazio egoerak hobera egin duen erreketan ere txikiagotu egin baitira bertako populazioak (Ihobe, 2012; Rubio, 2016; URA, 2017).

Mehatxu-faktoreak


Muturluzearen kontserbaziorako mehatxu faktore nagusi gisa populazioen zatiketa, habitataren degradazioa eta bazka eskasia identifikatu dira (Nores, 2012), baina giza jarduera desberdinen ondorioak dira horiek (5. Irudia). Zatiketa eragile bat presak eta urtegiak dira. Muturluzeek ez dituzte erabiltzen

edo gutxi erabiltzen dituzte urtegiak, eta horiek emarien erregimenean dituzten efektuek errekan behera tarte luzeetan izan dezakete eragina. Muturluzeak bizi diren eremu menditar askotan ur-erazketa jarduera gehigarri bat da, bereziki instalazio hidroelektriko txikiekin lotua, eta desbiderapen-kanalen eraginpean dauden erreka tarte luzeetan izugarri emari baxuak egotea eragiten du (MAGRAMA, 2013; Queiroz eta kideak, 1996). Horrez gain, erazketa-kanalak heriotza-eragile garrantzitsuak izan daitezke muturluzeentzako (Chora eta Quaresma, 2001; Elozegi, 2010). Ibaien kanalizazioek eta rip-rap zein bestelako uholdeen defentsarako obra zibilek ere eraginak dituzte ibilgu eta ibai-ertzetan, habitataren narriadura eta erreken heterogeneotasunaren galera eraginez, eta muturreko egoeretan erreka tarteak guztiz desegokiak bihurtzea eragin dezakete. Ibaitezko landarediaren suntsiketa ere jarduera kaltegarri gisa aipatua izan da, habia egiteko lekuak murrizten dituelako, uraren tenperatura emendatzen duelako eta ornogabeen emankortasunean eraginak izan ditzakelako (Queiroz eta kideak, 1996). Uraren kutsadura mehatxu faktore bat izan daiteke, jakina, bereziki nekazaritza intentsiboaren eta produktu fitosanitarioen erabileraren ondorioz (kutsadura lausoa), zein hirigune, etxalde edo industriari loturiko kutsatzaileen jatorri puntualeko ekarpenaren ondorioz. Azken hamarkadetan, muturluzeen jatorrizko helmenaren gune askotan ur-kutsadura murriztu bada ere, konplexuagoa ere bihurtu da, ibai eta erreka askotan kutsatzaile berrien kopuru handiak topatu baitira (Petrovic eta kideak, 2016). Leku batzuetan uretako kirolak muturluzearentzako faktore kaltegarri gehigarri bat izan daitezke, janariaren ekoizpenean eragin dezaketelako edota nahi gabe animaliak molestatu ditzaketelako. Txintxarraren erazketa ere garrantzitsua izan daiteke, bereziki mendien behealdeko ibaien txirikordatutako guneetan, ibilguaren forman eta egonkortasunean eragin larriak izan ditzakelako (Brown eta kideak, 1998). Jakina da legez kontrako arrantzak ere muturluzeen ustekabeko heriotzak eragin ditzakela, trasmallo sareetan eror daitezkeelako (Queiroz eta kideak, 1996) edo ibaiak hipokloritoarekin pozoituta. Gainera, kanaberarekin arrantzatzen duten arrantzale batzuek, muturluzea amuarrainen stockentzako mehatxua delakoaren ustetan, harrapatu izan dute (Fernandes eta kideak, 2008). Bestalde, bildumazale amorratuen zuzeneko jazarpena mehatxua zen (Richard, 1976). Espezie inbaditzaileek, Amerikar bisoiak (*Neovison vison*) bereziki, eragin negatiboak izan ditzakete muturluzeen populazioetan (Fernandes eta kideak, 2008). Azkenik, klima aldaketa biodibertsitate guztiari, eta baita ur-gezatako espezieei ere, eragiten dion mehatxua da.

Kontserbazio-egoera

Atzerakadaren joera

Espezie honen populazio-tamainaren eta gainbehera-tasaren kalkulu zehatzak




5. Irudia. Mehatxu faktore batzuen adibideak. (a) Presa bat Leitzaran ibaian; (b) Añarbe errekaen tarte bat ia guztiz lehortzen duen ur erauzketa bat; (c) Ullako nekazaritza intentsiboa; (d) Miñon giza erabilerarako lurren aldaketa; (e) ibai-ertzaren suntsiketa Tobian. Argazkiak: Jorge González-Esteban eta Amaïur Esnaola.

lortzea zaila bada ere (González-Esteban eta kideak, 2003a), kliman eta hidrogian oinarrituriko modeloek muturluzeen banaketa potentzialak txikiagotzen jarraituko duela iradokitzen dute (Araújo eta kideak, 2011). Gainera, Charbonnel eta kideek (2016) azken hiru hamarkadetako Pirinioetako muturluzearen banaketaren atzerakada klimaren, hidrogaren eta lurren erabileraren aldaketen bidez azaldu daitekeena baino askoz azkarragoa izan dela esan zuten. Horrek argi eta garbi erakusten du goian zerrendatutako horiek bezalako beste faktore batzuek eragin handia dutela espeziean.

Populazioen genetika


Fosilen hondarretatik deskribatutako lau *Galemys* espezieetatik (Rümke, 1985) *G. pyrenaicus* bakarrik gelditzen da bizirik. Nahiz eta zenbait autorek (Cabrera, 1914; Ellerman eta Morrison-Scott, 1951) bi subespezie bereizi izan dituzten (*G. p. pyrenaicus* Pirinioetan eta Kantauriar mendikatean eta *G. p. rufulus* Sistema Zentralean), azken ikerketek gezurtatu egin dute (González-Esteban eta kideak, 1999). Aitzitik, muturluzeak bi talde nagusitan multzokatzen diren muga geografiko argiko eta parapatria nabarmeneko lau klado genetikotan banatzen dira (6. Irudia; Igea eta kideak, 2013): A1 kladoa Iberiar Penintsulan ageri da, Portugaletik Galiziara eta Kantauriar mendikatearen erdialdera; A2 kladoa Sistema Zentralean eta Iberiar Sistemaren hegoaldean; B1 kladoa Kantauriar mendikatearen erdialdetik Iberiar Sistemaren iparraldera; eta B2 kladoa Kantauriar mendikatearen ekialdeko mendi-hegaletik Pirinioetara. Populazio hauetan topatutako dibertsitate genetikoaren balioak bat datoz glaziazio osteko Holozenoan babesleku glaziarretatik eremu desberdinetara emandako berkolonizaziotik esperotako patroiekin. Kontaktu-eremuetan ez ziren klado horien arteko trukeak behatu, nahiz eta ez dirudien muturluzeen sakabanatzeari eragingo zion ageriko oztoporik zegoenik (ikus ere Querejeta eta kideak, 2017).

Definitutako kladoen inguruan ordea desadostasuna dago. Querejeta eta kideek (2016) bost talde genomikotan oinarrituriko populazio-egitura posible bat aurkeztu zuten, mendikate nagusiekin bat egiten zuena: Pirinioak, Mendebaldea, Kantauriar Mendiak, Iberiar mendikatea eta Sistema Zentralea (7. Irudia). Datu nuklearrekin eraikitako taldeek nahiko ondo egiten zuten bat Igea eta kideen (2013) lerro mitokondrialen lehenengo banaketarekin (A eta B), baina desberdintasun aipagarri batzuk zituzten goi-mailako banaketetan. Hare gehiago, Frantziar Pirinioetan zentratuz eta datu nuklearrak erabiliz, Gillet eta kideek (2017) Igea eta kideek (2013) deskribatutako B2 kladoaren baitan genetikoki eta geografikoki desberdinak ziren hiru talde topatu zitezkeela erakutsi zuten (ekialdekoa, erdialdekoa, eta mendebaldekoa). Gillet eta kideek (2017) Frantziako taldeetan behatutako aniztasun genetikoaren maila baxuek —bertako endogamia koefiziente altuek eta populazioen tamaina-eraginkor txiki



6. Irudia. Pirinioetako muturluzearen *Galemys pyrenaicus* historia ebolutiboaren eta Igea eta kideek (2013) zehaztutako lau kladoen irudikapen eskematikoa. Eremu grisak espeziearen banaketa historikoa adierazten du, lau lerro mitondrialen gaur egungo eremuak kolore desberdinez erakutsi diren bitartean. Glaziazio garaiko babesleku hipotetikoak puntuzko zirkuluekin irudikatuta daude. Zirkuluen tamainak babeslekuaren garrantzi erlatiboa adierazten du eta geziek horietatik emandako kolonizazio-bideak seinalatzen dituzte. Igea eta kideen (2013) lanetik berreskuratutako irudia.

samarrek nabarmendu dutenez— eta heterozigotoen eskasiak, espeziearen iraungitze-arriskua hazten ari dela iradokitzen dute.



7. Irudia. Querejeta eta kideek (2016) proposatutako bost taldeak, neurri handi batean espeziea agertzen den mendikate nagusiekin bat egiten dutenak. Banakoak sektore-diagramen bidez adierazi ziren eta horietako bakoitzaren nahasketa-proportzioak kolore desberdinen bidez trazatu ziren. Ilundutako eremuak iturri desberdinen arabera espeziearen gaur egungo banaketa irudikatzen du. Occident = Mendebaldea, Cantabrian Mount. = Kantauriar mendikatea, Central System = Sistema Zentrala, Iberian Range = Iberiar mendikatea, Pyrenees = Pirinioak. Querejeta eta kideen (2016) lanetik berreskuratutako irudia.

Babes legala

Pirinioetako muturluzea Bernako Hitzarmenaren (II. Eranskina) (OJEC, 1982) eta Europako Habitaten Zuzentarauaren bidez (II. Eta IV. Eranskinak) (OJEC, 1992) babesturik dago. Pirinioetako muturluzearen populazioen gainbeheraren eraginez zerrenda gorri desberdinetan barneratzea ekarri zuen. Gaur egun, Zaurgarri gisa (A2ac+3c+4ac) zerrendatua dago Naturaren Kontserbaziorako Nazioarteko Batasunaren (IUCN) zerrenda gorrian (Fernandes eta kideak, 2008), Galzorian Euskal Autonomia Erkidegoan (EHAA, 2011) eta Interes Bereziko kategorian Nafarroan (Boletín Oficial de Navarra, 1995). Frantziar lurraldean 2007ko apirilaren 23ko ministro-ordenaren bidez (JORF, 2007) dago babestuta.

Tesi honen testuingurua

Pirinioetako muturluzearen egoera larria kontutan izanda, oraindik ezagumendu gabedia garrantzitsua zegoela uste izan zen, bereziki kontserbaziorako funtsezkoak ziren gaien inguruan, espeziearen ekologia espaziala eta trofikoak kasu. Ekologia espazialari zegokionean, muturluzeen habitataren inguruko azken lanek erreka tarteetan muturluzeen gorotzen presentziarekin lotutako tokiko habitat faktoreen inguruko informazioa eskaini zuten, baina ez zituzten mikrohabitat mailako okupazioa kontrolatzen zuten faktoreak identifikatu, zeina gakoa den espeziearen beharrak ulertzeko. Alde batetik, gorotz laginek espeziearen presentzia datuak soilik eskaintzen dituzte —negatibo faltsuak barne—, baina ez dute habitat mota desberdinen erabileraren intentsitatea neurtzea ahalbidetzen. Bestalde, ordura arteko ikerketek muturluzearen banaketak ingurumeneko faktore desberdinekin zuen lotura aztertu zuten — baliteke horietako batzuek elkarren arteko korrelazioak izatea —, baina ez zituzten espeziearen mikrohabitat mailako banaketaren funtsezko faktoreak zehazten. Bestalde, hautespen-patroiak espazioan eskuragarritasuneko aldean arabera aldatzen zirenez (Ayllón eta kideak, 2010; Boyce eta kideak, 2016), euren habitat-zaletasunak eragiten dituzten faktore gakoak ulertzeko beharrezkoa da muturluzeez ingurune desberdinetan ematen dituzten jokabidezko erantzunak aztertzea. Ekologia trofikoari zegokionean, tesi hau baino lehen egindako lanek muturluzeez zein harrapakin talde nagusi jaten zituzten erakutsi zuten. Lan horiek ordea ez zuten bereizmen taxonomiko fineko informazioa eskaini, eta ez zituzten muturluzeen harrapakinak euren ezaugarri morfofuntzionalen eta morfoekologikoen arabera ikertu. Bestalde, muturluzearen moldapen/muga sakonagoekin lotuta egon zitekeen tokiko habitat-erabilera bazka eskuragarritasunaren edo beste faktoreren baten arabera zen argitzea erabakigarria zela iruditu zitzaigun.

Tesiaren helburuak

Goian aipatutako arrazoiketan oinarrituz, Doktorego Tesi honen helburua Pirinioetako muturluzearen kontserbaziorako ezagumendu zehatzagoa lortzeko bere ekologia espazial eta trofikoaren inguruko ideia bat ematea da. Tesiaren helburu zehatzak honakoak dira:

- 1) Muturluzearen bizi-eremuaren baitako bazka-habitat zaletasunak zehaztu, bere habitaten egokitasunean eragiten duten faktoreak identifikatu ahal izateko.
 - Habitat hautespena ematen ote den eta positiboki eta negatiboki zein habitat hautatzen dituen (urlasterrak, ur-bareak eta putzuak) frogatu.
 - Habitat hautespena bi ibai desberdinen artean desberdina ote den egiaztatu.
- 2) Dieta eta muturluzearen beraren identitatea modu ez inbasorean metabarcoding bidez zehazteko hasle desberdinak frogatu.
 - Gorotz laginetatik filogenetikoki anitza den dietaren eta harrapariaren identitatearen karakterizazioan hasle desberdinek nola eragiten duten ebaluatu.
 - Muturluzearen dieta zehazteko hasleen konbinazio egokiena zehaztu.
- 3) Muturluzearen edozein habitat zehatzekiko zaletasunak bazka eskuragarritasunari edo bestelako arrazoi batzuei erantzuten dien frogatu, dieta eta hiru habitatetako (urlasterrak, ur-bareak eta putzuak) harrapakin eskuragarritasuna konparatuz.
 - Muturluzearen dieta deskribatu kontsumitutako espezieen mailan.
 - Muturluzearen harrapakin-hautespena deskribatu.
 - Kontsumitutako eta hobetsitako harrapakinen eskuragarritasunetan habitaten artean alderik ote dagoen aztertu eta alde horiek habitat-hautespena azaltzen ote duten ikusi.
 - Harrapakin-hautespena bi erreka desberdinen artean desberdina ote den egiaztatu.
- 4) Muturluzearen bazka-zaletasunak harrapakinen zein ezaugarrik (trait-ek) gidatzen dituen aztertu eta analisi horrek muturluzeen urlasterrekiko zaletasuna argitzen lagundu ote dezakeen frogatu. Horretarako, dieta eta hiru habitatetako (urlasterrak, ur-bareak eta putzuak) harrapakin

eskuragarritasuna konparatu, harrapakinak ezaugarri biologikoak erabiliz sailkatuta.

- Muturluzearen dieta deskribatu harrapakinen ezaugarriak erabiliz.
- Muturluzearen harrapakin-hautespena deskribatu harrapakinen ezaugarriak erabiliz.
- Harrapakinen ezaugarriak erabiliz kontsumitutako edota hobetsitako harrapakinetan habitaten artean alderik ote dagoen aztertu eta alde horiek habitat-hautespena azaltzea ahalbidetzen ote duten ikusi.
- Harrapakinen ezaugarriak erabiliz harrapakin-hautespena bi erreka desberdinen artean desberdina ote den egiaztatu.

2. Kapitulua



Ziztu-premia:
galzorian dagoen
Pirinioetako muturluze erdi-urtarraren
(*Galemys pyrenaicus*)
urlasterrekiko hautua
bi erreka desberdinetan

Argitalpena

Kapitulu honetan oinarrituriko artikulu bat *Aquatic Conservation: Marine and Freshwater Ecosystems* aldizkarian izan da argitaratua:

Esnaola, A., González-Esteban, J., Elosegi, A., Arrizabalaga-Escudero, A., eta Aihartza, J. (2018). Need for speed: Preference for fast-flowing water by the endangered semi-aquatic Pyrenean desman (*Galemys pyrenaicus*) in two contrasting streams. *Aquatic Conservation: Marine and Freshwater Ecosystems*, 28(3), 600-609.

Laburpena

1. Pirinioetako muturluzea edo ur-satorra (*Galemys pyrenaicus*) galzorian dagoen ugaztun intsektiboro erdi-urtarra da, Iberiar Penintsulako iparraldean eta Pirinioetan endemikoa dena. Populazioen dentsitate baxuak, jokabide iheskorak eta jarduera gautarrak bere beharrian ekologikoen ezagutza oraino mugatua izatea dakar. Banaketa-eremu ia osoan jasaten ari den populazioaren murrizketa etengabeak —baita uraren kalitateak nabarmenki hobera egin duen erreketan ere— kontserbaziorako mehatxu nagusia beste faktore batzuk direla iradokitzen du. Hala ere, okupatzen duten eremuaren baitako habitat zaletasunaren inguruko informazio gabezia dago gaur egun (adb. ibaien mikrohabitat mailako ezaugarriekiko), eta hau gakoa da haren habitata ebaluatu edo hobetzeko.

2. Ikerketa honek irrati-telemetria datuak erabili ditu muturluzeen mikrohabitat mailako espazioaren erabilera zehazteko, eta ingurumenaren baldintzen arabera erabilera nola aldatzen zen ikusteko.

3. Euskal Herriko (Iberiar Penintsulako iparraldea) bi erreka desberdinetan ikertu ziren muturluzeak: Elama, erreka ia ukitu gabea, eta Leitzaran, jarduera hidroelektrikoaren eraginpean dagoen ur garbiko ibaia. Hamabost eta hamasei muturluze harrapatu eta jarraitu ziren Elaman eta Leitzaranen, hurrenez hurren, irrati-telemetria bidez, eta gauean zeharreko jarduera puntuak hiru habitatetako bati esleitu zitzaizkion: urlasterrei, ur-bareei edo putzuei. Habitat-erabilera eskuragarritasunarekin konparatu zen erreka bakoitzeko eta erreken araberrako habitat-hautespena neurtzeko.

4. Muturluzeek positiboki hautatu zituzten urlasterrak eta negatiboki putzuak, Leitzaran ibaian hautespena sendoagoa izanik Elaman baino.

5. Urlasterrek muturluzeen bazkatzeko habitat gisa duten garrantzi ekologikoa nabarmentzen dute emaitzek, kontserbaziorako ezinbesteko baliabidea direla erakustez gainera. Urlasterren azalera murrizten duten ibilguaren moldaketek espezie honentzako habitat-kalitatean eragiten duela iradokitzen du horrek. Gainera, jarduera hidroelektrikorako ematen diren ur-erauzketak segur aski muturluzeentzako kaltegarriak izango dira, urez gabetutako erreka zatietan emaria eta ur-fluxuaren abiadura murrizten baita.

Hitz gakoak

erreka, galzorian dagoen espeziea, habitat-kudeaketa, hidroelektrika, jokabidea, ugaztunak, ur-satorra

Sarrera

Pirinioetako muturluzea edo ur-satorra *Galemys pyrenaicus* (Geoffroy, 1811; 1. Irudia) galzorian dagoen ugaztun intsektiboro erdi-urtarra da, Iberiar Penintsulako iparraldean eta Pirinioetan endemikoa dena (Palmerin eta Hoffman, 1983). Erreka hotzetan bizitzera espezializaturik dago, arraun-formako atze-hanka eta lateralki konprimatutako isats luzearekin, igeriketa eta murgilaldietarako moldatuta (Richard, 1986). Pirinioetako muturluzea Bernako Hitzarmenaren (II. Eranskina) eta Europako Habitaten Zuzentarauaren bidez (II. Eta IV. Eranskinak) babesturik dago (Council of the European Communities, 1992). Bere banaketa-eremua arras murriztua izan da azken hamarkadetan, eta horrek Naturaren Kontserbaziorako Nazioarteko Batasunaren (IUCN) zerrenda gorrian Zaurgarri gisa sartzeari ekarri du (Fernandes eta kideak, 2008). Beherakada honen atzean dauden arrazoiak ez daude argi, baina badirudi batez ere uren kutsadura, habitaten andeketa (kanalizazioak, ibaiertzen narriadura, emari aldaketak), eta ibaien fragmentazioaren gisako faktore antropogenikoekin lukeela lotura (Charbonnel eta kideak, 2016; Queiroz eta kideak, 1996; Williams-Tripp eta kideak, 2012). Azpimarratu behar da beherakada hori Euskal Herria bezalako herrialdeetan ere ematen ari dela (Ihobe, 2011; Rubio, 2016; Ura, 2017), bertan saneamendu eta ur-arazketa zerbitzuei esker kutsadura gutxitzea lortu den arren. Beherakada eragiten ari diren faktore potentzialak ur-kalitatea ez beste batzuk direla iradokitzen du horrek, zeinen artean habitat fisikoaren andeketa nagusitzen den.

Ehundaka metrotako luzera izaten dute muturluzeen bizi-eremuek eta ohikoena jarduera-erritmoa bimodala izatea da, egunean zeharreko jarduera-aldi



1. Irudia. Pirinioetako muturluzea (*Galemys pyrenaicus*) Elama errekan. Argazkia: Jorge González-Esteban.

labur batekin eta gauean zeharreko beste aldi nagusi batekin (Stone, 1985, 1987a). Gauean zeharreko bazka-ereduak, osterara, jarduera goreneko bi edo hiru aldi erakusten ditu (Melero eta kideak, 2014). Oraindik ez da ziurra ur-satorrak jokabide lurraldekoia aurkezten duen, ez eta banakoek gordelekuak euren artean sexuarekiko, adinarekiko edo bizi-eremu berean dauden banako kopuruarekiko modu independentean partekatzen dituzten ere (Melero eta kideak, 2012). Gordeleku gisa, muturluzeek batez ere arroken arteko, harrizko hormetako edo ibai-ertzeko zuhaitzen sustraipeko zulo naturalak erabiltzen dituzte; hauek ez dute kanpotik identifikatu ahal izateko ezaugarri nabarmenik izaten (Stone, 1987a). Ornogabe urtarrez bazkatzen dira batez ere (Biffi eta kideak, 2016; Santamarina eta Guitian, 1988). Faktore asko daude ur gezatako ornogabeen ugaritasun eta konposizioa baldintzatu dezaketenak, hala nola kutsadura, lehortea, edo habitat fisikoaren aldaketak (Cowx eta kideak, 1984; McIntosh eta kideak, 2002; Wood eta kideak, 2000). Ornogabeek multzokako banaketa izan ohi dute ibaietan, urlaster, ur-bare eta putzuen gisako habitat moten (Dewson eta kideak, 2007) zein sedimentuko bikorren tamainaren baitan (Elosegi eta kideak, 2011) aldatzen baita hauen konposizioa eta ugaritasuna. Hortaz, erreketako ornogabeen ugaritasun eta dibertsitateak okerrera egin dezakete ur-erazketen gisako estres-eragileen ondorioz (McIntosh eta kideak, 2002).

Charbonnel eta kideek (2015) erreken emariak eta substratuen heterogeneotasunak muturluzeen okupazioan eragin positiboa zutela iradoki zuten, Frantziako Pirinioetako arro batean aplikatutako okupazio eredueta oinarrituta. Muturluzeak erreofiloak dira, antza, ur-fluxu bizkorak hobesten baitituzte, eta horregatik diogu “ziztu-premia” dutela. Charbonnel eta kideek (2015) proposatu zuten jokabide hori urlasterretako ornogabeen ugaritasun eta aberastasun handiagoak eragindakoa zela, Richard-ek (1986) azalpen mekanikoagoa proposatzen zuen bitartean, uraren abiadura handiak animalari bere flotagarritasun naturalari aurre egiten lagunduko ziolakoan. Morueta-Holme eta kideek (2010) emariaren garrantzia azpimarratu zuten, ur gehiago izateak habitat baldintza egokiagoak sortu eta bazka-eskuragarritasuna emendatzen dituelako. Biffi eta kideek (2016) eskala lokalean muturluzeek okupatutako ibai-tarteetan neurtutako habitat faktoreen inguruko informazioa eskaini zuten, baina ez zuten mikrohabitat mailan okupazioa kontrolatzen zuten faktoreen inguruko informaziorik eman: azken hori ezinbestekoa da muturluzeen beharrianak ulertzeko. Bestalde, espazialki habitat-eskuragarritasunaren arabera habitat-hautespen patrioiak aldatzen direla ikusirik (Ayllón eta kideak, 2010; Boyce eta kideak, 2016), muturluzeen habitat-hautespenean eragiten duten faktore gakoak hobeto ezagutzeko beharrezkoa da muturluzeen jokabidezko erantzunak ingurune desberdinetan ikertzea. Orain arteko ikerketa gehienek bereizmen espazial eskasa erdietsi dute, ingurumeneko datuak ez baitira landan bertan bildu. Horrez gainera, Pirinioetako muturluzearen habitataren ikerketa ia denek


gorotzen detekzioa erabili dute presentziaren arrasto gisa (Barbosa eta kideak, 2009; Charbonnel eta kideak, 2015, 2016; Morueta-Holme eta kideak, 2010; Williams-Tripp eta kideak, 2012). Horietako ikerketa bakarra ere ez da irrati-telemetria datuak erabiliz egin, eta honek beharrezko informazio berritzailea eskaini lezake banakoak identifikatu eta mugimenduen jarraipenak egiteko.

Ikerketa honen helburua Pirinioetako muturluzearen bizi-eremuaren baitako bazka-habitataren lehentasunak ikertu eta habitataren egokitasunean eragiten duten faktoreak identifikatzea zen. Honakoa proposatu zen: (i) muturluzeek urlasterrak dituzte nahiago, bazka-eskuragarritasunari dagokionean emankorragoak direlako (Dewson eta kideak, 2007) eta harrapari flotatzaile batentzako bazkatzea errazagoa delako bertan; eta (ii) habitat lehentasun patriiak, edo habitat-hautespenaren intentsitatea, errekaen ezaugarriekin aldatuko dira. Ondorioz, ikerketa hau bi erreka desberdinetan egin zen: Elaman, ia ukitu gabeko erreka, eta Leitzararen, jarduera hidroelektrikorako ur-erazketen eraginpean dagoen ibaia.

Metodoak

Ikerketa-eremua

Ikerketa hau Iberiar Penintsularen iparraldeko mendiko bi erreketan eraman zen aurrera (Euskal Herrian; 2. irudia). Europar Batasunaren Natura 2000 sarearen baitan babestuta daude biak (Council of the European Communities, 1992), eta biek dute egoera ekologiko ona Uraren Europako Zuzentarauaren arabera (Council of the European Communities, 2000), baina ingurumen-presio desberdinak pairatzen dituzte. Elama (3. irudia) bigarren ordenako mendiko erreka bat da, biztanlerik gabeko granito eta eskistozko 1415 ha-ko arroa estaltzen duena, 1919-tik natura-erreserba gisan zorrozkari kudeatua izan dena, eta ondorioz pago eta haritzez osaturiko baso-estaldura zabala duena (Castro, 2009). Gaur egun Elamaren arroan ez da baso-jarduerarik ematen. Bestalde, Leitzarari (4. irudia) laugarren ordenako ibaia da, kareharri, arbel eta hareharrizko 12 402 ha-ko arroa estaltzen duena. Elaman ez bezala, guztira 3150 biztanle dituzten bi herri daude Leitzararen arroaren goiko aldean, nahiz eta horren ostean errekek biztanlerik gabeko 25 km inguruko haran luzea zeharkatzen duen, non basogintza eta jarduera hidroelektrikoetarako ur-erazketak diren giza-jarduera nagusiak (Izagirre eta kideak, 2013). Jarduera hidroelektrikorako presa baxuek (2–4 m-ko altuera) ura ibilgutik desbideratu eta hainbat kilometro luze diren desbiderapen kanaletara bideratzen dute, azkenik turbina hidrauliko batzuetatik igaro eta ura ibilgura itzuliz. Presa hauek ura metatzeko ahalmen




2. Irudia. Ikerketa-eremua: (a) Leitzaran eta (b) Elama erreken arroak. Erreka bakoitzean ikertutako tartea beltz ilunagoz irudikatu da. Puntu txuriek ikertutako tartean dauden presak adierazten dituzte. Pirinioetako muturluzearen Iberiar Penintsulako banaketa (Fernandes eta kideak, 2008) gorritz adierazi da.

txikia dute, baina ur gehiena desbideratzen dute. Hidroelektrika emakida gehienek emari ekologikoa utzi behar dute, zeina hilabete bakoitzerako kalkulaturako emariaren batzbestekoaren %10-ean zehazten den normalean (BOE, 2016). Hala eta guztiz ere, kontzesio zahar batzuek ez dute oraindik emari ekologikoaren inguruko betekizunik, eta hori dela eta, erreka tartek ia osorik agortzen dituzte. Eremuko instalazio hidroelektrikoek ia urte osoan zehar jarduten dute, udan edo udazkenaren hasieran soilik geratuz, mantentze-lanak egiteko edo ur-kudeatzaileek emari ekologikoak bermatzera behartzen dituztelako (Iñaki Bañares, Gipuzkoako Foru Aldundia, komunikazio pertsonala, 2017ko iraila). Instalazio hidroelektrikoak elkarren segidan egoten dira, turbina hidroelektrikoaren ihesbidetik oso hurbil egonik hurrengo presa. Hortaz, jarduera hidroelektrikoaren eraginpean dauden erreketan desbiderapen kanalen eraginpean dauden tartek ugariagoak izaten dira emari naturaleko tartek baino. Leitzaran ibaiaren erdiko eta beheko tartetan ibilgu nagusiaren %70 inguru desbiderapen kanalen eraginpean dago, eta %4 gehigarri bat presen goialdeko gune geldoetan dago metaturik (Izagirre eta kideak, 2013).



3. Irudia. Elama erreka, Euskal Herria. Argazkia: Amaiur Esnaola.

Ikerketa Elama errekaiko 4 km-ko tartean ($43^{\circ}12'40''\text{N}$, $1^{\circ}48'36''\text{W}$ eta $43^{\circ}11'14''\text{N}$, $1^{\circ}48'4''\text{W}$ artean; batazbesteko altitua, 330 m; batazbesteko zabalera, 7,08 m), eta Leitzarar ibaiko 10 km-ko tartean egin zen ($43^{\circ}8'57''\text{N}$, $1^{\circ}57'26''\text{W}$ eta $43^{\circ}6'55''\text{N}$, $1^{\circ}56'9''\text{W}$ artean; batazbesteko altitua, 290 m; batazbesteko zabalera, 12,42 m) (2. irudia). Tartearen luzeraren arteko aldeak Leitzarar ibaian muturluzeak harrapatzeko zailtasun handiagoari dagozkio.



4. Irudia. Leitzarar ibaia, Euskal Herria: (a) muturluzeek okupaturako tartea bere emari naturalarekin (2016ko apirilaren 21a) eta (b) tarte berdina bost egun beranduago (2016ko apirilaren 25a), zentral hidroelektriko batek emari gehiena desbideratu ostean. Bi argazkien arteko aldeak ur-erazketek habitat hidromorfologikoen banaketan, bereziki ibilgu bustiaren azalera osoaren eta urlasterren azalaren murrizketan, duten eragina erakusten dute. Argazkia: Jorge González-Esteban.

Habitat-eskuragarritasuna eta ezaugarriak

2016ko iraila eta urrian, GPS baten eta mapa topografikoen laguntzaz, oinez ikuskatu ziren bi erreketako tarte guztiak. Overton eta kideen (1997) lana jarraituz, hiru habitat mota identifikatu ziren: urlasterrak, ura bizkor, zurrunbilotsu, azalera irregularrez eta zurixka duten lekuak; ur-bareak, ura ia laminarki eta sakonera erregularra dutenak; eta putzuak, ibilguaren sakonuneetan, emari motelekoak.

Erreka tarte bakoitza azpi-tarteetan banatu zen habitat dominatzailearen arabera: urlasterra, ur-barea edo putzua. Habitat moten arteko mugak ibilguaren hondoko maldaren hausturak identifikatuz antzeman ziren. Erreka tarte bakoitzeko habitat mota bakoitza 10 zehar-trantsektu eginez ezaugarritu zen. Zehatzago, trantsektu bakoitzean ibilgu bustiaren zabalera neurtu zen, eta tarte erregularretan (0,5 m-ro Elaman; 1 m-ro Leitzaranean) uraren sakonera eta sakonera maximoaren 0,6-ko abiadura (Martin Marten Z30 korrontimetroa, Bartzelona, Espainia) neurtu ziren. Substratua ere karakterizatu zen, hondoa ikuskatuz substratu tamainaren araberrako kategoriak esleituz: harea, txintxarra, harkoskoa, uharria, harrizarra, eta besteak (arroka, arroka-ama, edo organikoa) (Díez eta kideak, 2000). Neurketa horietan, ikerketa-tarteak plastikozko zintaz markatu ziren 25 m-ro, GPS bitartezko kokapenak hobetze aldera.

Muturluzeen harrapaketa eta jarraipena

Ernari edo kumeekin zeuden emeak molestatzea ekiditeko, muturluzeen estaltze eta ugalketa garaitik (urtarrietik abuztura; Palmerin eta Hoffman, 1983) kanpo egin zen ikerketa hau. Muturluzeak 2016ko iraila eta urria artean gauzez harrapatu ziren, ibilguan erdi-urperatutako alanbre-sarezko nasak erabiliz, zeinak 3 orduro begiratzen ziren estresa gutxitze aldera (González-Esteban eta kideak, 2003a). Erreka bakoitzean bi-hiruna gauko bi harrapaketa-saio egin ziren, gau bakoitzean 12 tranpa erabiliz. Harrapaketen maiztasuna baxuagoa zen Leitzaranean, eta beraz, animalia kopuru berdintsua harrapatzeko esfortzu handiagoa egin behar izan zen bertan (lau gau Elaman, sei Leitzaranean).

Harrapatutako ur-satorren adina eta sexua begiz zehaztu ziren (González-Esteban eta kideak, 2003b; González-Esteban eta kideak, 2002). Bizkar-aldeko ilea guraizeekin moztu (gutxi gorabehera 1 cm²) ondoren, irrati-igorgailuak (0,75 g-ko pisua, A2435, Advanced Telemetry Systems, <https://atstrack.com>) Dermabond™® erabiliz itsatsi zitzaizkien eta animaliak harrapatutako leku berean askatu ziren. Prozesuak 15-20 minutu iraun ohi zuen animalia bakoitzeko.

Markatutako muturluzeak bost gauz jarraitu ziren, ahalik eta denbora tarte

laburrenean banako bakoitzaren jardueraren inguruko informazio nahikoa eskuratu ahal izateko. Gainera, emaitzak nahas zitzaketen faktoreak saihesten ziren horrela; adibidez, irrati-igorgailuak erortzea eta ingurumenean aldaketa handiak gertatzea (eguraldiaren gora-behera gogorak kasu). Irrati-telemetry bidezko jarraipenak oinez egin ziren, bi irrati-hartzaile eta antena mota erabiliz (TRX1000S, Wildlife Materials Inc., Carbondale, IL, USA, hiru elementuzko eskuzko Yagi antenarekin; AOR AR8200 Mark III B, Universal Radio Inc., OH, USA, H motako antenarekin). Gauean zeharreko jarduera ezagutzeko, muturluzeak ahalik eta distantzia laburrenera jarraitu ziren. Jarduera- eta atsedendaldia irrati-seinaleen aldaketei esker bereizi ahal izan ziren. Autokorrelazio espaziala saiheste aldera, gutxienez 5 minutuko tarteaz jaso ziren elkarren segidako kokapen-puntuak, denbora tarte horretan banako bakoitzak edozein habitat motatara iristeko gaitasuna zuela ikusirik (Stone, 1987). Atsedendaldiko kokapenak analisisietatik baztertu ziren.

Muturluzeen harrapaketa eta maneirako protokoloek ikerketako eta irakaskuntzako animalien traturako arauak bete zituzten (Animal Behaviour Society, 2012). Ikerketak lekuko betebeharrak juridikoak bete zituen eta Euskal Herriko Unibertsitateko Animalien Ongizaterako Etika Batzordeak onartua izan zen (erref. CEBA/M20/2016/022).

Datuen analisisia

Habitaten informazioa eta irrati-telemetry puntuak GPS sistema batetan jaso ziren (ArcView 3.2; ESRI, Redlands, CA, USA). Banako bakoitzaren habitat-eskuragarritasuna eta bizi-eremua (luzera m-tan, azalera m²-tan) ArcView 3.2-rako Animal Movement 2.0.β luzapena erabiliz (Hooge eta Eichenlaub, 1999) lehentasunezko bazka-eremuak kalkulatu zehaztu ziren, jarduera puntuak soilik hartuz kontutan. Kokapenen kopururik eta antolaketa espazialek eratorritako erabilera-probabilitatean eta animalia batek eremu zehatz batean igarotako denbora-tarte erlatiboan oinarrituriko (Worton, 1989) kernel bizi-eremuen bidez (Kernel Density Estimation (KDE) %95) zehaztu ziren lehentasunezko bazka-eremuak. Kernelak kernel finkoen metodoa erabiliz kalkulatu ziren eta leuntze faktorea karratu minimoen balidazio gurutzatua erabiliz estimatu zen. Bizi-eremuen (%95KDE; luzeran eta azaleran) eta urlaster, ur-bare eta putzuen azalaren (%95KDE-tik) ikerketa-guneen arteko aldeak estatistikoki aztertu ziren Mann-Whitney-ren U test ez-parametrikoa erabiliz.

Habitat-eskuragarritasunaren eta habitat-erabileraren arteko independentzia χ^2 doikuntzaren egokitasunaren bidez (egiantzekotasunaren algoritmoaren G ratioa) aztertu zen. Batezbesteko hautespen-ratioaren w_i (Manly eta kideak, 2002) arabera lehentasun erlatiboaren arabera sailkatu ziren habitat

motak: behatutako animalia bakoitzak erabilitako habitat mota bakoitzaren proportzioen, eta aurrez ezagututako populazio bakoitzeko habitat bakoitzaren eskuragarritasunaren arteko ratioen batezbestekoa, erreka bakoitzeko animalia-populazio osoarentzako. Habitat zehatz baten hautespena positiboa edo negatiboa zela zehazteko, Bonferroniren konfiantza tarteak eraiki ziren, Manly eta kideek (2002) egin bezala, banako bakoitzeko habitat-eskuragarritasuna eta erabilera estimatzeko. Erreken arteko konparaketak batezbesteko hautespen-ratioak erabiliz egin ziren, Bonferroniren konfiantza tarteak kontutan hartuz. Aldibereko konparaketa kopuruarekin zuzendutako 0,05 α balioa zehaztu zen proba guztientzako. Konfiantza tarteak ere aldibereko konparaketa kopuruarekin zuzendu eta %95-eko mailan kalkulatu ziren. Banako bakoitzaren hautespena erreka bakoitzerako eraikitako hautespen-diagrama banaren bidez irudikatu zen (R-ko SOILTEXTURE paketea).

Emaitzak

Habitat-eskuragarritasuna eta ezaugarriak

Uraster eta ur-bareek antzeko eskuragarritasuna zuten Elaman (0,48 eta 0,49-ko proportzioak, hurrenez hurren; 1. taula), eta Leitzarane berriz ur-bareak ziren nagusi (0,62; 1. taula). Putzuak ziren ugaritasun txikiena zuten habitatak bi erreketan (0,03 Elaman, eta 0,11 Leitzarane; 1. taula) Oro har, urlasterrak, ur-bare eta putzuak baino pixka bat estuagoak, sakonera dezente txikiagoak, eta azkarragoak ziren. Uraren sakonera Leitzarane handiagoa zen oro har, nahiz eta uraren abiaduraren erreken arteko aldeak txikiak izan. Elaman harrizarrak ziren nagusi urlasterretan, uharriak ur-bareetan eta bestelako substratuak putzuetan. Leitzarane, aldiz, harrizarrak urlaster eta ur-bareetan ziren nagusi eta bestelako substratuak putzuetan.

Harrapaketak

Hogeita hamahiru muturluze harrapatu eta jarraitu ziren arrakastaz: zazpi eme eta zortzi ar Elaman, eta hamar eme eta sei ar Leitzarane (2. taula).

Bizi-eremuen tamaina eta habitat-hautespena

Oro har, 200 jarduera puntu baina gehiago erregistratu ziren banako bakoitzeko, eta launa gau baina gehiago jarraituak ziren animaliak (5. irudia; 2. taula).

1. Taula. Elama eta Leitizaran erreketako habitataren ezaugarriak..


Erreka	Habitata	Eskuragarrit. zabalera (m)	Ibilguaren batezbestea ± DE	Sakonera (cm) batezbestea ± DE	Uraren abiadura (ms ⁻¹) batezbestea ± DE	Harea (%) ± DE	Txintxarra (%) ± DE	Harkoskoa (%) ± DE	Uhartia (%) ± DE	Harrizarra (%) ± DE	Besteak (%) ± DE
Elama	Rifle	0,48	6,7 ± 2,4	9,13 ± 2,78	0,31 ± 0,13	0,8 ± 2,6	5,7 ± 8,1	10,1 ± 10,1	28,5 ± 20,3	32,6 ± 20,6	22,2 ± 29,8
	Run	0,49	7,4 ± 1,3	16,79 ± 4,10	0,09 ± 0,03	6,7 ± 9,7	18,6 ± 13,2	19,0 ± 15,8	29,6 ± 13,2	21,8 ± 16,7	4,3 ± 6,6
	Pool	0,03	7,1 ± 2,8	57,74 ± 16,59	0,03 ± 0,02	18,6 ± 15,8	9,4 ± 8,6	12,4 ± 10,9	14,3 ± 16,1	14,3 ± 11,7	31,0 ± 19,4
Leitizaran	Rifle	0,27	11,5 ± 2,8	11,28 ± 2,81	0,36 ± 0,11	0	2,5 ± 7,9	0	25,1 ± 9,1	65,3 ± 14,5	7,1 ± 12,8
	Run	0,62	12,1 ± 2,0	28,86 ± 9,95	0,07 ± 0,04	5,6 ± 9,1	12,0 ± 10,2	5,7 ± 8,9	20,3 ± 21,6	34,7 ± 28,6	21,6 ± 23,7
	Pool	0,11	13,6 ± 4,7	73,56 ± 27,01	0,02 ± 0,02	2,5 ± 4,3	12,9 ± 10,7	7,7 ± 9,6	19,1 ± 21,1	14,1 ± 13,9	43,6 ± 27,5

Eskuragarritasunak ('Eskuragarrit. ') habitat mota bakoitzak erreka bakoitzeko ikerketa area osoan duen proportzioa erakusten du

2. Taula. Elama eta Leitizaran erreketan jarraitutako animalien xehetasunak.

Erreka	Muturluzeen harrapaketa gau kopurua	Jarraitutako muturluzeak	Emeak	Arrak	Jarduera puntuak: batezbestea ± DE	Jarraipen gau batezbestea ± DE	BBEL (m) (%95KDE)	BBEA (m ²) (KDE95%):	Urlasterren azalera (m ²) (%95KDE):	Urbareen azalera (m ²) (%95KDE):	Putzuen azalera (m ²) (%95KDE):
Elama	4	15	7	8	268,9 ± 44,9 ± DE	4,73 ± 0,57 ± DE	328 ± 72	2215,6 ± 345,3	1103,3 ± 394,7	1038,7 ± 494,0	73,6 ± 78,6
Leitizaran	6	16	10	6	200,4 ± 32,9 ± DE	4,19 ± 0,83 ± DE	368 ± 231	6176,9 ± 5201,9	2379,3 ± 1298,1	3295,2 ± 3497,8	502,5 ± 761,9

BBEL (%95KDE): banakoen bazka-eremuaren luzera (m) (%95seko kernela); BBEA (%95KDE): banakoen bazka-eremuaren azalera (m²) (%95seko kernela). Eskuragarri zeuden urlaster, ur-bare eta putzuen azalerak (%95seko kernela) ere gehitu dira.




5. Irudia. Animalia bakoitza gauz irrati-telemetry bidez jarraitua izan deneko denbora tartek: gune beltzek animaliak aktibo zeudeneko tartek adierazten dituzte, gune grisek jarduerarik gabeko tartek, eta gune zuriek daturik jaso ez zeneko tartek. ‘Muturluzea’ zutabea agertzen diren kodeek bi erreketako banakoak adierazten dituzte (E, Elama; L, Leitzarar). Animalia bakoitza zenbat gauz jarraitu den (‘Gauak’) eta zenbat jarduera puntu erregistratu diren ere (‘Puntuak’) adierazi da eskuineko zutabeetan.

3. Taula. Habitat-erabilera, habitat-erabileraren Bonferroniren konfiantza tartek, habitat-eskuragarritasuna eta batezbesteko hautespen-ratioaren (Manly eta kideak, 2002) Bonferroniren konfiantza tartek Elama eta Leitzarar erreketan. .

Erreka	Habitata	Habitat-erabilera u_i	Habitat-erabileraren proportzioen (α_i) Bonferroniren konfiantza tartek		Habitat- eskuragarritasuna (%95KDE) Π_i	Hautespena	Batezbesteko hautespen-ratioaren (\hat{w}_i) Bonferroniren konfiantza tartek	
			Max.	Min.			Lower	Upper
			Elama	Urlasterra			2176	0,615
Ur-barea	1130	0,310		0,352	0,466	Negatiboa	0,642	0,729
Putzua	110	0,024		0,040	0,033	Nulua	0,864	1,308
Leitzarar	Urlasterra	2289	0,818	0,856	0,490	Positiboa	1,626	1,719
	Ur-barea	406	0,130	0,166	0,441	Negatiboa	0,293	0,396
	Putzua	40	0,009	0,021	0,068	Negatiboa	0,046	0,384

‘Habitat-erabilerak’ 5 minutuan behin edo maiztasun baxuagoz jasotako jarduera puntuak —kokapenak— adierazten ditu. ‘Habitat-eskuragarritasunak’ erreka bakoitzean habitat mota bakoitzak duen proportzioa adierazten du (%95eko kernela).



6. Irdia. Elama (a) eta Leitzarán (b) erreketako habitat-hautespenaren diagramak. Zirkuluek animalia bakoitzak eskuragarri dituen habitaten proportzioak adierazten dituzte (habitat-eskuragarritasunaren proportzioak kontutan hartuz, 0 eta 1 artean mikrohabitat bakoitzeko), geziek erabiliko habitaten proportzioa adierazten duten bitartean (habitat-erabileraren proportzioak kontutan hartuz, 0 eta 1 artean mikrohabitat bakoitzeko). Puntu arrosek erreka bakoitzeko batezbesteko habitat-eskuragarritasuna adierazten dute eta puntu berdeek erreka bakoitzeko batezbesteko habitat-erabilera.

Erreken arteko bizi-eremuen luzerak (%95KDE) ez ziren modu esanguratsuan desberdinak (banakoen bazka-eremuaren luzera, BBEL; $w = 135$, $P = 0,5665$), baina azalerak nabarmenki handiagoak ziren Leitzaránen Elaman baino (banakoen bazka-eremuaren azalera, BBEA; $w = 26$, $P < 0,0001$; 2. taula). Leitzaránen urlasterrek ibilguaren proportzio txikiagoa estaltzen zuten arren, bizi-eremuen baitako urlasterren azalera osoa handiagoa zen bertan (%95KDE; $w = 29$, $P = 0,0003$; 2. taula), ur-bareen azalera osoa bezalaxe (%95KDE; $w = 63$, $P = 0,0255$; 2. taula), nabarmenki handiagoa baitzen ibai hau. Putzuen azalera osoen artean aldiz ez zegoen alde esanguratsurik bi erreken artean (%95KDE; $w = 109$, $P = 0,6663$; 2. taula).

Elaman aktibitateko kokapenen %63,7 urlasterretan erregistratu ziren, %33,1 ur-bareetan, eta %3,2 soilik putzuetan (3. taula). Urlasterrek eskuragarritasunari dagokiona baino gehiago erabili ziren (hots, habitat-hautespen positiboa zegoen; $\chi^2 = 361,2$, d.f. = 30, $P < 0,0001$) eta ur-bareak aldiz kontrara, putzuekiko hautespen datuak estatistikoki esanguratsuak ez ziren artean (3. taula). Muturluze batek ez zuen eredu orokorra jarraitu Elaman eta putzuak positiboki hautatu zituen (6. irudia).

Leitzaránen aktibitateko kokapenen %83,7 urlasterretan jaso ziren, %14,8 ur-bareetan eta %1,5 putzuetan. Urlasterrek positiboki hautatu ziren ($\chi^2 = 819,9$, d.f. = 32, $P < 0,0001$), eta ur-bare eta putzuak aldiz negatiboki (6. irudia; 3. taula). Orohar, Elaman baino zorrotzagoa zen habitat-hautespena Leitzaránen,

batezbesteko hautespen-ratio altuagoak (1,70 *versus* 1,26) eta 6. irudiko puntu arrosen eta berdeen arteko distantzia handiagoak adierazi bezala.

Gordelekuetatik kanpo zeuden artean, muturluzeen mugimenduek eredu irregularrak aurkezten zituzten. Orokorrean, ehundaka metro gutxitako erreka tarteetan ibiltzen ziren banakoak gauero, hurrengo bazkalekura mugitu baina lehen, euren bazka-jarduera hainbat minutuz gune zehatzetan (nagusiki urlasterretan) kontzentratuz. Hala ere, animalia batzuek agudo egiten zituzten ehundaka metro batzuk habitatik urlaster batetara, minutu gutxian, gero bertan 1-3 orduz egoteko. ‘Leku-bero’ horietan hautemandako irrati-seinaleen intentsitate-aldaketek metro gutxi batzuetara mugatutako etengabeko mugimenduak adierazten zituzten. Egonaldi luzeak urlasterretan ematen ziren bereziki, ibilgua adarkatu eta adarrak eta hostoak metatzen zituzten harrizarrak edo eroritako enborrak agertzen ziren guneetan.

Eztabaida

Ikerketa honek Pirinioetako muturluzeak urlasterrak positiboki eta putzuak negatiboki hautatzen dituela erakutsi du. Horrez gain, habitat-hautespena erreken arabera aldatzen dela ere erakutsi du, jarduera hidroelektrikoaren eraginpean zegoen errekan hautespen handiagoa azalduz. Segur aski muturluzeen habitataren kalitatean eragiten duten faktoreen eta galzorian dagoen animalia honen kontserbazio egoera hobetuko duten kudeaketa ekintza potentzialen inguruko balio handiko informazioa gehitzen dute emaitza hauek.

Habitaten hondamena eta uren kutsadura bezalako giza presioei egotzi zaie Pirinioetako muturluzearen populazioaren atzerakadaren errua (Queiroz eta kideak, 1996; International Union for Conservation of Nature (IUCN), 1995). Bereziki, banaketa oztopatzen duten presa edo oso eraldatuta egoteagatik muga biogeografiko ugari dituzten sare dendritikoetako ibai-tarteetako hesi artifizialei egotzi izan zaizkie galera lokalak (Morueta-Holme eta kideak, 2010). Espezie honen Frantziako banaketa historikoa eta egungo banaketa konparatuz, Charbonnel eta kideek (2016) klimaren eta erabilera hidrologikoaren zein lur-erabileren aldaketen ondoriozko habitataren egokitasunaren beherakadaren eraginezko hedaduraren murrizketa uste baina handiagoa zela ondorioztatu zuten. Beherakada hori habitataren zatiketaren, kutsaduraren, harrapakin-eskuragarritasunaren aldaketen, edo muturluzeen harrapari ziren espezie inbaditzaileen (adb. Amerikar bisoia *Neovison neovison*) gisako faktore gehigarrien eraginez eman zela espekulatu zuten, nahiz eta ez zuten faktore potentzialen zerrenda horren garrantzia erlatiboaren inguruko iradokizunik gehitu. Hori dela eta, muturluzearen kontserbaziorako neurrien eskasian islatua

ikusten den bezala, oraindik ere generikoegia da zerrenda hori kontserbaziorako fundazio gisa. Adibide gisa, bai Frantziako Pirinioetako Muturluzearen Kontserbaziorako Ekintza Planean (Némoz eta Bertrand, 2008) eta baita Espainiako Muturluzearen Kontserbaziorako Estrategian ere (Ministerio de Agricultura, Alimentación y Medio Ambiente (MAGRAMA), 2013), ikerketa eta zientziarako ekintza asko aurreikusi arren, ez dute ia habitataren hobekuntzara bideraturiko jarduerarik proposatzen.

Emariaren abiadura Pirinioetako muturluzearentzako ingurumeneko faktore garrantzitsu gisa plazaratu izan da (Charbonnel eta kideak, 2015). Biffi eta kideek (2016) Nitxo Ekologikoaren Faktoreen Analisia (*Ecological Niche Factor Analysis, ENFA*) egin zuten gorotzen detektagarritasunean oinarrituz. Pirinioetako muturluzearen habitata ibilguaren baitako aldagaiek (substratuaren heterogeneotasunak, urlasterrek, sedimentu finen ausentziak) eta ibaiertzaren ezaugarriek (ibaiertz harritsuek) ezaugarritzen zutela ondorioztatu zuten, muturluzeek egitura irten askoko eta babesleku heterogeneotasun handiko gunek nahiago izanik. Hala ere, euren emaitzak sobera alboratuta daude; izan ere ibai-tarte horiek dira zehazki muturluzeen gorotzak detektagarrien diren gunek. Egitura irtenik gabeko ibai-tarteetan ibaiertzeko babeslekuetan egiten dute kaka muturluzeek eta leku horietan oso zaila izaten da gorotzak detektatzea; beraz, ausentzia faltsuak ondorioztatzen dira (Charbonnel eta kideak, 2015; González-Esteban eta kideak, 2003a; Nores eta kideak, 1999). Era horretako ikerketek adierazterik duten bakarra muturluzearen gorotzak errazago non detektatu daitezkeen da, ezin baitute bizi diren ibaietako espazioa nola erabiltzen duten erakutsi. Hemen aurkezten den lanak zulo hori estaltzen du hein batean, abiadurarekiko behar iraunkor bat erakutsiz, hots, urlasterrekiko hautespen sendoa eta putzuekiko saihaspen garbia, gure lehenengo hipotesia berretsiz. Banako bakarrak erakutsi zuen putzuekiko zaletasuna. Banako horren bizi-eremuaren ikuskapen hurbila egin ostean ezin izan zen jokabide horren azalpen zehatzik topatu. Harrapakin-eskuragarritasun handiko guneen ondorioz izan liteke, baina kokapenen zehaztasuna tarteko, hipotesi hori ezin da aztertua izan, ez bada bentosaren laginketa oso suntsikor bat egiten dela.

Banako horretaz gain, gainontzeko ale guztiek mikrohabitat azkarrekiko zaletasuna erakutsi zuten, seguraski bazkari, babeslekuei edo hidraulikari lotuta. Bazkari dagokionean, urlasterrek ur-abiadura motelagoko beste habitatek baino ornogabeen dibertsitate eta biomasa handiagoak eduki ditzaketela plazaratu izan da (Dewson eta kideak, 2007; Hussain eta Pandit, 2012). Badirudi, gainera, bigarren mailako ekoizpen altuagoa ere izan dezaketela (Buffagni eta Comin, 2000; Polis eta kideak, 1997), nahiz eta joera unibertsal izatetik urrun dagoen (Wohl eta kideak, 1995). Bestenaz, urlasterrek ur-bare eta putzuek baina aterpe egokiagoa eskain lezakete, muturluzeak urpean harrapatutako harrapakina jan bitartean ezkutaleku gisa erabili ditzakeen (Niethammer, 1970) edo emariaren

bat-bateko igoeren (igoera natural edo artifizialen) aurrean babeslekua eskaini diezaioketen harriztar irtenak ohikoak izaten direlako bertan. Horrez gainera, urlasterretako uraren abiadura azkarrak muturluzeei euren flotagarritasun naturalari aurre egitea erraztuko lieke, euren hatzapar indartsuak erabiliz hondoan ibiltzea baimenduz (Richard, 1986).

Lan honen bigarren hipotesia ere berretsia izan zen, muturluzeek habitata desberdin erabili zutelako errekaen ingurumeneko baldintzen arabera. Animaliek, bizirik irauteko habitat desegokiak erabiltzera behartuak suertatzen diren kalitate gutxiagoko inguruneetan hautakortasun baxuagoa izango zutela espero zitekeen arren (Goiti eta kideak, 2003; baina ikusi Garshelis, 2000, edo Railsback eta kideak, 2003), kontrakoa izan zen behatutakoa. Muturluzean behatutako ereduaren arrazoia Leitzaranean, jarduera hidroelektrikorako ur-erazketen eraginpean dagoen ibaian, gutxien hobetsitako habitatak oraindik ere okerragoak zirelako, edo Elamako populazioaren dentsitate handiagoaren eraginez bertan hautespena txikiagoa zelako izan liteke. Izan ere, Elaman adinako animalia kopurua Leitzaranean harrapatzeko izandako zailtasunak bertako populazioaren dentsitatea baxuagoa dela iradokitzen du. Esan beharra dago bazka-eremuak Leitzaranean Elaman baino handiagoak zirela, eta horrek habitataren egokitasun kaskarragoa, edo populazioaren presio altuagoa nabarmentzen du. Bestalde, Elaman behatutako bazka-eremu txikiagoek erreka honetako putzuen erabilera populazioaren presio altuagoaren edo espezie barneko lehiaren eragina ez zela iradoki zuten. Honela, emaitza orokorrekin, muturluzeak gutxien hobetsitako habitatak, harrapakinen eskuragarritasunari edo ezaugarri fisikoei (adb. sakonera txikiagoa, emari motelagoa) zegokienean, Elaman egokiagoak zirela adierazi zuten Leitzaranean baino.

Arrazoia edozein delarik ere, Pirinioetako muturluzeak urlasterrak positiboki hautatzen dituela erakutsi dute emaitzek, ur-bare eta putzuen aldean, eta are gehiago ur-erazketen eraginpean dagoen errekan. Ur-erazketek ibilgu bustia murrizten dute (Stanley eta kideak, 1997), aldaketa hidraulikoak eragiten dituzte (McIntosh eta kideak, 2002), ornogabe bentonikoen populazioak txikiagotzen dituzte (James eta kideak, 2008), eta ibai-ekosistemaren funtzionamenduan inpaktuak eragiten dituzte (Arroita eta kideak, 2017). Ur-erazketek, gogokoen duten mikrohabitataren eskuragarritasuna murriztuz, galzorian dagoen Pirinioetako muturluzearengan ere efektu kaltegarriak izan ditzaketela iradokitzen dute emaitzek. Aymerich-ek (2004) emari-erregimenaren murrizpen artifizialak (adb. ekoizpen hidroelektrikoaren edo ureztaketaren eraginez) Pirinioetako muturluzean kontrako inpaktua eragin zezakeela proposatu zuen, bereziki emariaren murrizpenaren aurrean sentikorrako diren mendiko erreketan. Horrez gain, jarduera hidroelektrikorako desbiderapen-kanaletan behatu izan dira muturluzeak (MAGRAMA, 2013), segur aski ibilguan behera lurralde berrien bila bidaiatzerakoan ur gutxi zeraman ibilgua hartu beharrean

kanalean jarraitu izanagatik. Oraindik ez dago argi animalia hauei zer gertatzen zaien, baina turbinetan hiltzea ez litzateke ustekabeko emaitza izango (Elosegi, 2010). Jakina da murriztutako emariak oro har, eta ur desbiderapenek bereziki, ibaietako beste espezie batzuegan ere efektu kaltegarriak dituztela; salmonidoak (Bradford eta Heinonen, 2008; Heggenes eta kideak, 1996) eta ur-zozoa (Chen eta Wang, 2010), urlasterrak faboratzen dituen (Logie eta kideak, 1996) eta nonbait bazka-nitxoa muturluzearen antzera ustiatzen duen (Santamarina, 1993) hegazti generoa, barne.

Aurkikuntza hauen kudeaketa-ondorioei dagokienean, muturluzeak dauden ibaietako emari ekologikoen esleipenak berrikusi egin beharko liriatekeela iradokitzen dugu, bereziki Leitzaran ibaia bezalakoetan, Natura 2000 sarearen baitan Kontserbazio Berezirako Eremu (KBE) gisa izendatuta daudelako. Gaur egun erabiltzen diren formula hidrologiko sinpleekin fidatu beharrean, ikerketa hidrauliko zehatzei ekin beharko litzaieke, desbiderapen kanalen eraginpean dagoen tarte bakoitzean emariak urlasterren ugaritasun eta banaketan nola eragiten duen zehaztu eta alde batetara utzi ezin den inflexio-punturik ba ote dagoen hautemateko, hots, desbideratutako zein emari-atalasetik aurrera murrizten den bizkor habitat-eskuragarritasuna. Arroita eta kideek (2017), Elamaren antzeko erreka batean emariaren manipulazio esperimentalak erabiliz, emari ekologikoen, egun Euskal Herrian izendatzen diren bezala, emariaren abiadura eta urlasterren ugaritasuna gogorki murrizten dituztela —eta hortaz ekosistemen funtzionamenduan ikaragarri eragiten dutela— frogatu zuten. Beraz, litekeena da Euskal Herriko (Ente Vasco de la Energía (EVE), 1995) zein beste zenbait lekutako iturburuko erreketako desbiderapen sistema ugariak muturluzearen habitataren kalitatean gogorki eragiten aritzea.

Emari ekologikoen gain, urlasterren eskuragarritasuna murrizten duten kudeaketa jarduerak ekidin beharko liriateke. Gipuzkoan, Leitzaran ibaia kokatzen den 2000 km² baina txikiagoa den lurraldean, 900 presa txiki baina gehiago daude (BOE, 2016; EVE, 1995). Horietako egitura gehienak errota edo burdinola bezalako iraganeko jardueren ondareak dira, eta oro har geldirik dagoen ur-azalera handiak sortzen dituzte, segur aski putzuen gisan muturluzearentzako oso erabilgarriak izango ez direnak. Aukera dagoen lekuan bota egin beharko liriateke presa horiek, erabileran daudenak edo ondare-balioa dutenak soilik mantenduz. Kanalizazioak ere muturluzearen habitatarentzako kaltegarriak direla deskribatu izan da (MAGRAMA, 2013), nahiz eta frogak enpiriko gutxi izan. Lan honen emaitzek iradokitzen dute kanalizazioak bereziki izan daitezkeela kaltegarriak emariaren abiadura eta heterogeneotasuna murrizten dituztenean, eta hori arrunta izan ohi da emariaren garraio-ahalmena handitzeko diseinatzen diren zehartebaki trapezoidaleko kanalizazio artifizialetan. Deflektoreak eta urlasterren gisako guneak sortzeko egur handien sarrera salmonidoen habitata

hobetzeko sarri erabilia izan den jarduera da (Nagayama eta Nakamura, 2010), eta muturluzearen habitata hobetzeko errestiturazio jardueren artean legoke.

Ikerketa honek abiadura handiko urlasterren azalera Pirinioetako muturluzearen habitataren kalitatean faktore gakoa dela adierazten du, abiadura beharra duen espezie honen kontserbazio egoera hobetzeko jarduera zehatzak zein liratekeen azpimarratuz. Jarduera horiek, muturluzearen populazioaren egoera zatikatua kontutan hartuta, ikerketa genetikoak eta banakoen translokazioak konbinatu beharko lituzkete, beti ere espezie honen galzoriko egoera hobetu nahi bada.

Eskerrak

Iñigo Mendiola eta Aitor Lekuona (Gipuzkoako Foru Aldundia), eta Asunción Yarzabal eta Iñaki Uranga (Donostiako Udaletxea) eskertu nahi ditugu, lan hau egin ahal izateko eman diguten laguntzarengatik; Egoitz Salsamendi eta Inazio Garin (Euskal Herriko Unibertsitatea) landa-lanean laguntzeagatik, eta Joan Lluís Riera (Bartzelonako Unibertsitatea) grafikoekin laguntzeagatik. Eskerrak John S. Richardson irakasleari (Basogintza Fakultatea, British Columbia Unibertsitatea) ingelesa gainbegiratzeagatik. Autoreek interes-gatazkarik ez dagoela aitortzen dute.

3. Kapitulu



Gorotzetatik abiatutako dieta azterketa:
Galemys pyrenaicus
Pirinioetako muturluzearentzako
metabarcoding-erako hasleen hautaketa

Argitalpena

Kapitulu honetan oinarrituriko artikulu bat *PLoS ONE* aldizkarian izan da argitaratua:

Esnaola, A., Arrizabalaga-Escudero, A., González-Esteban, J., Elozegi, A., eta Aihartza, J. (2018). Determining diet from faeces: Selection of metabarcoding primers for the insectivore Pyrenean desman (*Galemys pyrenaicus*). *PLoS ONE*, 13(12), e0208986.

Laburpena

Teknika molekularrek gorotzetatik dieta-azterketa ez inbasoreak egitea ahalbidetzen dute, galzorian dauden edo iheskorak diren espezieen beharrian ekologikoak ezagutarazteko tresna baliotsua eskainiz. Genomika, populazioen genetika, dieta-azterketa, edo ugalketa-analisen gisako gai garrantzitsuetan aurrera egiten laguntzen dute, ezinbesteko ezagutza eskainiz kontserbazio-biologian. Hala ere, teknika molekularrek metodo orokorrak ikerketen helburu zehatzen arabera egokitzea eskatzen dute, substratu eta espezieen arabera egokitzapenekin batera. Ikerketa pilotu honetan eskuragarri dauden hasle desberdinak probatu ditugu *Galemys pyrenaicus* Pirinioetako muturluzea (É. Geoffroy Saint-Hilaire, 1811, Talpidae) intsektiboro generalista urtarraren gorotzen metabarcoding bidezko dieta-analisia optimizatzeko, espezie horren kontserbazio-biologiaren inguruko ezagutza hobetzeko pauso gisa. Hogeita lau gorotz-lagin landan bildu, euren DNA erauzi, eta COI barkode eskualde estandarreko zatiak bost hasle erabiliz (Brandon-Mong, Gillet, Leray, Meusnier eta Zeale) PCR bidez anplifikatu ziren. PCRz lortutako anplikoak Illumina MiSeq platafomran sekuentziatu, sekuentziak prozesatu, UPARSE algoritmoa erabiliz OTU-etan (*Operational Taxonomic Units*) taldekatu eta NCBI datu-basearen kontra BLAST-eatu ziren. Nahiz eta hasle guztiek arrakastaz anplifikatu zituzten euren itu ziren zatiak, sekuentzia-irakurketa, OTU gordin eta taxonomia esleitutako OTU kopuru nahiko desberdinak eman zituzten. Hasleek modu erregularrean identifikatu zituzten ugariak ziren harrapakin taxon gutxi batzuk, segur aski Pirinioetako muturluzearen oinarrizko bazka adierazten zutenak. Dena den, ez zetozen bat hain arruntak ez ziren harrapakin taldeei zegokienean. Oro har, Gillet eta Zeale-ren hasleen konbinazioa izan zen taxonomikoki harrapakin aukera zabalena eta muturluzea bera ere identifikatu ahal izateko errentagarriena; etekin hori, hurrenez hurren, Leray, Brandon-Mong eta Meusnier-en hasleen emaitzak gehituz hobetzen zen. Azterketa honen emaitzak, galzorian dagoen espezie baten bazka eta habitat beharrianen karakterizazio egokiagoa ahalbidetzen dutenez, esanguratsuak dira bere kontserbazio-biologiarako.

Hitz gakoak

COI genea, dieta, ekologia molekularra, galzorian dauden espezieak, harrapari-harrapakin elkarrekintzak, HBS—Hurrengo belaunaldiko sekuentziazioa (*NGS—next generation sequencing*)

Sarrera

Zaila da kontsumitzaileen askoren dieta zehaztea: zuzeneko behaketak erronka metodologikoak izan daitezke eta ikusmen bidez gorotzetako harrapakinen hondarrak identifikatzea zaila (Clare eta kideak, 2009), bereziki jale generalisten kasuan, askotariko espezieez bazkatzen direlako. Kontsumitzaileak normalean ez dira zoriz bazkatzen eta harrapakinen hautua euren babes- edo ihes-estrategiek, nutrizio-kalitateak, edo harrapari eta harrapakinen banaketa espazialak eta denboran zeharreko banaketak baldintzatua egon daiteke, beste zenbait faktoreen artean (Symondson, 2002). DNA metabarcoding-a bezalako tresna molekular berriek dieta-azterketa ez inbasoreak ahalbidetzen dituzte, eta horrez gainera gorotza egin duen kontsumitzailea identifikatzea ere ahalbidetzen dute, honela, identifikazio erroreak saihestuz. Teknika berri hauek gorotzetatik erauzitako ingurumen-DNA (eDNA) aztertzen (Bohmann eta kideak, 2014; Sheppard eta Harwood, 2005; Taberlet eta kideak, 1999) eta gorputz bigun edo gogorreko harrapakin espezieak espezie mailaraino identifikatzen uzten dute, teknika morfologiko tradizionalekin ezinezkoa zena (Razgour eta kideak, 2011). Bestalde, DNA metabarcoding-ak dieta-azterketen bereizmena handia izatea errazten du, kontsumitzaileen bazka- eta habitat-beharrizanak are gehiago ezagutarazi eta sare trofikoaren egiturak ezagutarazteko tresna baliotsua eskainiz (Pompanon eta kideak, 2012), zeina bereziki erabilgarria den espezie iheskorrentzako eta galzorian dauden espezieentzako (Casper eta kideak, 2007; Greenstone eta kideak, 2005; Piggot eta Taylor, 2003; Valentini eta kideak, 2009). Espresuki, teknika berritzaile hauek dieta ikerketak espezieen kontserbaziorako erabilgarriak izatea dakarte. Adibidez, gorotzetako DNAREN metabarkodeen iragazpen errentagarriak landare dibertsitate zabala (99 taxa) detektatu ahal izan zuen *Lepus corsicanus* Italiako untxi zaurgarriaren dietan, hondakin solidorik uzten ez duten edo ezaugarri taxonomiko diagnostikorik ez duten aleak tartean egonik (Buglione eta kideak, 2018). Era berean, Schwarz eta kideek (2018) *Phoca vitulina* itsas txakur arruntaren arren eta emeen dietan lekuaren eta urtearen araberako desberdintasun sendoak dokumentatu zituzten, segur aski izokina bezalako harrapakin komertzialetan eragina izango dutenak. Bestalde, *Plecotus macrobullaris* saguzar alpetar belarrihandiaren ekologia trofikoa bere gorotzetan azterketa molekularrez identifikatutako harrapakinen beharrizan ekologikoetatik ondorioztatu zen, zeina ezinezkoa izango litzatekeen irrati-telemetry metodo tradizionalen bide (Alberdi eta kideak, 2012). Are gehiago, kontsumitutako harrapakinen azterketak *Rhinolophus euryale* ferra-saguzar mediterranearrak zuzenean ehizatzen duen habitaten beharra izateaz gain, ehizatzen ez duten baina euren harrapakinen larbentzako nahitaezkoak diren habitaten beharra ere baduela erakutsi zuen (Arrizabalaga-Escudero eta kideak, 2015). Horrelako emaitzek espezieen kudeaketarako jarraibideak ezartzen laguntzen dute.

Errendimendu Altuko Sekuentziazio (EAS) metodoak eraginkorrak dira harraparien dieta-azterketetan (Clare eta kideak, 2013), harrapariaren alde aurretiko identitatearen inguruko ezagutzarik izan gabe (Clare eta kideak, 2009; Valentini eta kideak, 2009; Pompanon eta Samadi, 2015) oso degradatuak, zatikatuak eta desberdinak diren DNA zatien azterketa ahalbidetzen dutelako. Hala ere, zenbait muga metodologiko izan behar dira kontutan. Alde batetik, jakien hesteetan zeharreko trantsizio-denborak eta gorotzek ingurumeneko baldintzetara duten esposizioak (adb., tenperaturaren oszilazioek, eguzkiak, euriak, hezetasunak, eta onddoen erasoek) eragina dute gorotzetako DNA-ren kalitatean (Deagle eta kideak, 2010; Oehm eta kideak, 2011; Symondson, 2002). Beste aldetik, metodo molekularren sentikortasun altuak positibo faltsu ugari sortu ditzake, bigarren mailako harrapakaritzaren, sarraski-janaren edo iturri ezberdinetako kutsaduraren eraginez (Sheppard eta kideak, 2005). Azkenik, dietaren karakterizazioaren osotasuna hasleen estaldura taxonomikoa, kontsumitutako harrapakin espezieen espektroa, PCR estrategia, sekuentziazio-prozesua, erabaki bioinformatikoak edo datu-baseetan eskuragarri dagoen informazioa bezalako xehetasunen araberakoa da (adb. Alberdi eta kideak, 2018; Brandon-Mong eta kideak, 2015; Divoll eta kideak, 2018).

Animalia lehortarrak itu dituzten ikerketek mitokondrioko c zitokromo I oxidasaren (COI) eskualdeko markatzailetan oinarritzen dira, honek kopia kopuru handia eta espezie mailako identifikazioa ahalbidetzeko aldakortasuna dituelako (Elbrecht eta Leese, 2017; Hebert eta kideak, 2003). Noski, COI-ak gaur egungo erreferentziazko datu-base osatuenetariko bat du, eta bertan ornogabe taxa asko ongi ordezkatuak daude, bereziki GenBank (<http://www.ncbi.nlm.nih.gov>) eta BOLD System (<http://www.boldsystems.org/>) datu-baseetan. Hala ere, nahiz eta oso zatikatuta dauden DNA sekuentziak — gorotzetan topatzen direnak bezalakoak — identifikatzeko COI-a nahiko laburra izan, markatzaile laburragoak arrakastaz erabili izan dira (adb. Deagle eta kideak, 2006). Markatzaileen hautaketa DNA-ren erreferentziazko datu-baseek bideratua egoten da normalean, baina ikerketaren galderaren araberakoa ere bada (Creer eta kideak, 2016). Zentzu horretan, Alberdi eta kideak (2018) dieta-azterketen emaitzak hautatutako eskualde markatzaileen, anplikoiairen tamainaren, hasleen, edota lortu nahi den maila taxonomikoaren araberakoak izaten direla erakutsi zuten. Harrapakin espezie batzuk hasle askok detektatzen dituzten bitartean, beste batzuen detekzioa hasleen araberakoa izaten da. Eskualde luzeegiak anplifikatzekotan, espezie batzuk ez dira identifikatuko, negatibo faltsuak eraginez. Eragin horrek laginen edo banakoen arteko desberdintasunak puztuko ditu, aldakortasun intraespezifikoren inguruko informazio partziala emanaz. Hortaz, eskualde markatzaileen eta hasleen hautaketa erabaki kritikoa da edozein DNA metabarcoding-ikerketetan, hasleen luzera edo espezifikotasuna bezalako faktoreek emaitzetan eragin handia dutelako (Elbrecht eta Leese, 2017; Gibson eta kideak, 2014).

Dieta-azterketetan positibo faltsuek eta negatibo faltsuek ondorio gogorak izan ditzakete harrapariaren ekologiaren interpretazioan eta ekosistemen kudeaketan (Hines eta Gessner, 2012). Harrapakin garrantzitsuen identifikazio arrakastatsua gakoa da edozein harrapariaren —edo eurek kontsumitutako harrapakin (Schwarz eta kideak, 2018; Waraniak eta kideak, 2018)— eginkizun ekologikoaren, espezializazio trofikoaren edo kontserbazioaren inguruko ondorio sakonak lortzeko. Horrez gain, gorotzetatik dieta eta harrapariaren identitatea aldi berean identifikatzearen beharrak erabaki metodologikoak oraindik ere zorrotzagoak izatea dakar, jomugan espektrro filogenetiko zabalagoa izateagatik.

Hemen DNA metabarcoding-ikerketa bat egin da, harrapari urtar baten dieta eta identitatea modu ez inbasorean zehazten duten hasle ezberdinak konparatzeko. Bereziki, hasle desberdinek —edo euren arteko konbinazioak— dietaren eta harrapariaren identitatearen karakterizazio filogenetikoan nola eragiten duten ebaluatzea izan da helburua.

Pirinioetako muturluzea (*Galemys pyrenaicus*, É. Geoffroy Saint-Hilaire, 1811, Insectivora, Talpidae) hautatu da ereduzko espezie gisa, mendiko erreka hotz eta garbietan bizi den, erdi-urtarra eta generalista den ugaztun intsektiboroa (1. irudia). Endemikoa da Iberiar Penintsularen iparraldean eta Pirinioetan, baina bere banaketa-eremua gogorki murriztua izan da azken hamarkadetan, eta



1. Irudia. Pirinioetako muturluzea Elama errekan. Argazkia: Joxerra Aihartza.

horrek Naturaren Kontserbaziorako Nazioarteko Batasunaren (IUCN) zerrenda gorriaren kategorietan Zaurgarri gisa barneratzea ekarri du (Fernandes eta kideak, 2008). Azken ikerketek muturluzea nagusiki ornogabe urtarrez bazkatzen dela (Biffi eta kideak, 2017a; Hawlitschek eta kideak, 2018) eta urbare eta putzuen aldean urlasterrak nahiago dituela (2. Kapitulu; Esnaola eta kideak, 2018b) erakutsi dute. Hala ere, galzorian dagoen espezie hau egokiro kudeatzeko informazio gabezia dago oraindik (MAGRAMA, 2013; Némoz eta Bertrand, 2008). Hain zuzen ere, ezezaguna da oraindik zein puntutaraino dagoen muturluzearen dieta harrapakin-eskuragarritasunaz baldintzatua, eta zein harrapakin mota hautatzen dituen; hare gehiago, oraindik ez dago argi muturluzeen erreken baitako habitat-hautespenak (2. Kapitulu; Esnaola eta kideak, 2018b) harrapakinaren eskuragarritasunaren diferentzia edo beste faktoreren bat islatzen duten. Galdera horiek, eta beste batzuek, dieta-azterketa zehatzen beharra azaleratzen dute.

1. Taula. Aztertutako gorotz-laginen kokapena.

Arroa	Erreka	Gorotz kopurua	Kaka-leku artifizialetan bilduak ^a	Koordenatuak ^b
Urumea	Asura	3	Ez	43°08'03"N 1°48'10"W
				43°07'46"N 1°47'07"W
				43°08'21"N 1°49'39"W
Ollin		3	Ez	43°07'44"N 1°51'01"W
				43°07'44"N 1°51'01"W
				43°07'37"N 1°51'00"W
Añarbe		3	Ez	43°13'09"N 1°51'17"W
				43°13'18"N 1°51'05"W
				43°13'18"N 1°51'05"W
Elama		9	Bai	43°12'37"N 1°48'38"W
				43°12'37"N 1°48'38"W
				43°12'37"N 1°48'38"W
				43°10'59"N 1°47'59"W
				43°10'59"N 1°47'59"W
				43°10'58"N 1°47'56"W
				43°10'58"N 1°47'56"W
				43°10'57"N 1°47'56"W
				43°10'57"N 1°47'56"W
Oria	Leitzaran	6	Bai	43°08'59"N 1°57'19"W
				43°08'59"N 1°57'19"W
				43°08'59"N 1°57'19"W
				43°08'59"N 1°57'18"W
				43°09'00"N 1°57'19"W
				43°09'00"N 1°57'19"W

^a Laginak kaka-leku artifizialetan bildu diren (Bai) edo ez (Ez) adierazten du.


^b Laginak zehazki zein lekutan bildu diren adierazten du.

Ikerketa honek dieta-azterketetan DNA metabarcoding-a erabiltzerakoan hasleen etekinaren diferentzien inguruko informazio baliotsua eskaintzen du, hasle bakoitzaz eta euren arteko konbinazioaz lortutako estaldura taxonomikoaren inguruko laburpena eginez. Bestalde, muturluzearen ekologiari dagokionean, argitaratutako ikerketen (adb. Biffi eta kideak, 2017a; Hawlitschek eta kideak, 2018) emaitzak hobeto ulertu eta konparatzeko, zein galzorian dagoen espezie honen habitat-beharrizanak ezagutarazteko erabilgarri izango dira emaitzak. Informazio hau ezinbestekoa da bere kontserbaziorako berriarazko kudeaketa ekintzak diseinatu eta egikaritzeko.

2. Taula. Ikerketa honetan erabilitako bost hasleen xehetasunak.

Izen arrunta	Hasleen izenak	Aurreranzko haslea(k) (5'-3')	Atzeranzko haslea(k) (5'-3')	Luzera (bp) ^a	Jatorria
Brandon-Mong	F:LepF1	ATTCAACCAATCATAAAGA	CGTGGAAWGCTATATC	218	Brandon-Mong <i>et al.</i> , 2015
	R:MLepF1_Rev	TATTGG (25bp)	WGGTG (21bp)		
Gillet	F:LepF1 (modified)	ATTCHACDAAYCAYAARGA	ACTATAAAAARAAAATYTD	133	Gillet <i>et al.</i> , 2015
	R:EPT-long-univR (modified)	YATYGG (25 bp)	AYAAADGCRTG (29 bp)		
Leray	F:mICOlintF	GGWACWGGWTGAACWG	TAIACYTCIGGRTGICCR	313	Leray <i>et al.</i> , 2013
	R:jgHCO2198	TWTAYCCYCC (26 bp)	ARAAYCA (26 bp)		
Meusnier	F:Uni-MinibarF1	TCCACTAATCACAARGATAT	GAAAATCATAATGAAGGC	130	Meusnier <i>et al.</i> , 2008
	R:Uni-MinibarR1	TGGTAC (26 bp)	ATGAGC (24 bp)		
Zeale	F:ZBJ-ArtF1c	AGATATTGGAACWTTATATT	WACTAATCAATTWCCAAA	157	Zeale <i>et al.</i> , 2011
	R:ZBJ-ArtR2c	TTATTTTTGG (30bp)	TCCTCC (24bp)		

^a Hasleak kenduta aplikioiak duen neurria (bp = base pare).



2. Irudia. Hasleen kokapenak. COI mitondrialean markatzaileen kokapenen irudikapena (Brandon-Mong eta kideen (2015) lanetik moldatua).

Material eta metodoak

Lagin-bilketa

Pirinioetako muturluzearen gorotzak Urumea eta Oria ibaien arroetan bildu genituen, Euskal Herrian (Iberiar Penintsularen iparraldean), 2015eko azaroa eta 2016ko apirila artean, arroketako zuloetan eta sustraietan zuzenean bilatuz edo bereziki espezie honentzako diseinatutako kaka-leku artifizialak (1. Eranskina; González-Esteban eta kideak, 2018) eraikiz (1. taula). Denera 24 gorotz gorde ziren %98-eko etanolean eta -80°C -tan izoztu ziren.

Ikerketa hau Pirinioetako muturluzearen ekologia espazial eta trofikoaren ikerketa zabalago baten parte da, lekuko betebeharrak juridikoak bete zituen eta Euskal Herriko Unibertsitateko Animalien Ongizaterako Etika Batzordeak onartua izan zena (erref. CEBA/M20/2016/022). Ikerketa honetan egindako jarduerak ez zuten baimen zehatzik eskatzen, laginak modu ez inbasorean bildu zirelako eta ez zelako galzorian edo babestuta dagoen espezierik manipulatuta.

Hasle unibertsalen hautaketa

Harrapakin espezie potentzialen estaldura taxonomiko ahalik eta zabalena helburu izanik, bost hasle hautatu genituen (2. taula). Hasle horiek, egun ongi dokumentatutako erreferentziazko datu-basea duen eta animalien barkode eskualde estandarra den COI-aren baitako luzera desberdineko zatiak aplikatzen zituzten (2. irudia).

DNA-erazketa, liburutegiaren prestaketa eta HBS-sekuentziazioa (NGS)

DNA erazteko Quiagen Powerfecal DNA kit-a (Quiagen Iberia, S.L. Madril) erabili zen, fabrikatzailearen jarraibideak jarraituz. Ondoren, erazkinteko DNA PCR bidez aplikatu zen bost hasle erabiliz (2. taula), Euskal Herriko Unibertsitateko UPV/EHU Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorretan (SGIker). Laginak purifikatu, eta bigarren erreakzio bat egin zen Illumina Nextera v2 Kit-a erabiliz, aplikatutako produktu bakoitza indexatu eta Illuminako lotailuak eransteko. Zeale, Gillet, Leray eta Meusnier-en hasleekin egindako aplikazioak Quiagen Multiplex PCR Kit protokoloarekin egin ziren (Quiagen Iberia, S.L. Madril), $12,5\ \mu\text{L}$ Quiagen 2X (1X amaieran), $1,25\ \mu\text{L}$ aurreranzko hasle ($10\ \mu\text{M}$; $0,5\ \mu\text{M}$ amaieran), $1,25\ \mu\text{L}$ atzeranzko hasle ($10\ \mu\text{M}$; $0,5\ \mu\text{M}$ amaieran), $8\ \mu\text{L}$ H_2O eta $2\ \mu\text{L}$ DNA erabiliz,

amaierako 25 µL-ko bolumenetan. Brandon-Mong-en haslearekin egindako anplifikazioak aldiz 12,5 µL KAPA HIFI 2X (1X amaieran), 2,5 µL aurreranzko hasle (10 µM; 1 µM amaieran), 2,5 µL atzeranzko hasle (10 µM; 1 µM amaieran), 5,5 µL H₂O eta 2 µL DNA erabiliz egin ziren, amaierako 25 µL-ko bolumenetan. Hasle bakoitzak bere PCR-programa propioa zuen, erabilitako errektiboaren erreferentzia moldatuz, S1. taulan adierazi bezala. Anplifikatu ostean, PCR-z ekoiztatutako anplikoiak *MiSeq Reagent Kit v3 (600 ziklo)* erabiliz *Illumina MiSeq NGS plataforman* sekuentziatu ziren (parekatutako muturreko 2x300 bp-ko irakurketen sekuentziazioa), fabrikatzailearen jarraibideak jarraituz.

Analisi bioinformatikoak

USEARCH erabiliz (Edgar, 2010; Edgar eta Flyvbjerg, 2015), parekatutako muturreko sekuentzia-irakurketak bateratu ziren, eta ondoren hasleen bidez demultiplexatu, adaptadoreen eta hasleen sekuentziak ezabatu. CUTADAPT erabiliz (Martin, 2011) kalitatearen eta luzeraren arabera filtratu ziren sekuentzia-irakurketak. Ondoren, sekuentzia-irakurketa bakan edo *singletonak* ezabatu, eta gainontzeko sekuentziak USEARCH erabiliz miatu ziren kimerak topatzeko. Sekuentziak euren artean %97-ko antzekotasun-atalasearen arabera elkartu, eta OTU-ak (*Operational Taxonomic Units*) sortu ziren UPARSE algoritmoa (Edgar, 2013) erabiliz. Azkenik, BLAST (<https://blast.ncbi.nlm.nih.gov/Blast.cgi>) erabiliz, Genbank nt datubasea arakatu zen OTU-ei taxonomia esleitzeko. Espezie mailako esleipenak OTU-en sekuentziek erreferentziazko sekuentzietatikiko %98 baina parekako (*pairwise*) antzekotasun handiagoa eta %75 baina estaldura (*query cover*) handiagoa zutenean onartu ziren (Clare eta kideak, 2013). OTU-en sekuentziek datu-basean espezie batekin baina gehiagorekin bat egiten bazuten luzera handieneko parekatzea zuen emaitza hautatzen zen. Horrez gain, arau gisa, $1e^{-20}$ baina e-balio baxuagoko emaitzak soilik onartu ziren (Vesterinen eta kideak, 2013), parekatzea zoriz gertatu ez zela ziurtatzeko.

Ondorengo analisiak identifikatutako harrapakin-taxaren agerpenak (zenbat gorotzetan topatu zen taxon bat) (Shiel eta kideak, 1997) kontutan hartuz egin ziren. Hasleen emaitzetatik eraikitako OTU-ak ere aztertu ziren, horietako baten batek harraparia bera ere, hots Pirinioetako muturluzea, identifikatzen ote zuten ikusteko.

Datuen analisisia

Hasleek dietako espezieen konposizioaren aldakortasunean duten erabateko eragina aztertzeko, permutazio bidezko ANOVA multibariantea egin genuen


3.4.3 bertsioiko R-n (R Core Team, 2017) *vegan* 2.4–6 paketeko (Oksanen eta kideak, 2016) *adonis* erabiliz, azarezko 999 permutazioarekin. Laginen arteko diferentziak kalkulatzeko Jaccard distantzia-neurria erabili zen. Espezieen osaketan laginen artean zeuden desberdintasunak irudikatzeko NMDS bat egin genuen R-rako *vegan* 2.4–6 paketearekin. Espezieen osaketan hasleen artean zeuden parekako desberdintasunak ere aztertu ziren, R-rentzako *RVAideMemoire* 0.9-69-3 paketeko *pairwise.perm.manova* funtzioa erabiliz (Hervé, 2014). Hasleen baitako espezie osaketaren aldakortasuna (hots, homogeneousitasuna) 999-ko permutazioa erabiliz aztertu zen, R-rentzako *vegan* 2.4–6 paketeko (Oksanen eta kideak, 2016) *betadisper* eta *permutest* funtzioekin. Homogeneousitasunean hasleen arteko binakako desberdintasunak Tukey-ren HSD probarekin aztertu ziren, R-rentzako *vegan* 2.4–6 paketea erabiliz (Oksanen eta kideak, 2016).

Emaitzak


Hasleen artean sekuentziazioaren emaitzak nahiko desberdinak izan ziren, bai sekuentzien kopuruari zegokionean, baita OTU kopuru gordinari (osoari) zegokionean ere (3. irudia). Gillet hasleek lortu zuten sekuentzia eta OTU gordin kopuru altuena, eta ondoren Leray-renek (S2. taula). Brandon-Mong, Gillet eta Leray-ren hasleek muturluzea bera ere identifikatu zuten, baina Gillet eta Leray-renek soilik lortu zuten gorotz guztietan identifikatzea; ez zen muturluzea ez zen beste harraparirik identifikatu. Bost hasleek identifikatu zituzten harrapakin taxon arruntenak (hots, agerpen handienak zituzten *Baetis* sp., *Hydropsyche* sp., *Odontocerum* sp. eta *Psychoda* sp.), baina hain maiz ageri ez ziren harrapakin taldeei zegokienean ez zetozen guztiz bat (4. irudia eta S3. taula). Kuantitatiboki, Gillet-ek lortu zuen taxonomia esleitutako OTU zerrenda luzeena (OTU-en %19,15), eta baita agerpen balio altuenak ere. Zeale eta Leray-ren hasleek jarraitzen zuten aurrekoa, bai OTU gordinari eta esleipenei zegokienean ere (OTU-en %38,5 eta %7,81 esleituta, hurrenez hurren); aldiz, etekin baxuena Brandon-Mong eta Meusnier-en hasleek erakutsi zuten, OTU gordin gutxiagorekin eta OTU-en %15,79 eta %7,12 esleituta, hurrenez hurren. Esleitutako taxon kopurua kontutan izanik, Gillet-en hasleek lortu zuen Mollusca, Annelida eta Diptera, Ephemeroptera, Plecoptera, Trichoptera edo Arachnida bezalako artropodoen DNA anplifikatzen errendimendu altuena (S3 Table); Meusnier-en hasleek Salmonidoak anplifikatzen lortu zuen errendimendu altuena, eta Zeale-renak aldiz Coleoptera anplifikatzen izan zen hoberenak. Nahiz eta antzemandako agerpenak baxuagoak izan, Leray-ren hasleek Trichoptera eta Coleoptera anplifikatzen ere nahiko errendimendu altua lortu zuen. Gillet-en hasleen emaitzak Zeale-renekin alderatuta, Gillet-enek Mollusca eta Diptera, Ephemeroptera, Plecoptera, Trichoptera eta Arachnida bezalako

artropodoen inguruan Zeale-renek baino informazio gehiago eman zuen, Coleoptera, Psocoptera eta Decapodarekin kontrakoa gertatu zen bitartean. Bestalde, Gillet-en hasleen emaitzak Leray-renekin alderatuz, Leray-renek baina emaitza hobekia lortu zituen Gillet-enek Mollusca, Annelida eta Coleoptera, Diptera, Ephemeroptera, Plecoptera, Psocoptera, Trichoptera eta Arachnida bezalako artropodoak identifikatzean, Leray-renek Nematodarako balio pixka bat altuagoak lortu zituen bitartean.


Hasleen hautaketak estatistikoki eragin esanguratsuak izan zituen dietaren azken osaketan ($F_{(4,115)} = 15,712$; $R^2 = 0,353$; $p = 0,001$). NMDS-az argi eta garbi adierazi zen hori (5. irudia), laginak lau talde nagusitan taldekatu zirelarik: Zeale, Meusnier, Brandon-Mong eta Leray+Gillet. Hasleak euren artean orokorrean eta pareka konparatuz ezberdintasun esanguratsuak lortu ziren espezieen osaketari zegokionean (proba orokorra: $F = 10,425$; $p < 0,001$;



3. Irudia. Hasle bakoitzarekin lortutako OTU-en espezie mailako esleipen taxonomikoak. OTU kopurua eta lortutako sekuentzia totalaren portzentaia.




4. Irudia. Hasle bakoitzarekin espezieei esleitutako OTU kopuruak eta euren agerpenak. Maila taxonomiko altuak kontutan hartuta lortutako emaitzak.



5. Irudia. Laginen NMDS ordenazioa. Estresa = 0,193; $k = 2$; R^2 -aren doitze ez metrikoa = 0,963. Puntuek muturluzeen lagin bakoitza adierazten dute eta koloreek hasleak bereizten dituzte. OTU-ak letra berdeekin adierazi dira. Hurrunago dauden puntuek desberdinagoak diren harrapakin-konposizioak erakusten dituzte.


parekako proba: $p = 0,001$ guztietan), baina Zeale eta Leray-ren edo Gillet-en hasleekin anplifikatutako laginak izan ziren espezie osaketari zegokionean emaitza desberdinenak lortu zituztenak, Leray eta Gillet-en hasleek nahiko osaketa antzekoa erakutsi zuten bitartean, Leray-renek aniztasun handiagoa lortu zuela zirudien arren. Bestalde, espezieen osaketari zegokionean, Meusnier eta Gillet-en hasleen arteko diferentziak izan ziren baxuenak ($p = 0,029$), Zeale eta Meusnier-enez ($p = 0,013$) eta Gillet eta Brandon-Mong-enez ($p = 0,003$) jarraiki. Diferentziarik handienak aldiz, Zeale eta Gillet-enen artean topatu ziren ($p < 0,001$), Leray eta Gillet-enez ($p = 0,001$) jarraiki (6. irudia).

Bost hasleen anplifikazioen produktuak metatuz harrapakin espezie potentzialen identifikazioa optimizatu genuen. Gillet-enek lortu zituzten harrapakin identifikazio gehien (7. irudia). Gillet-en hasleak beste hasleekin konbinatuz, Zeale-renekin konbinatuz hazi zen gehien identifikatutako espezie kopurua



6. Irudia. Hasle guztien arteko konparaketentzako Tukey-ren HDS grafikoa. Kolore gorriak alde esanguratsuak adierazten ditu ($p < 0,05$). Grafikoa taldeen mailen arteko batzbesteko diferentziak erakusten ditu, non homogeneotasunari dagokionean Gillet eta Zeale-ren hasleen arteko diferentzia den handiena, Gillet eta Leray-ren artekoak jarraitzen duelarik.

(129 harrapakin espezie edo talde taxonomiko zehatz denera; Gillet-enak soilik erabiliz baina %37,2 gehiago). Ondorengo konbinazioetan, identifikatutako harrapakin espezieen kopurua Leray-renak gehituta hazi zen gehien, eta gero Brandon-Mong eta Meusnier-enak gehituta, hurrenkera horretan, pauso bakoitzean kuantitatiboki hazkuntza txikiagoa ematen zelarik.



7. Irudia. Hasle desberdinen konbinazio progresiboz lortutako harrapakin espezie kopuruaren metaketa. Hasleen mailakako konbinazioak (bat+bat, bi+bat, etabar) aurreko konbinazio-mailan metatutako espezieen kopuru altuenen arabera hautatu ziren (zutabe beltzak). B-k Brandon-Mong-en hasleak adierazten ditu, G-k Gillet-enak, L-k Leray-renak, M-k Meusnier-enak eta Z-k Zeale-renak.

Eztabaida

Gure ikerketak markatzaile molekularren aukeraketak —gure kasuan gene bereko gene desberdinak itu dituzten hasleak— dietaren karakterizazioan dezente eragiten duela erakutsi du. Hori filogenetikoki dieta zabala duten harrapari generalisten kasuan da bereziki garrantzitsua. Nahiz eta harrapakin taxon batzuk bost hasleak erabiliz erregulariki detektatu —maizen kontsumitutakoak, segur aski—, dietaren osaketaren azken argazkia erabilitako haslearen arabera izango da. Gure emaitzek Alberdi eta kideek (2018) saguzarretan lortutakoak baieztatu zituzten, bi markatzaile genetiko desberdin (COI-a eta 16S-a) itu zituzten lau hasle errendimendu ezberdina zutela behatu baituzten.

Hasleen errendimendua kuantitatiboki desberdina izateaz gain sekuentzia-irakurketen kopuru totalen, OTU gordinetan zein taxonomia esleitukoetan, eta identifikatutako ustezko harrapakin espezieen kopurutan, kualitatiboki ere desberdina izan zen, hasle bakoitzarekin lortutako talde filogenetiko nagusien proportzioan. Desberdintasun horiek taxon zehatzak anplifikatzeko hasle bakoitzak duen berariazko afinitatearen edo hasle bakoitzaren endekapen mailaren ondorio izan litezke.

Espresuki, DNA sekuentzia luzeagoek digestioa okerrago jasaten dutenez (Deagle eta kideak, 2006), DNA zati luzeagoak itu dituzten hasleek errendimendu baxuagoa izango dute gorotzetan harrapakinak identifikatzerako orduan. Luzera zehatzeko sekuentzia baten osotasuna ehunen arteko digestio-desberdintasuna, digestioan zeharreko denbora, eta erretentzio-denbora bezalako faktore askorekin erlazionatua legoke, eta desberdintasun hori aldakorra da harrapakin espezieen artean (Clare, 2014-n berrikusia). Hori hein batean bat dator gure ikerketarekin, izan ere Gillet-en hasleek, COI geneko ia zati laburrena itu dutenek (1. taula), lortu zituzten balio altuenak sekuentzia-irakurketei, OTU-ei eta detektatutako harrapakin potentzialei zegokienean. Leray-ren hasleek aldiz, taxonomikoki antzeko jomugak izan arren askoz aplikoi luzeagoak lortzen dituztenek, DNA zati gutxiago berreskuratutako zituzten eta ez ziren gai izan Gillet-en hasleek berreskuratutako zenbait taxon aplikatuzeko. Hala ere, ia zati luzera berdina jomuga zuten hasleek ere —Gillet eta Meusnier-enek, adibidez— emaitza desberdinak lortu zituzten, datu kuantitatiboek zein kualitatiboek zegokienean. Hori hasleen endekapen maila desberdinaren ondorio izan liteke (Elbrecht eta Leese, 2017). Izan ere, endekapen maila handiena duten Gillet eta Leray-ren hasleak (2. taula) izan ziren OTU gehien eman zituztenak, nahiz eta ondoren horietako asko taxon ezagunei esleitzea ezinezkoa izan (horietako %19.15 eta %7.8, hurrenez hurren); jomuga zuten COIaren zatitik haratago, beste DNA substratu asko aplikatuzeko ere gai liratekeela iradokitzen du honek. Endekapen maila baxuagoa zuten hasleek, aldiz —hala nola Zeale-renek— OTU kopuru askoz txikiagoa lortu zuten, nahiz eta horietatik ehuneko handiagoa izan taxon ezagunei esleitutakoak (%38,5), barkode-eskualdera lotura sendoagoa erakutsiz. Ondorioz, digestioaren ostean erlatiboki luzeak diren DNA-sekuentzien iraunkortasun aldakorrak eta horiek aplikatuzeko erabilitako hasleek eragina dute banakoen dietaren inguruan jasotako amaierako pertzepzioan. Hortaz, dieta-azterketetarako hasle egokien hautaketa ezinbestekoa da dietan aldakortasun handia espero den kasuetan (De Barba eta kideak, 2014).

Muturluzearen dieta aztertzeko ibilbide bat publikatu da berriki (Hawlitschek eta kideak, 2018), non “nested PCR”-en bidez gorotz zahar eta berrien DNA metabarcoding-a egiten den. Ekarpen metodologiko horrek aurre-aplikaziozko pauso bat gehitzen du, helburu diren taxari dagozkien sekuentzia-irakurketen kopuruak handitzeko. Autoreek, ordea, euren prozedurak aplikazioaren espezifikotasunean igoera eragin zezakeela azpimarratu zuten, hortaz, funtsezko espezie batzuen sekuentziak galduz. Gure emaitzek “nested PCR”-ak hasleen alborapena handiagotuko lukeela iradokitzen dute, erabilitako bi hasleen eragina biderkatuz. Hawlitschek eta kideek (2018) ere, etorkizunean ikerketen helburu dugun taldearen aplikazioaren arrakasta hobetzeko, hasle bat baino gehiagoren aplikazio produktuen hasle-koktel edo -konbinatuak

(*pools*) erabili beharko liratekeela proposatu zuten. Hori da, hain zuzen ere, lan honek aztertu eta egiaztatu duena.

Muturluzearen ekologia trofikoari dagokionean, berriki egin diren bi metabarcoding-ikerketek datu berriak eman dituzte: Biffi eta kideek (2017a), Gillet-en hasleak soilik erabiliz, Pirinioen iparraldean espeziearen udako dieta zabala batez ere Ephemeroptera eta Plecopteran oinarriturikoa zela ikusirik, muturluzea “lehenago uste zena baina generalistagoa” zela esan zuten; Hawlitschek eta kideek (2018), Meusnier-en hasleekin eta nested PCR-ekin lan eginez, Iberiar Penintsularen ipar-mendebaldean harrapakin talde ugariak Ephemeroptera eta Diptera zirela ikusi zuten. Nahiz eta eskualde desberdinean lan egin izan eta lagin tamainari dagokionean mugatuago egon, gure datuek ere taxon horiek identifikatu zituzten neguko muturluzeen dietaren beharrezko osagai gisa. Hala ere, espezieen kopurua eta euren agerpen-tasak erabilitako haslearen araberrakoa izan ziren nagusiki. Ikerketa horien emaitzek zein mailataraino erakusten dituzte alde metodologikoak, muturluzeen harrapakin-eskuragarritasunaren eskualde mailako desberdintasunak erakutsi beharrean? Ez da erraza esaten. Muturluzearen —edo beste edozein animaliaaren— dietaren karakterizazioa hasle-joko bakarra erabiliz eginez gero alborapen larriak izango dituela iradokitzen dute gure emaitzek. Horiek harrapari-harrapakin interakzioen edo harrapakin-hautespen patroien gisako ondorio ekologikoak ahulduko lituzkete, eta horiek gako izan daitezke kontserbazio-neurri egokiak ezartzeko.

Espezie bat generalista gisa deskribatzen denean, izan daiteke bai banako-mailako dieta espezialista ezberdin asko kontutan hartzen direlako (Araujo eta kideak, 2011), edo bai banakoak elikagai-dibertsitate zabalez bazkatzeko gai direlako (Clare eta kideak, 2011). Harrapari generalista baten dieta aztertzerakoan, haslearen aukeraketak bere ekologia trofikoaren eta espezializazioaren interpretazioa baldintzatuko du. Bazka-ohiturak hautemateko moduak komunitatearen dinamiken eta ekosistemen funtzionamenduaren interpretazioan eragiterik du (Bolnick eta kideak, 2011), eta hortaz, dietaren edozein deskribapen alboratuk kate trofikoaren egiturak gaizki ulertzera edo kontserbaziorako erabaki desegokiak hartzera eraman ditzake kudeatzaileak (Bolnick eta kideak, 2003; Devictor eta kideak, 2010). Adibidez, saguzarrentzako (Burgar eta kideak, 2013; Mata eta kideak, 2016; Krauel eta kideak, 2018), hegaztientzako (Gerwing eta kideak, 2016; Ando eta kideak, 2018), karraskarientzako (Lopes eta kideak, 2015) eta barraskiloak (Boyer eta kideak, 2013) bezalako ornogabeentzako —besteak beste— teknika molekularrak erabiliz deskribatu izan dira erlazio trofikoak. Espezie baten beharizan trofikoaren inguruko ezagutza zehatza jasotzeko funtsezkoa da ekologia trofiko eta espazialaren ikerketa zehatzetan inbertitzea. Harrapakin espezie potentzialen ahalik eta aukera zabalena detektatzeko, eta funtsezko informazioa galtzea

saihesteko, hasle desberdinak konbinatzearen garrantzia nabarmentzen dute gure emaitzek. Erabaki metodologikoez edozein animalia-eraren beharizan trofikoaren balorazioan eragiten dute, bai eta balorazio horretan oinarritutako kudeaketa neurrietan ere (Kohn eta Wayne, 1997).

Gainera, galzorian dauden edo iheskorak diren animaliekin lan egiterako orduan ezinbestekoa da bildutako laginen adskripzioa —gorotzen egilea, kasu— zuzenki identifikatzea. Oraingoz, tresna molekularrak erabilgarriak izan dira saguzarrak (Vesterinen eta kideak, 2013; Arrizabalaga-Escudero eta kideak, 2018), haragijaleak (Farrel eta kideak, 2000; Shehzad eta kideak, 2012), pinipedoak (Casper eta kideak, 2007), hegaztiak (Marchesi eta kideak, 2002) eta muturluzea bera (Biffi eta kideak, 2017a) bezalako harrapari sorta zabal baten gorotzetatik dieta-deskribapen zehatzak lortzeko. Ikerketa honetan probatutako hiru haslerekin, hots, Leray, Gillet eta Meusnier-enekin, identifikatu zen muturluzea gorotzetatik. Hala ere, Leray eta Gillet-en hasleek soilik identifikatu zuten muturluzea arrakastaz analizatutako gorotz lagin guztietan, Meusnier-enek kordatuak identifikatzeko errendimendu baxuagoa dutela baieztatuz (Meusnier eta kideak, 2008). Oro har, nahasgarriak diren gorotzak dituzten harrapari intsektiboroen dieta-azterketetan, aukeratutako hasleen artean hasle batek behintzat harrapariaren DNA anplifikatzeko gai izan behar du, identifikazio erroreak murrizteko.

Gure emaitzek Pirinioetako muturluzearen dieta hasle desberdinak konbinatuz karakterizatu beharko litzatekeela iradokitzen dute, baina hasleen hautaketak datuen zehaztasuna eta kostuak ere hartu behar ditu kontutan. Errentagarritasunari dagokionean, Gillet eta Zeale-ren hasleen arteko konbinazioa litzateke hoberena, harrapakinen aukera taxonomiko ahalik eta zabalena identifikatzeaz gain, muturluzea bera ere identifikatzeko. Konbinazio hori, mailaka aberaste altuenetik baxuenera, Leray, Brandon-Mong eta Meusnier-en hasleak gehituz hobetuko litzateke. Hala eta guztiz ere, hasleak konbinatzerakoan anplifikatutako sekuentzien luzerak euren artean oso desberdinak ez izatea ere kontutan izan behar da, HBS-sekuentziazio-prozedura batzuek aplikoi laburren alde dituzten alborapenak saihesteko. Hortaz, gure kasuan, Gillet eta Zeale-ren hasleen konbinazioak Gillet eta Leray-ren hasleen konbinazioak baino arazo gutxiago emango lituzke, Leray-renekin lortutako aplikoi zatiak tamainaz bikoitzak liratekeelako.

Oro har, ikerketa honek markatzaile zehatz batetan azpi-eskualde ezberdinak erabiltzeak emaitza kontrajarriak ematen dituela erakutsi du, eta harrapari generalista baten harrapakin-espektra karakterizatzeko hasle desberdinak kontutan hartzearen garrantzi ekologikoa azpimarratzen du. Azken batean, mehatxatutako espezieentzako kontserbazio-neurriak hartzerako orduan erabakigarria izan liteke prozedura metodologikoa. Adibidez, galzorian dagoen

animalia baten dietak bere paper ekologikoaren eta biologiaren inguruko funtsezko informazioa ematen du, berau babesteko ezinbestekoa izan litekeena. Beraz, metabarcoding bidezko dieta-azterketetan ezinbestekoa da hasle desberdinen konbinazioa probatu eta ebaluatzea. Baldintza trofikoak eta habitat-baldintzak faktore gakoak dira galzorian dauden espezie askoren kontserbaziorako (Sinclair eta kideak, 2006; Sutherland, 2000). Erabilitako hasleen konbinazioak dietaren emaitzetan hainbeste eragiten duenez gero, metabarcoding bitartezko ikerketetan hasleen arteko konbinazio desberdinak probatu eta ebaluatzea beharrezkoa da.

Eskerrak

Iñigo Mendiola eta Aitor Lekuona (Gipuzkoako Foru Aldundia), eta Asunción Yarzabal eta Iñaki Uranga (Donostiako Udaletxea) eskertu nahi ditugu lan hau egin ahal izateko eman diguten laguntzarengatik, eta baita Sekuentziazio eta Genotipo Azterketen Unitateak — Genomic Facilities — SGIker (UPV/EHU/ERDF, EU) ere, eman diguten babes tekniko eta pertsonalarengatik ere. Autoreek interes-gatazkarik ez dagoela, eta DESMA Estudios Ambientales konpainia komertzialak euren PLOS ONE-ko politikei dagokienean datuak eta materialak konpartitzaile orduan euren atxikidura aldatzen ez duela aitortzen dute.

Informazio gehigarria

S1. Taula. Bost hasleen PCR baldintzen xehetasunak.

PCR pausoak	Zeale	Gillet	Leray	Meusnier	Brandon-Mong
Hasiera	95 °C, 10 min	95°C, 15 min	95°C, 10 min	95°C, 10 min	95°C, 2 min
Desnaturalizazioa	16 ziklo:	40 ziklo:	16 ziklo:	5 ziklo:	25 ziklo:
	95 °C, 30 seg	94 °C, 30 seg	95 °C, 10 seg	95 °C, 1 min	95 °C, 15 seg
	61 °C, 30 seg	45 °C, 45 seg	62 °C (-1 °C zikloko), 30 seg	46 °C, 1 min	45 °C, 30 seg
	72 °C, 30 seg	72 °C, 30 seg	72 °C, 60 seg	72 °C, 30 seg	72 °C, 3 min
Suberapena	24 ziklo:		25 ziklo:	35 ziklo:	
	95 °C, 30 seg		95 °C, 10 seg	95 °C, 1 min	
	53 °C, 30 seg		46 °C, 30 seg	53 °C, 1 min	
	72 °C, 30 seg		72 °C, 60 seg	72 °C, 30 seg	
Hedapena	72 °C, 10 min	72 °C, 10 min	72 °C, 10 min	72 °C, 10 min	72 °C, 10 min

S2. Taula. Hasle bakoitzarekin lortutako sekuentzia-irakurketa gordinak, bahetutako sekuentzia-irakurketa eta OTU kopurua.

	Brandon-Mong	Gillet	Leray	Meusnier	Zeale
Sekuentzia-irakurketa gordina	3754874	12667575	4364497	5050701	3110300
Bahetutako sekuentzia-irakurketak	557978	11788479	1668749	4120090	2231688
OTU kopuru gordina (osoa)	342	2063	1920	604	200
Taxonomia esleitutako OTU kopurua	54	395	150	43	77

S3. Taula. Hasle bakoitzarekin talde taxonomiko bakoitzean identifikatutako espezie (Esp.) eta agerpen kopuruak (Ager.).

Taldea taxonomikoa	Brandon-Mong		Gillet		Leray		Meusnier		Zeale	
	Esp.	Ager.	Esp.	Ager.	Esp.	Ager.	Esp.	Ager.	Esp.	Ager.
Annelida (Enchitreidae)	1	10	2	4	1	1	0	0	0	0
Arachnida	0	0	1	1	0	0	0	0	0	0
Coleoptera	1	1	4	7	3	3	0	0	5	8
Decapoda (Paciphastacus)	1	1	1	2	1	2	0	0	1	7
Diptera	4	29	21	84	7	43	2	17	8	67
Ephemeroptera	4	53	12	159	5	70	2	24	3	15
Lepidoptera	1	1	21	39	20	51	8	25	32	135
Mollusca	0	0	2	2	0	0	0	0	0	0
Nematoda	1	4	0	0	1	1	0	0	0	0
Odonata	0	0	1	2	1	2	1	1	0	0
Plecoptera	4	9	7	47	4	19	0	0	2	7
Psocoptera	0	0	1	1	0	0	0	0	1	2
Salmonidae	1	1	1	1	1	1	2	2	0	0
Trichoptera	6	31	22	127	20	75	5	31	13	75
Guztira	24	140	96	476	64	268	20	100	65	316

4. Kapituluia



Giroa da, ez menua.
Harrapakin eskuragarritasunak ez du
galzorian dagoen Pirinioetako muturluzearen
habitat hautespena eragiten

Argitalpena

Kapitulu honetan oinarrituriko artikulu bat aztertua izaten ari da *Aquatic Conservation: Marine and Freshwater Ecosystems* aldizkarian:

Esnaola, A., Mata, V., Arrizabalaga-Escudero, A., González-Esteban, J., Larrañaga, A., Rebelo, J., Elosegi, A., eta Aihartza, J. (2018). It is the ambience, not the menu. Prey availability does not drive habitat selection by the endangered Pyrenean desman. *Aquatic Conservation: Marine and Freshwater Ecosystems*.

Laburpena

1. Pirinioetako muturluzea (*Galemys pyrenaicus*) Iberiar Penintsula eta Pirinioetako erreketan endemikoa den eta galzorian dagoen intsektiboroa da. Ur-bare eta putzuen aldean urlasterrak ditu nahiago, baina oraindik ez dago argi habitat hautespen horrek harrapakin eskuragarritasuna edo bestelako faktoreren bat duen oinarri.
2. Ikerketa honetan muturluzearen dieta eta harrapakin-hautespena aztertu ziren, ia ukitu gabeko Elama errekan eta giza jardueraren eraginpean dagoen Leitzaran ibaian (Euskal Herria).
3. Kontsumitutako harrapakinak identifikatzeko 94 gorotz aztertu ziren metabarcoding bidez erreka bakoitzean eta harrapakin-eskuragarritasuna deskribatzeko, aldiz, 10 Surber lagin bildu ziren erreka bakoitzeko habitat mota bakoitzean (urlaster, ur-bare eta putzuetan). Ornogabeak sailkatu eta identifikatu egin ziren, taxon bakoitzaren biomasa kalkulatu zen eta, horrez gain, euren DNA erauzi zen, PCR bidez aplikatu eta sekuentziatuz erreferentziako datu-base bat eraikitzeko.
4. Harrapakin-eskuragarritasuna eta dieta ezberdinak izan ziren bi ibaietan. Muturluzeek zatitzaileak eta substratuaren gainean bizi diren ornogabeak hautatu zituzten positiboki, eta substratu finen barnean bizi diren taxa, oskol gogordunak eta oso mugikorak hautatu zituzten negatiboki. Muturluzeen dieta selektiboagoa izan zen Elaman, egoera ekologiko hobea duen errekan. Bazka-eskuragarritasunean ez zen alderik behatu habitaten artean, eta hortaz, honek ez du muturluzeen urlasterrekiko zaletasuna azaltzen: aitzitik, hautespen horren erantzuleak flotagarritasunari aurre egiteko muga mekanikoa eta habitat fisikoaren heterogeneotasuna izango zirela uste da.
5. Erreketan urlasterren sorrera bultzatzeak habitat degradatuetan bizi diren muturluzeen populazio batzuen egoera hobetu zezakeela iradokitzen dute emaitzek.

Hitz-gakoak

bazka, erreka, galzorian dauden espezieak, ibaia, jokabidea, metabarcoding, ornogabeak, ugaztunak

Sarrera

Galzorian dauden animalien ekologia trofikoak eta bazka-estrategiak ulertzea garrantzitsua da euren populazioen dinamikak iragarri eta kontserbazio-programa eraginkorrak garatzeko (Sinclair eta kideak, 2006). Bazka-jokabidea nagusiki bazka-baliabideen konposizio, ugaritasun eta banaketaren arabera denez (adb. Waggitt eta kideak, 2018), habitataren eta bazka-eskuragarritasunaren arteko erlazioa funtsezko gaia da kontserbazio-biologian (adb. Goiti eta kideak, 2008; Karanth eta kideak, 2004; Shuterland eta Green, 2004).

Pirinioetako muturluzea (*Galemys pyrenaicus*, É. Geoffroy Saint-Hilaire, 1811, Eulipotyphla, Talpidae, 1. Irudia) mendiko erreketan bizi den ugaztun intsektiboro generalista erdi-urtarra da. Endemikoa da Iberiar Penintsularen iparraldean eta Pirinioetan, baina bere banaketa-eremua gogorki murriztua izan da azken hamarkadetan, eta horrek Naturaren Kontserbaziorako Nazioarteko Batasunaren (IUCN) zerrenda gorrian Zaurgarri gisa sailkatzea ekarri du (Fernandes eta kideak, 2008). Zaletasun sendoa du jario bizkorreko urlasterrekiko, motelagoak diren ur-bare eta putzuen aldean (2. Kapituluak; Esnaola eta kideak, 2018b), baina ez dago argi hautespen hori harrapakin-eskuragarritasunaren edo bestelako faktoreen arabera den, hau da, giroaren (hots, ezaugarri fisikoak) edo menuaren (hots, harrapakin eskuragarriak) arabera hautatzen ote dituen bere bazka-lekuak (jatetxea). Muturluzearen ekologia trofikoaren inguruko informazio gabeziak espezie hau egokiro kudeatu ahal izatea zailtzen du (MAGRAMA, 2013; Némoz eta Bertrand, 2008).



1. Irudia. Pirinioetako muturluzea (*Galemys pyrenaicus*) Elama errekan. Argazkia: Jorge González-Esteban.

Muturluzeen gorotzen edo urdailen edukietako harrapakinen hondarren identifikazio bisualak (e.g. Bertrand, 1992; Casti n eta Gos lbez, 1995; Santamarina, 1993) ornogabe bentonikoen espektrora zabalaz bazkatzen direla erakutsi zuen. Berriki, gorotzen DNA metabarcoding-ak (Bohmann eta kideak, 2014) harrapakinak espezie mailaraino identifikatzea ahalbidetzen du, baita gorputz biguneko animalien kasuan ere. Asko izan dira metodo horiek muturluzeen gorotzetan aplikatu dituzten autoreak. Biffi (2017a) eta Biffi eta kideak (2017b), Pirinioen iparraldean, 91 familiatako eta 30 ordenetako 156 harrapakin genero identifikatu zituzten. Ondoren, Hawlitschek eta kideak (2018) 140 genero identifikatu zituzten denera Iberiar Penintsulan. Ikerketa horiek muturluzeak nagusiki Ephemeroptera, Plecoptera, Trichoptera eta Dipteraz bazkatzen direla baieztatu zuten, nahiz eta balitekeen hasleen alborapenaren (3. Kapituluua; Esnaola eta kideak, 2018a; Pi ol eta kideak, 2019) eta bestelako muga metodologiko batzuen eragina jaso izana (adb. Oehm eta kideak, 2011).

Muturluzearen urlasterrekiko zaletasuna bazka-eskuragarritasunaz edo bestelako faktoreez baldintzatua dagoen aztertzeke, bazka-eskuragarritasuna hiru mikrohabitatatetan (urlaster, ur-bare eta putzuetan) ezaugarritu eta Esnaola eta kideak (2018a; 3. Kapituluua) egindako irradi-telemetria bidezko habitat-hautespenaren ikerketaren garai berean bildutako muturluzeen gorotzetatik zehaztutako dietarekin konparatu zen. Muturluzeek urlasterrak bertako harrapakinen eskuragarritasuna handiagoa zelako (Dewson eta kideak, 2007) hautatzen zituztela izan zen hipotesi nagusia. Muturluzearen dietaren malgutasuna aztertzeke, egoera ekologiko desberdineko bi erreketan burutu zen ikerketa. Muturluzeak hautatzen dituen harrapakinak zein diren aztertzea ere helburu zuen ikerketak. Lan honen emaitzek kontserbazio-arduradunentzako informazio garrantzitsua eskaini eta mehatxatutako Pirinioetako muturluzearen populazioak hobeto babesteko kudeaketa-egitasmoak gidatu ditzakete etorkizunean.


Material eta metodoak

Ikerketa-eremua

Ikerketa Iberiar Penintsularen iparraldeko mendiko bi erreketan egin zen (Euskal Herria; 2. Irudia). Europar Batasunaren Natura 2000 sarearen baitan babestuta daude bi erreka horiek, eta biek dute egoera ekologiko ona Uraren Europako Zuzentarauaren arabera (Council of the European Communities, 2000). Dena den, ingurumen-presio desberdinak pairatzen dituzte bi errekek. Elama bigarren ordenako mendiko erreka bat da, biztanlerik gabeko granito eta

eskistozko 1415 ha-ko arroa estaltzen duena, 1919-tik natura erreserba gisan zorrozki kudeatua izan dena, eta ondorioz pago eta haritzez osaturiko baso-estaldura zabala duena (Castro, 2009). Gaur egun Elamaren arroan ez dago baso-jarduerarik. Bestalde, Leitzarar laugarren ordenako ibaia da, kareharri, arbel eta hareharrizko 12 402 ha-ko arroa estaltzen duena. Elaman ez bezala, 3150 biztanle dituzten bi herri kokatzen dira Leitzararen arroaren goiko aldean, nahiz eta horren ostean errekek biztanlerik gabeko 25 km inguruko haran luzea zeharkatzen duen, non basogintza eta jarduera hidroelektrikoetarako ur-erazketak diren giza-eraginezko jarduera nagusiak (Izagirre eta kideak, 2013).

Ikerketa Esnaola eta kideek (2018b; 2. Kapituluak) argitaratutako irradi-telemetria laneko tarte eta garai beretan egin zen: Elama erreka 4 km-ko tartean ($1^{\circ}48'36''W$ $43^{\circ}12'40''N$ eta $1^{\circ}48'4''W$ $43^{\circ}11'14''N$ artean; batezbesteko altitudea, 330 m; batezbesteko zabalera, 7,08 m), eta Leitzarar ibaiko 10 km-ko tartean ($1^{\circ}57'26''W$ $43^{\circ}8'57''N$ eta $1^{\circ}56'9''W$ $43^{\circ}6'55''N$ artean; batezbesteko altitudea, 290 m; batezbesteko zabalera, 12,42 m). Tartean luzeren arteko aldeak Leitzarar ibaian muturluzeen dentsitate baxuagoari dagozkie.



2. Irudia. Ikerketa-eremua: (a) Elama eta (b) Leitzarar errekek. Gorotz laginak laginketa-tokietan multzokatu ziren (A-M) bilaketak egindako ibai tarteetako gorotzen agerpenen *heat map*-aren arabera. Iberiar Penintsulako Pirinioetako muturluzearen banaketa gorritz adierazita dago (Fernandes eta kideak 2008).

Muturluzearen dieta

Pirinioetako muturluzearen gorotzak bi erreketan bilatu ziren (2. Irudia) 2016ko irailean eta urrian, espezie honentzako bereziki diseinatutako kaka-leku

artifizialak eraikiz (1. Eranskina; González-Esteban eta kideak, 2018). Denera 188 gorotz (errekako 94) bildu eta hodiedtan gorde ziren, %98 etanolean, eta DNA erauzi arte -80°C-tan izoztu ziren.

Muturluzeen gorotz-laginetako DNA-ren erauzketa, PCR-anplifikazioa eta Errendimendu Altuko Sekuentziakzioa (EAS) Esnaola eta kideek (2018a; 3. Kapitulua) deskribatu bezala egin zen, Gillet (Gillet eta kideak, 2015) eta Zeale (Zeale eta kideak, 2011) hasleak konbinatuz, kontsumitutako harrapakin espezieen ahalik eta gama zabalena identifikatzeaz gain, harraparia bera ere identifikatzeko. Neurria eginiko datu-base bat eraikitzeke, bi erreketan bildutako ornogabeetatik (ikus beheerago) ere DNA erauzi zen. DNA erauzi, amplifikatu eta sekuentziatu, Euskal Herriko Unibertsitateko UPV/EHU Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorretan (SGIker) egin zen. Xehetasun metodologikoak 1. eta 2. informazio gehigarrietan topa daitezke (S1. Taula).

Dietaren emaitzak erreka bakoitzeko harrapakin taxa bakoitzaren agerpen-maiztasunen bitartez (*frequency of occurrence*, FO) eta agerpenen ehunekotan (*percentage of occurrence*, PO) adierazi ziren. Taxon baten FO-k taxon hori gorotzen zein proportziotan detektatzen zen adierazten du eta PO-k taxon bakoitzaren agerpen kopurua eta taxa guztien agerpen kopuru totalaren arteko ratioa adierazten zuen, ehunekotan (Deagle eta kideak, 2019).

Harrapakin-eskuragarritasuna

Makroornogabe urtarrak Surber sare batez (30 cm x 30 cm; 1 mm-ko sarea) lagindu ziren, aurrez egindako irrati-telemetrya ikerketan (2. Kapitulua; Esnaola eta kideak, 2018) identifikatutako hiru habitat motetan (Overton eta kideak, 1997): hots, “urlasterrak”, ura bizkor, zurrunbilotsu, azalera irregularrez eta zurixka duten lekuak; “ur-bareak”, ura ia laminarra eta sakonera erregularra dutenak; eta “putzuak”, ibilguaren sakonuneetan, emari motelekoak. Habitateko eta errekako 10 lagin bildu ziren, denera 60 lagin izanik. Lagin horiek plastikozko ontzietan gorde eta %97-ko etanoletan mantendu ziren identifikazioa burutu arte.

Laborategian, makroornogabeak 2mm-ko sareaz bahetu, sailkatu, zenbatu, neurtu eta disezio mikroskopioaz identifikatu ziren. Bereizmen taxonomikoa genero edo espezie mailan ezarri zen taxa gehienentzako, Diptera, Coleoptera, Oligochaeta, Hirudinidae eta Nematoda salbuespenak izanik, zeinak familia edo ordena mailan identifikatu ziren (2. Informazio gehigarria, S2. eta S3. Taulak). Harrapakin biomasa ($gAFDMm^{-2}$, edo metro karratuko errautsik gabeko masa lehorraren gramoak) tamaina-masa erregresioetatik kalkulatu zen (2. Informazio gehigarria, S4. Taula).

Analisi estatistikoak

Dietaren eta harrapakin-eskuragarritasunaren laginketen osotasuna 'iNEXT' online plataforma (Chao eta kideak, 2016) erabiliz ebaluatu zen, taxaren asetason-kurbak eraikiz.

Dieta-konposizioari zegozkion erreken arteko aldeak espezie zein familia mailan aztertu ziren Permutazio bidezko MANOVA (PerMANOVA; Anderson, 2001) erabiliz, eta alde horiek eragiten zituzten taxa Korrespondentzia-Analisiaz (CA) identifikatu ziren. PerMANOVA R-rako *geomorph* paketeko *procD.lm* funtzioa erabiliz egin zen (Adams eta kideak, 2017).

Erreken arteko harrapakin-eskuragarritasuna hiru mailatan konparatu zen: harrapakin-eskuragarritasun potentziala (lagindutako ornogabe guztiak barneratuz), kontsumitutako harrapakinen eskuragarritasuna (dietan agertzen ziren taxa soilik hartuz kontutan) eta positiboki hautatutako harrapakinen eskuragarritasuna (positiboki hautatzen ziren taxa soilik hartuz kontutan, hau da, dietan ornogabeen laginetan baina sarriago agertzen zirenak, %20-ko diferentziazko atalasearekin). Harrapakin potentzialen eskuragarritasunaren taxa aberastasunak ANOVA erabiliz konparatu ziren, espezie eta familia mailak kontutan hartuz. Eskuragarritasun neurketa bakoitzaren dentsitateak (banako m^{-2}), biomasak ($gAFDMm^{-2}$) eta batzbesteko gorputz-masak ($gAFDM$) ere ANOVA bidez konparatu ziren, \log_{10} transformazioaren bidez normalizatu ostean. Harrapakin-taxa bakoitzaren batzbesteko gorputz-masa ($gAFDM$) biomasa zati dentsitatea eginez kalkulatu zen (Flores eta kideak, 2011).

Harrapakin-hautespena ebaluatzeko harrapakin-eskuragarritasun potentziala, kontsumitutako harrapakinen eskuragarritasuna eta positiboki hautatutako harrapakinen eskuragarritasuna, taxon bakoitzaren dietako FO-ekin konparatu ziren. Harrapakin-eskuragarritasuna hiru eratan ezaugarritu zen horretarako: 1) harrapakin-eskuragarritasun totala (analisi ez-kontserbadoreena); 2) harrapakin-eskuragarritasun totala erreka, bakoitzeko muturluzeen bizi eremuko habitat eskuragarrien batzbesteko azaleraz zamatuta (Esnaola eta kideen, 2018b, irrati-telemetry lanean oinarritua; 2. Kapituluua); eta 3) harrapakin-eskuragarritasun totala, habitat mota eta erreka bakoitzeko muturluzeen batzbesteko jardueraz zamatuta (analisi kontserbadoreena; Esnaola eta kideen, 2018b, irrati-telemetry lanean oinarritua; 2. Kapituluua). Metodo horiek PerMANOVA erabiliz konparatu ziren, taxa espezie mailan zehaztuz. Harrapakin-hautespena erreka bakoitzerako zein aldi berean bi erreketarako estimatu zen, taxon bakoitzarentzako dietaren eta eskuragarritasunaren arteko aldeak FO-etan adieraziz. Horretarako, harrapakin-eskuragarritasuna ere erreka bakoitzeko harrapakin taxa bakoitzaren agerpen-maiztasunaz (FO) adierazi zen,

erreka bakoitzean harrapakin taxa bakoitza Surber laginen zein proportziotan agertzen zen erakutsiz. Taxaren hautespen positiboa edo negatiboa irizteko %20-ko diferentziako atalasea ezarri zen.

Positiboki hautatutako harrapakin-taxa harrapakin-eskuragarritasunaren hurbilpen kontserbadoreago bat lortzeko erabili ziren, muturluzearen ekologia espaziala (habitat lasterrekiko zaletasuna, Esnaola eta kideak, 2018b; 2. Kapituluua) azaldu zezaketen habitaten arteko diferentziak bilatzeko helburuz. Harrapakin eskuragarrien dentsitate, biomasa eta batazbesteko gorputz-masaren balioespenak bi erreketarako egin ziren eta balioak ANOVA bidez konparatu ziren.

Analisi guztiak $p < 0,05$ esangarritasun mailarekiko egin ziren. Analisi estatistikoak R 3.4.3 (R Core Team, 2014) erabiliz egin ziren.

Emaizak

DNA sekuentziak

Arrakastaz erauzi eta anplifikatu zen DNA lagin guztietatik, Leitzarango lagin baten salbuespenarekin, zeinak sekuentziazioan zehar ez zuen behar beste sekuentzia-irakurketa ekoitzi. Hori honela, Elamako 94 eta Leitzarango 93 gorotz aztertu ziren denera. Gillet haslearekin 4896 OTU lortu ziren denera eta Zeale haslearekin 844 OTU. Horietatik Gillet-en 64 eta Zeale-ren 75 OTU-k pasa zituzten dietaren azterketako iragazkiak, zeinak Gillet-ekin 41 taxari (23 familia) eta Zeale-rekin 46-ri (33 familia) esleitu zitzaizkien. Bi hasleek 13 familia partekatu zituzten. Gillet-ek muturluzeari berari zegozkion hainbat OTU anplifikatu zituen lagin guztietan, gorotzak espezie honi zegozkiola baieztatuz.

Dieta

Taxaren asetahun-kurbek asintotarantz jo zuten, eta laginen osotasuna %95 baina altuagoa izanik, erabilitako lagin tamaina (gorotz kopurua) Elama eta Leitzarango erreketako muturluzeen dieta deskribatzeko nahikoa zela baieztatzen (2. Informazio gehigarria, S1. Irudia).

Dietan Insecta eta Malacostraca izan ziren nagusi (FO %100 eta %93, hurrenez hurren), Ephemeroptera, Diptera, Amphipoda eta Trichoptera izanik ordena arruntenak (FO %99, %94, %92 eta %88, hurrenez hurren) (3. Irudia; 1. Taula;


2. Informazio gehigarria, S5. Taula). Maizen kontsumitutako harrapakin-familiak Heptagenidae, Gammaridae, Baetidae eta Simuliidae izan ziren bi erreketan (FO %94, %92, %91 eta %90, hurrenez hurren), eta genero arruntenak (FO >%70) *Baetis*, *Ecdyonurus* eta *Echinogammarus* Elaman eta *Baetis*, *Echinogammarus* eta *Epeorus* Leitzararen.

Dietaren osaketa esangarriki desberdina izan zen bi erreketan, bai espezie (F = 58,24; a.g. = 1; p = 0,001) zein familia mailan (F = 16,88; a.g. = 1; p = 0,001). Odontoceridae, Perlidae, Leptophlebiidae eta Astacidae izan ziren diferentzia handienak eragin zituztenak (CA grafikoaren 1. dimentsioa, 2 Informazio gehigarria, S2. Irudia), lehenengo hiruak nagusiki Elaman eta azkena Leitzararen agertuz (4. Irudia).

Harrapakin-eskuragarritasuna

Ugaritasun zein presentzia-ausentzia datuetan taxaren asetasun-kurbek asintotarantz jo zuten eta laginen osotasuna %80 baina altuagoa zen, erabilitako lagin tamaina (Surber laginen kopurua) Elama eta Leitzararen erreketako muturluzeen harrapakin-eskuragarritasuna deskribatzeko nahikoa zela baieztatuz (2. Informazio gehigarria, S3. eta S4. Irudiak).

Ornogabe-taxaren aberastasuna altuagoa zen Leitzararen Elaman baino (5. Irudia), diferentziak espezie (F = 4,41; a.g. = 1; p = 0,041) zein familia mailan (F = 6,59; a.g. = 1; p = 0,013) izanik estatistikoki esangarri. Habitaten arteko eta erreken baitako habitaten arteko aldeak ez ziren esangarriak.




3. Irudia. Pirinioetako muturluzearen dieta-osaketaren sektore-diagramak. Harrapakin talde bakoitzaren agerpenen ehunekoak (PO), bi erreketan.

1. Taula. Dieta azterketa honen eta lehenagoko dieta azterketen arteko konparaketa. Emaizak FO-tan adierazi ziren. Ikerketa orotan gorotzen %5 baino gutxiagotan agertutako taxa ezabatuak izan ziren. Hasleak: G = Gillet eta kideak 2015; Z = Zeale eta kideak 2011; F = Folmer eta kideak 1994; M = Meusnier eta kideak 2008. Ikerketa honetan erabilitako datuak, hau da, Gillet eta Zeale hasleekin lortutako datuak, beltzez nabarmenduak izan dira.


Klasea	Ordena	Familia	Ikerketa hau						Biffi	Biffi	Hawliits-	
			Elama			Leitzaran			eta kideak,	eta kideak,	check	
			Hasleak	G	Z	G+Z	G	Z	G+Z	2017	2017	eta kideak,
			Iberiar									Penintsilaren
									Pirinioen	Pirinioen	IE	
									iparraldea	iparraldea	F eta M	
Arachnida			0	3	3	1	0	1	2	8	0	
Clitellata	Haplotaxida	Lumbricidae	0	0	0	0	0	0	1	6	0	
Diplopoda			0	0	0	0	0	0	4	22	0	
	Glomerida		0	0	0	0	0	0	2	16	0	
		Doderiidae	0	0	0	0	0	0	0	8	0	
		Glomeridae	0	0	0	0	0	0	2	11	0	
	Polydesmida		0	0	0	0	0	0	1	7	0	
Insecta			100	100	100	100	100	100	100	93	100	
	Coleoptera		1	1	2	1	1	1	14	14	56	
		Carabidae	0	1	1	0	0	0	7	1	0	
		Scirtidae	1	0	1	0	0	0	6	8	0	
	Diptera		16	100	98	12	99	90	46	66	100	
		Anthomyiidae	0	0	0	0	0	0	3	5	0	
		Blephariceridae	0	0	0	0	0	0	1	7	0	
		Chironomidae	13	51	53	10	41	44	15	42	66	
		Empididae	1	3	3	0	9	9	0	2	0	
		Limoniidae	0	10	10	0	4	3	1	2	0	
		Mycetophilidae	0	2	2	0	6	5	0	4	0	
		Psychodidae	2	51	50	0	76	70	3	8	0	
		Simuliidae	1	96	94	2	94	86	15	18	0	
		Stratiomyidae	0	0	0	0	0	0	11	1	0	
		Tipulidae	0	7	6	0	0	0	5	4	0	
	Ephemeroptera		100	43	100	99	60	99	87	71	100	
		Baetidae	87	0	87	95	0	95	57	42	0	
		Ephemerellidae	2	1	3	0	0	0	37	2	0	
		Ephemeridae	4	0	4	0	0	0	0	8	0	
		Heptageniidae	98	41	98	90	60	90	59	61	0	
		Leptophlebiidae	22	2	22	0	0	0	5	1	0	
	Lepidoptera		0	16	16	0	19	17	1	3	0	
		Erebidae	0	7	6	0	7	6	0	1	0	

1. Taula. (jarraipena).


Klasea	Ordena	Familia	Ikerketa hau						Biffi	Biffi	Hawlits-	
									eta kideak,	eta kideak,	check	
									2017	2017	eta kideak,	
									2018			
Ikerketa-eremua			Elama			Leitzarar			Pirinioen	Pirinioen	Iberiar	
									iparraldea	iparraldea	Penintsilaren	
									G	G	IE	
			Hasleak	G	Z	G+Z	G	Z	G+Z	G	G	F eta M
		Geometridae	0	7	6	0	11	10	0	2	0	
	Neuropteroida		0	0	0	0	0	0	0	0	12	
	Orthoptera		0	0	0	0	0	0	7	0	0	
		Anostomatidae	0	0	0	0	0	0	7	0	0	
	Plecoptera		62	21	66	33	44	46	85	53	37	
		Leuctridae	22	21	28	30	44	45	30	9	0	
		Nemouridae	4	0	4	1	0	1	49	26	0	
		Notonemouridae	0	0	0	0	0	0	6	0	0	
		Perlidae	41	0	41	2	0	2	26	33	0	
		Perlodidae	0	0	0	0	0	0	33	5	0	
		Pteronarcyidae	0	0	0	0	0	0	5	6	0	
	Trichoptera		61	75	87	75	46	88	64	64	46	
		Hydropsychidae	48	27	51	73	7	73	47	54	0	
		Limnephilidae	2	20	20	0	4	3	19	15	0	
		Odontoceridae	0	46	45	0	0	0	3	12	0	
		Philopotamidae	0	2	2	6	13	13	0	4	0	
		Polycentropodidae	0	4	4	0	6	5	1	0	0	
		Rhyacophilidae	0	11	11	0	27	25	7	7	0	
		Sericostomatidae	27	0	27	0	0	0	2	5	0	
	Malacostraca		89	1	89	95	27	97	18	23	0	
	Amphipoda		89	0	89	95	0	95	17	21	0	
		Gammaridae	89	0	89	95	0	95	17	21	0	
	Decapoda	Astacidae	0	1	1	0	27	25	0	1	0	
		Lagin kopurua	94	92	94	93	85	93	287	184	41	



4. Irudia. Bi erreken arteko dietaren diferentzietan gehien eragin zuten harrapakin familien agerpen-maiztasunak (FO). Taxa horiek %1 baino gehiago eragin zuten CA-ren 1. dimentsioan, erreka bakoitzari dagozkion tokiak bereiziz. Taxa ekarpen-balio altuenetik (goian) baxuenera (behean) ordenatu ziren.



5. Irudia. Habitat eta erreka bakoitzeko harrapakin potentzialen aberastasuna. Konfiantza-mugak “1.5 legearekin” adierazi ziren: biboteak muturreko datuaren punturaino luzatzen dira, zeina inoiz ez den kaxaren kanporantz kaxaren luzeraren [1.5] baino luzeagoa inoiz izaten.



6. Irudia. Habitat eta erreka bakoitzeko harrapakin potentzialen eta kontsumitutako harrapakin dentsitatea (a, d), biomasa (b, e) eta batzbesteko gorputz-masak (c, f). Konfiantza-mugak “1.5 legearekin” adierazi ziren: biboteak muturreko datuaren punturaino luzatzen dira, zeina inoiz ez den kaxaren kanporantz kaxaren luzeraren [1.5] baino luzeagoa inoiz izaten.

Harrapakin potentzialen dentsitatea ($F = 28,60$; a.g. = 1; $p < 0,001$), biomasa ($F = 7,62$; a.g. = 1; $p = 0,008$) eta batzbesteko gorputz-masa ($F = 52,31$; a.g. = 1; $p < 0,001$) esangarriki desberdinak izan ziren erreken artean, Leitzarane dentsitatea eta biomasa altuagoak eta Elaman batzbesteko gorputz-masa handiagoa izanik (6. Irudia, a-c). Habitaten arteko eta erreken baitako habitaten arteko aldeak ez ziren esangarriak. Bestalde, kontsumitutako harrapakinen dentsitatea ($F = 28,6$; a.g. = 1; $p < 0,001$), biomasa ($F = 7,81$; a.g. = 1; $p = 0,007$) eta batzbesteko gorputz-masa ($F = 73,85$; a.g. = 1; $p < 0,001$) ere esangarriki desberdinak ziren erreken artean, dentsitatea Leitzarane altuagoa eta biomasa eta batzbesteko gorputz-masa Elaman altuagoak izanik (6. Irudia, d-f). Berriz ere, habitaten arteko eta erreken baitako habitaten arteko aldeak ez ziren esangarriak.

Harrapakin-hautespena

Harrapakin-eskuragarritasunean ez zen alde esangarririk topatu erabilitako metodoetako bakar batekin ere, hots, eskuragarritasun totala muturluzeen bizi-eremuko habitat eskuragarrien batzbesteko azalera zamaturako eskuragarritasunarekin eta habitat mota eta erreka bakoitzeko muturluzeen batzbesteko jardueraz zamaturako eskuragarritasunarekin konparatuta ($F = 0,07$; a.g. = 2; $p = 0,932$), beraz muturluzeen jardueraz zamaturako datuak erabili ziren harrapakin-hautespena aztertzeko.

Bi errekak konbinatuz, muturluzeez Simuliidae eta Psychodidae (Diptera), Baetidae eta Heptageniidae (Ephemeroptera), Odontoceridae (Trichoptera) eta Gammaridae (Crustacea) positiboki hautatu zituzten (2. Taula). Bestalde, Planorbidae (Gastropoda), Goeridae (Trichoptera), Perlidae (Plecoptera) eta Athericidae (Diptera) negatiboki hautatu zituzten. Horrez gainera, Hydropsychidae (Trichoptera), Limnephilidae (Trichoptera), Leptophlebiidae (Ephemeroptera), Chironomidae (Diptera) eta Leuctridae (Plecoptera), ere positiboki hautatu zituzten Elaman, Rhyacophilidae (Trichoptera) eta Limoniidae (Diptera) negatiboki hautatu zituzten bitartean. Leitzarane, Rhyacophilidae (Trichoptera) ere positiboki hautatu zuten, Naididae eta Lumbricidae (Oligochaeta) eta Polycentropodidae (Trichoptera) negatiboki hautatu zituzten bitartean.

Positiboki, oportunistikoki eta negatiboki hautaturako taxaren dietako FO balioak batuz (2. Taula), batzbeste %4,49, %2,83, eta %0,25 izan ziren, hurrenez hurren. Ehunekoetan, 6,37, 0,88 eta 0,57 izan ziren Elaman, eta 2,71, 4,43 eta 0,08 Leitzarane.


2. Taula. Dieta hautespena familia mailan, erreka bakoitzerako zein aldi berean bi erreketarako. Dieta agerpen-maiztasunetan (FO) adierazi zen. Taxon bakoitzaren batzbesteko eskuragarritasuna (Eskur.) muturluzeen batzbesteko jarduerarekin zamatuta (ikusitako azalpena testuan) eta hau ere FO-tan adierazi zen. Dif-ek bi metriken arteko aldea adierazten du. Hautespen positiboa eta negatiboa beltzez nabarmendu dira.

Familia	Elama			Leitzaran			Gutzira		
	Dieta (FO)	Eskur. (FO)	Dif	Dieta (FO)	Eskur. (FO)	Dif	Dieta (FO)	Eskur. (FO)	Dif
Simuliidae	0,936	0,064	0,87	0,860	0,115	0,75	0,898	0,089	0,81
Psychodidae	0,500	0,000	0,50	0,699	0,000	0,70	0,599	0,000	0,60
Baetidae	0,872	0,064	0,81	0,946	0,804	0,14	0,909	0,434	0,48
Heptageniidae	0,979	0,679	0,30	0,903	0,678	0,23	0,941	0,679	0,26
Odontoceridae	0,447	0,000	0,45	0,000	0,000	0,00	0,223	0,000	0,22
Gammaridae	0,894	0,445	0,45	0,946	0,960	-0,01	0,920	0,702	0,22
Hydropsychidae	0,511	0,241	0,27	0,731	0,716	0,02	0,621	0,478	0,14
Limnephilidae	0,202	0,000	0,20	0,032	0,000	0,03	0,117	0,000	0,12
Leptophlebiidae	0,223	0,000	0,22	0,000	0,015	-0,01	0,112	0,007	0,10
Geometridae	0,064	0,000	0,06	0,097	0,000	0,10	0,080	0,000	0,08
Astacidae	0,011	0,000	0,01	0,247	0,099	0,15	0,129	0,049	0,08
Chironomidae	0,532	0,335	0,20	0,441	0,498	-0,06	0,486	0,416	0,07
Erebidae	0,064	0,000	0,06	0,065	0,000	0,06	0,064	0,000	0,06
Leuctridae	0,277	0,073	0,20	0,452	0,547	-0,10	0,364	0,310	0,05
Mycetophilidae	0,021	0,000	0,02	0,054	0,000	0,05	0,038	0,000	0,04
Noctuidae	0,043	0,000	0,04	0,022	0,000	0,02	0,032	0,000	0,03
Empididae	0,032	0,064	-0,03	0,086	0,000	0,09	0,059	0,032	0,03
Syrphidae	0,000	0,000	0,00	0,043	0,000	0,04	0,022	0,000	0,02
Lonchopteridae	0,011	0,000	0,01	0,032	0,000	0,03	0,021	0,000	0,02
Scatopsidae	0,000	0,000	0,00	0,032	0,000	0,03	0,016	0,000	0,02
Linyphiidae	0,032	0,000	0,03	0,000	0,000	0,00	0,016	0,000	0,02
Cordulegastridae	0,032	0,003	0,03	0,000	0,000	0,00	0,016	0,002	0,01
Aturidae	0,000	0,000	0,00	0,011	0,000	0,01	0,005	0,000	0,01
Diptera	0,000	0,000	0,00	0,011	0,000	0,01	0,005	0,000	0,01
Gyrinidae	0,000	0,000	0,00	0,011	0,000	0,01	0,005	0,000	0,01
Carabidae	0,011	0,000	0,01	0,000	0,000	0,00	0,005	0,000	0,01
Chloropidae	0,011	0,000	0,01	0,000	0,000	0,00	0,005	0,000	0,01
Oniscidae	0,011	0,000	0,01	0,000	0,000	0,00	0,005	0,000	0,01
Pediciidae	0,011	0,000	0,01	0,000	0,000	0,00	0,005	0,000	0,01
Scirtidae	0,011	0,000	0,01	0,000	0,000	0,00	0,005	0,000	0,01
Glossosomatidae	0,011	0,003	0,01	0,000	0,000	0,00	0,005	0,002	0,00
Philopotamidae	0,021	0,064	-0,04	0,129	0,084	0,05	0,075	0,074	0,00
Rhyacophilidae	0,106	0,322	-0,22	0,247	0,030	0,22	0,177	0,176	0,00
Lumbriculidae	0,000	0,000	0,00	0,000	0,001	0,00	0,000	0,001	0,00
Dytiscidae	0,000	0,000	0,00	0,000	0,003	0,00	0,000	0,001	0,00

2. Taula. (jarraipena).

Familia	Elama			Leitzaran			Guztira		
	Dieta (FO)	Eskur. (FO)	Dif	Dieta (FO)	Eskur. (FO)	Dif	Dieta (FO)	Eskur. (FO)	Dif
Asellidae	0,000	0,003	0,00	0,000	0,000	0,00	0,000	0,002	0,00
Leptoceridae	0,000	0,003	0,00	0,000	0,000	0,00	0,000	0,002	0,00
Ephemerelellidae	0,032	0,040	-0,01	0,000	0,000	0,00	0,016	0,020	0,00
Nemouridae	0,043	0,067	-0,02	0,011	0,000	0,01	0,027	0,033	-0,01
Cucurlionidae	0,000	0,000	0,00	0,000	0,015	-0,01	0,000	0,007	-0,01
Sphaeriidae	0,000	0,003	0,00	0,000	0,015	-0,01	0,000	0,009	-0,01
Rhagionidae	0,000	0,040	-0,04	0,000	0,001	0,00	0,000	0,021	-0,02
Sericostomatidae	0,266	0,316	-0,05	0,000	0,000	0,00	0,133	0,158	-0,03
Nematoda	0,000	0,064	-0,06	0,000	0,000	0,00	0,000	0,032	-0,03
Tipulidae	0,064	0,131	-0,07	0,000	0,000	0,00	0,032	0,065	-0,03
Lepidostomatidae	0,000	0,073	-0,07	0,000	0,000	0,00	0,000	0,037	-0,04
Planariidae	0,000	0,000	0,00	0,000	0,084	-0,08	0,000	0,042	-0,04
Hirudinidae	0,000	0,000	0,00	0,000	0,099	-0,10	0,000	0,049	-0,05
Hydrobiidae	0,000	0,000	0,00	0,000	0,100	-0,10	0,000	0,050	-0,05
Ephemeridae	0,043	0,006	0,04	0,000	0,149	-0,15	0,021	0,078	-0,06
Elmidae	0,000	0,000	0,00	0,000	0,115	-0,11	0,000	0,057	-0,06
Hydrophilidae	0,000	0,131	-0,13	0,000	0,000	0,00	0,000	0,065	-0,07
Naididae	0,000	0,000	0,00	0,000	0,196	-0,20	0,000	0,098	-0,10
Lumbricidae	0,000	0,040	-0,04	0,000	0,296	-0,30	0,000	0,168	-0,17
Polycentropodidae	0,043	0,006	0,04	0,054	0,446	-0,39	0,048	0,226	-0,18
Limoniidae	0,096	0,391	-0,30	0,032	0,099	-0,07	0,064	0,245	-0,18
Planorbidae	0,000	0,090	-0,09	0,000	0,354	-0,35	0,000	0,222	-0,22
Goeridae	0,021	0,381	-0,36	0,000	0,197	-0,20	0,011	0,289	-0,28
Perlidae	0,415	0,616	-0,20	0,022	0,418	-0,40	0,218	0,517	-0,30
Athericidae	0,043	0,292	-0,25	0,000	0,548	-0,55	0,021	0,420	-0,40

Positiboki hautatutako harrapakin-taxan, desberdintasunak esangarriak ziren erreken artean dentsitateari ($F = 33,1$; a.g. = 1; $p < 0,001$), biomasari ($F = 4,80$; a.g. = 1; $p = 0,033$) eta batazbesteko gorputz-masari zegokienean ($F = 38,14$; a.g. = 1; $p < 0,001$). Dentsitate eskuragarria altuagoa zen Leitzaranen, baina biomasa eta batazbesteko gorputz-masa eskuragarria altuagoak ziren Elaman (7. Irudia, a-c). Habitaten eta erreken baitako habitaten arteko aldeak ez ziren esangarriak.



7. Irudia. Habitat eta erreka bakoitzeko positiboki hautatutako harrapakinen dentsitatea (a), biomasa (b) eta batzbesteko goputz-masak (c). Konfiantza-mugak “1.5 legearekin” adierazi ziren: biboteak muturreko datuaren punturaino luzatzen dira, zeina inoiz ez den kaxaren kanporantz kaxaren luzeraren [1.5] baino luzeagoa inoiz izaten.

Eztabaida

Ikerketa honek lehenengoz aztertzen ditu aldi berean Pirinioetako muturluzearen bi populaziotako ekologia espaziala (2. Kapituluua; Esnaola, eta kideak, 2018b), dieta eta bazka-eremuetako harrapakin eskuragarritasuna, muturluzeen beharrian trofikoaren inguruko lehen ikerketa osatua burutuz. Ikerketaren aurkikuntza nagusia harrapakin-eskuragarritasunak ez duela habitat-hautespena azaltzen izan zen.

Dieta

Muturluzeak urlasterren aldeko zaletasun sendoa duten (2. Kapituluua; Esnaola, eta kideak, 2018b) harrapari erreofilo espezialistak dira. Bestalde, emaitzek generalista gisa definitzen dituzte muturluzeak, aldeztatik deskribatu izan den bezala, askotariko harrapakinez bazkatzen direlarik: euren dietan 23 familia eta 9 ordenetako 41 artropodo espezie identifikatu ziren.

Heste, urdail zein gorotzetako harrapakinen hondarren morfologian oinarrituriko dieta azterketa tradizionalak muturluzeek nagusiki Trichoptera, Ephemeroptera, Plecoptera, Crustacea (Amphipoda) eta Diptera (Bertrand, 1992; Castián eta Gosálbez, 1995; Santamarina eta Guitian, 1988), eta gutxiagotan Coleoptera, Annelida eta Odonata (Puisségur, 1935; Richard eta Viillard, 1969; Santamarina, 1992) jaten dituztela erakutsi zuten. Era berean, lan honetan Ephemeroptera –Heptagenidae eta Baetidae–, Amphipoda –Gammaridae–, Diptera –Simuliidae– eta Plecopteraz bazkatu ziren batez ere muturluzeak, hautespena desberdina izanik erreken artean –bereziki Rhyacophilidae trikopteroei zegokienean–. Metodo molekularrei esker lortutako kontsumitutako harrapakinen espezie mailako identifikazioari esker, muturluzearen dietaren karakterizazio zehatzagoa lortu zen. Nabarmentzekoa da metodo molekularrek gorputz biguneko harrapakin taldeen garrantzi txikia baieztatu zutela, zeinak oharkabean pasa zitezkeen lan morfologikoetan. Honela, Clitellata, Nematoda eta Anfibioen gisako harrapakin potentzialak oso frekuentzia baxuetan agertu ziren (Biffi eta kideak, 2017a; 3. Kapituluua; Esnaola eta kideak, 2018a). Bestalde, ibai-karramarroa (*Pacifastacus*), ordura arte muturluzearen harrapakin gisa identifikatua izan ez zena, ohiko harrapakina izan zen Leitzaranean.

DNA metabarcoding-a erabiliz muturluzearen dietaren inguruan berriki argitaratu diren bost lanei dagokienez (Biffi eta kideak, 2017a,b; 3. Kapituluua; Esnaola eta kideak, 2018a; Gillet eta kideak, 2015; Hawlitschek eta kideak, 2018), diferentzia metodologikoen konparaketa sendoak mugatzen badituzte ere (Alberdi eta kideak, 2019), badira kontuan hartu beharreko alderdi interesgarri

batzuk. Lehenik eta behin, Hawlitschek eta kideek (2018), Biffi eta kideek (2017a) eta Biffi eta kideek (2017b) baino harrapakin taxa kopuru txikiagoa topatu zen, segur aski lan honetako prozedura bioinformatikoak askoz kontserbadoreagoak izan zirelako, hain zuzen ere, harraparitza sekundarioa, positibo faltsuak eta kimerak ekiditeko (Alberdi eta kideak, 2018, 2019; De Barba eta kideak, 2014; Sheppard eta kideak, 2005) sekuentzia-irakurketen %1 baino gutxiago zuten OTU-ak baztertu zirelako (hots, Gillet-en OTUen %98,7 eta Zeale-ren OTUen %91). Hortaz, Biffi eta kideek (2017a) eta Biffi eta kideek (2017b) detektatutako taxa arraro gehienak iragaziak izango ziren ziur aski lan honen prozedurarekin. Hare gehiago, litekeena da Biffi eta kideek (2017a) eta Biffi eta kideek (2017b) lan honetan ohikoenak ziren harrapakin talde batzuk (FOO>%25) gutxietsi izana, hasleen alborapenaren ondorioz: lan honetan Zeale haslearekin identifikatu ziren nagusiki Psychodidae, Simuliidae, eta beharbada Chironomidae dipteroak, Odontoceridae, Phylopotamidae, Polycentropodidae edo Rhyacophilidae triopteroak, Leuctridae plekopteroak, eta Astacidae edo Lepidoptera (1. Taula), metabarcoding-lanetan hasleen hautaketak duen garrantzia baieztatuz (Elbrecht eta Leese, 2017; 3. Kapituluak; Esnaola eta kideak, 2018a). Bestalde, dietak zenbait alde erakutsi zituen ikerketa-eremuaren arabera, eta baita Biffi eta kideen (2017a), Biffi eta kideen (2017b) eta Hawlitschek eta kideen (2018) lanekin alderatuz ere, zeinek eremu zabalak ikertu zituzten (1. Taula). Baliteke kontraste horiek baldintza lokalen diferentzien ondoriozko faunaren osaketaren aldeak adieraztea, baina hori ezin da ebaluatu, gainontzeko autoreek ez baitzuten harrapakin-eskuragarritasuna deskribatu. Diferentzien arrazoiak edozein izanik ere, nabarmentzekoa da Elamako dietak Leitzarangoak baino antza handiagoa duela Biffi eta kideek (2017a) eta Biffi eta kideek (2017b) Pirinioen iparraldean deskribatu zutenarekiko. Espekulazioak egin litezke alde horren inguruan, baina litekeena da baso-landaketa handien eta jarduera hidroeletrikorako ur erauzketen ondorioz (CHC, 2018) Leitzaran ibaiaren egoera pobregoa islatzea.

Harrapakin-hautespena

Kalkulatutako harrapakin-hautespenaren patroia orokorrean, alde txikiak izan arren, bat egiten dute aurreko ikerketekin. Lehenik eta behin, badirudi muturluzeek Simuliidae, Baetidae eta Heptageniidae bezalako substratuen gainean agerian bizi diren ornogabeak positiboki hautatzen dituztela. Ildo honetan, Bertrand-ek (1992) ere muturluzeek harrapakin bentiko eta erreofiloak positiboki hautatuko lituzketela espekulatu zuen. Bigarrenik, badirudi muturluzeek Gammaridae, Odontoceridae, Leptophlebiidae, Limnephilidae eta Leuctridae bezalako materia organiko lodiari loturiko ornogabe zatitzaileak positiboki hautatzen dituztela. Castián eta Gosálbez-ek (1995) Gammaridoekiko hautespen negatiboa topatu

zuten eta euren tegumentu esklerifikatuari egotzi zioten, baina ikerketa honen emaitzak kontraesanean daude euren behaketekin. Litekeena da horrek muturluzeek orbel-pilaketekiko duten zaletasuna islatzea, substratu mota honetan ornogabeen dentsitatea, bereziki zatitzaile handiena, gainontzekoetan baino handiagoa izaten delako (Flores eta kideak, 2017). Hirugarrenik, muturluzeek negatiboki hautatzen dituzte Athericidae, Limoniidae, Naididae eta Lumbricidae bezalako sedimentu finen barnean bizi diren gorputz biguneko taxa. Laugarrenik, negatiboki hautatzen dituzte Goeridae edo Planorbidae bezalako oskol gogorreko ornogabeak, agian prozesatzen zailak diren bazka-aleekiko interes txikiagoaren isla. Moluskuak ere negatiboki hautatuak zirela esan zuen Santamarina-k (1992). Bostgarrenik, muturluzeek negatiboki hautatu zituzten Perilidae, Polycentropodidae eta Rhyacophilidae bezalako harrapariak. Hautespen negatibo horren arrazoia ez dago batere argi, baina baliteke harrapari hauen defentsa/ihesaldi estrategiekin lotuta egotea. Hala eta guztiz ere, hemen aurkeztutakoak behin behineko interpretazioak dira eta ezin dira orokortu; izan ere antzeko ezaugarriak dituzten zenbait harrapakin (adb. Psychodidae) positiboki hautatuak izan dira. Harrigarria zera zen, hautespena kokapenari lotuta zegoela, Rhyacophilidae Elaman negatiboki hautatzen zelako eta Leitzaranen aldiz positiboki. Ezaugarri (*trait*) biologiko eta ekologikoen ikerketak hautespen patroik hauek argitzen lagundu lezake.

Kokapena vs hautespena

Bazirudien Elaman muturluzeek materia organiko lodiari loturiko taxa (2. taldekoak) positiboki hautatzen zituztela, Leitzaranen ez bezala. Gure iradokizuna zera zen, Elamako habitataren konplexutasunak materia organiko lodiaren pilaketak faboratzen zituela; bertan ornogabeentzako habitataren egonkortasuna, azalera eta bazka-baliabideak handiagoak ziren, harrapakin-biomasa handiagoa metatzen zen (Flores eta kideak, 2013), eta muturluzeek batzbesteko gorputz-masa handiagoko harrapakinak —bazka profitagarriagoa— zuten eskura. Harrapakin nagusien profitagarritasuna atalase kritiko batetatik behera erortzen den unean, harrapari generalista batek bere hautua profitagarriago diren harrapakin alternatiboetara aldatzea espero da (Křivan, 1996). Hortaz, badirudi Leitzaran ibaian muturluzeek hobetsitako harrapakinen gabeziaren aurrean, bestelako batzuen aldeko hautua egiten zutela, eskuragarritasun pobregoari aurre egiteko euren nitxo trofikoa zabalduz (Araujo eta kideak, 2011).

Jatetxea hautatzea: giroa edo menua?

Aurretiaz muturluzearen bazka-ekologiaz egindako ikerketa batean (2. Kapituluua; Esnaola eta kideak, 2018b), aztertutako bi eremuetan urlasterrak

hobetsitako habitata zirela plazaratu zen, eta hautespen hori bertako harrapakin-eskuragarritasuna altuagoa zelako gertatuko zela hipotetizatu zen. Alabaina, lan honek ez du harrapakin-eskuragarritasunean alde esangarririk erakutsi habitaten artean, ezta kontsumitutako, ez positiboki hautatutako harrapakinei zegokienean ere. Eraitza horiek galdera bat mahaigaineratzen dute: zergatik bazkatzen ote diren muturluzeak lehentasunez urlasterretan. Seguruenik habitat horretako jario bizkorreko urek erraztu egiten diete muturluzeei euren flotagarritasun naturalari aurre egin eta, euren atzapar sendoez helduz, hondoan ibiltzea (Richard, 1986).

Ondorioak

Ikerketa honek muturluzearen bazka-ohituren inguruko informazio berria eskaintzen du, zeina gakoa den kudeaketa-politika egokietarako. Lan honetako emaitzek muturluzeak habitat-espezialistak baina harrapari generalistak direla erakutsi dute, harrapakin gama zabalaz bazkatzen direnak, eta tokiko eskuragarritasunaren aldaketen arabera euren lehentasunak aldatzen dituztenak. Muturluzeei nahiago dituzte pilaketa organikoetan agertzen diren harrapakinak eta oportunistagoak bihurtzen dira baldintzak hain mesedegarriak ez diren egoeretan. Badirudi egur hilaren ugaritasuna handituz ibilguaren heterogeneotasuna areagotu eta materia organikoaren metaketa handitzea (Flores eta kideak, 2013) kudeaketa-ekintza positiboa izan daitekeela muturluzeen habitatak hobetzeko. Hauen urlasterrekiko zaletasun sendoak arrazoi mekanikoei erantzuten diela dirudi, habitaten artean harrapakin-eskuragarritasunean ez baita alderik topatu. Hortaz, erreketako emariaren kudeaketa eta horrek urlasterren eskuragarritasunean duen eragina muturluzearen kontserbaziorako gakoak diren gaiak dira.

Eskerrak

Ikerketa hau LIFE IREKIBAI EU proiektuak (LIFE14 NAT/ES/000186), Gipuzkoako Foru Aldundiak, Donostiako Udaletxeak, Eusko Jaurlaritzak [156P/2016 eta IT754-13] eta Euskal Herriko Unibertsitateak UPV/EHU finantzatua izan da. AEs-k Eusko Jaurlaritzako doktoretza aurreko beka bat jaso zuen [bekaren zenbakia PRE_2015_1_0408]. Iñigo Mendiola eta Aitor Lekuona (Gipuzkoako Foru Aldundia), eta Asunción Yarzabal eta Iñaki Uranga (Donostiako Udaletxea) eskertu nahi ditugu lan hau egin ahal izateko eman ziguten laguntzarengatik; Mafalda Galhardo (CIBIO-InBIO, Universidade do Porto) analisi bioinformatikoekin laguntzeagatik; eta Sekuentziazio eta Genotipo

Azterketen Unitatea —Genomic Facilities— SGIker (UPV/EHU/ERDF, EU) eman digun babes tekniko eta gizatiarrarengatik. DESMA Estudios Ambientales-ek JGE-en lana soldata moduan finantzatu du, baina ez du ikerketaren diseinuan, datuen bilketan eta analisisian, publikatzeko erabakian, edo idazlanaren prestaketan bestelako eginkizunik izan. Autoreek interes-gatazkarik ez dagoela aitortzen dute.

Informazio gehigarria


1. Informazio gehigarria

USEARCH erabiliz (Edgar, 2010, 2013; Edgar eta Flyvbjerg, 2015). Laburki, parekatutako muturreko sekuentzia-irakurketak bateratu eta hasleen bidez demultiplexeatu ziren, adaptadoreen eta hasleen sekuentziak ezabatu ziren, eta azkenik haplotipoetan bateratu ziren sekuentziak. Sekuentzia-irakurketa bakanak (edo *singletonak*), kimerak eta PCR akatsak 'unnoise3' komandoa erabiliz ezabatu ziren. Azkenik, OTU taula bat sortu zen sekuentzia gordinak %100-ean antzekoak ziren haplotipoekin bateratuz. Prozesu hau modu independentean egin zen hasle bakoitzarentzako.


Azkenik, Genbank nt (<https://blast.ncbi.nlm.nih.gov/Blast.cgi>), BOLD (<http://www.boldsystems.org/>) eta datu-base pertsonalak erabil ziren OTU-ei taxonomia esleitzeko. Clare eta kideei (2013) jarraiki, espezie mailako esleipenak OTU-en sekuentziek erreferentziazko sekuentzietatikiko %98 baina parekako (*pairwise*) antzekotasun handiagoa eta %75 baina estaldura (*query cover*) handiagoa zutenean onartu ziren. Horrez gain, arau gisa, $1e-20$ baina e-balio baxuagoko emaitzak soilik onartu ziren (Vesterinen eta kideak, 2013), parekatzea zoriz gertatu ez zela ziurtatzeko. Positibo faltsuak ekiditeko helburuarekin 3 lagin baino gutxiagotan agertutako OTUak, lagin bakoitzaren baitan %1 baino gutxiago adierazten zutenak (Mata eta kideak, 2016), edo muturluzearen bazka izaterik ez zuten taxari zegozkionak (Brose eta kideak, 2006) analisisietatik baztertu ziren. Identifikatutako harrapakin taxaren agerpen-maiztasunak (*frequency of occurrence*, FO; taxon bat gorotzen zein proportziotan detektatzen zen; Shiel eta kideak, 1997) hartu ziren kontutan ondorengo analisiak egiteko. Sekuentzia-irakurketak ikuskatuz gorotz-laginetan harrapariaren beraren, hots Pirinioetako muturluzearen, DNA ere identifikatzen ote zen aztertu zen.

Intsektuen DNA isopropanol bidezko eskuzko erauzketa-metodoa erabiliz erauzi zen, Gilbert eta kideen (2007), Pfeiffer eta kideen (2004) eta Aljanabi eta Martinezez (1997) lanetan oinarrituz. Erauzitako DNA Gillet eta Zealeren hasleekin anplifikatu ziren, dieta aztertzeke erabilitako baldintza berdinak erabiliz. Purifikatu, kuantifikatu eta liburutegia prestatu ostean DNA aplikoiak *Illumina MiSeq NGS platforman* sekuentziatu ziren. Intsektuen DNA-sekuentziak lerrokatu eta eskuz editatu ziren *Geneious 8.0.5 software*arekin (Kearse eta kideak, 2012). Lerrokatutako sekuentziak Genbank nt eta BOLD datubaseetan bilatu ziren.


2. Informazio gehigarria




S1. Irdia. Muturluzeen dieta-datueta espezieen asetasun-kurbak: espezieen aberastasunaren (“*species diversity*”; a) eta laginen osotasunaren (“*sample coverage*”; b) Elama eta Leitzarango grafikoak.



S2. Irdia. Familia mailako muturluzeen dietaren analisiaren CA grafikoa. Ela puntuek Elamari egiten diote erreferentzia eta Lei puntuek Leitzarani. D eta H laginketa-tokiak ezabatu egin ziren Ca analisitik, lagin kopuru baxua zutelako. 1. dimentsioan erreken arteko diferentziak behatzen ziren.



S3. Irudia. Muturluzeen harrapakin eskuragarrien ugaritasun-datuetao espezieen asetasun-kurbak: espezieen aberastasunaren (“*species diversity*”; a, c) eta laginen osotasunaren (“*sample coverage*”; b, d) Elama (a, b) eta Leitzarango (c, d) grafikoak. *Riffle* = urlasterra; *Run* = ur-barea; *Pool* = putzua.



S4. Irudia. Muturluzeen harrapakin eskuragarrien presentzia-ausentzia-datuetao espezieen asetasun-kurbak: espezieen aberastasunaren (“*species diversity*”; a, c) eta laginen osotasunaren (“*sample coverage*”; b, d) Elama (a, b) eta Leitzarango (c, d) grafikoak. *Riffle* = urlasterra; *Run* = ur-barea; *Pool* = putzua.

S1. Taula. Ikerketa honetan erabilitako hasleen xehetasunak eta bakoitzaren PCR baldintzak. "Luzerak (bp)" haslerik gabeko aplikoiaren tamainari egiten dio erreferentzia.

Izen arrunta	Hslearen izena	Aurreranzko haslea(k) (5'-3')	Atzeranzko haslea(k) (5'-3')	Luzera (bp)*	Iturria	PCR pausoak
Gillet	F:LepF1	ATTCHACDAAYCAYAAR	ACTATAAAAPAAAAATYTD	133	Gillet eta	Hasiera: 95 °C, 15 min
	(modified)	GAYATYGG (25 bp)	AYAAADGCRTG (29 bp)		kideak,	
	R:EPT-long-univR				2015	Desnaturalizazioa (40 ziklo): 94 °C, 30 seg 45 °C, 45 seg 72 °C, 30 seg
	(modified)					Hedapena: 72 °C, 10 min
Zeale	F:ZBJ-ArtF1c	AGATAITGGACWTTAT	WACTAATCAATTWCCAA	157	Zeale eta	Hasiera: 95 °C, 10 min
	R:ZBJ-ArtR2c	ATTTTATTTTGG (30bp)	ATCCTCC (24bp)		kideak,	Desnaturalizazioa (16 ziklo): 95 °C, 30 seg 61 °C, 30 seg 72 °C, 30 seg
					2011	Suberapena (24 ziklo): 95 °C, 30 seg 53 °C, 30 seg 72 °C, 30 seg
						Hedapena: 72 °C, 10 min

S2. Taula. Elamako harrapakin-eskuragaritasun totala: habitataz bakoitzeko lagin bakoitzeko ugartasunak.

Taxa	Urasterra										Ur-barea										Putzua																			
	01	02	03	04	05	06	07	08	09	10	01	02	03	04	05	06	07	08	09	01	02	03	04	05	06	07	08	09	10											
<i>Ancylius fluviatilis</i>	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
<i>Aselus aquaticus</i>	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
<i>Atherix ibix</i>	0	0	0	1	0	1	0	1	1	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
<i>Baetis</i> sp	0	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
<i>Berosus</i> sp	0	1	0	0	0	0	0	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Chironomidae	0	0	0	1	0	0	9	1	8	0	0	1	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
<i>Chrysopilus</i> sp	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Climocerinae	0	0	0	0	0	0	0	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
<i>Cordulegaster</i> sp	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
<i>Dinocras cephalotes</i>	0	4	1	2	0	0	2	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
<i>Ecdyonurus</i> sp	1	0	0	0	0	0	0	1	0	1	0	1	1	2	4	1	0	1	0	0	1	0	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
<i>Echinogammarus cf aquilifer</i>	1	2	0	0	1	0	0	1	2	0	0	0	0	4	1	0	0	2	0	0	0	0	0	2	16	0	0	3	4	2	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
<i>Eiseniella tetraedra</i>	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
<i>Epeorus</i> sp	0	0	1	3	0	0	1	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
<i>Ephemera danica</i>	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
<i>Ephemera ignita</i>	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
<i>Glossosoma boltoni</i>	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
<i>Hydropsyche dinarica</i>	0	0	1	0	0	0	4	0	0	0	0	1	0	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
<i>Hydropsyche instabilis</i>	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
<i>Lepidostoma hirtum</i>	0	0	0	0	0	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
<i>Leuctra</i> sp	0	0	0	0	0	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Limoniidae	0	0	0	1	0	0	1	0	2	0	1	0	2	1	0	2	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Nematoda	0	0	0	0	0	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
<i>Oecetis testacea</i>	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0

S2. Taula. (jarraipena)

Taxa	Uriasterra										Ur-barea										Putzua									
	01	02	03	04	05	06	07	08	09	10	01	02	03	04	05	06	07	08	09	10	01	02	03	04	05	06	07	08	09	10
<i>Oescimus monedula</i>	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	5	0	6	0	0	4	0	0	0	0
<i>Perla</i> sp	0	2	4	2	0	4	1	1	0	0	1	3	4	1	0	1	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	1	0	2	0
<i>Philopotamus</i> sp	0	0	0	0	0	0	2	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
<i>Polycentropus</i> sp	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	1	0	0	1	0	0
<i>Protonemura pirenaica</i>	0	0	0	0	0	0	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
<i>Protonemura vandeli</i>	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	1	0
<i>Rhithrogena</i> sp	0	0	0	0	0	2	2	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
<i>Rhyacophila adjuncta</i>	0	1	0	0	0	0	1	0	2	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
<i>Rhyacophila meridionalis</i>	0	0	1	0	0	0	1	1	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
<i>Rhyacophila obelix</i>	0	0	0	0	0	0	0	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
<i>Rhyacophila tristis</i>	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	1	0	0
<i>Sericostoma</i> sp	0	0	0	0	0	0	1	0	0	0	0	0	3	1	1	4	1	4	0	8	4	32	1	1	17	21	18	3	8	0
<i>Silo</i> sp	0	1	0	0	0	1	0	0	1	0	1	1	1	2	0	0	0	1	0	1	0	3	0	0	0	0	0	0	0	0
Simuliidae	0	0	0	0	0	0	3	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
<i>Sphaerium</i> sp	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	1
Tipulidae	0	0	0	0	0	0	0	1	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	1	0	0	0	0	0	0	0

S3. Taula. Leitizarango harrapakin-eskuragaritasun totala: habitiat bakoitzeko lagin bakoitzeko ugartitasunak.

Taxa	Urtasterra										Ur-barea										Putzua									
	01	02	03	04	05	06	07	08	09	10	01	02	03	04	05	06	07	08	09	10	01	02	03	04	05	06	07	08	09	10
<i>Ancylus fluviatilis</i>	2	0	0	0	2	0	0	1	2	0	0	0	0	0	0	1	0	0	0	1	0	0	0	1	1	3	0	0	0	0
<i>Atherix ibix</i>	0	3	0	1	0	1	1	5	3	0	0	0	0	1	0	0	0	1	0	2	1	0	0	0	0	0	0	0	0	
<i>Aulodrilus pluriseta</i>	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	1	0	0	
<i>Baetis</i> sp	4	7	10	1	0	5	2	3	11	3	2	0	0	6	0	3	0	0	0	0	0	1	1	1	0	1	0	0	0	
Chironomidae	4	5	0	0	0	0	11	0	0	2	51	44	21	3	35	4	94	8	32	25	6	81	100	12	18	167	33	103	13	231
<i>Chrysopilus</i> sp	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	
Cucurionidae	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	
<i>Ecdyonurus</i> sp	0	0	0	2	0	0	0	1	2	0	1	0	0	0	0	2	0	1	0	0	0	0	0	0	0	2	0	0	0	
<i>Echinoogammarus longisetosus</i>	17	38	17	2	39	25	25	19	59	19	9	2	0	0	9	11	1	4	2	25	0	0	0	0	0	1	0	2	1	0
<i>Eiseniella tetraedra velutinus</i>	0	0	2	0	0	0	1	2	0	0	4	0	0	0	0	0	2	0	0	6	0	0	0	0	0	0	0	0	0	
<i>Embolocephalus velutinus</i>	0	0	0	0	0	0	0	0	0	1	0	1	0	4	0	4	1	4	4	3	0	0	0	1	0	0	0	0	2	
<i>Epeorus</i> sp	0	1	0	0	1	0	1	1	6	7	0	1	0	0	1	0	0	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	1	0
<i>Ephemera danica</i>	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	1	0	2	0	1	2	1	0	1	0	1	0	0	0	0	1	
<i>Goera pilosa</i>	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	
Hirudinae	0	0	0	0	0	0	0	0	1	0	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	
<i>Hydropsyche dinarica</i>	0	1	2	0	0	0	3	4	3	1	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	
<i>Hydropsyche siltalai</i>	0	4	1	1	2	0	0	4	5	0	0	1	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	
<i>Leuctra</i> sp	4	7	0	0	0	0	1	1	5	0	14	13	0	9	10	4	5	0	1	14	2	1	4	2	0	1	0	1	0	
<i>Limnius</i> sp	0	0	0	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	1	
<i>Limnodrilus</i> sp	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	1	0	2
Limoniidae	0	0	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	
Lumbriculidae	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	1	0

S3. Taula. (jarraipena)

Taxa	Uriasterra										Ur-barea										Putzua									
	01	02	03	04	05	06	07	08	09	10	01	02	03	04	05	06	07	08	09	10	01	02	03	04	05	06	07	08	09	10
<i>Oulimnius</i> sp	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
<i>Pacifastacus leniusculus</i>	0	0	0	0	0	0	0	0	1	0	0	0	0	0	0	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
<i>Paraleptophlebia</i> sp	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
<i>Perla</i> sp	1	4	3	0	0	0	0	1	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
<i>Philopotamus</i> sp	0	0	0	0	0	0	0	3	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
<i>Planaria</i>	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
<i>Platambus</i> sp	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
<i>Polycentropus</i> sp	1	9	0	0	1	0	0	0	1	0	6	1	0	1	1	4	0	0	0	3	4	0	0	0	1	2	1	3	1	0
<i>Potamopyrgus antipodarum</i>	0	0	0	0	0	0	0	0	4	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
<i>Rhyacophila meridionalis</i>	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
<i>Rhyacophila relicta</i>	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
<i>Silo</i> sp	0	0	1	0	0	0	0	2	0	0	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Simuliidae	0	0	0	0	0	0	0	0	0	10	0	0	0	0	0	2	0	0	0	2	0	0	0	0	0	0	0	0	1	0
<i>Sphaerium</i> sp	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
<i>Stylodrilus</i> sp	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	1	2
Tubificinae	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	2	0

S4. Taula. Taxa desberdinen biomasaren (gAFDMm⁻²) kalkulurako erabilitako erreferentziak.

Erreferentzia	Taxa
Burgherr eta Meyer (1997)	Cucurlionidae, Dytiscidae, Elmidae (<i>Limnius</i> sp.), Hydropsychidae
Larrañaga eta kideak (2009)	Gammaridae
Meyer (1989)	Ancyliidae, Athericidae, Baetidae, Chironomidae, Elmidae (<i>Oulimnius</i> sp.), Empididae, Ephemerellidae, Glossosomatidae, Goeridae, Heptagenidae, Leuctridae, Limoniidae, Nemouridae, Perlidae, Rhagionidae, Rhyacophilidae, Sericostomatidae, Simuliidae
Benke eta kideak (1999)	Cordulegastridae, Ephemeridae, Lepidostomatidae, Leptoceridae, Leptophlebiidae, Philopotamidae, Planariidae, Polycentropodidae, Sphaeriidae, Tipulidae
Stoffels eta kideak (2003)	Hydrobiidae, Oligochaeta
Baumgärtner eta Rothhaupt (2003)	Asellidae

S5. Taula. Dietaren taula: muturluzeen dietako taxa eta haien agerpenak erreka bakoitzean (hasle bakoitzarekin bere aldetik-G = Gillet, Z = Zeale- eta bi hasleekin batera-T = totala-). Gorriz, laginen %50 baino gehiagotan agertzen ziren taxa, eta laranja laginen %30 baino gehiagotan agertzen ziren taxa.

Filuma	Klasea	Ordena	Familia	Espeziea	Elama			Leitzaran		
					G	Z	T	G	Z	T
Arthropoda	Crustacea	Malacostraca	Oniscidae	<i>Oniscus asellus</i>	1	0	1	0	0	0
Arthropoda	Arachnida	Araneae	Aturidae	<i>Aturidae</i> sp	0	0	0	1	0	1
Arthropoda	Arachnida	Trombidiformes	Linyphiidae	-	0	3	3	0	0	0
Arthropoda	Insecta	Coleoptera	Carabidae	-	0	1	1	0	0	0
Arthropoda	Insecta	Coleoptera	Gyrinidae	-	0	0	0	0	1	1
Arthropoda	Insecta	Coleoptera	Gyrinidae	<i>Orectochilus villosus</i>	0	0	0	1	1	1
Arthropoda	Insecta	Coleoptera	Scirtidae	<i>Elodes marginata</i>	1	0	1	0	0	0
Arthropoda	Insecta	Diptera	-	-	0	0	0	0	1	1
Arthropoda	Insecta	Diptera	Athericidae	<i>Atherix ibix</i>	0	4	4	0	0	0
Arthropoda	Insecta	Diptera	Chironomidae	-	12	47	50	8	31	36
Arthropoda	Insecta	Diptera	Chironomidae	<i>Barbadocladius</i> sp	0	0	0	0	5	5
Arthropoda	Insecta	Diptera	Chironomidae	<i>Brillia bifida</i>	0	0	0	1	0	1
Arthropoda	Insecta	Diptera	Chloropidae	-	0	1	1	0	0	0
Arthropoda	Insecta	Diptera	Empididae	<i>Wiedemannia rhychops</i>	1	0	1	0	0	0
Arthropoda	Insecta	Diptera	Empididae	<i>Wiedemannia zetterstedti</i>	0	3	3	0	8	8
Arthropoda	Insecta	Diptera	Limoniidae	-	0	1	1	0	3	3
Arthropoda	Insecta	Diptera	Limoniidae	<i>Eloeophila</i> sp	0	8	8	0	0	0
Arthropoda	Insecta	Diptera	Lonchopteridae	-	0	1	1	0	3	3
Arthropoda	Insecta	Diptera	Mycetophilidae	-	0	0	0	0	5	5
Arthropoda	Insecta	Diptera	Mycetophilidae	<i>Gnoriste apicalis</i>	0	2	2	0	0	0
Arthropoda	Insecta	Diptera	Pediciidae	-	0	1	1	0	0	0
Arthropoda	Insecta	Diptera	Psychodidae	<i>Psychoda erminea</i>	2	47	47	0	65	65
Arthropoda	Insecta	Diptera	Scatopsidae	-	0	0	0	0	3	3
Arthropoda	Insecta	Diptera	Simuliidae	-	1	88	88	2	80	80
Arthropoda	Insecta	Diptera	Syrphidae	<i>Heringia</i> sp	0	0	0	0	4	4

S5. Taula. (jarraipena - 1)

Filuma	Klasea	Ordena	Familia	Espeziea	Elama			Leitzarari		
					G	Z	T	G	Z	T
Arthropoda	Insecta	Diptera	Tipulidae	-	0	6	6	0	0	0
Arthropoda	Insecta	Ephemeroptera	Baetidae	<i>Alainites muticus</i>	51	0	51	0	0	0
Arthropoda	Insecta	Ephemeroptera	Baetidae	<i>Baetis</i> sp	70	0	70	88	0	88
Arthropoda	Insecta	Ephemeroptera	Baetidae	<i>Centroptilum luteolum</i>	1	0	1	0	0	0
Arthropoda	Insecta	Ephemeroptera	Baetidae	<i>Procloeon pennulatum</i>	0	0	0	1	0	1
Arthropoda	Insecta	Ephemeroptera	Ephemerellidae	<i>Ephemerella ignita</i>	0	1	1	0	0	0
Arthropoda	Insecta	Ephemeroptera	Ephemerellidae	<i>Torleya major</i>	2	0	2	0	0	0
Arthropoda	Insecta	Ephemeroptera	Ephemeridae	<i>Ephemera danica</i>	4	0	4	0	0	0
Arthropoda	Insecta	Ephemeroptera	Heptageniidae	-	0	1	1	0	0	0
Arthropoda	Insecta	Ephemeroptera	Heptageniidae	<i>Ecdyonurus</i> sp	91	18	91	56	0	56
Arthropoda	Insecta	Ephemeroptera	Heptageniidae	<i>Electrogena lateralis</i>	7	0	7	0	0	0
Arthropoda	Insecta	Ephemeroptera	Heptageniidae	<i>Epeorus</i> sp	47	26	51	79	51	79
Arthropoda	Insecta	Ephemeroptera	Heptageniidae	<i>Rhithrogena</i> sp	9	0	9	0	0	0
Arthropoda	Insecta	Ephemeroptera	Leptophlebiidae	<i>Habrophlebia eldae</i>	20	0	20	0	0	0
Arthropoda	Insecta	Ephemeroptera	Leptophlebiidae	<i>Habrophlebia lauta</i>	4	2	4	0	0	0
Arthropoda	Insecta	Lepidoptera	Erebidae	<i>Herminia tarsicrinalis</i>	0	6	6	0	6	6
Arthropoda	Insecta	Lepidoptera	Geometridae	-	0	1	1	0	1	1
Arthropoda	Insecta	Lepidoptera	Geometridae	<i>Idaea degeneraria</i>	0	1	1	0	1	1
Arthropoda	Insecta	Lepidoptera	Geometridae	<i>Parectropis similaria</i>	0	2	2	0	0	0
Arthropoda	Insecta	Lepidoptera	Geometridae	<i>Trichopteryx carpinata</i>	0	4	4	0	7	7
Arthropoda	Insecta	Lepidoptera	Noctuidae	<i>Deltote pygarga</i>	0	4	4	0	1	1
Arthropoda	Insecta	Lepidoptera	Noctuidae	<i>Spodoptera exigua</i>	0	0	0	0	1	1
Arthropoda	Insecta	Odonata	Cordulegastridae	<i>Cordulegaster</i> sp	3	0	3	0	0	0
Arthropoda	Insecta	Plecoptera	Leuctridae	<i>Leuctra</i> sp	21	19	26	28	37	42
Arthropoda	Insecta	Plecoptera	Nemouridae	<i>Protonemura meyeri</i>	0	0	0	1	0	1
Arthropoda	Insecta	Plecoptera	Nemouridae	<i>Protonemura pirenaica</i>	1	0	1	0	0	0
Arthropoda	Insecta	Plecoptera	Nemouridae	<i>Protonemura vandeli</i>	3	0	3	0	0	0
Arthropoda	Insecta	Plecoptera	Perlidae	-	1	1	1	0	0	0
Arthropoda	Insecta	Plecoptera	Perlidae	<i>Dinocras cephalotes</i>	5	0	5	0	0	0
Arthropoda	Insecta	Plecoptera	Perlidae	<i>Perla</i> sp	36	0	36	2	0	2
Arthropoda	Insecta	Trichoptera	Glossosomatidae	<i>Glossosoma boltoni</i>	1	1	1	0	0	0
Arthropoda	Insecta	Trichoptera	Goeridae	<i>Silo</i> sp	0	2	2	0	0	0
Arthropoda	Insecta	Trichoptera	Hydropsychidae	<i>Hydropsyche dinarica</i>	45	25	48	16	6	19
Arthropoda	Insecta	Trichoptera	Hydropsychidae	<i>Hydropsyche instabilis</i>	1	0	1	1	0	1
Arthropoda	Insecta	Trichoptera	Hydropsychidae	<i>Hydropsyche siltalai</i>	0	0	0	65	0	65
Arthropoda	Insecta	Trichoptera	Limnephilidae	-	0	17	17	0	3	3
Arthropoda	Insecta	Trichoptera	Limnephilidae	<i>Chaetopteryx villosa x fusca</i>	1	0	1	0	0	0
Arthropoda	Insecta	Trichoptera	Limnephilidae	<i>Halesus radiatus</i>	1	1	1	0	0	0
Arthropoda	Insecta	Trichoptera	Odontoceridae	<i>Odontocerum albicorne</i>	0	42	42	0	0	0
Arthropoda	Insecta	Trichoptera	Philopotamidae	<i>Chimarra marginata</i>	0	0	0	0	3	3
Arthropoda	Insecta	Trichoptera	Philopotamidae	<i>Philopotamus</i> sp	0	2	2	6	8	9
Arthropoda	Insecta	Trichoptera	Polycentropodidae	<i>Polycentropus</i> sp	0	4	4	0	5	5

S5. Taula. (jarraipena - 2)

Filuma	Klasea	Ordena	Familia	Espeziea	Elama			Leitzaran		
					G	Z	T	G	Z	T
Arthropoda	Insecta	Trichoptera	Rhyacophilidae	<i>Rhyacophila fasciata</i>	0	1	1	0	0	0
Arthropoda	Insecta	Trichoptera	Rhyacophilidae	<i>Rhyacophila meridionalis</i>	0	9	9	0	0	0
Arthropoda	Insecta	Trichoptera	Rhyacophilidae	<i>Rhyacophila relictata</i>	0	0	0	0	23	23
Arthropoda	Insecta	Trichoptera	Sericostomatidae	<i>Sericostoma</i> sp	25	0	25	0	0	0
Arthropoda	Malacostraca	Amphipoda	Gammaridae	-	0	0	0	2	2	2
Arthropoda	Malacostraca	Amphipoda	Gammaridae	<i>Echinogammarus cf aquilifer</i>	84	0	84	0	0	0
Arthropoda	Malacostraca	Amphipoda	Gammaridae	<i>Echinogammarus longisetosus</i>	1	0	1	88	0	88
Arthropoda	Malacostraca	Decapoda	Astacidae	<i>Pacifastacus leniusculus</i>	0	1	1	0	23	23
Laginak guztira					93	92	94	94	85	93

5. Kapitulua



Pirinioetako muturluzearen
(*Galemys pyrenaicus*, Insectivora, Talpidae)
dietaren karakterizazioa
harrapakinen ezaugarri bereizgarriak
(*traitak*) erabiliz

Laburpena

Tradizionalki, kontsumitutako *versus* eskuragarri dagoen bazkaren osaketa taxonomikoaren konparaketa egin ez balu, ez da dietaren hautespena. Esleipen taxonomikoak, ordea, ez du garrantziarik harrapariengan, euren hautespena bestelako ezaugarrietan oinarritzen dutelako, zeinaren inguruko informazioa harrapakinen ezaugarri —edo *trait*— biologikoetan topa daitekeen. Larriki galzorian dagoen Pirinioetako muturluzearen (*Galemys pyrenaicus*) bazka-hobespenak eragiten dituen irizpideak ulertze aldera, *trait*etan oinarritutako harrapakin-hautespen analisia egin genuen bi erreka desberdinetan, bata kontserbazio-egoera bikainean, eta bestea jarduera hidroelektrikorako ur-erazketen eraginpean egonik. Horretarako, erreka bakoitzean 94 muturluzegorotz lagindu eta metabarcoding bidez aztertu ziren, kontsumitutako harrapakinak identifikatzeko. Harrapakin-eskuragarritasuna hiru habitat mota nagusietan —putzuetan, ur-bareetan eta hobetsitako urlasterretan— jasotako Surber laginetatik neurtu zen. *Trait*en zaletasuna inferitzeko eskuragarri zeuden ornogabeak kontsumitutakoekin konparatu genituen bederatzi *trait* biologiko aztertuz. Muturluzeen dieta eta harrapakin-hautespen patroia nagusia oso antzekoa izan zen bi erreketan, erreken zein habitaten artean harrapakin eskuragarritasunean aldeak egon arren. Muturluzeez 2-8mm-ko tamaina potentzialeko harrapakinak, bentosaren *gainazalean* bizi diren harrapakinak, harrapakin *biziak*, *gorputz-malgutasun pixka bat* duten harrapakinak eta *taldekatuta* bizi diren harrapakinak hautatu zituzten positiboki. Hobetsitako gainontzeko *traitak* (*ur-fluxu bizkorra*, *harritzar-tamainako substratua*, eta abar) urlasterrei loturik zeuden. Positiboki hautatutako *trait*-kategoria ia guztiak ugariagoak ziren urlasterretan. Orokorrean, gure datuek urlasterrek Pirinioetako muturluzearen bazka-habitat gisa duten garrantzia nabarmendu zuten, nahiz eta ez dagoen argi horrek hobetsitako harrapakinen eskuragarritasun altuagoa edo euren ehiza-habitatetan dituzten muga mekanikoak islatzen dituen.

Hitz-gakoak

bazka-jokabidea, DNA metabarcoding, kudeaketa, makroornogabeak, *trait* funtzionalak, ugaztun urtarra

Sarrera

Galzorian dauden espezieen kontserbazioa euren biologiaren inguruko ezagutza zehatzaren gabeziak mugatuta egoten da maiz, euren banaketa, habitata edo dieta-eskakizunak zehazten dituzten faktoreak barne-bilduz (Morrison eta kideak, 2006). Tradizionalki, dieta-azterketak harraparien gorotz edo hesteetako harrapakinen hondarren identifikazioaren menpe egon dira, baina DNA metabarcoding-a bezalako tresna molekular berriez ordeztuak izaten ari dira (Bohmann eta kideak, 2014; Sheppard eta Harwood, 2005; Taberlet eta kideak, 1999). Teknika edozein izanik ere, ikerketa gehienek konposizio taxonomikoaren ikuspuntutik aztertzen dute dieta, nahiz eta esleipen taxonomikoak ez garrantziarik izan harrapariengan, seguruenik harrapakinen hautespena euren ugaritasuna, detektagarritasuna, harrapagarritasuna, profitagarritasuna edo kalitate nutrizionala bezalako bestelako ezaugarrietan oinarritzen dutelako (Almenar eta kideak, 2013; Symondson, 2002). Hautespena harrapakin-konsumoa eskuragarritasunarekiko esangarriki desberdina denean inferitzen da (Manly eta kideak, 2002), nahiz eta azken hori neurtzen zaila izan, ez baita harrapakinen zenbaketaren baliokidea, bestelako faktore batzuek harrapakinen detektagarritasunean, harrapagarritasunean, eta bar, eragiten dutelako (Backwell eta kideak, 1998; Holmes eta Schultz, 1988). Harraparien zentzumen-gaitasunek ere (Siemers eta Guttinger, 2006), harrapakinen harrapagarritasuna, iheserako edo defentsarako jarrera eta zaporea bezalako bestelako faktoreez jarraituz (De Crespín eta Usseglio-Polatera, 2002; Spitz eta kideak, 2014; Stephens eta Krebs, 1986), “harrapakin-hautespen aktiboaz” hautatu daitekeen harrapakin potentzialen gama mugatzen dute, harrapariaren bazka-estrategian eraginez. Biologikoki esanguratsuak diren ezaugarri horietako batzuk ezaugarri bereizgarri edo *trait* funtzionaletan islatzen dira (Schmitz, 2017), zeinak harrapariaren bazkarekiko hobespenetan eragiten duten faktoreen inguruko funtsezko ideiak ematerik dituzten.

Nahiz eta oso gutxitan erabili izan diren ugaztun intsektiboroekin, *trait*etan oinarritutako hurbilpenek, ikerketa taxonomikoetan oinarrituz era desegokian oportunistak gisa definitutako espezieen harrapakin-hautespena antzematea (Spitz eta kideak, 2014), edo alderantziz, lehendik harrapakin-espezialista hertsizat hartzen zen espezie batean espektro trofiko funtzional zabala ezagutaraztea (Arrizabalaga-Escudero eta kideak, 2019) ahalbidetu diete ikertzaileei. Hortaz, *trait*etan oinarritutako hurbilpenek ikaragarri hobetu dezakete espezieen eta euren ingurumenaren arteko erlazioaren inguruan dugun ezagutza (Luck eta kideak, 2012), eta bazka-ekologian haustura bat ere markatzerik badute gainera (Spitz eta kideak, 2014). Harrapakinen *trait*etan oinarritutako ikerketek muga batzuk badituzte ere (Cesar eta Frid, 2012; Kremer eta kideak, 2017; Poff eta kideak, 2006), harrapariaren ikuspegitik seguruenik

egokiagoa izango da *traitek* harrapakin komunitateak ezaugarritzen dituzten modua esleipen taxonomikoa baino.

Pirinioetako muturluzea (*Galemys pyrenaicus*, É. Geoffroy Saint-Hilaire, 1811, Insectivora, Talpidae) mendiko erreka hotz eta garbietan bizi den eta dieta generalista duen ugaztun intsektiboro erdi-urtarra da. Endemikoa da Iberiar Penintsularen iparraldean eta Pirinioetan, baina bere banaketa-eremua gogorki murriztua izan da azken hamarkadetan, eta horrek Naturaren Kontserbaziorako Nazioarteko Batasunaren (IUCN) zerrenda gorriaren kategorietan Zaugarri gisa sailkatzea ekarri du (Fernandes eta kideak, 2008). Zaletasun sendoa du fluxu bizkorreko urlasterrekiko, motelagoak diren ur-bare eta putzuen aldean (2. Kapituluua; Esnaola eta kideak, 2018b), nahiz eta muturluzearen harrapakin nagusi diren ornogabe bentikoak ez ugariagoak izan bertan (4. Kapituluua). Horrek galdera mahaigaineratzen du muturluzeek erakusten duten urlasterrekiko zaletasun sendo horren zergatiei buruz. Azalpen potentzial bat zera da: ugaritasun orokorra antzekoa izan arren, eurek hobetsitako harrapakin motak nabarmenki ugariagoak direla bertan. Galdera horrek muturluzeen zaletasunak ezagutarazteko *traitetan* oinarritutako hurbilpen bat eskatzen du, kontserbazio-neurri eraginkorrak hartu ahal izateko informazio gakoa eskain lezakeena.

Hemen, errekaen kontserbazio-egoerarekin harrapakin-hautespena aldatzen ote den aztertzen duen ikerketa baten emaitzak aurkezten ditugu, eta bertan DNA metabarcoding bidez muturluzearen dietak aztertu eta habitat mailako harrapakin eskuragarritasunekin konparatu dira bi erreka desberdinetan. Gure ikerketaren helburuak (1) Pirinioetako muturluzearen dieta-hautespena eragiten duten harrapakin-*traitak* identifikatzea, (2) *traitek*iko zaletasunak muturluzeen habitat-hautespena azal ote dezakeen aztertzea, eta (3) hobetsitako *traitak* bi erreken artean desberdinak ote ziren egiaztatzea izan dira. Hipotesi nagusiaren arabera, muturluzeek errekaen hondoa azalean bizi diren harrapakin handiak, taldekatuak, motelak, eta defentsa mekanismo gabeak hobetsiko lituzke. Bigarren hipotesiaren arabera, hobespen horiek muturluzeen habitat-erabilera eragingo lukete, eta kontserbazio-egoera okerragoa duen erreka urlasterrekiko zaletasun handiagoa azalduko lukete.

Material eta metodoak

Ikerketa-eremua

Ikerketa hau 2016an egin zen, irrati-telemetry lan batekin batera (2. Kapituluua; Esnaola eta kideak, 2018b), Iberiar Penintsularen iparraldeko bi erreketan

(Euskal Herrian). Elama bigarren ordenako mendiko erreka da, Artikutzako lursailean biztanlerik gabeko granito eta eskistozko 1.415 ha-ko arroa estaltzen duena, 1919-tik natura erreserba gisa zorrozki kudeatua izan dena, egun baso-jarduerarik gabekoa, eta ondorioz pago eta haritzez osaturiko baso estaldura zabala duena (Castro, 2009). Urasterren eta ur-bareen eskuragarritasuna antzekoa da ikerketa eremuan (%45 bakoitza), eta putzuak dira habitat urriena bertan (2. Kapituluak; Esnaola eta kideak, 2018b). Leitzaranean, berriz, laugarren ordenako ibaia da, kareharri, arbel eta hareharrizko 12.402 ha-ko arroa estaltzen duena. Elaman ez bezala, 3.150 biztanle dituzten bi herri kokatzen dira Leitzaranean arroaren goiko aldean, nahiz eta horren ostean errekek biztanlerik gabeko 25 km inguruko haran luzea zeharkatzen duen, non basogintza eta jarduera hidroelektrikoetarako ur-erazketak diren giza-eraginezko jarduera nagusiak (Izagirre eta kideak, 2013). Leitzaranean ur-bareak dira nagusi (%60) eta putzuak dira berriro ere habitat urrienak (2. Kapituluak; Esnaola eta kideak, 2018b). Erreka hauek ingurumen-presio desberdinak pairatzen dituzte eta, Elamak kontserbazio-egoera hobea duen arren, biek dute egoera ekologiko ona Uraren Europako Zuzentarauaren arabera (Council of the European Communities, 2000) eta biak daude Europar Batasunaren Natura 2000 sarearen baitan babestuta (Council of the European Communities, 1992).

Laginketa Esnaola eta kideek (2018; 2. Kapituluak) argitaratutako irrati-telemetria laneko tarte eta garai beretan egin zen, Elama erreka 4 km-ko tartean (43°12'40"N 1°48'36"W eta 43°11'14"N 1°48'4"W artean; batazbesteko altitudea, 330 m; batazbesteko zabalera 7,08 m), eta Leizaranean ibaiko 10 km-ko tartean (43°8'57"N 1°57'26"W eta 43°6'55"N 1°56'9"W artean; batazbesteko altitudea, 290 m; batazbesteko zabalera, 12,42 m). Tartean luzeren arteko aldeak Leizaranean ibaian muturluzeak harrapatzeko zailtasun handiagoari dagozkio.

Muturluzearen dieta

Pirinioetako muturluzearen gorotzak bi erreketan bilatu ziren 2016ko irailean eta urrian, espezie honentzako bereziki diseinatutako babesleku artifizialak eraikiz (1. Eranskina; González-Esteban eta kideak, 2018). Denera 188 gorotz (erreka bakoitzeko 94) bildu eta hodietan gorde ziren, %98 etanolean, eta DNA erauzi arte -80°C-tan izoztu ziren.

Muturluzeen gorotz-laginetako DNAREN erazketa, PCR-anplifikazioa eta Errendimendu Altuko Sekuentziazioa (HTS) Esnaola eta kideek (2018a; 3. Kapituluak) deskribatu bezala egin zen. Laburbilduz, *DNA Qiagen Powerfecal DNA kit*-a (Qiagen Iberia, S.L. Madrid) erabiliz erauzi zen gorotzetatik, fabrikatzailearen jarraibideak jarraituz, eta jarraian PCR bidez amplifikatu ziren

COI barkode guneko zatiak, LepF1/EPT-long-univR (Gillet eta kideek, 2015, bezala moldatua) eta ZBJ-ArtF1c/ZBJ-ArtR2c (Zeale eta kideak, 2011) hasle pareak erabiliz. Laginak purifikatu eta bigarren erreakzio bat egin zen Illumina Nextera v2 kit-a erabiliz, anplifikatutako produktu bakoitza idexatu eta Illuminako lotailuak eransteke. Sekuentziazioa *Illumina MiSeq NGS plataforman* (parekatutako muturreko 2x300 bp-ko irakurketen sekuentziazioa) egin zen *MiSeq® Reagent Kit v3 (600 ziklo)* erabiliz, fabrikatzailearen jarraibideak jarraituz. Sekuentzien prozesamendu orokorra USEARCH erabiliz (Edgar, 2010; Edgar eta Flyvbjerg, 2015) egin zen. Genbank nt (<https://blast.ncbi.nlm.nih.gov/Blast.cgi>), BOLD (<http://www.boldsystems.org/>) eta datu-base pertsonala erabili ziren BLAST (<https://blast.ncbi.nlm.nih.gov/Blast.cgi>) erabiliz OTU-ei (*Operational Taxonomic Units*) taxonomia esleitzeko. Lan hau Euskal Herriko Unibertsitateko UPV/EHU Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorretan (SGIker) egin zen. Emaizak agerpen-maiztasunen bitartez (FO, taxon hori gorotzen zein proportziotan detektatzen zen) adierazi ziren.

Harrapakin-eskuragarritasuna

Makroornogabe urtarrak Surber sare batekin (30 cm x 30 cm; 1 mm-ko sarea) lagindu ziren 2016ko iralean eta urrian hiru habitat motetan (Overton eta kideak, 1997): “urlasterrak”, ura bizkor, zurrunbilotsu, azalera irregularrekoa eta zurixka duten lekuak; “ur-bareak”, ura ia laminarra eta sakonera erregularrekoa dutenak; eta “putzuak”, ibilguaren sakonuneetan, emari motelekoak. Habitat eta erreka bakoitzeko 10 lagin bildu ziren zoriz erabakitako kokapenetan, denera 60 lagin izanik. Lagin horiek plastikozko ontzietan gorde eta %70-eko etanoletan mantendu ziren identifikazioa burutu arte.

Laborategian, makroornogabeak 2mm-ko sareaz bahetu, sailkatu, zenbatu eta disekzio-mikroskopioaz identifikatu ziren. 2mm-ko sarea hautatu izanaren arrazoa zera zen, Brose eta kideek (2006) deskribatutako harrapari-harrapakin gorputz tamainaren erlazioaren arabera ez zela muturluzeek 2 mm baino txikiagoak ziren harrapakinak jaterik espero. Bereizmen taxonomikoa genero edo espezie mailan ezarri zen taxa gehienentzako, Diptera, Coleoptera, Oligochaeta, Hirudinidae eta Nematodaren salbuespenekin, zeinak familia edo ordena mailan identifikatu ziren.

Datuen analisisa

Dietaren eta harrapakin-eskuragarritasunaren laginketen osotasuna ‘iNEXT’ online plataforma (Chao eta kideak, 2016) erabiliz ebaluatu zen, taxaren asetasun-kurbak eraikiz. Horiek asintota lortu zuten eta laginen osotasuna

%95 baina altuagoa izanik, erabilitako lagin tamaina bi erreketako muturluzeen dieta deskribatzeko egokia zela baieztatu zen (ikusi 4. Kapitulua).

Traiten hautespena muturluzeen harrapakin-hautespenean potentzialki eragiten zuten 9 *trait* erabiliz ondorioztatu zen. Horietako 4 (sakoneraren zaletasuna, korrontearen abiaduraren zaletasuna, substratuaren zaletasuna eta ur-fluxuarekiko esposizioaren zaletasuna; 1. Taula) habitataren (urlasterra, ur-barea edo putzua) eraginpean leudeke seguruenik, eta beste bostak (substratuarekiko mugikortasun/lotura mota, arintasuna, agregazio-joera, gorputzaren tamaina potentzial maximoa eta gorputzaren malgutasuna; 1.

1. Taula. Muturluzeen harrapakinak ezaugarritzeko erabilitako *traitak* eta beren kategoriak. Jatorrizko *trait*-kategoriak De Crespín eta Usseglio-Polatera-k (2002), deskribatuak izan ziren, eta hemen agertzen den moduan berrizendatuak eta ber-sailkatuak izan dira. Datu-bilduma: Sánchez-Hernández (2014). Ingelesezko laburdurak mantendu dira.

<i>Traita</i>	Laburdura	Kategoriak	Sánchez-Hernández-en jatorrizko kategoriak
Sakonera	DEP1	<i>Hiporreikoa</i>	'Zulatzaille' hiporreikoa+ Hiporreiko 'interstiziala'
	DEP2	<i>Epibentikoa</i>	Higadurazko epibentikoa + deposizional epibentikoa
	DEP3	<i>Ur-zutabean</i>	Ur-zutabean
Korrontearen abiadura	CUV1	<i>Motela</i>	Geldia / Motela (0-25 cm/s)
	CUV2	<i>Ertaina</i>	Ertaina (25-75 cm/s)
	CUV3	<i>Bizkorra</i>	Bizkorra (>75 cm/s)
Substratua	SUS1	<i>Blokeak</i>	Blokeak (>256 mm)
	SUS2	<i>Txintxarra-Uharria</i>	Txintxar fina / Txintxarra-Uharria (2-256 mm)
	SUS3	<i>Sedimentu finak</i>	Lohia (0.001-0.2 mm) + Harea-Lohia (0.2-2 mm) + Lokatza
	SUS4	<i>Makrofitoak-Sustraiak</i>	Briofitoak + Bestelako makrofitoak + Sustraiak
	SUS5	<i>Orbela</i>	Orbela, detritu organikoa
Ur-fluxuarekiko esposizioa	FLE1	<i>Gordeta</i>	Gordeta
	FLE2	<i>Agerian</i>	Agerian
Substratuarekiko mugikortasuna/lotura	MAS1	<i>Igerilaria</i>	Igerilaria
	MAS2	<i>Harrestaria</i>	Herrestari / ibiltaria + Herrestari / irristaria
	MAS3	<i>Lotua</i>	Betiko lotua + Denboraldi batez lotua
Arintasuna	AGI1	<i>Ezer ez</i>	Ezer ez
	AGI2	<i>Ahula</i>	Ahula
	AGI3	<i>Handia</i>	Handia
Agregazio-joera	AGT1	<i>Handia</i>	Handia
	AGT2	<i>Ahula</i>	Ahula
Tamaina potentziala	POS1	≤ 2	≤ 2 mm
	POS2	2-8	> 2-4 mm + > 4-8 mm
	POS3	8-32	> 8-16 mm + > 16-32 mm
	POS4	> 32	> 32 mm
Gorputzaren malgutasuna (zorroak/tutuak barne)	BOF1	<i>Ezer ez</i>	Ezer ez (<10°)
	BOF2	<i>Ahula</i>	Ahula (10-45°)
		<i>Handia</i>	Handia (> 45°)

Taula) independente gisa uler daitezke. *Trait* bakoitzak 2-5 kategoria zituen, eta taxon bakoitzaren kategoria bakoitzarekiko afinitate-balioak (Otik 5era) *fuzzy coding* bidez (Chevenet eta kideak, 1994; Sánchez-Hernández, 2014; S1. Taula) adierazi ziren.

Afinitateak afinitate erlatiboetara transformatu ziren, balio bakoitza taxon bakoitzaren *trait* bakoitzaren afinitatearen baturaz zatituz. *Trait* daturik ez zuten maila taxonomikoei (adb. Chironomidae) maila taxonomiko baxuagoko balioen batazbestekoa atxiki zitzaien (ikus Sánchez-Hernández, 2014; S1. Taula). Daturik ez zuten taxak, aldiz, (anelidoak, lepidopteroak eta zenbait koleoptero lurtar, guztiak oso gutxitan kontsumituak; ikusi 4. Kapituluua) analisietatik baztertuak izan ziren (S1. Taula).

Analisietarako “taxa x *traitak*” matrizea eraiki zen dietarako eta eskuragarritasunerako, zeina agerpen-maiztasunekin (FO) zamatua izan zen dietarako, eta banakoen ugaritasunarekin bentoseko eskuragarritasunerako. Balio horiek batu eta proportzio erlatiboetara transformatu ziren dietan erreka bakoitzerako (“erreka x *traitak*” matrizea eraikiz), eta eskuragarritasunean lagin kategoria bakoitzerako (“lagin kategoria x *traitak*” matrizea eraikiz, non lagin-kategoriak honakoak ziren: Elama urlasterra, Elama ur-barea, Elama putzua, Leitzaran urlasterra, Leitzaran ur-barea eta Leitzaran putzua).

Harrapakin-eskuragarritasuneko eta muturluzeen dietako *traitak* bi erreketarako deskribatu ziren (eskuragarritasunean habitat mota bakoitzerako ere bai), *trait*-kategoria bakoitzaren proportzioekin. Harrapakin-eskuragarritasunean erreken eta habitaten artean zamatutako *trait*-kategorien balioetan zeuden aldeak permutazio bidezko ANOVA erabiliz aztertu ziren, R-rako *ImPerm* paketeko *Imp* funtzioa erabiliz (Wheeler eta Torchiano, 2016). Permutazio bidezko modeloei erreka, habitata, *trait*-kategoria eta bigarren mailako interakzioak doitu genizkien.

Dietaren eta eskuragarritasunaren datuen arteko, zein erreken eta habitaten arteko antzekotasunak bilatzeko analisi multibariantea egin zen. Horretarako, Osagai Nagusien fuzzy Analisia egin zen (FPCA; R-rako *ade4* paketeko *prep.fuzzy.var* eta *dudi.fpca* funtzioak erabiliz), *trait* guztietako kategoria guztiak aldi berean kontutan hartuz. FPCA Osagai Nagusien Analisiaren aldaera sendo bat da (Cundari eta kideak, 2002). Azkenik, Erredundantzia Anlisi bat erabili zen (RDA, Hellinger-en distantzia matrizea eta R-rako *vegan* paketeko *rda* eta *anova.cca* funtzioak erabiliz) errekek, habitatak eta dieta *vs* eskuragarritasunak *trait*-kategorien arteko aldakortasuna azaltzeko zuten esangarritasuna lortzeko. *Trait* bakoitzak bi erreken, hiru habitaten eta dieta eta eskuragarritasunaren arteko alde orokorrak azaltzeko duen garrantzi erlatiboa, inertzia-balioen bidez erakutsi dugu.


Ondoren, muturluzeen harrapakin-hautespena dieta eta eskuragarritasunaren arteko proportzioak erabiliz aztertu zen. Muturluzeen gorotzak ezin zirenez habitat zehatzekin lotu, habitat bakoitza ez zen bere aldetik aztertu ahal izan ikerketaren zati honetan. Horren orde, eskuragarritasuneko datuen “*taxa x traitak*” matrizea alde aurretik erreka bakoitzean ikertutako tartean habitatek zuten azalera erlatiboarekin zamaturiko taxaren ugaritasun-balioez bidertu zen. Bentoseko ugaritasuna habitataren azalera zamaturuz, habitatak ikertutako tartetako guztizko harrapakin-eskuragarritasunean duen ekarpena hartzen dugu kontutan. Horren ostean, $\log_{10}(\text{dieta/eskuragarritasuna})$ proportzioa kalkulatu zen *trait*-kategoria eta lagin bakoitzerako, erreka bakoitzeko dietaren balioa eskuragarritasuneko erreplika bakoitzaren balioarekin zatituz. Proportzioak kalkulatzeko eskuragarritasuneko zeroek sortutako arazoa konpontzeko, proportzioa kalkulatu baino lehen konstante bat (datu-baseko balio minimoaren erdia) gehitu genien balio guztiei. Azkenik, erreka bakoitzeko batazbesteko proportzioa eta bere konfidantza-tartea kalkulatu ziren. Proportzio horrek muturluzeak harrapakin *trait*-kategoria zehatzak (positiboki edo negatiboki) hautatzen ote zituzten aztertzeko balio izan zuen. *Trait*-kategorien hautespena erreka mendeko zegoen aztertzeko permutazio bidezko ANOVA bat egin zen, R-ko *ImPerm* paketeko *Imp* funtzioa erabiliz (Wheeler eta Torchiano, 2016), bi erreka arteko *trait*-kategorien afinitateetako antzekotasunak aztertzeko. Hemen ere, permutazio bidezko modeloei erreka, habitata, *trait*-kategoria eta bigarren mailako interakzioak gehitu genizkien. Analisi guztien esangarritasun maila $p < 0,05$ -n ezarri zen. Analisi guztiak R 3.4.3 (R Core Team, 2014) erabiliz egin ziren.

Results

Traitak dietan

Trait-kategoria ugari muturluzeen dietan zuten ekarpen erlatiboa oso antzekoa zen bi erreketan (1. Irudia). Sakonera *traitari* zegokionean, muturluzeek harrapakin *epibentikoak* kontsumitu zituzten nagusiki (batazbeste %73,3), *hiporreikoek* (%15,3) eta *ur-zutabeko* harrapakinek (%11,3) jarraituta. Aldeak hutsalak ziren *korrontearen abiadurari* loturiko *traitaren* kasuan (%35,0 *ertaina*, %34,8 *motela*, %30,2 *bizkorra*). Substratuaren kategoriei zegokienean, muturluzeek *txintzar-uharri* (%31,1) eta *makrofito-sustrai*ei (%29,8) loturiko harrapakinak jan zituzten nagusiki, *blokeek* (%19,5), *sedimentu finek* (%11,1) eta azkenik *orbelak* (%8,4) jarraituta. Ur-fluxuarekiko esposizioa *traitak* alde txikiak erakutsi zituen (%53,2% *agerian vs.* %46,8 *gordeta*), substratuarekiko mugikortasuna/loturari zegokionean *herrestari* harrapakinak beste kategoriak


baino askoz maizago (%70,5) jaten zituzten bitartean. *Arintasunik gabeko* harrapakinak besteak baino askoz maiztasun gutxiagoz jaten zituzten (%4,2 vs. %52,9 *arintasun ahulekoak* eta %42,8 *arintasun handikoak*, hurrenez hurren), dietan *agregazio-joera handiko* harrapakinak (%64,6) *joera ahulekoak* baino (%35,4) ohikoagoak ziren bitartean. Tamaina potentzialari zegokionean, *tamaina ertaineko* harrapakinak jan zituzten nagusiki muturluzeek (%64,3 8-32 mm, %33,6 2-8 mm-z jarraituz), oso gutxitan jan zituzten *tamaina* potentzial *handiko* harrapakinak (> 32 mm, %2,1) eta ez zuten ia inoiz jan ≤ 2 mm tamaina potentzialeko harrapakinik. Azkenik, gorputzaren malgutasuna *traitak malgutasun handirako* erakutsi zuen ekarpen erlatibo altuena (%49,0), *ahula* (%34,7) eta *ezer ez* (%16,2) kategoriek jarraituta.



1. Irudia. *Trait*-kategoria bakoitzak Elama eta Leitzaran erreketako muturluzeen dietan duen ekarpen erlatiboa.

Harrapakin-eskuragarritasuna

Trait-kategorien arabera sailkatutako ornogabeen ugartasunei (eskuragarritasuna) zegokienean, alde interesgarriak zeuden habitaten eta ibaien artean (2. Irudia). Fauna *epibentikoa* ugariagoa zen habitat eta erreka guztietan (batazbeste %66,3), fauna *hiporreikoak* (%22,3) eta *ur-zutabe* faunak (%11,4) jarraituta; sakonera-zaletasunaren proportzioa esangarriki aldatzen zen ikertutako habitaten artean (sasi-F = 28,25, a.g. = 4, $p < 0,001$), estatistikoki fauna *epibentikoa* urlasterretan ugariena izanik, fauna *hiporreikoak* putzuetan ugariena zen bitartean. *Trait*-kategorien eta erreken arteko interakzioa esangarria zen (sasi-F = 57,67, a.g. = 2, $p < 0,001$), Elaman fauna *epibentikoa* Leitzaranean baino ugariagoa izanik.



2. Irudia. *Trait*-kategoria bakoitzak hiru habitatetako (La = urlasterrak, Ba = ur-bareak eta Pu = putzuak) eta bi erreketako (E = Elama eta L = Leitzaranean) harrapakin-eskuragarritasunaren erlatiboa.

Korrontearen abiadura *traitaren* kategorien eskuragarritasun orokorra *motela* kategoriarentzako izan zen altuena (%42,3), *ertainak* (%33,8) eta *bizkorrak* (%23,9) jarraitzen zutela. Hori nabarmenki aldatzen zen habitaten artean (sasi-F = 23,42, a.g. = 4, $p < 0,001$), putzuetatik ur-bare eta urlasterretara *bizkorra* kategoriak gora eginez, *motela* kategoriak kontrakoa egiten zuen bitartean (2. Irudia). *Trait*-kategorien eta erreken arteko interakzioa ere esangarria zen (sasi-F = 18,90, a.g. = 2, $p < 0,001$), *motela* kategoria ugariagoa izanik Leitzaranen, urlasterrak ugaritasun gutxieneko habitatak diren errekan.

Orokorrean, eskuragarri zeuden ornogabe gehienak *makrofito-sustrai*ei loturik zeuden (%30,9), *txintzar-uharriek* (%29,9), *sedimentu finek* (%16,4), *blokeek* (%14,7) eta *orbelak* (%8,1) jarraitzen zutela. *Trait*-kategorien eta erreken arteko interakzioa esangarria zen (sasi-F = 29,52, a.g. = 4, $p < 0,001$), *sedimentu finak* eta *makrofitoak-sustraiak* Leitzaranen altuagoak izanik. Habitat mailan, *trait*-kategorien eta habitaten arteko interakzioa esangarria zen (sasi-F = 15,28, a.g. = 8, $p < 0,001$), urlasterretan *txintzar-uharri*ei eta *bloke*ei loturiko fauna izanik ugariena (%33,9 eta %17,1, hurrenez hurren), putzuetan ugariena *sedimentu finei* eta *orbelari* loturikoak ziren bitartean (%20,2 eta %9,6, hurrenez hurren).

Ur-fluxuarekiko esposizioari zegokionean, *gordeta* kategoria izan zen ugariena habitat eta erreka guztietan (batazbeste %71,3). Kasu honetan alde esangarriak zeuden erreken artean (sasi-F = 51,04, a.g. = 1, $p < 0,001$), *gordetako* ornogabeak ugariagoak izanik Leitzaranen, eta *trait*-kategorien eta habitaten arteko interakzioa ere esangarria zen (sasi-F = 27,69, a.g. = 2, $p = 0,006$). *Agerian* kategoriak urlasterretan izan zituen balio altuenak (%40,4) eta putzuetan baxuenak (%18,5).

Substratuarekiko mugikortasuna/loturari zegokionez, *herrestaria* kategoriak izan zituen ugaritasun balio altuenak (batazbeste %76,3), *igerilaria* (%15,3) eta *lotua* (%8,4) kategoriez jarraiki. *Trait*-kategorien eta erreken arteko interakzioa esangarria zen (sasi-F = 77,46, a.g. = 2, $p < 0,001$), *herrestaria* kategoria Elaman ugariagoa izanik. *Trait*-kategorien eta habitaten arteko interakzioa ere esangarria zen (sasi-F = 8,96, a.g. = 4, $p = 0,043$), *herrestaria* eta *igerilaria* kategorien gorakada eta *lotua* kategoriaren beherakada leunak erakutsiz urlasterretatik ur-bare eta putzuetara.

Ornogabe gehienek (batazbeste %58,8) *arintasun ahula* zuten, *handia* (%35,3) eta *ezer ez* (%5,9) kategoriek jarraiki. *Trait*-kategorien eta erreken arteko interakzioa esangarria zen (sasi-F = 157,90, a.g. = 2, $p < 0,001$), Leitzaranen *arintasun handiak* balio altuagoak izanik. *Trait*-kategorien eta habitaten arteko interakzioa ere esangarria zen (sasi-F = 12,67, a.g. = 4, $p < 0,001$), *handia* kategoriak urlasterretan izanik balio altuenak (%42,9), *ahulak* ur-bareetan (%62,7) eta *ezer ez* kategoriak putzuetan (%9,2).


Agregazio-joera handiko ornogabeak ziren habitat eta erreka guztietan ugariena (batazbeste %59,2). *Trait*-kategorien eta erreken arteko interakzioa estatistikoki esangarria zen (sasi-F = 184,44, a.g. = 1, $p < 0,001$), Leitzaranean *agregazio-joera handia* ugariagoa izanik. *Trait*-kategorien eta habitataren arteko interakzioa ordea ez zen esangarria (sasi-F = 2,60, a.g. = 2, $p = 0,086$).

Tamaina potentzialari zegokionean, **8-32 mm** tamaina potentzialaren kategoria izan zen habitat eta erreka guztietan ugariena (batazbeste %66,1), **2-8 mm** (%28,3), **> 32 mm** (%5,5) eta **≤ 2 mm** (%0,0) kategoriek jarraitzen zutela. *Trait*-kategorien eta erreken arteko interakzioa estatistikoki esangarria zen (sasi-F = 37,62, a.g. = 3, $p < 0,001$), Leitzaranean **8 mm baino txikiagoak** ziren ornogabeak ugariagoak izanik. *Trait*-kategorien eta habitataren arteko interakzioa ere esangarria zen (sasi-F = 9,79, a.g. = 6, $p < 0,001$), **8 mm baino txikiagoak** ziren ornogabeen gorakada eta **8 mm baino handiagoak** ziren ornogabeen beherakada behatu baitzen urlasterretatik ur-bare eta putzuetara.

Azkenik, gorputzaren malgutasunari zegokionean, eskuragarritasun orokorra *handia* kategoriarentzako izan zen altuena (%44,5), *ezer ez* (%32,0) eta *ahula* (%23,5) kategoriek jarraitzen zutela. *Trait*-kategorien eta erreken arteko interakzioa esangarria zen (sasi-F = 45,27, a.g. = 2, $p < 0,001$), *malgutasun handiko* ornogabeek balio altuagoak izan baitzituzten Leitzaranean. *Trait*-kategorien eta habitataren arteko interakzioa ere esangarria zen (sasi-F = 5,10, a.g. = 4, $p < 0,001$), *handia* kategoria putzuetan izanik ugariena (%51,9) eta *ezer ez* eta *ahula* kategoriak urlasterretan (%35,1 eta %31,7, hurrenez hurren).

Traiten hautespena

Datu guztiekin (dieta eta eskuragarritasuna, 3. Irudia) egindako *fuzzy* PCA-n gorputzaren malgutasuna, ur-fluxuarekiko esposizioa eta arintasuna *traitek* erakutsi zituzten inertzia-balio altuenak ($> 0,020$; S2. Taula), lehenengo ardatzak guztizko bariantzaren %58,4 azalduz, eta bigarrenak %16,5. Erreken arteko aldeak eskuragarritasunarentzako baino txikiagoak ziren dietarentzako. FPCA-k erreken (Axis1) eta habitataren (Axis2) arteko aldeak erakusten zituen, batez ere. Nabarmena izan zen muturluzearen bi erreketako dietak elkarren ondoan agertu zirela, urlasterretako eskuragarritasunetik gertu eta putzuetako eskuragarritasunetik urrun. Habitat-mailako eskuragarritasuna estaltzen zuten Elamako elipseak Leitzarangoak baino handiagoak eta gainjarriagoak ziren, hobekien kontserbaturiko errekan habitataren baitako eskuragarritasunaren heterogeneotasun handiagoa baina habitataren arteko alde txikiagoa erakutsiz. Erredundantzia analisi batek erreken ($F = 34,16$; a.g. = 1; $p = 0,001$; bariantzaren %32,8 azalduta) zein habitataren ($F = 6,48$, a.g. = 2, $p = 0,001$; %12,4) arteko




3. Irudia. Dietako eta erreko eskuragarritasuneko ornogabeen *traiten* FPCA. Puntuak dieta adierazten dute, elipseek habitat bakoitzeko eskuragarritasuna (ERi = Elamako urlasterrak; ERu = Elamako ur-bareak; EPo = Elamako putzuak; LRi = Leitzarango urlasterrak; LRu = Leitzarango ur-bareak; LPo = Leitzarango putzuak; urlasterrak berdez adierazi dira, ur-bareak laranja eta putzuak gorri) eta geziek *trait*-kategoria (ikusi laburdurak 1. Taulan). *Trait* bakoitza kolore desberdinez adierazi da. Ohartu Elamako elipseak Leitzarangoak baino handiagoak direla eta gainjartze handiagoa dutela. *Axis* = ardatza.

aldeak esangarriak zirela, baina eskuragarritasunaren artekoak esangarriak ez zirela ($F = 1,01$, a.g. = 1, $p = 0,348$; %1,0) erakutsi zuen (S3. Taula).

Harrapakin-hautespenari zegokionean, dieta eta eskuragarritasunaren arteko proportzioek erakutsi zuten muturluzeek positiboki hautatzen zituztela *ur-zutabe*ari loturiko harrapakinak eta harrapakin *epibentiko*ak, *ur bizkorrei* (> 75 cm/s), *blokeei* edo ur-fluxuarekiko *agerian* dauden habitatei loturiko harrapakinak (4. Irudia). Harrapakinen ezaugarri zegoenean, *2-8 mm* luze ziren harrapakinak, *gorputz mugikortasun pixka bat* (*ahula* edo *handia*) zuten harrapakinak, *igerilariak* zein *substratuari lotzeko mekanismo*ak zituztenak, *bizitasun handiko* harrapakinak eta *agregazioak eratzeko joera sendoa* zuten harrapakinak hautatu zituzten positiboki.

Bestalde, muturluzeek negatiboki hautatu zituzten *ur-abiadura motel*ei loturiko harrapakinak, eta *substratu finei* zein ur-fluxuarekiko *gordetako* guneei loturiko harrapakinak (4. Irudia), *2 mm baino txikiago*ak ziren harrapakinak, *herrestariak*, eta *agregazio-joerarik ez* zuten harrapakinak.

Bi erreketan patroi orokorra berdina izan zen arren (4. Irudia), hautespen-proportzioen erreken arteko aldeak esangarriak izan ziren sakonera ($p < 0,001$), ur-fluxuarekiko esposizioa ($p = 0,004$), substratuarekiko mugikortasuna/lotura ($p < 0,001$), arintasuna ($p < 0,001$) eta tamaina potentziala ($p < 0,001$) *trait*entzako. *Trait*-kategorien eta erreken arteko hautespen-proportzioen interakzioak ere esangarriak ziren *trait* guztientzako (p guztiak $< 0,001$).



4. Irudia. Trait-kategorien hautespena: positiboa (berdea), negatiboa (gorria) eta hautespenik eza (grisa). Koloreak argiagoko dira Elamarako eta ilunagoak Leitzaranerako.

Eztabaida

Ikerketa hau eskusiba bat da harrapakinen *traite*n analisiak Pirinioetako muturluzea intsektiboro generalistaren harrapari-harrapakin harremanak eragiten dituzten mekanismoak ulertzeko hurbilpen funtzional gisa. Hemen ikertutako *traitek* muturluzearen bazka-erabakiak harrapakinen esleipen taxonomikoei baino hobeto azaltzen laguntzen dute.

Traitak dietan

Muturluzeak urlasterren aldeko zaletasun sendoa duten (2. Kapituluua; Esnaola eta kideak, 2018b) harrapari erreofilo espezialistak dira. Beren dietaren inguruan egindako ikerketa taxonomikoei Trichoptera, Ephemeroptera, Plecoptera, Crustacea (Amphipoda) eta Diptera (Bertrand, 1992; Castián eta Gosálbez, 1995; Santamarina eta Guitian, 1988), eta gutxiagotan Coleoptera, Annelida eta Odonata (Puisségur, 1935; Richard eta Viallard, 1969; Santamarina, 1992) jaten dituztela erakutsi dute. Horietako autore batzuek (adb. Santamarina, 1993) muturluzeen dieta urte-sasoien arabera aldatzen dela ikusi zuten, baina beraietako gehienak bat zetozen muturluzeak harrapakin ugariz elikatzen diren harrapari generalista gisa definitzean (e.g. Biffi eta kideak, 2017a,b; Hawlitschek eta kideak, 2018). Ikerketen arteko aldeak lagin kopuruari, eskualde geografikoari edo metodologiari dagozkion ezberdintasunetatik eratorriak izan daitezke.

Aurretiaz eginiko gure hurbilpen taxonomikoan (4. Kapituluua), muturluzeek Elama eta Leitzaran erreketan aldeztuak deskribatutako dietaren antzekoa zutela topatu genuen. *Traitetan* oinarritutako gure ikerketaren arabera, muturluzeek gehien kontsumitu zituzten ehizakiak hauek ziren: harrapakin *herrestariak*, harrapakin *epibentikoak* —Psychodidae, Baetidae, Heptageniidae, Rhyacophilidae eta Gammaridae—, *txintzar-uharri* edo *makrofito-sustrai* substratuetan bizi diren harrapakinak —Simuliidae, Baetidae, Heptageniidae eta Gammaridae— (nahiz eta Elama eta Leitzaran erreketan ez ziren ia goroldioak ez ziren makrofitoak agertzen), *8-32 mm* tamaina potentzialeko harrapakinak — Heptageniidae, Odontoceridae, Rhyacophilidae eta Gammaridae —, eta maizago *agregazio-joera baxua* baino *handia* zuten harrapakinak —Simuliidae, Baetidae, Odontoceridae eta Gammaridae— (S1. Taula). Horrez gain, muturluzeen harrapakinek ez zuten ia alderik erakutsi korrontearen abiadurarekin lotutako *traitei* zegokionean, eta *ur-fluxuarekiko esposizio pixka bat* zuten harrapakinak jan zituzten, *gorputz-malgutasunik gabeko* (Limnephilidae bezalako) harrapakin gutxi jan zituzten eta ez zuten ia *arintasunik gabeko* (moluskuen gisako) harrapakinik jan. Gorputzaren

malgutasuna *traitari* zegokionean, muturluzeek nolabaiteko plastikotasuna erakutsi zuten, *gorputz-malgutasun handiko* —gehien bat Psychodidae, Simulidae, Baetidae—, ahuleko —adb. Heptageniidae—, edo *malgutasunik gabeko* —adb. Gammaridae— harrapakinak janez.

Traitetan oinarritutako dietaren deskribapena eta egindako analisi multibariantea (FPCA) bat zetozen ikertutako bi erreketan eta, hortaz, muturluzeen dietek errekarren kontserbazio-egoerak eragiten ez dion patroia argia erakutsi zuten. Emaizta horiek, beraz, animalia honen bazka-jokabidearen konsistentzia eta harrapakinak ezaugarritzeko erabilitako metodologiaren (taxonomia *vs. trait* biologikoak) garrantzia azpimarratzen dituzte. *Traiten* erabilerak, esate baterako, talde taxonomiko desberdinetako harrapakinak partekatzen dituzten ezaugarriak azaleratzea ahalbidetzen du, *trait* desberdinak erabiliz talde taxonomiko berdinean taldekatutako espezieak bereizteaz batera.

Traiten hautespena

Dieta agerpen-maiztasunen (FO) bitartez neurtzeak gutxi baino maiz jaten diren harrapakinak gehiegi balioestea eta gutxitan baino kantitate handitan jaten diren beste batzuk gutxiestea eragin dezake (Deagle eta kideak, 2019). Arazo metodologiko hori kontutan hartuta, laginketen alborapena ahalik eta gehien ekiditeko lagin-kopuru handia biltzen saiatu ginen (Mata eta kideak, 2019).

Muturluzeek *ur-zutabearekiko* eta *gune epibentikoarekiko* zaletasuna zuten harrapakinak, *gune bizkorretan* agertu eta substratu gisa *blokeak* zituzten harrapakinak, ur-fluxuarekiko *agerian* bizi ziren harrapakinak, *2-8 mm*-ko tamaina potentziala zuten harrapakinak, *arintasun handiko* harrapakinak, *gorputz-malgutasun pixka bat* zuten harrapakinak, *taldekatutako* harrapakinak, eta *igerilariak* zein *substratuari lotzeko mekanismoak* zituzten harrapakinak hobesten zituzten. *Alanites*, *Baetis* edo Simuliidae (S1. Taula) bezala maiz jandako taxak *trait* horietako asko konpartitzen dituzte. Aldiz, muturluzeek negatiboki hautatu zituzten *abiadura moteleko* uretan, *substratu finetan*, ur-fluxuarekiko *gordeta* bizi ziren harrapakinak, tamaina potentziala *2 mm baino txikiagoa* zuten harrapakinak, *agregazio-joerarik ez* zuten harrapakinak, eta *herrestariak*. Nahiz eta harrapakin taxa bakarrak ere ez zituen ezaugarri guzti horiek konpartitzen, *Atherix*, *Eleophila*, *Prionocera* eta *Wiedemannia* (S1. Taula) dira ezaugarri horietako batzuk dituzten taxaren adibideak, eta zaletasun horiek eragin zitzaizkienak. Honela, emaitza horiek muturluzeek harrapakin handi eta motelak positiboki hautatuko zituztela zioen gure lehenengo hipotesia gezurtatzera garamatzate hein batean. Bestalde, espero bezala, muturluzeek positiboki hautatu zituzten *gorputzaren malgutasun pixka bat* behintzat bazuten harrapakinak (zorrotuturik gabekoak) eta *agregazio-joera*

handia zuten harrapakinak eta, aldiz, *substratu finetan* bizi ziren harrapakinak negatiboki hautatu zituzten. Halaber, sakoneraren zaletasunari zegokionean *ur-zutabeen* zein *gune epibentikoan* bizi ziren harrapakinak, *ur-fluxu bizkorreko guneetan* bizi ziren harrapakinak, substratu gisa *blokeak* zituztenak, eta *igerilariak* zein *substratuari lotzeko mekanismoak* zituzten harrapakinak nahiago zituztela azpimarratu zuten gure emaitzek.

Positiboki hautatutako *trait*-kategoriei zegokienean, bi taldetan sailkatu litezke horiek. Alde batetatik, zuzenean urlasterrei loturik daudenak leudeke: urlasterretan bizi diren ornogabeetan esperotako kategoriak ur-fluxuarekiko *agerian* egotea, *substratuari lotuta*, substratu gisa *blokeak* izatea eta *abiadura bizkorreko* urak izatea dira. Badijadi kategorio horiek ez dutela muturluzeen hautuan zuzenean eragiten; aitzitik, muturluzeen habitat-hautespenaren ondorio direla dirudi. Muturluzeak lehentasunez urlasterretan bazkatzeen direnez, euren harrapakin ugarienek ere urlasterretan bizitzeko moldapenak erakustea espero zitekeen, muturluzeentzako izan dezaketen profitagarritasunaren edo harrapagarritasunaren efektua edozein izanik ere. Gainontzeko *trait*-kategoriek ulermen argiagoa eskain dezakete muturluzeen harrapakin-zaletasunei buruz: *ur-zutabeen* eta *gune epibentikoetan* bizitzeko zaletasuna duten harrapakinak (*Baetis*, *Epeorus* edo *Ecdyonurus* kasu), *2-8 mm*-ko tamaina potentziala dutenak (*Leuctra*, *Psychoda* edo Simuliidae kasu), *arintasun handiko* harrapakinak (*Alanites* edo *Echinogammarus* kasu), *gorputz-malgutasun pixka bat* (*ahula* edo *handia*) dutenak (*Ecdyonurus*, *Epeorus*, *Hydropsyche* edo *Psychoda* kasu), *taldekatuta* bizi direnak (*Hydropsyche*, *Leuctra*, *Odontocerum* edo Simuliidae kasu) eta *igerilariak* diren harrapakinak (*Alanites*, *Baetis* or *Echinogammarus* kasu). *Ur-zutabeko* eta *gune epibentikoetako* harrapakinak aldeko zaletasunak erraza dirudi ulertzen, harrapakin *hiporreikoen* kaltetan, ibilguaren hondoa zulatzen aritzeak garestia izan behar baitu energetikoki. Harrapakinak tamaina potentzialen hautespenak aldiz zailagoak dira ulertzen, energetikoki profitagarriagoak diruditen harrapakin handienekiko hautespen negatiboa erakutsi baitzuten muturluzeek. *2 mm baino txikiagoak* diren harrapakinekiko hautespen negatiboak aldiz bat egiten du Brose eta kideen (2006) irizpidearekin, kasu honetan kontsumitzaile-baliabide arteko \log_{10} gorputz-masa proportzioak ez baitzuen 6 balioa gainditzen. Aipagarria da ornogabeen laginketa 2mm-ko sare batez egin zela, *2 mm baino txikiagoak* ziren ornogabeen harrapaketa mugatuz, eta halaz ere hauek dietan zuten maiztasuna gure laginetan baino baxuagoa izan zela, hauekiko muturluzearen zaletasun negatibo sendoa erakutsiz. Harrapakinak arintasunak intuizioaren kontrako kriterioa dirudi muturluzeen zaletasunekiko, eta segur aski sakonerarekiko zaletasuna edo ur-fluxuarekiko *agerian* egotea bezalako bestelako *traitei* loturik egon daiteke. Gorputzaren malgutasunari zegokionez, muturluzeen hautespenak *gorputz-estalki gogorreko* (zorro, oskol, etabar.) harrapakinak saihesten zituztela islatzen zuen, manipulatzeko eta jateko zailagoak izan (Rychlik eta Jancewicz,

2002), eta hortaz, profitagarritasun txikiagoa izan zezaketeelako (Bertrand, 1992). Dena den, zenbait ikerketek erakutsi zuten Trikopteroeren hautespena ez zela zorroen presentziaren menpekoa, muturluzeek positiboki zein negatiboki hautatzen baitituzte zorrodun (Goeridae, Lepidostomatidae, Limnephilidae eta Odontoceridae kasu; *gorputz-malgutasunik eza*) zein zorrogabeko trikopteroak (Hydropsychidae, Polycentropodidae, Philopotamidae eta Rhyacophilidae kasu; *gorputz-malgutasun handia*) (4. Kapituluak; Biffi eta kideak, 2017b; Santamarina, 1992, 1993). Gauza bera behatu izan da habitata eta bazka-hautespena neurri batean muturluzeekin konpartitzen dituzten ur-zozoetan ere (Ormerod eta Tyler, 1991; Santamarina, 1990; Taylor eta O'Halloran, 1997, 2001). Litekeena da muturluzeen zorrodun trikopteroeren kontsumoa zorroak substratuari lotzeko duen indarrarekin lotuta egotea, izan ere, zorroa finkatuago duten trikopteroak (Glossosomatidae eta Goeridae kasu) finkotasun gutxiago dutenak (Limnephilidae, Odontoceridae eta Sericostomatidae kasu) baino gutxiago kontsumitzen baitituzte (4. Kapituluak; Vieira-Lanero, 2000).

Esan beharra dago harrapakin-hautespena ez dela *trait* bakarraren menpekoa. *Agregazio-joera handiko* harrapakin hautespen positiboa bat dator ikerketa-eremu berdinean egindako irati-telemetriaz deskribatutako bazka-jokabidearekin, non muturluzeek beste edonora mugitu aurretik denbora-tarte luzeak pasatzen zituzten urlaster jakinetan — gune beroak— (Esnaola eta kideak, 2018b). Muturluzeen harrapakin kasuan, agregazio-joerak antzeko baldintzak bilatzen dituzten banakoen ondorioa dirudi, harrizarren gainean iragazpenerako baldintza hidrauliko hobeezinak topatzen dituztenez, bertan dentsitate handitan pilatzen diren Simulidoak kasu. Kasu horietan, horrelako gune bat topatzen duten muturluzeek bertan modu intentsiboan bazkatuz kostu txikian energia asko irabaziko dute. Azkenik, muturluzeek *igerilariak* diren harrapakinetikiko duen hautespen positiboak Gammaridoen gisako taxaren aldeko zaletasuna islatzen duela dirudi, zeinak tamaina egokikoak diren, ibilguaren hondorekin azalean agertzen diren, eta erlatiboki motel mugitzen diren harrapakinak diren (Tachet eta kideak, 2002).

Bertrand-ek (1992), datu morfologiko taxonomikoetan oinarrituz, muturluzeek bentikoak eta erreofiloak diren eta gorputz tamaina ertaina-handia duten fauna jaten dutela ondorioztatu zuen, eta muturluzeek energia intrintsekoaren balio altua (zorrorik gabeko trikopteroak, Hydropsychidae, Rhyacophilidae eta Philopotamidae kasu) eta esklerifikazio baxua duten harrapakinak nahiago zituztela iradoki zuen. Bestalde, zorrodun trikopteroak oso gutxitan jaten zituztela esan zuen, baina hori gezurtatua izan zen beste ikerketa batzuetan (adb. Biffi eta kideak, 2017a,b; Santamarina eta Guitian, 1988; Santamarina, 1992, 1993). Nahiz eta ikerketa honetan ez den harrapakinaren energia-balioa aztertu, Esnaola eta kideek (4. Kapituluak) Amphipodaren eta zorrodun (*Odontocerum* eta Limnephilidae kasu) zein zorrogabeko trikoptero (*Hydropsyche* kasu) talde

batzuen hautespen positiboa baieztatu zuten. Bertrand-ek deskribatutako “esklerifikazio baxua” bat dator guk behatutako *gorputz-malgutasun ahula* edo *handiaren* hautespen positiboarekin. Era berean, Santamarinak (1992, 1993) ere gorputz malgua zuten taxa positiboki hautatzen zituztela esan zuen— *vs.* moluskuak, negatiboki hautatuak—. Hawlitschek eta kideek (2018) eta Biffi eta kideek (2017b) ere, euren ikerketa taxonomikoetako behaketetan oinarrituta, gorputz gogorreko eta zorro gogorreko ornogabeak negatiboki hautatzen zituztela iradoki zuten. Haatik, gorputz-malgutasunik gabeko harrapakinak, hots *Glossossoma*, *Protonemura* eta *Sericostoma*, oportunistikoki jan ziren gure lanean, nahiz eta balitekeen muga metodologikoez (gorotzetako FO *vs.* bentoseko ugartasunak, lagin tamaina, etabar) gure hautespen-proporzioetan eragina izan izana.

Hautatutako *traitak* eta urlasterrak

Aurretiaz Esnaola eta kideek (4. Kapituluua) egindako lanean ez zuten harrapakin eskuragarritasun osoan muturluzeen urlasterrekiko zaletasun sendoa azal zezakeen habitaten arteko alderik aurkitu eta, hortaz, zaletasun horrek bestelako arrazoiei —segur aski arrazoi mekanikoei— erantzungo ziela iradoki zuten. Hemen, ordea, harrapakin *traitak* aztertzerakoan, *trait* batzuen eskuragarritasunean agerikoak ziren habitaten arteko aldeak. Hala eta guztiz ere, urlasterretan bizitzeko ornogabeen moldaketak ziren hobetsitako *trait*-kategorietako asko, eta horrek segur aski ez zien muturluzeei bestelako abantailarik eskainiko. Hortaz, zaila da ezaugarri horien bidez espezie honen habitat-hautespena azaltzea, eta ziur aski habitataren beraren ondorioa besterik ez dira izango. Bestalde, harrapakin-eskuragarritasunak muturluzeen habitat-hautespena zein puntutaraino azal zezakeen aztertzeke, harrapakin profitagarritasunarekin lotutako *trait*-kategoriak urlasterretan ugariagoak ote ziren aztertu genuen. Gure emaitzen arabera, batzbestek, hobetsitako harrapakin kategoria guztiak izan ziren pixka bat ugariagoak urlasterretan, *gorputz-malgutasun handia* izan ezik. *Gorputz-malgutasun handia* Elaman soilik izan zen positiboki hautatua, bertan ugariagoa izanik urlasterretan, eta Leitzaranean aldiz *malgutasun ahula* izan zen positiboki hautatutako kategoria, bertan hori ere urlasterretan izanik ugariagoa.

Emaitza horiek gure bigarren hipotesia onartu eta muturluzeez urlasterrak bertako bazkarengatik hautatzen dituztela ondorioztatzen eraman gaitzakete. Kategorien arteko eskuragarritasun aldeak aldiz txikiak eta erreken artean aldakorak ziren. Horrez gainera, hobetsitako harrapakin motak urlasterretan ugariagoak izateak nekez frogatu dezake habitat hori bertako bazkarengatik hautatzen dela. Baliteke flotagarritasunari eta habitataren heterogeneotasun espazialari aurre egiteko muga ekomorfologiko edo funtzionalak, edo jarrerazko

mugak (Richard, 1986), edo bestelako arrazoi ezezagunak egotea zaletasun horren atzean. Almenar eta kideek (2013), espezie intsektiboro batean, bazkaguneen hautespenak sekuentzia hierarkiko bat jarraitzen zuela ikusi zuten, lehenik espeziearen espezializazio morfologikoaren eta gune zehatzetan ehizatze gaitasunaren, gero gune zehatzetan harrapakinak detektatzeko gaitasunaren, eta azkenik harrapakinaren ugaritasun erlatiboaren eraginpean zegoena. Balizko mailakako erabakitze-prozesu analogoak batetik, eta habitatetako eta lekuanlekuko *traiten* arteko elkarrekintzak bestetik, muturluzeen bazkatzearen kausa eta ondorioen arteko mugak desitxuratu egiten dira.

Erreken arteko aldeak

Muturluzeek funtsean harrapakin-*trait* berdinak hautatu zituzten bi erreketan, nahiz eta baziren zenbait alde, ziur aski erreken eta habitaten arteko harrapakin-eskuragarritasunaren aldeei zegozkienak. Eskuragarritasunean aldeak egon arren, FPCA-k muturluzeek bi erreketan ia *trait* berberak zituzten harrapakinak jaten dituztela erakutsi zuen, espeziearen espezializazio trofikoa azpimarratuz.

Gure azken hipotesia egiaztatuz, eskuragarritasuneko elipseak (FPCA grafikoa) handiagoak eta gainjarriagoak ziren Elaman, Leitzaranen txikiagoak eta gainjarri gabeak ziren bitartean. Elamako habitaten arteko antzekotasun handiagoak muturluzeen Elamako ur-bareen hautespen nulua (2. Kapitulua; Esnaola eta kideak, 2018b) ulertzen laguntzen du, hain zuzen ere, erreka horretan harrapakin eskuragarritasunari zegokionean urlasterrak ur-bareekiko antzekoagoak zirelako (3. Irudia).

Ondorioak

Euren bazka-jokabide selektiboaren ondorioz, kontserbazio-egoera eta harrapakin-eskuragarritasun desberdina zuten erreketan ia dieta berdina izan zuten muturluzeek *traitei* zegokienean. Habitaten artean harrapakin *traitetan* diferentziak egon arren, eta hobetsitako *traitak* oro har urlasterretan ugariagoak izan arren, ezin izan genuen muturluzeek urlasterrak bertako bazkarengatik edo habitat horretan jarduteko duten gaitasunarengatik hautatzen zituzten ondorioztatu. Oro har, espezie erreofilo honen bazka-habitat gisa urlasterrek duten garrantzia azpimarratzen du ikerketa honek eta emaitzek iradokitzen dute espezieak hobetsitako habitaten kontserbazioa eta errestituzioa gako izango dela kontserbazio eraginkor batetarako. Ur-erazketek urlasterren eskuragarritasunean eragina duenez, erreketako emarien kudeaketa funtsezko gaia da muturluzearen kontserbazioan.

Eskerrak

Iñigo Mendiola eta Aitor Lekuona (Gipuzkoako Foru Aldundia), eta Asunción Yarzabal eta Iñaki Uranga (Donostiako Udaletxea) eskertu nahi ditugu lan hau egin ahal izateko eman diguten laguntzarengatik; Vanessa Mata, Hugo Rebelo eta Mafalda Galhardo (CIBIO-InBIO, Universidade do Porto), dietaren analisiekin laguntzeagatik; eta Sekuentziazio eta Genotipo Azterketen Unitatea —Genomic Facilities— SGIker (UPV/EHU/ERDF, EU) eman digun babes tekniko eta gizatiarrarengatik.

Ikerketa hau LIFE IREKIBAI EU proiektuak (LIFE14 NAT/ES/000186), Gipuzkoako Foru Aldundiak, Donostiako Udaletxeak, Eusko Jaurlaritzak [156P/2016 eta IT754-13] eta Euskal Herriko Unibertsitateak UPV/EHU finantzatua izan da. AEs-ek Eusko Jaurlaritzako doktoretza aurreko beka bat jaso zuen [bekaren zenbakia PRE_2015_1_0408]. Autoreek argitalpen honek finantza-onura zuzenik ez dakarrela aitortzen dute.

Informazio gehigarria

5. Kapitulua. Dietaren karakterizazioa harrapakinen *traitak* erabiliz

S1. Taula. Taxon bakoitzaren kategoria bakoitzarekiko afinitate balioak, *fuzzi coding* bidez adierazita (Chevenet eta kideak, 1994; Sánchez-Hernández, 2014). Daturik gabeko taxari maila taxonomiko baxuagoen balioen batzbestekoak esleitu zaizkie (grisez) edo analisietatik baztertuak izan dira (“-”).

Filuma	Klasea	Ordena	Familia	Especiea	Hiperoliko	Epibentiko	Ur-zutabea	Moleia	Eratina	Bizkerra	Blankeak	Trintarra-Uharris	Sedimentu finak	Nekrototoak	Orbela	Gordeta	Agenan	Igerilaria	Interstaria	Lotua	Ezer ez	Ahula	Handia	Handia	Handia	5.2 mm	2.8 mm	8.32 mm	> 32 mm	Ezer ez	Ahula	Handia				
					DEP1	DEP2	DEP3	CUV1	CUV2	CUV3	SUS1	SUS2	SUS3	SUS4	SUS5	FE1	FE2	MAS1	MAS2	MAS3	AG1	AG2	AG3	AG4	AG5	AG6	AG7	AG8	AG9	AG10	AG11	AG12	AG13	AG14	AG15	
Annelida	Clitellata	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-			
Arthropoda	Crustacea	Malacostraca	Oniscidae	<i>Oniscus asellus</i>	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-			
Arthropoda	Insecta	Arachnida	Aturidae	<i>Aturidae sp</i>	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-		
Arthropoda	Insecta	Arachnida	Linyphiidae	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-		
Arthropoda	Insecta	Coleoptera	Carabidae	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-		
Arthropoda	Insecta	Coleoptera	Cucurionidae	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-		
Arthropoda	Insecta	Coleoptera	Dytiscidae	<i>Platambus sp</i>	3	4	0	3	1	0	0	3	1	5	0	0	0	3	0	3	1	2	1	2	2	0	3	1	0	0	3	0	0	0		
Arthropoda	Insecta	Coleoptera	Elmidae	<i>Limnius sp</i>	1	3	0	3	3	2	2	5	4	5	0	3	0	4	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	
Arthropoda	Insecta	Coleoptera	Elmidae	<i>Oulimnius sp</i>	0.8	3.5	0	3	3	2	1	5	3	5	0	3	0	0	5	0	1	1	0	3	1	2	4	0	0	0	1	3	0	0		
Arthropoda	Insecta	Coleoptera	Gyniidae	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-		
Arthropoda	Insecta	Coleoptera	Gyniidae	<i>Orectochilus villosus</i>	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-		
Arthropoda	Insecta	Coleoptera	Hydrophilidae	<i>Berosus sp</i>	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-		
Arthropoda	Insecta	Coleoptera	Scirtidae	<i>Eldes marginata</i>	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-		
Arthropoda	Insecta	Diptera	Athericidae	<i>Atherix ibix</i>	2	5	0	2	3	0	4	6	1	9	1	3	0	0	5	0	0	3	0	1	1	0	0	0	3	0	0	1	3	0	0	
Arthropoda	Insecta	Diptera	Chironomidae	-	2.7	4.2	2	3	2	1	3	5	5	7	1	3	0	2	5	1	0	1	1	3	1	0	3	2	0	0	0	0	0	0	0	
Arthropoda	Insecta	Diptera	Chironomidae	<i>Barbadocladius sp</i>	3	5	1	5	2	2	3	7	4	8	2	3	0	1	5	1	0	1	1	3	1	0	4	1	0	0	0	0	0	0	0	
Arthropoda	Insecta	Diptera	Chironomidae	<i>Brillia bifida</i>	3	5	1	5	2	2	3	7	4	8	2	3	0	1	5	1	0	1	1	3	1	0	4	1	0	0	0	0	0	0	0	
Arthropoda	Insecta	Diptera	Chironomidae	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-		
Arthropoda	Insecta	Diptera	Empididae	-	2	2	0	0	1	2	3	4	3	7	1	2	0	3	0	0	3	0	1	1	0	3	0	0	0	0	1	3	0	0		
Arthropoda	Insecta	Diptera	Empididae	<i>Wiedemannia sp</i>	2	2	0	0	1	2	3	4	3	7	1	2	0	3	0	0	3	0	0	3	0	1	1	0	3	0	0	0	1	3	0	
Arthropoda	Insecta	Diptera	Limoniidae	<i>Eteobophila sp</i>	4	1	0	2	1	0	0	1	7	1	0	3	0	0	5	0	0	1	1	1	1	0	2	1	0	0	0	0	0	0	0	
Arthropoda	Insecta	Diptera	Limoniidae	-	4	3	0	3	1	0	1	3	9	1	3	3	0	0	5	0	0	3	0	1	1	0	3	1	0	0	0	0	0	0	0	
Arthropoda	Insecta	Diptera	Lonchopteridae	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-		
Arthropoda	Insecta	Diptera	Mycetophilidae	<i>Gnoriste apicalis</i>	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-		
Arthropoda	Insecta	Diptera	Mycetophilidae	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-		
Arthropoda	Insecta	Diptera	Pediciidae	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-		
Arthropoda	Insecta	Diptera	Psychodidae	<i>Psychoda erminea</i>	2	2	0	2	0	0	1	0	1	0	2	3	0	0	5	0	0	3	0	0	3	0	3	0	0	0	0	1	3	0	0	
Arthropoda	Insecta	Diptera	Rhagionidae	<i>Chrysopilus sp</i>	0	5	0	2	2	1	0	0	3	6	2	1	1	0	5	0	0	3	0	0	3	0	3	0	4	0	0	3	0	0	0	
Arthropoda	Insecta	Diptera	Scatopsidae	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-		
Arthropoda	Insecta	Diptera	Simuliidae	-	1	5	0	1	2	3	5	5	0	10	0	3	0	2	4	0	1	2	3	0	0	5	1	0	0	0	0	3	0	0	0	
Arthropoda	Insecta	Diptera	Syrphidae	<i>Herinia sp</i>	3	2	1	3	0	0	0	2	5	6	4	3	0	1	2	0	0	3	0	1	0	0	0	4	0	0	0	0	0	0	0	
Arthropoda	Insecta	Diptera	Tipulidae	-	4	1	0	5	1	0	0	4	4	6	4	3	0	0	5	0	0	3	0	1	1	0	3	2	0	0	1	3	0	0	0	
Arthropoda	Insecta	Ephemeroptera	Baetidae	<i>Alainites muticus</i>	1	6	4	2	3	2	4	6	1	11	1	1	3	4	5	0	0	0	3	1	0	2	2	0	0	0	1	3	0	0	0	
Arthropoda	Insecta	Ephemeroptera	Baetidae	<i>Baetis sp</i>	1	6	4	2	3	2	4	6	1	11	1	1	3	4	5	0	0	0	3	1	0	2	2	0	0	1	3	0	0	0	0	
Arthropoda	Insecta	Ephemeroptera	Baetidae	<i>Centroptilum luteolum</i>	1	4.5	3	2	3	2	4	5	0	9	0	1	3	3	5	0	0	0	3	2	0	1	3	0	0	1	3	0	0	0	0	
Arthropoda	Insecta	Ephemeroptera	Baetidae	<i>Procladius penulatum</i>	1	4.5	3	2	3	2	4	5	0	9	0	1	3	3	5	0	0	0	3	2	0	1	3	0	0	1	3	0	0	0	0	0
Arthropoda	Insecta	Ephemeroptera	Ephemerellidae	<i>Ephemerella ignita</i>	0	6	1	3	3	1	2	5	3	12	2	3	1	1	5	0	0	3	0	3	2	0	1	3	0	0	0	0	0	0	0	0
Arthropoda	Insecta	Ephemeroptera	Ephemerellidae	<i>Torleya major</i>	0	6	1	3	3	1	2	5	3	12	2	3	1	1	5	0	0	3	0	3	2	0	1	3	0	0	0	0	0	0	0	0
Arthropoda	Insecta	Ephemeroptera	Ephemeridae	<i>Ephemera danica</i>	4	1	0	4	2	0	0	3	9	1	2	3	0	0	3	0	0	3	2	0	3	0	3	0	2	0	0	0	0	0	0	
Arthropoda	Insecta	Ephemeroptera	Heptageniidae	<i>Ecdyonura sp</i>	0	6	1	3	3	2	2	5	2	1	0	1	3	1	5	0	0	3	1	1	1	0	0	3	0	0	0	0	0	0	0	0
Arthropoda	Insecta	Ephemeroptera	Heptageniidae	<i>Electrogena lateralis</i>	0.4	5.6	1	2	3	3	2	6	1	1	1	1	3	1	5	0	0	3	1	1	1	0	4	0	0	0	0	0	0	0	0	
Arthropoda	Insecta	Ephemeroptera	Heptageniidae	<i>Epeorus sp</i>	0	5	0	0	1	3	3	5	0	0	0	3	0	3	5	0	0	3	1	1	1	0	4	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Arthropoda	Insecta	Ephemeroptera	Heptageniidae	-	0.4	5.6	1	2	3	3	2	6	1	1	1	1	3	1	5	0	0	3	1	1	1	0	4	0	0	0	0	0	0	0	0	
Arthropoda	Insecta	Ephemeroptera	Heptageniidae	<i>Rhithrogena sp</i>	1	5	0	1	0	2	3	7	1	0	1	0	3	1	6	0	0	3	0	3	2	0	1	3	0	0	0	0	0	0	0	0
Arthropoda	Insecta	Ephemeroptera	Leptophlebiidae	<i>Habroplebia sp</i>	0	5	2	3	0	0	0	0	3	3	2	1	0	2	3	0																

S2. Taula. FPCA-ko *trait* bakoitzaren inertzia balioa.

<i>Trait</i>	Inertzia
Gorputzaren malgutasuna (zorroak/tutuak barne)	0,0651
Ur-fluxuarekiko esposizioa	0,0316
Arintasuna	0,0264
Tamaina potentziala	0,0196
Agregazio-joera	0,0145
Sakonera	0,0104
Substratuarekiko mugikortasuna/lotura	0,0090
Korrontearen abiadura	0,0083
Substratua	0,0030

S3. Taula. *Trait*-mailako RDA analisi globalaren ANOVA.

	a.g.	Bariantza	F	p-balioa
Dieta <i>vs.</i> Eskuragarritasuna	1	0,0006	1,01	0,348
Erreka	1	0,0215	34,16	0,001
Habitata	2	0,0081	6,48	0,001
Hondarra	56	0,0352		

6. Kapituluua



Eztabaida orokorra

Pirinioetako muturluzea: fosil bizia

Pirinioetako muturluzea ur bizkorreko mendiko erreketan bizitzera moldatutako (Charbonnel eta kideak, 2015) espezie errelikto bisa deskribatu izan da (Rümke, 1985). Bere banaketa mugatua eta monofilia (Arribas, 2004; Cabria eta kideak, 2006) kontutan hartuta, Pirinioetako muturluzea fosil bizitzat har genezake. Beste espezie erreofilo batzuekin batera (adb. ur-zozoa *Cinclus cinclus*, Hourlay eta kideak, 2008, Piriniotar uhandrea *Calotriton asper*, Valbuena-Urena eta kideak, 2013), babesleku glaziarretan bizi izan ziren azken glaziazioan, eta horren ostean berriro hedatu ziren Iberiar Penintsulan eta Pirinioetan (Gómez eta Lunt, 2007; Igea eta kideak, 2013). Muturluzeek gaur egun okupatzen dituzten habitatak iraganean segur aski zabalduago zeuden baldintzekin antza gehien dutenak dira, eta ziur aski antzina altitude baxuagoan bizi izandako eta garai hotzagoetan zabalduago zeuden espezieen adibide garbia dira (Ohlemüller eta kideak, 2008). Muturluzeak oso espezializatuta daude bazka zehatza duten ur hotzeko korrante bizkorreko biotopoetan bizitzera. Ordea, muturluzeak banaketa-eremu guztian atzerakada pairatzen ari dira, giza jardueraren (adb. ur-erauzketak) eta klima-aldaketaren eraginez (Araújo eta kideak, 2012; Charbonnel eta kideak, 2016; Ohlemüller eta kideak, 2008). Muturluzeek behar dituzten eremu erreofiloak murrizten ari dira, eta geroz eta erreka tarte gutxiago dituzte eskuragarri bizitzeko egokiak direnak. Testuinguru honetan, ugaztun honen espezializazio altuaren ondorioz, bere habitaten babesza gako da espeziearen kontserbaziorako.

Ekologia espaziala eta habitata

Muturluzearekin egindako lehenengo irrati-telemetria lanak laurogeigarren hamarkadan hasi ziren eta muturluzeek jarduera-erritmo bimodala zutela erakutsi zuten, egunean zeharreko aldi labur bat eta gauean zeharreko aldi nagusi batekin (Stone, 1985, 1987a). Lan berriagoek azaldu zuten, gauean zeharreko bazka-jarduerak bi edo hiru jarduera-aldi erakutsi ditzake (Melero eta kideak, 2014) eta muturluzeak normalean, beste banako batzuekin partekatzen dituzte babeslekuak, sexua, adina edo bizi-eremuan bizi ziren espezie bereko banakoen kopurua edozein delarik ere (Melero eta kideak, 2012). Behaketa hauek zalantzak sortu zituzten espeziearen ustezko jokabide lurraldekoia inguruan. Ikerketa horiek muturluzearen ekologiaren inguruko informazio berria eskaini zuten, baina ez zuten bere habitat zaletasuna aztertu. Melero eta kideen (2014) azken lanetik ez da irrati-telemetria lan gehiagorik egin.

Doktorego tesi honen garapenean zehar muturluzearen habitat-beharrizanak

modelizatu dituzte zenbait autorek. Lehenengo, Charbonnel eta kideek (2015), muturluzeen gorotzetan oinarrituz, espeziearen presentzia emariaren aldaketek, substratuen heterogeneotasunak eta babeslekuen eskuragarritasunak baldintzatua zegoela ikusi zuten, eta muturluzearen presentzian eragiten zuen habitat-faktore nagusia emaria zela ondorioztatu zuten. Bigarrenik, Biffi eta kideek (2016) muturluzearen habitata ibilguaren eta ibaiertzaren ezaugarrien arabera zela ondorioztatu zuten, urlasterrekiko, babeslekuen eta ibaiko substratuen heterogeneotasunarekiko, egitura irtenen ugaritasunarekiko, sedimentu finen eskasiarekiko, eta ibaiertzetan arroken proportzio altua eta luraren proportzio baxuarekiko zaletasuna erakutsiz. Hirugarrenik, Charbonnel eta kideek (2016) muturluzearen banaketa nagusiki aldagai hidrologikoek eta klima-aldagaiak baldintzatuta dagoela ikusi zuten, nahiz eta habitaten zatiketak, uraren eta substratuen kutsadurak, espezie inbaditzaileek, tokiko habitataren degradazioak, ibaiertzeko landarediaren aldaketek, lehiakideen zein harraparien presentziak eta ornogabeen komunitateen aldaketek bezalako beste faktore biotiko edota abiotikoek ere eragina izan dezaketen Pirinioetako muturluzearen helmenean uzkuetzean. Laugarrenik, Quaglietta eta kideek (2018) 1993-1996 eta 2014-2015 bitarteko iraungitze tasa %63,5 zela ondorioztatu zuten, eta banaketa-eremuaren murrizte gogorra ikusi zuten iturburuetarantz. Ez ziren behatutako aldaketak azaltzeko gai izan, baina mendiko errekek klima-aldaketa eta espezie inbaditzaileak bezalako giza-jatorriko estresatzaileen kontrako babesleku gisa duten garrantzia azpimarratu zuten. Azkenik, Biffi eta kideek (2019) giza-presioak, amonio kontzentrazioak eta *Neomys fodiens* ur-satitsuaren presentziak muturluzearen presentzian eragin negatiboa dutela, eta konduktibitate baxuak eta *Cinclus cinclus* ur-zozoaren presentziak presentziarekin korrelazio handia dutela erakutsi zuten. Gainera, beraiek neurtu ez zituzten zenbait aldagaik muturluzeen tokiko banaketan eragina izan dezaketela ondorioztatu zuten arren, ibilguan zuzenean eragiten duten jarduerak Pirinioetako muturluzearen populazioen kontrako eragina izan dezaketela iradoki zuten. Bestalde, muturluzeak aldagai biotiko eta abiotiko askorekiko aurkezten duen erantzun moderatuak espeziea ingurumen-baldintzekiko uste zena baino tolerantetagoa dela iradokitzen du.

Ikerketa horiek guztiek informazio baliotsua eskaini zuten Pirinioetako muturluzearen ekologia espaziala hobeto ulertzeko, muturluzeak agertzen ziren erreka-tartean habitat-faktore gakoak deskribatu zituztelako aurrenekoz. Horien oinarri ziren gorotz-laginen presentzia-datuek, ordea, emaitza alboratuak eman zitzaizketen (ikusi eztabaida 2. Kapituluak). Gure ikerketa oraindik ezezagunak ziren alderdietan sakontzen ahalegindu zen, besteak beste okupazioan eragiten zuten faktoreak eta mikrohabitat mailako habitat-erabileraren intentsitatea eta hautespena aztertuz. Informazio hori gako da muturluzearen tokian-tokiko banaketa zein faktoreren eraginpean dagoen ulertzeko eta espeziaren kontserbaziorako jarduerak gauzatzeko.

Aurreranzko pauso bat emanez, doktorego tesi honetan muturluzearen mikrohabitat mailako habitat-hobespena ikertu da, banakoak euren bizi-eremuen baitan irrati-telemetria bidez jarraituz eta bi erreka desberdinetan euren espazioaren erabilera aztertuz. Gure emaitzek aldez aurretik zenbait autorek aurreikusitako (adb. Biffi eta kideak, 2016) urlasterren garrantzia azpimarratu, eta muturluzeen habitat-hobespenaren inguruko informazio kontsistenteagoa eskaini dute. Ur-erauzketen eraginpean dagoen errekan urlasterren erabilera sendoagoa izateak espezie honen jokabide espazialean emariak duen garrantzia azpimarratzen du. Richard-ek (1986) esan zuen bezala, bizimodu frenetikoa du Pirinioetako muturluzeak. Horrez gain, Melero eta kideek (2012) iradoki zuten bezala, muturluzeek euren bizi-eremuak banako kopuru aldakorrekarekin partekatzen dituztela ikusi dugu, sexuaren edo adinaren arabera patroirik erakutsi gabe. Jarraitutako muturluzeen babeslekuak lehendik deskribaturikoen (Stone, 1987) berdinak izan dira: arroken arteko arrakala naturalak, harrizko hormak, zein ibaiertzeko zuhaitzen sustraien azpiko zuloak. Muturluzearentzako urlasterrak beharrezko habitata izatea eta euren bizi-eremuetan babesleku-eskuragarritasunak duen garrantzia oinarritzko aspektuak dira, etorkizuneko kontserbazio-jardueretan kontutan izan beharrekoak. Bestalde, Biffi eta kideekin (2016) bat eginez, gure datuek ere kudeaketa-jarduerak substratu heterogeneoak eta konektagarritasun-korridore egokiak dituzten habitat urtarrak faboratu beharko lituzketela sostengatzen dute.

Irrati-telemetriazko ikerketak Pirinioetako muturluzearen ekologia espazialaren inguruan ondorio sendoak ateratzea ahalbidetu arren, galdera ere ekarri zuen, habitat-erabilera hori habitaten arteko bazka-eskuragarritasunaren ezberdintasunei edo bestelako arrazoiren bati loturik (ikusi Richard, 1986) ote zegoen zalantza sortuz.

Ekologia trofikoa

Pirinioetako muturluzearen dieta gehienbat intsektiboroa dela aspaldi ezagutzen da (Cabrera, 1914; Puissegur, 1935). Dieta-azterketa berriek baieztatu egin zuten ezagutza hori (adb. Bertrand, 1992; Castián eta Gosálbez, 1995; Santamarina, 1992), eta muturluzeak Diptera, Ephemeroptera, Plecoptera eta Trichoptera larbez bazkatzen zirela eta euren dieta urtaroen eta erreken artean aldakorra izan zitekeela esan zuten. Ikerketa horiek, ordea, ez ziren bereizmen taxonomiko fina eskaintzeko gai izan (genero edo espezie mailakoa; Clare, 2014), eta hori oso interesgarria da arraroak, galzorian dauden edo kriptikoak diren espezieen ekologia trofikoa ikertzeko (adb. Bohmann eta kideak, 2014; Razgour eta kideak, 2011).

Honela, doktorego tesi honetan Pirinioetako muturluzearen dieta deskribatzea ere izan dut helburu, bere gorotzak “lehenengoz” DNA metabarcoding bidez era ez inbasorean aztertuz. Beste autore batzuek ere helburu bera izan dute, ordea, eta tesi hau aurrera joan ahala metabarcoding bidezko ikerketa asko argitaratu dira. Lehenengo, Gillet eta kideek (2015) hasle zehatz bat garatu zuten Pirinioetako muturluzearen eta bere harrapakinen bereizmen handiko identifikazioa ahalbidetzen zuena. Ondoren, Biffi eta kideek (2017a), DNA metabarcoding bidezko muturluzearen dietaren lehenengo erabateko deskribapena egin zuten, eta bertan harrapakin arraroen proportzio altua eta harrapakin lurtarren kontsumo handiko dieta zabala erakutsi zuten, espezieak uste zena baino dieta jeneralistagoa duela iradokiz. Geroago, Biffi eta kideek (2017b) Pirinioetako muturluzearen eta ur-satitsuaren (*Neomys fodiens*) dietak ez zirela askorik gainjartzen erakutsi zuten, muturluzeek nagusiki harrapakin urtarrak jaten zituztelako. Azkenik, Hawlitschek eta kideek (2018), Zamorako gorotz-lagin zahar eta freskoak alderatuz, lagin freskoek DNA-sekuentzia-irakurketa gehiago, itu ziren irakurketa-sekuentzien proportzio altuagoa eta potentzialki OTU gehiago ere ematen zituztela erakutsi zuten. Aipatutako metabarcoding bidezko dieta azterketa horiek guztiek, bakoitzak bere berezitasun metodologikoekin, xehetasunez deskribatu zuten muturluzearen dieta, eta espeziearen bazka-ekologiaren inguruko informazio baliotsua eskaini zuten. Haien eta gure emaitzak sakon eztabaidatu dira tesi honetan (ikus 3., 4. eta 5. Kapituluak), emaitzak konparatuz eta erabilitako hasleak bezalako xehetasun metodologikoen eragin ditzaketen alborapenak kontutan hartuz.

Errendimendu Altuko Sekuentziazio metodoen erabilera aurrerapen handia izan da arraroak, txikiak, urtarrak, gautarrak, bizkorak edota iheskorak diren, zein nagusiki gorputz biguneko organismoek bazkatzen diren espezieen bazka-ekologiaren inguruko ikerketetan (Berry eta kideak, 2017; Boyer eta kideak, 2013; Buglione eta kideak, 2018; Evans eta kideak, 2016; Piñol eta kideak, 2014; Shehzad eta kideak, 2012). Oraindik, ordea, ikerketa hauen diseinuan ez dago estandarizazio metodologikorik (Deagle eta kideak, 2019; Deiner eta kideak, 2017; Divoll eta kideak, 2018; Zizka eta kideak, 2019), eta horrek ikerketen erreprodukzio-gaitasuna, errepikagarritasuna eta konparagarritasuna zailtzen ditu (Alberdi eta kideak, 2018, 2019; Mata eta kideak, 2019), zenbait kasutan ondorio ekologiko egokietara heltzea zailduz (Andriollo eta kideak, 2019; Zinger eta kideak, 2019). Horrez gain, arazo dira halaber, besteak beste, erroreak detektatzea, erreferentziazko datu-baseen kalitate eskasa, espezie arraroen gainestimazioa eta bigarren mailako harraparitza saihestea (Clare, 2014; Pompanon eta kideak, 2012; Ruppert eta kideak, 2019); eta oraindik ez da garatu dieta kuantifikatzeko metodologiarik (Elbrecht eta kideak, 2017; Fonseca, 2018; Piñol eta kideak, 2015, 2019). Edonola ere, DNA metabarcoding-a ezinbesteko erraminta dela uste da espezieen ekologia ulertzeko (De Sousa

eta kideak, 2019), bai monitorizazio ekologikoetarako, baita mundu-mailako kontserbazio-ikerketetarako ere (Ruppert eta kideak, 2019).

Muturluzera itzuliz, bere dieta deskribatzeaz gain, maila taxonomiko orokorreko harrapakin-hautespena ere jorratu dute zenbait ikerketek (hots, Bertrand, 1992; Santamarina, 1992). Aurreranzko pauso bat emanez, Biffi eta kideek (2017b) muturluzeen dietaren osaketa molekularra harrapakin-eskuragarritasunarekin konparatu zuten eta muturluzeak maizen jandako harrapakinek erreketan ugarien ziren taxarekin bat egiten zutela ondorioztatu zuten. Horrez gain, muturluzeek harrapakinen zein ezaugarri estimatzen edo saihesten zituzten iradoki zuten, nahiz eta ez zuten euren bazka-hobespenen eta tokiko harrapakin-hautespenaren deskribapen zehatzik egin. Testuinguru honetan, muturluzearen mikrohabitat mailako bazka-hobespenak aztertu ditut tesi honetan bi erreka desberdinetan (4. eta 5. Kapitulua), irradi-telemetry bidez aztertutako habitataren erabilera, dieta eta harrapakin-eskuragarritasuna aldi berean ezaugarrituz hiru habitat desberdinetan (urlasterrak, ur-bareak eta putzuak). Laginketa-diseinu konplexu honek muturluzearen ekologia espazial eta trofikoaren arteko harremanak modu fidagarrian aztertzea ahalbidetu du, tokiko habitat-erabilera bazka-eskuragarritasunaren edo bestelako faktoreen arabera den aztertuz. Bestalde, harrapakinen ezaugarri bereizgarrien (*trait*) azterketak (Schmitz, 2017) muturluzeen bazka-zaletasunen inguruko informazio berria eskaini du, beste behin ere urlasterrekiko euren zaletasuna nabarmenduz. Hare gehiago, ikertutako bi erreketako harrapakinen ezaugarrien arteko antzekotasunek muturluzeak beharrezko dituen baliabideen deskribapena hobetzea ahalbidetu dute (ikusi 5. Kapitulua; Spitz eta kideak, 2014).

Laginen bilketa eta biltegiatze egokia lortzeko, babesleku artifizialak erabili dira tesi honetan (1. Eranskina; González-Esteban eta kideak, 2018), aztertutako laginak freskoak zirela segurtatzeko, eta beraz, kutsadura gutxiagokoak (McInnes eta kideak, 2017; Oehm eta kideak, 2011). Metodo hau etorkizuneko ikerketetan arruntki erabili beharko litzatekeela uste dut, muturluzea detektatzeko duen eraginkortasunarengatik eta gorotz freskoak biltzeko duen abantailarengatik.

Urlasterren garrantzia muturluzearen kontserbazioan

Pirinioetako muturluzearen biziraupenean ur-fluxu bizkorrek eta harrapakin mota zehatzen presentziak duten garrantzia azpimarratzen dut tesi honetan. Laburbilduz, bere espezializazioarengatik ur bizkorretan bazkatzea mugatuta

dagoen espezie estenotopiko gisa deskribatzen dut muturluzea eta, babestua izango bada, erreken hidrologian arreta jartzea ezinbestekoa izango dela nabarmentzen dut.

Erreken emariaren magnitudea, maiztasuna, iraupena, erritmoa (edo auresangarritasuna), aldaketa tasa (edo *flashiness*), eta abar bezalako ezaugarriak ibaietara lotuta bizi diren espezie askoren kontserbaziorako gakoak dira, ur-fluxuzko sistemen osotasun ekologikoa erregulatzen dutelako (Palmer eta Ruhi, 2019; Poff eta kideak, 1997). Eskualde mailako ibaien emariaren patroiak erreken tamainaren eta kliman, geologian, topografian eta landare-estalduran ematen diren aldakortasun geografikoen arabera dira (Poff eta kideak, 1997). Hala ere, giza jarduerak erregimen horiek aldatu egin ditzakete, besteak beste ureztaketarako, jarduera hidroelektrikorako, industriarako edo etxeen horniketarako ura erauzteko eraikitzen diren presengatik, zeinak erregimen hidrologiko naturala aldatzen duten (adb. Rosenberg eta kideak, 2000), aldaketa ekologikoak eraginez (Poff eta Zimmerman, 2010) eta uraren eta sedimentuen mugikortasunen arteko oreka dinamikoa etenez (Giulivo eta kideak, 2019). Etete horiek espezie urtar zein urbazterrekoen habitata osatzen duten eskala larriko zein fineko ezaugarri geomorfikoak itxuraldatzen dituzte (Chien, 1985), oronogabe urtarrengan eragin zuzenak izanik (Englund eta Malmqvist, 1996; James eta kideak, 2007; McIntosh eta kideak, 2002). Euskal erreketan eragin handia izan dute ur-erauzketa sistema horiek: Gipuzkoan soilik, 2000 km² baino txikiagoa den lurraldean, 900 presa baxu baino gehiago daude (Boletín Oficial del Estado, 2016; Ente Vasco de la Energía, 1995). Egitura horietako asko errota edo burdin-galdategiak bezalako jarduera zaharren ondareak dira, eta denen artean geldirik dagoen ur-eremu zabalak sortzen dituzte, segur aski, putzuak bezala, muturluzearentzako oso erabilgarriak izango ez direnak. Presa horiek emari ekologikoen erregimena errespetatzea ez da nahikoa izan erreken dinamika naturala mantentzeko, eta horiek ahal den heinean eraitsiak izan beharko lirakeela uste izan da, gaur egun erabiltzen direnak edo ondare-balioa dutenak soilik babestuz (2. Kapituluak). Oztopo horiek, klima-aldaketa globalarekin batera, aldaketa larriak ari dira eragiten iturburuetan, eta hortaz, zuzenean eragiten dute muturluzeek hobesten dituzten habitatetan. Izan ere, Pirinioetako glaziarrek atzerakada garrantzitsuak ari dira sufritzen (Rico eta kideak, 2017), erreken tenperaturak igotzen ari dira (van Vliet eta kideak, 2013) eta Iberiar Penintsulan geroz eta erreka gutxiagok mantentzen dute urte guztian zeharreko ur-emari esangarri bat (Lorenzo-Lacruz eta kideak, 2013). Gaur egun, faktore guzti horiek urlasterren eskuragarritasunean, eta beraz, muturluzea bizi daitekeen espazioaren eskuragarritasunean zuzenean eragiten dute.

Bada geroz eta handiagoa den gogo bat, nazio- eta eskualde-mailako politika eta legediek babesten dutena, ibaien eta horietara loturiko zingiren osasun ekologikoa eta funtzionamendua kontserbatzeko edo errestauratzeko, giza-

erabilerarako eta biodibertsitaterako. Asko dira norabide horretan lanean ari diren erakundeak. Gipuzkoako eta Nafarroako eskualdeetan, adibidez, LIFE IREKIBAI proiektuaren bidez, muturluzeak bizi diren erreka askotan presen eraisketak bezalako errestaurazio jarduera desberdinak egin dira (IREKIBAI, 2017). Proiektu horrek muturluzearekiko zuen helburu nagusia ibaien konektagarritasuna handitzea, populazioen zatiketa murriztea eta muturluzeen habitata hobetzea zen. Hala eta guztiz ere, ez proiektu honek, ez beste bakar batek ere, ez du emari ekologikoen gaia konpondu: hots, ez dago lan bakar bat ere Pirinioetako muturluzearen beharrian hidrologikoak kontutan hartuz emari ekologikoak ezartzen saiatu dena. Emari ekologikoa ibaien egoera ekologiko ona lortzen laguntzen duen eta modu jasangarri batean ekosistema urtarren zein hauei lotutako lurreko ekosistemen funtzionaltasuna eta egitura ahalbidetzen dituen emari txikiena gisa definitzen da (Ministerio de Agricultura, Alimentación y Medio Ambiente, 2015). Sentikorrak diren espezieak —ez arrainak soilik— emari ekologikoen kudeaketaren politikan itu izan beharko lireratekeela azpimarratzen du definizio horrek. Ugaztun urtar desberdinak kontserbatzeko emari ekologikoen estrategiak zehaztearen desira azpimarratu izan da (adb. Grant eta Temple-Smith, 2003). Hala eta guztiz ere, ez da erraza erreketako emariak espezie horien beharrian ekologikoei erantzuteko erregulatzen dituzten lanak topatzea.

Etorkizunerako galderak (ezjakintasunak)

Lehenik eta behin tesi honetan ikertu diren gaietan arreta ipiniz, Pirinioetako muturluzearen ekologia espazialari eta habitatari dagokionean, gure ikerketak ez zuen espazioaren erabilera urtaroeekin edo banakoen sexu edo adinarekin nola aldatzen zen aztertu. Bestalde, muturluzearen habitataren karakterizazio zehatzagoa egitea oso interesgarria izango litzateke. Etorkizunean beharrezkoa izango da habitat-erabileraren patroiak eremu geografiko eta erreka mota desberdinetan errepikatzen ote diren ikustea. Muturluzearen ekologia trofikoari dagokionean, nahiz eta autore askok muturluzearen dietak denboran eta espazioan zeharreko aldaketak jasaten dituela esan (adb. Santamarina, 1993), ikerketa zehatzek eskatzen duten esfortzua eta kostuak ezagutuz, eta muturluzearen eredu trofikoak bere jokabide erreofiloak gidatzen dituela kontutan hartuz, horrelako ikerketetatik askoz irabazi gehiago ateratzerik ez dela izango uste dut.

Gure ikerketa eremuan muturluzeek beste lehiakide potentzial batzuekin, hala nola ur-satitsuarekin (*Neomys fodiens*) eta ur-zozoarekin (*Cinclus cinclus*), konpartitzen zuten habitata (Arzak eta kideak, 2014; Regla eta Arizaga, 2016; Ventura, 2007), eta oso interesgarria izango litzateke beraien arteko interakzio

ekologikoak aztertzea. Ur-satitsuak sakonera eta abiadura gutxiko uretan bazkatzen dira nagusiki (Churchfield, 1985; Mendes-Soares eta Rychlik, 2009; Rychlik, 1997), eta beraien dieta ez da muturluzearenarekin asko gainjartzen (Biffi eta kideak, 2017b). Hortaz, oso arraroa izango litzateke beraien artean bazkarengatik lehiatzea. Ur-zozoaren bazka-ekologia, ordea, muturluzearenaren antzekoagoa da, honek ere urlasterrak dituelako nahiago (Chen eta Wang, 2010; Santamarina, 1990), nagusiki ornogabe urtarrez bazkatzen delako (Taylor eta O'Halloran, 1997), eta emaria txikia denean bereziki selektiboak izaten direlako (Taylor eta O'Halloran, 2001). Ikerketa desberdinek ur-zozoek euren kumeak egunero bazkatzen dituztela erakutsi dute (Morrissey eta kideak, 2010). Horrez gain, jakina da euren dieta adinaren (Yoerg, 1994, 1998) eta sexuaren (Morrissey eta kideak, 2010) arabera, zein ugalketa-garaian egotearen (Morrissey eta kideak, 2010) edo beren burua edo beren kumeak bazkatzearen (Chiu eta kideak, 2009; Eguchi, 1990) arabera aldatzen dutela. Muturluzearen kasuan ere aldakuntza bat espero baliteke ere, orain arte ez da ikerketarik egin adinaren edo sexuaren araberako patroirik jarraitzen oten duten, ez eta euren kumeak bazkatzen ote dituzten erakusteko.

Pirinioetako muturluzea bere berezitasun morfologiko eta taxonomikoengatik aspalditik izan da ezaguna. Goiko lerroetan iradoki bezala, ordea, bere biologiarren aspektu ugari ezezagunak dira oraindik. Muturluzearen kontserbaziorako gako diren galdera asko geratzen dira erantzuteke. Alde batetik, emari aldaketek muturluzearen ekologian nola eragiten duten aztertzeke dago oraindik. Morueta-Holme eta kideek (2010) muturluzearen banaketa mugatzen zuten faktore klimatikoak beroketa globala, ur-fluxuaren aldakortasun handia eta prezipitazio baxua zirela esan zuten. Williams-Tripp eta kideek (2012) muturluzeen banaketaren modeloetan prezipitazioei loturiko faktoreek zuten garrantzia nabarmendu zuten. Auresandako aldaketek erreketako emaria murriztu eta ornogabe urtarrengan eraginak izango dituzte (Cowx eta kideak, 1984; Englund eta Malmqvist, 1996; Wood eta Petts, 1994). Berriki egin diren ikerketa guztiek (adb. Charbonnel eta kideak, 2015, 2016; Biffi eta kideak, 2016; eta baita doktorego tesi honek ere) muturluzearengatik babestutako eremuen erreketako emariak era egokian kudeatzeko emari-aldaketek muturluzearen ekologia espazialean nola eragiten duten aztertzearen garrantzia nabarmendu dute. Zehatzago esanda, beharrezkoa izango da isurpenen murrizketek urlasterren eskuragarritasunean nola eragiten duten aztertu eta, horretan oinarrituz, emari ekologikoak finkatzea. PHABSIM-aren (*Physical Habitat Simulation*; Bovee, 1982) antzeko hurbilpen baten bidez egin liteke hori, baina eredu sinpleago baten bitartez izan beharko litzakete, muturluzearentzako habitat-zaletasun kurbak zehaztea ia ezinezkoa litzatekeelako.

Erreketako emarien kudeaketa egokia eta emari ekologikoak betetzen direla ziurtatzea muturluzearen kontserbaziorako gakoak dira, baina oraindik ere

badira ebatzi beharreko beste zenbait gai ere. Adibidez, zein da muturluzearen habitat-erabileraren mugatzaile nagusia? Igeriketarako mugak? Zentzumen-gaitasunak? Oraindik ez dakigu muturluzeek gauez ur oso zurrumbilotsuetan bazkatzerakoan nola hautematen duten zer den jatekoa eta zer ez. Itsuak dira ia (Trutat, 1891) baina zentzumen-hartzaile oso onak dituzte euren tronpa itxurako sudurrean eta euren mingainean (Argaud, 1944; Richard eta Villard, 1969). Hala eta guztiz ere, oraindik ez dakigu beren harrapakinak Errusiako muturluzeak (*Desmana mochata*; Ivlev eta kideak, 2013), *Sorex palustris*ek (Catania eta kideak, 2008) eta *Condylura cristata*k (Catania, 2006) bezala, urpean aire burbuilak botaz eta arnastuz, usaimenez hautematen ote dituen. Ikerketa gehiago beharko dira muturluzeek euren harrapakinak urpean nola detektatzen dituzten, harrapakinaren ezaugarri bereizgarrietan oinarritutako hautespen-hobespenak zergatik dituzten, nola ehizatzen duten eta beren urpeko mugimendu-patroiak nolakoak diren azaltzeko. Muturluzearen zentzumenen-ekologiaren inguruko ezagutzan sakontzeak, halaber, muturluzeentzako tranpa hilgarriak izan daitezkeen jarduera hidroeletrikorako erauzketa-kanalen sarreretan muturluzeak uxatzeko nolabaiteko tresnak diseinatzea ahalbidetuko luke.

Espeziearen banaketa-patroien inguruan ere gutxi dakigu, nahiz eta arroen baitako mugimenduak ohikoenak direla eta ibaien arteko mugimenduak arraroak direla erakutsi duten ikerketa batzuek (Escoda eta kideak, 2017). Escoda eta kideek (2019) muturluzeek arro batetik besterako bidaia presa handi bat gurutzatzen baina errazago egin dezaketela iradoki zuten. Gillet eta kideek (2016) ere muturluzeek presak gaindi ditzaketela esan zuten. Oraindik informazio gehiago behar da gai horiek argitzeko, eta hori gorotzen banako mailako identifikazioa bezalako tekniken bidez lor liteke. Tesi honetan zehar muturluzeentzako espresuki diseinaturiko babeslekuak (ikusi 1. Eranskina; González-Esteban eta kideak, 2018) lagungarriak izan litezke, ziur aski, horrelako ikerketetarako, gorotz freskoen bilketa errazten daudelako. Gainera, ileen tranpak jar litezke horietan, beste ugaztun batzuetan egin izan den bezala (adb. Barja eta kideak, 2016; Roche, 2008), DNAREN bilketa hobetzeko. Populazioen dinamikari dagokionean, transponderren erabilerak eta muturluzeen babeslekuetan irakurle automatikoak jartzeak (zenbait saguzaharrekin egin den bezala, adb. van Harten eta kideak, 2019) informazio gehigarria eskaini lezake.

Azken ikerketek erakutsi dute dibertsitate genetiko baxuak, endogamia koefizienteen balio altuek eta populazioen tamaina-eraginkor txikiek iraungitze-arriskuan uzten dituztela muturluzeak etorkizunera begira (Gillet eta kideak, 2017). Bestalde, muturluzeek antzinako glaziazio garaiko babeslekuei loturik dauden eta genetikoki desberdinak diren populazioak dituzte (Querejeta eta kideak, 2016), eta egitura genetiko hori babestua izan beharko litzateke populazioa kontserbatzeko ahaleginak egin bitartean (Igea eta kideak, 2013;

Querejeta eta kideak, 2017). Muturluzeen banaketa-eremu osoan populazioen atzerakada azkarra eta odolkidetasun arazoak daudela kontutan hartuta, badirudi etorkizun hurbilean lekualdaketak (bersartzeak eta populazioen berrindartzeak) egokiagoak izango liratekeela gatibutasuneko hazkuntzak baino.

7. Kapitulua



Ondorioak

Ondorioak

Doktorego tesi honek Pirinioetako muturluzearen ekologia espazial eta trofikoa aztertu eta bere habitat zaletasunean eta bazka-erabakietan eragiten duten faktoreen ezagutza handitu ditu. Honakoak dira bere ondorio nagusiak:

- 1) Pirinioetako muturluzeak positiboki hautatzen ditu urlasterrak ur-bare eta putzuen aldean, hautespena altuagoa izanik jarduera hidroelektrikorako sistemen eraginpean dagoen errekan.
- 2) Pirinioetako muturluzearen dieta era ez inbasorean identifikatzeko eraginkorrena Gillet eta Zealeren hasleak konbinatzea izan zen; horrek harraparia bera ere gorotz laginetan identifikatzea ahalbidetu zuen.
- 3) Nahiz eta dibertsitate handiko dieta izan, muturluzeak uste zena baina espezialistagoak dira. Harrapakinen artean hainbat taxa positiboki hautatu zituzten, tartean Simuliidae eta Psychodidae (Diptera), Baetidae eta Heptageniidae (Ephemeroptera), Odontoceridae (Trichoptera) eta Gammaridae (Crustacea); eta negatiboki, aldiz, Planorbidae (Gastropoda), Goeridae (Trichoptera), Perlidae (Plecoptera) eta Athericidae (Diptera). Honek iradokitzen du muturluzeek substratuaren gainean agerian bizi diren ornogabeak eta materia organiko lodiari loturiko ornogabe zatitzaileak nahiago dituztela, eta aldiz, sedimentu finen barnean bizi diren gorputz biguneko taxa, oskol gogorreko ornogabeak eta harrapariak saihesten dituztela.
- 4) Harrapakinen hautespena desberdina izan zen bi erreka desberdinetan, muturluzeak oportunistagoak izanik okerren kontserbaturiko errekan.
- 5) Muturluzeek bazkatzeko urlasterrak erabiltzen dituzte, nahiz eta harrapakin eskuragarritasunean ez egon habitaten arteko alde esangarririk, ez kontsumitutako, ez eta positiboki hautatutako taxari dagokienean.
- 6) Harrapakinen ezaugarri —edo *trait*— biologikoen analisiak adierazitakoaren arabera, muturluzeek *ur-zutabe*an eta *gune epibentiko*an bizi diren harrapakinak, substratu gisa *bloke*ak dituzten *ur bizkorretan* bizi direnak, ur-fluxuarekiko *agerian* dauden harrapakinak, 2-8 mm-ko

tamaina potentziala duten harrapakinak, *gorputz-malgutasun pixka bat* duten *arintasun handiko* harrapakinak, *taldekatuta* bizi direnak, eta *igerilariak* zein *substratuari lotzeko mekanismoak* dituzten harrapakinak positiboki hautatzen zituzten. Negatiboki hautatzen zituzten, ordea, *ur-abiadura moteletan*, *substratu finen barruan*, ur-fluxuarekiko *gordeta* bizi diren harrapakinak, *2 mm baino* tamaina potentzial *txikiagoa* zuten harrapakinak, *agregazio-joerarik ez* zuten harrapakinak, eta harrapakin *herrestariak*. *Traiten* arteko lehen multzo batek ornogabeek urlasterretan bizitzeko beharrezko dituzten ezaugarriak islatu ditzakete, besterik gabe, baina bigarren multzo batek muturluzeen harrapakinaren profitagarritasunarekiko hautespen-irizpideak isla ditzake.

- 7) Hobetsitako harrapakin-kategoria guztiak, *gorputz-malgutasun handia* izan ezik, *pixka bat* ugariagoak izan ziren urlasterretan. Kategorien arteko eskuragarritasun-aldeak, ordea, txikiak ziren, eta erreken artean aldakorrak, eta honek iradokitzen zuen urlasterrekiko hobespena ez zela gertatzen harrapakin horiek bertan ugariagoak izateagatik. Litekeena da hobespen horren atzean muturluzearen flotagarritasunari eta habitat fisikoaren heterogeneotasunari aurre egiteko bestelako muga ekomorfologiko, funtzional edo jarrerazkoak egotea.
- 8) Muturluzearen urlasterrekiko hobespen sendoak ondorio garrantzitsuak ditu galzorian dagoen espezie honen kudeaketarako. Urlasterren eskuragarritasuna murrizten duten giza jarduerak, bereziki ur-erauzketak edo ur-desbideraketak, espezie honentzako kaltegarriak izan daitezkeela iradokitzen du honek.

1. Eranskina



Pirinioetako muturluzea
(*Galemys pyrenaicus*)
detektatzeko
laginketa-metodo berria

Argitalpena

Kapitulu honetan oinarrituriko artikulu bat *Hystrix, the Journal of Mammalogy* aldizkarian izan da argitaratua:

González-Esteban, J., Esnaola, A., eta Aihartza, J. (2018). A new sampling method to detect the Pyrenean desman (*Galemys pyrenaicus*). *Hystrix, the Italian Journal of Mammalogy*, 29(2), 190-194.

Laburpena

Pirinioetako muturluzea edo ur-satorra (*Galemys pyrenaicus*) erdi-urterra den ugaztun txikia da, eta bere populazioek atzerakada nabarmena jasan dute azken hamarkadetan. Populazioetan eta banaketan gertatzen ari diren aldaketak kuantifikatu ahal izateko, monitorizazio-programen premia du bere kontserbazioak. Xede horrekin gorotzen ikerketak egin izan dira, baina arrakasta baxua lortu izan dute, hau ibaien ibilguaren forma zein litologia bezalako tokiko ingurumen-baldintzen menpekoa delako. Muga metodologiko honen ondorioz, populazioaren parte bat oharkabean pasatzen da. Lan honetan espezie iheskor hau detektatzeko metodo berri bat probatu da. Ikerketa Euskal Herrian egin da (Iberiar Penintsularen iparraldean), berriki muturluzeak detektatu diren Elama eta Leitxaran erreketan. Modu erregularrean banatuta, babesleku artifizialak jarri dira bi erreketan, muturluzeei bazkatu bitartean atseden hartu eta kaka egiteko leku egokiak eskainiz. Muturluzeeak azkar eta maiz erabili zituzten babeslekuak, haien detekzio-tasa nabarmenki handituz. Landan gorotzen identifikazioa haien forma, kolorea, tamaina eta usainean oinarrituta egin ondoren, DNA metabarcoding azterketen bidez baieztatu zen. Metodo ez-inbasore berri honek adin ezaguneko gorotz freskoen laginak lortzea ahalbidetzen du, genomika, populazioen genetika, dieta-azterketa, ugalketa-analisi, eta bestelako ikerketetarako. Erabilitako materialen kostu baxuagatik, eta trebakuntza ostean muturluzeen gorotzak identifikatzeko ahalmenagatik, metodo hau optimoa izango da ikerketa sinkronikoak, eskualde-mailakoak edota boluntarioen bidezkoak egin behar direnean. Hortaz, babesleku artifizialen erabilera hobekuntza nabarmena da muturluzeen gorotzen bidezko ikerketa tradizionalen aurrean, eta galzorian dagoen espezie honen populazioen etorkizuneko monitorizazioetarako baliabideen indartze handia dakar.

Hitz-gakak

detekzioa, gorotzak, laginketa-metodoa, metabarcoding, ur-satorra

Sarrera

Galzorian dauden espezieen kontserbazioak, aldian-aldian, banaketa-eremuaz gainera populazioen parametro demografikoak zehaztu behar izatea dakar. Muga praktikoengatik, normalean, aplikatzeko errazak diren detekzio-metodo zehatz eta erlatiboki merkeak daudenean soilik izaten da posible aldizkako jarraipen hori. Ugaztun gehienen izaera iheskor eta ohitura gautarrak ikerketetarako euren arrasto eta seinaleekin fidatu behar izatera derrigortzen dituzte ikertzaileak (Wilson eta kideak, 1996). Espezie batzuen arrastoak nahastezinak dira, eta horrek aztarnen bilaketan oinarritutako ikerketa-protokoloak definitzea ahalbidetzen du (adb., Helle eta kideak, 2016). Ingurune batzuetan, ordea, zaila izaten da arrastoak detektatzea. Kasu horietan gorotzek alternatiba egokia eskain dezakete. Gorotzak erabilgarriak izan daitezke espezie bat kontrolatzeko, baldin eta zalantzarik gabe, espezie horri egokitzerik baldin bazaizkio, eta animaliek ikertzaileek aurreikusteko eta biltzeko moduko lekuetan eskuragarri uzten baldin badituzte. Gaur egun, genetika molekularreko teknikak gorotza egin duen espeziea zuzen identifikatzea ahalbidetzen dute (adb., Janecka eta kideak, 2008; Ruiz-González eta kideak, 2008; Gillet eta kideak, 2015; Walker eta kideak, 2016), baina metodo horiek prozedura garestiak dira eta teknikari espezializatuak eskatzen dituzte, eta beraz, gune geografiko zabaletan ikerketa intentsiboak egitea zaila izaten da. Behaketa bidezko identifikazio zuzena argiro hobesten da bideragarria denean. European aldian-aldian egiten diren igarabaren (*Lutra lutra*) ikerketak horren adibide garbia dira (Mason, 1986). Ikerketa horiek eskualde-mailan egiten dira normalean eta aldeztu beharrezko abileziak lortzeko trebatutako boluntario kopuru handiak barne-bildu ohi ditu. Igaraben gorotzen ezaugarri bereizgarriak (forma, usaina, kolorea, lurrean hartzen duen forma zehatza) posible egiten dute denbora-tarte laburrean nahikoa behaketa fidagarri biltzea, eskualde zabaletan (milaka km²-tan) igarabaren banaketaren zirriborroa egiteko.

Pirinioetako muturluzea (*Galemys pyrenaicus*) 60-70 g-ko ugaztun erdi-urtarra da. Nagusiki arroken arteko, harrizko hormetako edo ibai-ertzeko zuhaitzen sustraien azpialdeko zulo naturalak erabiltzen ditu gordeleku gisa; hauek normalean ez dute azaletik identifikatu ahal izateko ezaugarri nabarmenik izaten (Stone, 1987a). Batez ere ornogabe urtarrez bazkatzen da (Santamarina eta Guitián, 1988; Biffi eta kideak, 2017a; Hawlitschek eta kideak, 2018) eta, igarabak bezala, ibaia-ibilguko egitura irtenetan uzten ditu gorotzak (arroka, enbor edo sustraietan batez ere). Muturluzearen gorotzak, fresko daudenean, usain, kolore, forma eta tamaina kontutan hartuz (Nores, 1992), zalantzarik gabe esleitu dakizkioke espezieari; baina zahartu ahala, gorotzen usaina desagertu egiten da, kolorea aldatu, eta lehortzean erraz desegiten dira, *Neomys* sp. edo *Rattus* sp. bezalako beste ugaztun txiki batzuen gorotzekin nahasteko aukerak

handituz (ikusit Gillet eta kideak, 2015). Arazo horiek izan arren, gorotzen ikerketak erabili izan dira muturluzeen populazioak haien banaketa-eremuan zehar kontrolatzeko (Nores, 1992; Bertrand, 1992; Queiroz eta kideak, 1998). Ikerketa hauek arrakasta txikia lortu dute batzuetan (gorotz kopuru baxuak aurkitzeagatik ikertutako erreka-tarteetan) (González-Esteban eta kideak, 2011; González-Esteban, 2014; Charbonnel eta kideak, 2015), hau ibaien ibilguaren formaren eta litologiaren arabera izanik. Arroka irtenak edo enborrak bezalako substratu faboragarri gutxi dagoen erreka-tarteetan muturluzeek ibaiertzeko gordeleku edo zuloetan egiten dute kaka, ikertzailearen irismenetik kanpo (González-Esteban eta kideak, 2003a). Hori dela eta, errutinazko ikerketetan populazio batzuk ez dira detektatzen. Ausentzia faltsu hauek nola zuzendu eztabaida egon den arren, arazoak konpondu gabe dirau (Charbonnel eta kideak, 2014).


Pirinioetako muturluzea Bernako Hitzarmenaren (II. Eranskina) eta Europako Habitaten Zuzentarauaren bidez (II. eta IV. Eranskinak) babesturik dago (Council of the European Communities, 1992). Bere banaketa-eremua larriki murriztu da azken hamarkadetan (Charbonnel eta kideak, 2016; Quaglietta eta kideak, 2018), eta horrek Naturaren Kontserbaziorako Nazioarteko Batasunaren (IUCN) zerrenda gorrian Zaurgarri gisa sailkatzea ekarri du (Fernandes eta kideak, 2008). Presentzia-arrastoaren detekzioaren inguruan goian azpimarratutako arazoek —hots, arrakastaren aldakortasunak, kostu altuak eta negatibo faltsuen arriskuak— muturluzeari buruzko eskala eta zehaztasun handiko ikerketak eragozten dituzte. Ondorioz, bere gaur egungo banaketa partzialki soilik da ezaguna eta ez da ikerketa globalik egin oraindano. Hau arazo larria suerta liteke, espezie honentzako genetikoki, gutxienez, berriazko kudeaketa-programak beharko lituzketen bost kontserbazio-unitate diskretu identifikatu baitira (Querejeta eta kideak, 2016). Hemen, egungo ikerketetarako muga nagusia konpontzen lagun dezakeen detekzio-metodo berri bat aurkeztzen dugu, muturluzeen detekzio bizkorragoa eta merkeagoa egiteaz gain, ausentzia faltsuen arriskua ere murrizten duena.

Material eta metodoak


Ikerketa hau Pirinioetako muturluzearen ekologia espazial eta trofikoaren ikerketa zabalago baten parte da eta Iberiar Penintsulako iparraldeko mendiko bi erreketan egina izan da: Elama (batazbesteko altitudea 330 m; batazbesteko zabalera 7 m; batazbesteko emaria 0,7m³/s) eta Leitzaran (batazbesteko altitudea 290 m; batazbesteko zabalera 12 m; batazbesteko emaria 4,6m³/s) (1. irudia). Bi ikerketa-eremuak Europar Batasunaren Natura 2000 sarearen baitan babestuta daude, biek dute egoera ekologiko ona Uraren Europako

Zuzentarauaren arabera (Council of the European Communities, 2000), eta bietan Pirinioetako muturluzearen presentzia ezaguna izan da gutxienez azken 30 urteetan (2. Kapituluua; Esnaola eta kideak, 2018b; Nores, 1992).

Ingurumen-presio desberdinak pairatzen dituzte bi errekek. Elama (3. irudia) bigarren ordenako mendiko erreka da, biztanlerik gabeko granito eta eskistozko 1415 ha-ko arroa estaltzen duena, 1919-tik natura erreserba gisan zorrozki kudeatua izan dena, eta ondorioz pago eta haritzez osaturiko baso estaldura zabala duena (Castro, 2009). Gaur egun Elamaren arroan ez da baso-jarduerarik ematen. Bestalde, Leitzarari (4. irudia) laugarren ordenako ibaia da, kareharri, arbel eta hareharrizko 12 402 ha-ko arroa estaltzen duena. Elaman ez bezala, 3150 biztanle dituzten bi herri kokatzen dira Leitzararen arroaren goiko aldean, nahiz eta horren ostean errekek biztanlerik gabeko 25 km inguruko haran luzea zeharkatzen duen, non basogintza eta jarduera hidroelektrikoetarako ur-erazketak diren giza-eraginezko jarduera nagusiak (Izagirre eta kideak, 2013). Ibilguaren ezaugarriak desberdinak dira bi erreketan: Elaman urlasterrek eta ur-bareek antzeko eskuragarritasuna dute (%45), eta Leitzararen aldiz ur-bareak dira nagusi (%60). Putzuak dira eskuragarritasun baxueneko habitatak bi



1. Irudia. Ikerketa-eremua: (1) Leizarran eta (2) Elama errekek, Iberiar Penintsularen Iparraldean.



2. Irudia. Ikerketa-eremua, xehetasun handiagoarekin: (A) Leitzarar eta (B) Elama errekek. Muturluzeen gorotzen bilaketa aktiboko tarteen (lerro gorria), babesleku artifizialen lehenengo saiakerako tarteen (lerro horia) eta babesleku artifizialen bigarren saiakerako tarteen (lerro berdea) informazioa gehitu zen irudian.

erreketan (%10). Bloke eta enbor irtenak bi erreken ibilgu eta ibaiertzean agertzen dira. Elementu horiek ugariagoak dira Leitzararen, bertako muturluzeek jalkitze-gune (euren gorotzak uzteko gune) gehiago izanik. Landarediaren estaldura eskasa da bi erreketan, nagusiki belarkara eta zuhaixkaz osatua, behatzailea erraz sartzeko modukoa izanik.


Aurretiazko lehenengo saiakera batean, 2016ko martxoan, muturluzearen gorotzak bilatu genituen Elama errekekako 6 km-tan eta Leitzarar ibaiko 8 km-tan, Queiroz eta kideek (1998) definitutako bilaketa aktibo arautuaren prozedurari jarraiki. Oinarrizko emariko egoeran, eta 10 egunez euririk egin ez zuelarik, esku-argi bat erabiliz muturluzeek gorotzak uzterik zituzten ibilguko eta ibaiertzeko egitura guztiak (arroka eta enborrak batez ere) arakatuz ikuskatu genituen errekek. Ibai-tarte bakoitza bere luzera guztian zehar miatu zen, elkarren segidako hiru egunetan, zatirik bereizi gabe, hiru pertsoez, batzabeste 200-300 m/h-ko abiadura estandarrean. Ikuskapenetan zehar erreketako uraren mailak ez zuen gorabeherarik izan.

Ondoren, etxean egindako babesleku edo kaka-leku artifizialek muturluzeak erakartzeko zuten eraginkortasuna aztertu genuen. Babesleku artifizial horiek goma-aparrezko dentsitate altuko etileno-binilo azetatozko (EVA) alfonbrak erabiliz eraiki ziren (erref. B517V1, mottez.com, 6 € bakoitza, 630x630x12 mm). Alfonbra bakoitza sakonera txikiko (10-30 cm-ko sakonera) urlasterren erdian, harritzar pilaketa baten gainean tolestu zen, 0,25 m² inguruko azalera lehorra estaltzen zuen 'kanpin-denda' bat eratuz. Alfonbra arrokak erabiliz lotu zen, zeinak muturluzeak erraz heltzeko eta gorotzen iraunkortasuna bermatzeko moduko azalera lau bat eskaintzeko moduan zeuden pilatuta (3. eta 4. irudiak) eta, horrez gain, soka bidez hurbileko adarretara ere lotu zen, uholdean galtzea ekiditeko. Arroken eta 'kanpin-dendaren' sabaiaren arteko tartea ez zen 15 cm baino handiagoa. Amaierako egiturak, hortaz, babesleku edo kaka-leku txiki bat simulatzen zuen, muturluzeek urpean harrapatutako bazka jan bitartean atsedenerako erabiltzen dituztenen antzekoa (Niethammer, 1970). Egitura hori urlasterretan kokatzen zen, muturluzeentzako bazka harrapatzeko toki hoberenak direlako (2. Kapituluak; Esnaola eta kideak, 2018b; Richard, 1986).

Euren eraginkortasuna aztertzeko, babesleku artifizialen bidezko lehenengo laginketa-saiakera bat egin zen, ibai-tarte berean, hasierako bilaketa aktiboan muturluzeen gorotzik topatu ez zen bi azpi-tarte txikiagotan (1,8 km Leitzaranean eta 1,4 km Elaman). Leitzarango azpi-tartea 2016ko apirila-ekaina artean lagindu zen, martxoan egindako lehenengo bilaketa aktibo arautuaren probaren segidan. Elaman laginketa 2016ko ekainera arte atzeratu zen. 12 babesleku artifizial ezarri ziren Leitzaranean eta 18 Elaman (2. irudia); kopuru eta kokapenak urlasterren eskuragarritasunaren arabekoak izan ziren, eta haien arteko batazbesteko distantzia 160,9 m-koa izan zen Leitzaranean (DE: 60,2 m, tartea: 55–210 m) eta 82,9 m-koa Elaman (DE: 22,9 m, tartea: 55–135 m). Leitzaranean 92 egunez mantendu ziren babeslekuak eta 10-15 egunero ikuskatu ziren; Elaman 13 egunez mantendu, eta 6-7 egunero ikuskatu ziren. Esan beharra dago Elamako laginketa bertan-behera geratu zela 13 egunen ostean, babeslekuak gorotzez gainezka eginda zeudelako. Laginketa-garaian oinarritzko emaria eta euri gutxi edo bat ere ez ziren erregistratu bi erreketan. Bisita bakoitzean topatutako gorotzak bildu eta etanol absolutuan gorde genituen, ontzi indibidualetan, eta babesleku guztiak garbitu egiten genituen, hurrengo behaketan gorotz berriak zirela bermatzeko.

Ondoren, 2016ko iraila-urrian egindako harrapaketa eta irrati-telemetria lan batek (2. Kapituluak; Esnaola eta kideak, 2018b) bi erreketako ikerketa-eremuetan muturluzeek okupatutako ibai-tarteen informazio zehatza eman zuen, eta lan horri etekina atereaz saiakera berri bat egin genuen, babesleku artifizialen bidez lagintzearen eraginkortasuna hobeto ebaluatzeko. Honela, 2016ko urrian, orduan ere oinarritzko emariarekin eta plubiositate txikiarekin, 16 babesleku ezarri ziren erreka bakoitzean, harrapaketa eta irrati-telemetria bidez

(Esnaola eta kideak, 2018) muturluzearen presentzia berretsi zen guneeetan. Aldi honetan 3,5 km-ko luzerako tartea lagindu genuen Leitzaranean (1,0 km eta 2,5 km-ko bi azpi-tartetan) eta 4 km-ko luzerako tartea Elaman, eta babeslekuak sakonera txikiko urlasterretan zehar banatu ziren berriro (2. irudia). Babeslekuen arteko batazbesteko distantzia 233,3 m-koa zen Leitzaranean (DE: 47,3 m;



3. Irudia. Scheme of a shelter. Babesleku baten eskema.



4. Irudia. Babesleku baten argazkia. Argazkia: Amaiur Esnaola.

tartea: 190–360 m) eta 270,3 m-koa Elaman (DE: 67,3 m; tartea: 170–410 m). Babesleku oro 24 orduro izan zen ikuskatua, elkarren segidako 3 egunez, eta gorotzak goian deskribatu bezala gorde ziren. Ur-mailaren gorabeheren eraginez gorotzak galtzeko arriskua gutxitzeko, goizeko lehenengo orduan ikuskatzen ziren babeslekuak, muturluzeen gauean zeharreko jarduera-aldia bukatu bezain pronto. Bisita bakoitzaren ostean garbitu egiten ziren babesleku guztiak, hurrengo bisitan babeslekuan topatutako gorotzak berriak izango zirela bermatzeko.

Landan gortzen hautaketa egiten zen eta muturluzeen ezaugarriak zituzten (musketa usaina, esfera txikien fusioz eratutako garun luzearen forma, 15-30 mm-ko luzera) gorotzak soilik gordetzen ziren etanol absolutuan, ontzi indibidualetan.

DNA metabarcoding bidezko espeziearen identifikazioa

Gorotzaren egilea identifikatzeko DNA metabarcoding-a erabili zen, lehenengo saiakerako zorizko 15 gorotz eta bigarren saiakeran bildutako ia gorotz guztiak erabiliz (N = 150), azken hau muturluzearen dieta aztertzeko egindako ikerketa molekular baten parte gisa (4. Kapituluak). DNA *Quiagen Powerfecal DNA kit* (Qiagen Iberia, S.L. Madril) erabiliz erauzi zen, fabrikatzailearen jarraibideak jarraituz. Ondoren, erauzkinetako DNAtik Mitokondrioko c zitokromo oxidasaren I azpiunitatearen genea (COI) PCR bidez amplifikatu zen Euskal Herriko Unibertsitateko UPV/EHU Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorretan (SGIker), Gillet eta kideek (2015) deskribatutako hasleak erabiliz. Laginak purifikatu eta bigarren erreakzio bat egin zen *Illumina Nextera v2 Kit*-a erabiliz, amplifikatutako produktu bakoitza indexatu eta Illuminako lotailuak eransteko. Amplifikazioak *Quiagen Multiplex PCR Kit* protokoloarekin egin ziren, 12,5 µL Quiagen 2X (1X amaieran), 1,25 µL aurreranzko hasle (10 µM; 0,5 µM amaieran), 1,25 µL atzeranzko hasle (10 µM; 0,5 µM amaieran), 8 µL H₂O eta 2 µL DNA erabiliz, amaierako 25 µL-ko bolumenean, 95 °C-tan 15 minutuko aktibazio pausoa 40 zikloz jarraituz (94 °C-tan 30 segundoz desnaturalizatu, 45 °C-tan 45 segundoz suberatu, 72 °C-tan 30 segundoz hedatu) eta amaieran 72 °C-tan 10 minutuko hedapen fasea izanaz.

Anplifikatu ostean, PCR-aren ekoizpenak *MiSeq® Reagent Kit v3 (600 ziklo)* erabiliz *Illumina MiSeq NGS* plataforman (parekatutako muturreko 2x300 bp-ko irakurketen sekuentziak) sekuentziatu ziren, fabrikatzailearen jarraibideak jarraituz. Sekuentziak Euskal Herriko Unibertsitateko UPV/EHU Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorretan (SGIker) egin zen.

USEARCH erabiliz (Edgar, 2010, 2013; Edgar eta Flyvbjerg, 2015) parekatutako muturreko sekuentzia-irakurketak bateratu ziren, hasleen bidez demultiplexeatu, eta adaptadoreen eta hasleen sekuentziak ezabatu; eta CUTADAPT erabiliz (Martin, 2011) sekuentzia-irakurketak kalitatearen eta luzeraren arabera filtratu ziren. Ondoren, sekuentzia-irakurketa bakanak (edo *singletonak*) ezabatu eta gainontzeko sekuentziak USEARCH erabiliz miatu ziren, kimerak topatzeko. Sekuentziak euren artean %97-ko antzekotasun-atalasearen arabera elkartu (ikus Alberdi eta kideak, 2017) eta OTU-ak (*Operational Taxonomic Units*) sortu ziren, UPARSE algoritmoa (Edgar, 2013) erabiliz. Azkenik, Genbank nt datu-basea erabili zen BLAST (<https://blast.ncbi.nlm.nih.gov/Blast.cgi>) erabiliz OTU-ei taxonomia esleitzeko. Clare eta kideei (2013) jarraiki, espezie mailako esleipenak sekuentziek %100-eko antzekotasuna eta gainezartze-balioak eskuratutakoan soilik onartu ziren.

Emaitzak

Bilaketa aktibo arautuaren protokoloan (Queiroz eta kideak, 1998) oinarrituriko aurretiatzko laginketaren bidez ez zen gorotzik topatu Elama errekan, eta bi gorotz soilik topatu ziren Leitzaran ibaian (0,25 gorotz/km). Muturluzeentzako diseinaturiko babeslekuek, aldiz, gorotz kopuru askoz handiagoa topatzea ahalbidetu zuten. Babesleku artifizialekin eginiko lehenengo saiakeran (apirila-ekaina), lehenik muturluzearen presentzia egiaztatu ez zen ibai-tarteetan, babeslekuen %50ak izan zituzten gorotzak, eta hauen agerpena mantendu egin zen denboran zehar (1.A. taula). Gorozkien ratioa handiagoa izan zen Elaman Leitzaranen baino (km eta ikerketako 24,5 *versus* 11,1 gorotz, hurrenez hurren). Bada, lehenengo saiakeran, muturluzeen erabilera intentsiboa zela-eta, babeslekuak ikuskatzeko Elamara egindako bisitak bertan behera utzi behar izan ziren 13 egunen ostean. Babeslekuak astero bisitatzean, gorotzak pilatu egiten ziren eta horrek oztopatu egiten zuen laginen indibidualizazioa. Egoera hori ez zen behatu Leitzaranen.

Babesleku artifizialekin eginiko bigarren saiakeran (urrian), lehenik muturluzearen presentzia egiaztatu zen ibai-tarteetan, hirugarren gaurako babeslekuen %80 izan zen erabilia (1.B. taula). Lehenengo saiakeran bezala, gorozkien ratioa handiagoa izan zen Elaman Leitzaranen baino (km eta ikerketako 10,6 *versus* 4,5 gorotz, hurrenez hurren).

Udaberriko laginetan 12.667.575 DNA sekuentzia gordin lortu ziren gorotzetatik, eta kopuru hau 11.788.479ra murriztu zen, kalitatearen arabera filtratu ostean. Udazkenean, ostera, 10.297.382 DNA sekuentzia gordin lortu ziren, eta filtratu ostean 8.724.646 inguru geratu ziren. Analisi bioinformatikoek eta

1. Taula. Babesleku artifizialen bidez ikertutako erreketan bildutako gorotz kopurua. Ikuskapen bakoitzerako babeslekuak eraiki zirenetik pasatako denbora (T, egunak), muturluzeek bisitatutako babesleku kopurua (P) eta bildutako gorotz kopurua (N) adierazi dira.

A) Lehenengo saiakera. Leitzarari ibaiko babeslekuak 2016ko apirilaren 13an eraiki ziren eta Elama errekekokoak aldiz 2016ko ekainaren 11n.

ikuskapena	Leitzarari (12 babesleku)			Elama (18 babesleku)		
	T	P	N	T	P	N
1	16	7	32	6	13	27
2	28	5	17	11	12	34
3	41	3	7	13	12	42
4	56	9	20			
5	68	4	15			
6	81	10	32			
7	92	8	17			
	Guztira	10	140	13	103	

B) Bigarren saiakera. 24 orduko ikuskatutako laginketak. Elama errekekoko babeslekuak 2016ko urriaren 1ean eraiki ziren eta Leitzarari ibaikoak aldiz 2016ko urriaren 30ean.

	Leitzarari (16 babesleku)			Elama (16 babesleku)		
	T	P	N	T	P	N
1	5	15	1	11	38	
2	6	15	2	14	42	
3	11	24	3	12	32	
	Guztira	13	54	15	112	

BLASTen erabilerak gorotz guztietan Pirinioetako muturluzeari zegozkion DNA-sekuentzia asko zeudela erakutsi zuten, erreferentziazko sekuentziekin %100-eko antzekotasuna zutenak (batazbeste, filtratutako 100.353 sekuentzia-irakurketa lagineko udaberrian, eta 10.153 udazkenean). Lagin bakar bat ere ez zen baztertua izan sekuentzia-irakurketa kopuru baxuagatik edo sekuentzien kalitate txarragatik. Ez zen beste gorotz-egile potentzialik identifikatu.

Eztabaida

Pirinioetako muturluzearen populazioen dentsitatea 4-8 banako/km ingurukoa izan ohi da (Nores eta kideak, 1998), eta muturluze banakoek euren bizi-eremua egunero esploratzen dute (Stone, 1987a). Nahiz eta kaka egiteko ratioa ezezaguna izan, eguneko eta km-ko hamarnaka gorotz egiten dituztela estimatzea ez litzateke gehiegizkoa izango, zeinak, galera ratio handi bat izan

arren, km-ko ehundaka gorotz eskuragarri egotea eragingo lukeen, oinarrizko emariko garai lehorretan behintzat. Hala eta guztiz ere, zenbaki hori ez dator bat ikuskapenetan jaso ohi diren kopuru baxuagoekin (1,7–1,8 eta 5,8 gorotz/km artekoa; Charbonnel eta kideak, 2015). Muturluzeak presente dauden zenbait ibaietan euren gorotzak topatzeko zailtasunaren eraginez ausentzia faltsuak ematen dira gorotzen bilaketa aktiboetan zehar (adb. González-Esteban eta kideak, 2003), eta hori kezka-iturri da 1980tik eskualde zein nazio mailan inbentarioak egiten dituzten administrazioentzako. Azken ikerketek arazo hori zuzentzeko egin dute lan (Charbonnel eta kideak, 2014).

Muturluzearen gorotzak topatzeko probabilitatea ibaien ibilguen osaketa eta egiturekin lotua dagoela dirudi (González-Esteban eta kideak, 2003a), ikertzailearentzako eskura dauden bloke irten ugari dituen ibilguetan handiagoa izanik. Ikerketa honek honako hipotesi hau sostengatzen du: muturluzeek modu azkar eta jarraian erabiliz erantzuten diote egitura irtenen igoera artifizialari , eta horrek espeziea detektatzea errazten du. Hala ere, ikerketa gehiago egin beharko litzateke egitura irten edo babesleku ugari ibaietan muturluzeek kaka-leku artifizialei nola erantzuten dioten aztertzeko.

Bestalde, zaila da ikertutako erreketan babesleku artifizialek erakutsitako eraginkortasunaren diferentziak azaltzea, eta gure laginketa-diseinua ez zen horretarako pentsatu. Lortutako emaitzek Elaman muturluzeen populazio-dentsitate altuago bat (2. Kapituluak; Esnaola eta kideak, 2018b) edo, besterik gabe, muturluzeen erantzun sendoagoa islatu lezake, egitura artifizialen eraikuntzak sortutako azalera unitateko egitura irtenen azalera erlatibo handiagoak eragindakoa. Tokiko gorotz-egite-erratioa faktore askok baldintza dezakeenez, ikertzaileek ez litzukete gorotz kopuruak erabili behar erabaki kuantitatiboak ondorioztatzeko.

Edozein kasutan, hemen aurkezten den laginketa-metodo berriak muturluzeen detektagarritasuna handitzen du, espeziearen presentzia/ausentzia ausentzia faltsuen arrisku txikiagoaz aztertzeko tresna aurreratua eskainiz. Gainera, gorotzen adina finkatzea errazten du, material fresko ugari behar duten metodoen eraginkortasuna hobetuz, hala nola genomika, populazioen genetika, paisaia-genetika, dieta-azterketak, edo ugalketa-analisietan. Bereziki, autore askok azpimarratu izan dute muturluzeen gorotz freskoen bilketa ahalbidetuko lukeen metodo baten beharra (Gillet eta kideak, 2016; Hawlitschek eta kideak, 2018).

Areago, metodo hau erabilterrazak diren material merkeetan dago oinarritua; babeslekuak eraikitzea saio bakarrean erraz ikasi daitekeen zerbait da, eta bi pertsonen artean 4-6 babesleku eraiki daitezke ordubeteetan. Horrez gain, nahiz eta laginketa prozedura honek ikerketa-eremura beti bi bisita egin behar izatea

eskatuko duen —lehenengo babeslekuak finkatzeko eta gero ikuskatzeko—, esan beharra dago gorotzak puntu finkoetan biltzea askoz errazagoa dela —eta denbora gutxiago eskatzen duela— ibai-tarte batean zehar balizko kaka-leku guztiak miatzen ibiltzea baino. Gainera, gorotz fresko ugari eskura izateak *in situ* identifikazioa errazten du oinarrizko trebakuntzaren ostean. Hortaz, honek metodo optimoa dirudi eskualde-mailako ikerketa sinkronikoetarako, bereziki boluntarioak barne-biltzen baditu, beste ugaztun espezie batzuekin erabili izan den bezala, adibidez, Erresuma Batuan *Arvicola amphibius* ur-arratoiarekin (Ur-Arratoiaren Monitorizazio Nazionalerako Programa; (<https://ptes.org/get-involved/surveys/countryside-2/national-water-vole-monitoring-programme/>)).

Babesleku artifizialek, hortaz, muturluzeen gorotz-bilaketa tradizionaletik hobekuntza nabarmena eskaintzen dute, eta izugarri areagotzen dute etorkizunean metodo ez-inbasoreetan oinarrituz galzorian dagoen espezie honen monitorizazioak egiteko aukera. Ikerketa horietan erabili beharreko protokoloa etorkizuneko lanek definitu beharko lukete (laginketa-unitateen kopurua, esfortzua, urtarokotasuna, eta abar).

Eskerrak

Ikerketa hau LIFE IREKIBAI EU proiektuak (LIFE14 NAT/ES/000186) eta Eusko Jaurlaritzak finantzatua izan da. Amaiur Esnaolak Eusko Jaurlaritzako doktoretza aurreko beka batez gozatu du. Autoreak oso eskertuta daude Arturo Elozegi eta Aitor Arrizabalagak lan hau egin ahal izateko eman diguten laguntzarengatik, eta baita Sekuentziazio eta Genotipo Azterketen Unitateak — Genomic Facilities— SGIker (UPV/EHU/ERDF, EU) eman digun babes tekniko eta gizatiarrengatik ere.

Erreferentziak



Erreferentziak

- Abell, R. (2002). Conservation biology for the biodiversity crisis: a freshwater follow-up. *Conservation Biology*, 16(5), 1435-1437.
- Adams, D. C., Collyer, M. L., Kaliontzopoulou, A., eta Sherratt, E. (2017). *Geomorph: Software for geometric morphometric analyses*. R package version 3.0.5. <https://cran.r-project.org/package=geomorph> [2019ko uztailak 3].
- Adrián, M. I., Aguado, R., Costa, J., Delibes, A., eta Domínguez, J. F. (1988). Distribución y alimentación de la nutria (*Lutra lutra*) en la provincia de León. *Tierras de León*, 70, 121-131.
- Alberdi, A., Aizpurua, O., Bohmann, K., Gopalakrishnan, S., Lynggaard, C., Nielsen, M., eta Gilbert, M. T. P. (2019). Promises and pitfalls of using high-throughput sequencing for diet analysis. *Molecular Ecology Resources*, 19(2), 327-348.
- Alberdi, A., Aizpurua, O., Gilbert, M. T. P., eta Bohmann, K. (2018). Scrutinizing key steps for reliable metabarcoding of environmental samples. *Methods in Ecology and Evolution*, 9, 134-147.
- Alberdi, A., Garin, I., Aizpurua, O., eta Aihartza, J. (2012). The foraging ecology of the mountain long-eared bat *Plecotus macrobullaris* revealed with DNA mini-barcodes. *PLoS ONE*, 7(4), e35692.
- Aljanabi, S. M., eta Martinez, I. (1997). Universal and rapid salt-extraction of high quality genomic DNA for PCR-based techniques. *Nucleic Acids Research*, 25, 4692-4693.
- Almenar, D., Aihartza, J., Goiti, U., Salsamendi, E., eta Garin, I. (2013). Hierarchical patch choice by an insectivorous bat through prey availability components. *Behavioral Ecology and Sociobiology*, 67(2), 311-320.
- Álvarez, F., Gijón-Botella, H., Quintero, P., Rey, J., López-Román, F., eta Sanmartiín, M. L. (1994). *Paracuaria hispanica* n. sp. (Nematoda: Acuariidae), a stomach parasite of the pyrenean desman *Galemys pyrenaicus* Geoffr. (Insectivora: Talpidae), with a redefinition of the genus *Paracuaria* Rao, 1951. *Systematic Parasitology*, 29 (2), 105-112.
- Álvarez-Mascato, F. (1990). *Contribución al estudio de la helmintofauna de mamíferos en la Comunidad Autónoma Gallega*. Doctoral dissertation, Universidade de Santiago de Compostela: Galizia.
- Anderson, M. J. (2001). A new method for non-parametric multivariate analysis of variance. *Austral Ecology*, 26, 32-46.

- Ando, H., Setsuko, S., Horikoshi, K., Suzuki, H., Umehara, S., Inoue-Murayama, M., eta Isagi, Y. (2018). Diet analysis by next-generation sequencing indicates the frequent consumption of introduced plants by the critically endangered red-headed wood pigeon (*Columba janthina nitens*) in oceanic island habitats. *Ecology and Evolution*, 3(12), 4057-4069.
- Andriollo, T., Gillet, F., Michaux, J. R., eta Ruedi, M. (2019). The menu varies with metabarcoding practices: A case study with the bat *Plecotus auritus*. *PLoS ONE*, 14(7), 1-17.
- Animal Behaviour Society (2012). Guidelines for the treatment of animals in behavioural research and teaching. *Animal Behaviour*, 83, 301-309.
- Araujo, M. S., Bolnick, D. I., eta Layman, C. A. (2011). The ecological causes of individual specialisation. *Ecology Letters*, 14(9), 948-958.
- Araújo, M. B., Guilhaumon, F., Neto, D. R., Pozo, I., eta Calmaestra, R. (2011). *Biodiversidade e Alterações Climáticas na Península Ibérica/Biodiversidad y Alteraciones Climáticas en la Península Ibérica*. Ministério do Ambiente e Ordenamento do Território & Ministerio de Medio Ambiente y Medio Rural y Marino: Lisboa /Madril. 656 or.
- Argaud, R. (1944). Signification anatomique de la trompe du desman des pyrénées (*Galemys pyrenaicus*). *Mammalia*, 8(1), 1-6.
- Arribas, O. (2004). *Fauna y paisaje de los Pirineos en la Era Glaciar*. Lynx Ediciones – Fundació Territori i Paisatge: Bartzelona. 540 or.
- Arrizabalaga-Escudero, A., Clare, E. L., Salsamendi, E., Alberdi, A., Garin, I., Aihartza, J., eta Goiti, U. (2018). Assessing niche partitioning of co-occurring sibling bat species by DNA metabarcoding. *Molecular Ecology*, 27(5), 1273-1283.
- Arrizabalaga-Escudero, A., Garin, I., García-Mudarra, J. L., Alberdi, A., Aihartza, J., eta Goiti, U. (2015). Trophic requirements beyond foraging habitats: The importance of prey source habitats in bat conservation. *Biological Conservation*, 191, 512-519.
- Arrizabalaga-Escudero, A., Merckx, T., García-Baquero, G., Wahlberg, N., Aizpurua, O., Garin, I., Goiti, U., eta Aihartza, J. (2019). Trait-based functional dietary analysis provides a better insight into the foraging ecology of bats. *Journal of Animal ecology*, 88, 1587-1600.
- Arroita, M., Flores, L., Larrañaga, A., Martínez, A., Martínez-Santos, M., Pereda, O., Ruiz-Romera, E., Solagaistua, L., eta Elosegui, A. (2017). Water abstraction impacts stream ecosystem functioning via wetted-channel contraction. *Freshwater Biology*, 62, 243-257.

- Arzak, A., Jauregi, J. I., Goikoetxea, J., Sánchez, J. M., Aranguren, I., eta Arizaga, J. (2014). Sexado de Mirlos acuáticos *Cinclus cinclus* en Gipuzkoa a partir de la biometría. *Revista Catalana d'Ornitologia*, 30, 54-62.
- Ayllón, D., Almodóvar, A., Nicola, G. G., eta Elvira, B. (2010). Ontogenetic and spatial variations in brown trout habitat selection. *Ecology of Freshwater Fish*, 19, 420-432.
- Aymerich, P. (2004). Els micromamífers semiaquàtics d'Andorra: Distribució i estat de conservació. *Hàbitats*, 9, 26-34.
- Backwell, P. R. Y., O'Hara, P. D., eta Christy, J. H. (1998). Prey availability and selective foraging in shorebirds. *Animal Behaviour*, 55, 1659-1667.
- Barbosa, A. M., Real, R., eta Vargas, J. M. (2009). Transferability of environmental favourability models in geographic space: The case of the Iberian desman (*Galemys pyrenaicus*) in Portugal and Spain. *Ecological Modelling*, 220, 747-754.
- Barja, I., Navarro-Castilla, Á., eta Pérez, L. (2016). Effectiveness and applications of hair traps for the study of wild mammal populations. *Polish Journal of Ecology*, 64(3), 409-420.
- Barnosky, A. D., Matzke, N., Tomiya, S., Wogan, G. O., Swartz, B., Quental, T. B., Marshall, C., McGuire, J. L., Lindsey, T. L., Maguire, K. C., Mersey, B., eta Ferrer, E. A. (2011). Has the Earth's sixth mass extinction already arrived? *Nature*, 471(7336), 51.
- Bauchot, R., Buisseret, C., Leroy, Y., eta Richard, P. B. (1973). L'équipement sensoriel de la trompe du desman des pyrénées (*Galemys pyrenaicus*, Insectivora, Talpidae). *Mammalia*, 37(1), 17-24.
- Baumgärtner, D., eta Rothhaupt, K. O. (2003). Predictive length-dry mass regressions for freshwater invertebrates in a pre-alpine lake littoral. *International Review of Hydrobiology: A Journal Covering all Aspects of Limnology and Marine Biology*, 88, 453-463.
- Benke, A. C., Huryn, A. D., Smock, L. A., eta Wallace, J. B. (1999). Length-mass relationships for freshwater macroinvertebrates in North America with particular reference to the southeastern United States. *Journal of the North American Benthological Society*, 18, 308-343.
- Berry, T. E., Osterrieder, S. K., Murray, D. C., Coghlan, M. L., Richardson, A. J., Grealy, A. K., Stat, M., Bejder, L., eta Bunce, M. (2017). DNA metabarcoding for diet analysis and biodiversity: A case study using the endangered Australian sea lion (*Neophoca cinerea*). *Ecology and Evolution*, 7(14), 5435-5453.

- Bertrand, A. (1992). Stratégies alimentaires du Desman des Pyrénées *Galemys pyrenaicus* dans un cours d'eau des Pyrénées françaises. *Proceedings of the Meeting on the Pyrenean Desman* (13-25. or.). Serviço de Parques, Reservas e Conservação da Natureza – Museu Nacional de Historia Natural: Lisboa, Portugal.
- Biffi, M., Charbonnel, A., Buisson, L., Blanc, F., Némoz, M., & Laffaille, P. (2016). Spatial differences across the French Pyrenees in the use of local habitat by the endangered semi-aquatic Pyrenean desman (*Galemys pyrenaicus*). *Aquatic Conservation: Marine and Freshwater Ecosystems*, 26(4), 761-774.
- Biffi, M., Gillet, F., Laffaille, P., Colas, F., Aulagnier, S., Blanc, F., Galan, M., Tiouchichine, M.-L., Némoz, M., Buisson, L., eta Michaux, J. R. (2017a). Novel insights into the diet of the Pyrenean desman (*Galemys pyrenaicus*) using next-generation sequencing molecular analyses. *Journal of Mammalogy*, 98, 1497-1507.
- Biffi, M., Laffaille, P., eta Buisson, L. (2019). Local habitat preferences of a semi-aquatic mammal, the Pyrenean desman *Galemys pyrenaicus*. *Mammalia*, 84(1), 1-13.
- Biffi, M., Laffaille, P., Jabiol, J., Andre, A., Gillet, F., Lamothe, S., Michaux, J. R., eta Buisson, L. (2017b). Comparison of diet and prey selectivity of the Pyrenean desman and the Eurasian water shrew using next-generation sequencing methods. *Mammalian Biology*, 87, 176-184.
- Bohmann, K., Evans, A., Gilbert, M. T. P., Carvalho, G. R., Creer, S., Knapp, M., Yu, D. W., eta De Bruyn, M. (2014). Environmental DNA for wildlife biology and biodiversity monitoring. *Trends in Ecology & Evolution*, 29(6), 358-367.
- Boletín Oficial de Navarra (1995). Decreto Foral 563/1995, de 27 de noviembre, por el que se incluyen en el Catálogo de Especies Amenazadas de Navarra determinadas especies y subespecies de vertebrados de la fauna silvestre. *Boletín Oficial de Navarra*, 156, 1-8.
- Boletín Oficial del Estado (BOE) (2016). Real Decreto 1/2016, de 8 de enero, por el que se aprueba la revisión de los Planes Hidrológicos de las demarcaciones hidrográficas del Cantábrico Occidental, Guadalquivir, Ceuta, Melilla, Segura y Júcar, y de la parte española de las demarcaciones hidrográficas del Cantábrico Oriental, Miño-Sil, Duero, Tajo, Guadiana y Ebro. *Official Journal of the Spanish Government*, 16, 2972-4301.
- Bolnick, D. I., Amarasekare, P., Araújo, M. S., Bürger, R., Levine, J. M., Novak, M., Rudolf, V. H. W., Shreiber, S. J., Urban, M. C., eta Vasseur, D. A. (2011). Why intraspecific trait variation matters in community ecology. *Trends in Ecology & Evolution*, 26(4), 183-192.

- Bolnick, D. I., Svanbäck, R., Fordyce, J. A., Yang, L. H., Davis, J. M., Hulse, C. D., eta Forister, M. L. (2003). The ecology of individuals: incidence and implications of individual specialization. *The American Naturalist*, 161(1), 1-28.
- Bosch, L., Tejado, M., Miaud, C., Martínez-Solano, I., Salvador, A., García-París, M., Gil, E. R., Marquez, R., Paniagua, C. D., eta Geniez, P. (2009). *Rana pyrenaica*. The IUCN Red List of Threatened Species: e.T19183A8849239. <http://dx.doi.org/10.2305/IUCN.UK.2009.RLTS.T19183A8849239.en> [2019ko abenduak 1].
- Bovee, K. D. (1982). *A guide to stream habitat analysis using the In-stream Flow Incremental Methodology*. US Department of Fisheries and Wildlife Service: Fort Collins, Kolorado.
- Boyce, M. S., Johnson, C. J., Merrill, E. H., Nielsen, S. E., Solberg, E. J., eta van Moorter, B. (2016). Can habitat selection predict abundance? *Journal of Animal Ecology*, 85, 11-20.
- Boyer, S., Wratten, S. D., Holyoake, A., Abdelkrim, J., eta Cruickshank, R. H. (2013). Using next-generation sequencing to analyse the diet of a highly endangered land snail (*Powelliphanta augusta*) feeding on endemic earthworms. *PLoS ONE*, 8(9), e75962.
- Bradford, M. J., eta Heinonen, J. S. (2008). Low flows, instream flow needs and fish ecology in small streams. *Canadian Water Resources Journal*, 33, 165-180.
- Brandon-Mong, G. J., Gan, H. M., Sing, K. W., Lee, P. S., Lim, P. E., eta Wilson, J. J. (2015). DNA metabarcoding of insects and allies: an evaluation of primers and pipelines. *Bulletin of Entomological Research*, 105(6), 717-727.
- Brose, U., Jonsson, T., Berlow, E. L., Warren, P., Banasek-Richter, C., Bersier, L. F., Blanchard, J. L., Brey, T., Carpenter, S. R., Blandenier, M.-F. C., Cushing, L., Dawah, H. A., Dell, T., Edwards, F., Harper-Smith, S., Jacob, U., Ledger, M. E., Martinez, N. D., Memmott, J., Mintenbeck, K., Pinnegar, J. K., Rall, B. C., Rayner, T. S., Reuman, D. C., Ruess, L., Ulrich, W., Williams, R. J., Woodward, G., eta Cohen, J. E. (2006). Consumer-resource body-size relationships in natural food webs. *Ecology*, 87, 2411-2417.
- Brown, A. V., Lyttle, M. M., eta Brown, K. B. (1998). Impacts of gravel mining on gravel bed streams. *Transactions of the American fisheries society*, 127(6), 979-994.
- Buffagni, A., eta Comin, E. (2000). Secondary production of benthic communities at the habitat scale as a tool to assess ecological integrity in mountain streams. *Hydrobiologia*, 422, 183-195.

- Buglione, M., Maselli, V., Rippa, D., De Filippo, G., Trapanese, M., eta Fulgione, D. (2018). A pilot study on the application of DNA metabarcoding for non-invasive diet analysis in the Italian hare. *Mammalian Biology*, 88, 31-42.
- Burgar, J. M., Murray, D. C., Craig, M. D., Haile, J., Houston, J., Stokes, V., eta Bunce, M. (2013). Who's for dinner? High-throughput sequencing reveals bat dietary differentiation in a biodiversity hotspot where prey taxonomy is largely undescribed. *Molecular Ecology*, 23(15), 3605-3617.
- Burgherr, P., eta Meyer, E. I. (1997). Regression analysis of linear body dimensions vs. dry mass in stream macroinvertebrates. *Archiv für Hydrobiologie*, 139, 101-112.
- Bustamante, J. M. (1985). Alimentación del ratonero común (*Buteo buteo*) en el norte de España. *Doñana, Acta Vertebrata*, 12(1), 51-62.
- Cabria, M. T., Rubines, J., Gómez-Moliner, B., eta Zardoya, R. (2006). On the phylogenetic position of a rare Iberian endemic mammal, the Pyrenean desman (*Galemys pyrenaicus*). *Gene*, 375, 1-13.
- Cabrera, A. (1914). *Fauna Ibérica. Mamíferos*. Museo Nacional de las Ciencias Naturales: Madril. 441 or.
- Callejo, A., eta Delibes, M. (1987). Dieta de la nutria *Lutra lutra* (Linnaeus, 1758) en la cuenca del alto Ebro, norte de España. *Miscel-lània Zoològica*, 11, 353-362.
- Cardinale, B. J., Duffy, J. E., Gonzalez, A., Hooper, D. U., Perrings, C., Venail, Narwani, A., Mace, G. M., Tilman, D., Wardle, D. A., Kinzig, A. P., Daily, G. C., Loreau, M., Grace, J. B., Larigauderie, A., Srivastava, D. S., eta Naeem, S. (2012). Biodiversity loss and its impact on humanity. *Nature*, 486(7401), 59.
- Casper, R. M., Jarman, S. N., Gales, N. J., eta Hindell, M. A. (2007). Combining DNA and morphological analyses of faecal samples improves insight into trophic interactions: a case study using a generalist predator. *Marine Biology*, 152(4), 815-825.
- Castián, E., eta Gosálbez, J. (1992). Distribución geográfica y hábitats ocupados por *Galemys pyrenaicus* (Geoffroy, 1811) (Insectívora: Talpidae) en los Pirineos Occidentales. *Acta Vertebrata*, 19(1-2), 37-44.
- Castián, E., eta Gosálbez, J. (1995). Diet of *Galemys pyrenaicus* (Geoffroy, 1811) in the north of the Iberian peninsula. *Netherlands Journal of Zoology*, 45(3-4), 422-430.
- Castro, A. (2009). Evolution and structure of Artikutza, an 80-year-old beech forest in Navarra (northern Spain). *Munibe Ciencias Naturales. Natur Zientziak*, 57, 257-281.
- Catania, K. C. (2006). Olfaction: Underwater 'sniffing' by semi-aquatic mammals. *Nature*, 444(7122), 1024.

- Catania, K. C., Hare, J. F., eta Campbell, K. L. (2008). Water shrews detect movement, shape, and smell to find prey underwater. *Proceedings of the National Academy of Sciences*, 105(2), 571-576.
- Cesar, C. P., eta Frid, C. L. (2012). Benthic disturbance affects intertidal food web dynamics: implications for investigations of ecosystem functioning. *Marine Ecology Progress Series*, 466, 35-41.
- Chao, A., Ma, K. H., eta Hsieh, T. C. (2016). *iNEXT (iNterpolation and EXTrapolation) Online. Program and User's Guide*. http://chao.stat.nthu.edu.tw/wordpress/software_download/ [2019ko uztailak 3].
- Charbonnel, A., Buisson, L., Biffi, M., D'Amico, F., Besnard, A., Aulagnier, S., Blanc, F., Gillet, F., Lacaze, V., Michaux, J. R., Némoz, M., Pagé, C., Sanchez-Perez, J. M., Sauvage, S., eta Laffaille, P. (2015). Integrating hydrological features and genetically validated occurrence data in occupancy modelling of an endemic and endangered semi-aquatic mammal, *Galemys pyrenaicus*, in a Pyrenean catchment. *Biological Conservation*, 184, 182-192.
- Charbonnel A., D'Amico F., Besnard A., Blanc F., Buisson L., Nemoz M., eta Laffaille P. (2014). Spatial replicates as an alternative to temporal replicates for occupancy modelling when surveys are based on linear features of the landscape. *Journal of Applied Ecology*, 51, 1425-1433.
- Charbonnel, A., Laffaille, P., Biffi, M., Blanc, F., Maire, A., Némoz, M., Sanchez-Perez, J. M., Sauvage, S., eta Buisson, L. (2016). Can recent global changes explain the dramatic range contraction of an endangered semi-aquatic mammal species in the French pyrenees? *PLoS ONE*, 11(7), 1-21.
- CHC (2018). *Plan Hidrológico de la parte española de la Demarcación Hidrográfica del Cantábrico Oriental – Documentos Iniciales*. Confederación Hidrográfica del Cantábrico: Obiedo, Asturias. <https://www.chcantabrico.es/planes-hidrologicos-2021-2027/dhc-oriental/documentos-iniciales> [2019ko uztailak 3].
- Chen, C. C., eta Wang, Y. (2010). Relationships between stream habitat and breeding territory length of the Brown Dipper (*Cinclus pallasii*) in Taiwan. *Journal of Ornithology*, 151(1), 87-93.
- Chevenet, F., Dolédec, S., eta Chessel, D. (1994). A fuzzy coding approach for the analysis of long-term ecological data. *Freshwater biology*, 31(3), 295-309.
- Chien, N. (1985). Changes in river regime after the construction of upstream reservoirs. *Earth Surface Processes and Landforms*, 10, 143-159.
- Chiu, M. C., Kuo, M. H., Tzeng, C. S., Yang, C. H., Chen, C. C., eta Sun, Y. H. (2009). Prey selection by breeding Brown Dippers *Cinclus pallasii* in a Taiwanese mountain stream. *Zoological Studies*, 48(6), 761-768.

- Chora, S., eta Quaresma, C. (2001). *Toupeira-de-água, Galemys pyrenaicus: padrões de ocupação espacio-temporal e capacidade de transposição da minihídrica de Fráguas (Rio Paiva, Bacia do Douro)*. Actas del 2º Congreso Nacional de Conservación de la Naturaleza (ICN): Lisboa, Portugal.
- Churchfield, S. (1985). The feeding ecology of the European water shrew. *Mammal Review*, 15(1), 13-21.
- Clare, E. L. (2014). Molecular detection of trophic interactions: emerging trends, distinct advantages, significant considerations and conservation applications. *Evolutionary Applications*, 7(9), 1144-1157.
- Clare, E. L., Barber, B. R., Sweeney, B. W., Hebert, P. D. N., eta Fenton, M. B. (2011). Eating local: influences of habitat on the diet of little brown bats (*Myotis lucifugus*). *Molecular Ecology*, 20(8), 1772-1780.
- Clare, E. L., Fraser, E. E., Braid, H. E., Fenton, M. B., eta Hebert, P. D. (2009). Species on the menu of a generalist predator, the eastern red bat (*Lasiurus borealis*): using a molecular approach to detect arthropod prey. *Molecular Ecology*, 18(11), 2532-2542.
- Clare, E. L., Symondson, W. O., Broders, H., Fabianek, F., Fraser, E. E., MacKenzie, A., Boughen, A., Hamilton, R., Willis, C. K. R., Martinez-Nuñez, F., Menzies, A. K., Norquay, K. J. O., Brigham, M., Poissant, J., Rintoul, J., Barclay, R. M. R., eta Reimer, J. P. (2013). The diet of *Myotis lucifugus* across Canada: assessing foraging quality and diet variability. *Molecular Ecology*, 23(15), 3618-3632.
- Coates, D., Poeu, O., Suntornratnana, U., Nguyen, T. T., eta Viravong, S. (2005). Biodiversity and fisheries in the Mekong River Basin. *Southeast Asian Water Environment 1* (Ed. Ohgaki, S. Fukushi, K., Katayama, H., Satoshi Takizawa, S., eta Polprasert, C.). IWA Publishing: Londres.
- Colangelo, P., Bannikova, A. A., Kryštufek, B., Lebedev, V. S., Annesi, F., Capanna, E., eta Loy, A. (2010). Molecular systematics and evolutionary biogeography of the genus *Talpa* (Soricomorpha: Talpidae). *Molecular Phylogenetics and Evolution*, 55(2), 372-380.
- Council of the European Communities (1992). Council Directive 92/43/EEC of 21 May 1992 on the conservation of natural habitats and of wild fauna and flora. *Official Journal of the European Communities*, L206, 7-50.
- Council of the European Communities (2000). Directive 2000/60/EC of the European Parliament and of the Council of 23 October 2000 establishing a framework for Community action in the field of water policy. *Official Journal of the European Communities*, L327, 1-73.

- Covich, A. P., Ewel, K. C., Hall, R. O., Giller, P. S., Goedkoop, W., eta Merritt, D. M. (2004). Ecosystem services provided by freshwater benthos. *Sustaining biodiversity and ecosystem services in soils and sediments* (Ed. Wall, D. H.), pp 45-72. Island Press: Washington D.C., A.E.B.
- Cowx, I. G., Young, W. O., eta Hellowell, J. M. (1984). The influence of drought on the fish and invertebrate populations of an upland stream in Wales. *Freshwater Biology*, 14(2), 165-177.
- Creer, S., Deiner, K., Frey, S., Porazinska, D., Taberlet, P., Thomas, W. K., Potter, C., eta Bik, H. M. (2016). The ecologist's field guide to sequence-based identification of biodiversity. *Methods in Ecology and Evolution*, 7(9), 1008-1018.
- Croxall, J. P., Butchart, S. H., Lascelles, B. E. N., Stattersfield, A. J., Sullivan, B. E. N., Symes, A., eta Taylor, P. H. I. L. (2012). Seabird conservation status, threats and priority actions: a global assessment. *Bird Conservation International*, 22(1), 1-34.
- Cundari, T. R., Sârbu, C., eta Pop, H. F. (2002). Robust Fuzzy Principal Component Analysis (FPCA). A Comparative Study Concerning Interaction of Carbon-Hydrogen Bonds with Molybdenum-Oxo Bonds. *Journal of chemical information and computer sciences*, 42(6), 1363-1369.
- De Barba, M., Miquel, C., Boyer, F., Mercier, C., Rioux, D., Coissac, E., eta Taberlet, P. (2014). DNA metabarcoding multiplexing and validation of data accuracy for diet assessment: application to omnivorous diet. *Molecular Ecology Resources*, 14(2), 306-323.
- De Crespin, V., eta Usseglio-Polatera, P. (2002). Traits of brown trout prey in relation to habitat characteristics and benthic invertebrate communities. *Journal of Fish Biology*, 60(3), 687-714.
- De Sousa, L. L., Silva, S. M., eta Xavier, R. (2019). DNA metabarcoding in diet studies: Unveiling ecological aspects in aquatic and terrestrial ecosystems. *Environmental DNA*, 1(3), 199-214.
- Deagle, B. E., Chiaradia, A., McInnes, J., eta Jarman, S. N. (2010). Pyrosequencing faecal DNA to determine diet of little penguins: is what goes in what comes out? *Conservation Genetics*, 11(5), 2039-2048.
- Deagle, B. E., Eveson, J. P., eta Jarman, S. N. (2006). Quantification of damage in DNA recovered from highly degraded samples-a case study on DNA in faeces. *Frontiers in Zoology*, 3, 1-11.
